LEHEN HEZKUNTZA

gure eskubideak

Neska-mutilen eskubideei buruzko Hitzarmenean oinarritutako baliabideak

materiales educativos basados en la Convención sobre los Derechos de la Infancia

nuestros derechos

EDUCACIÓN PRIMARIA

ARARTEKO

LEHEN HEZKUNTZA

gure eskubideak



Neska-mutilen eskubideei buruzko Hitzarmenean oinarritutako baliabideak

materiales educativos basados en la Convención sobre los Derechos de la Infancia

nuestros derechos

EDUCACIÓN PRIMARIA

EUSKARAZ

ARARTEKO

OHARRA

Lan hau, ikastetxeetan zabaltzeko eta ahalik eta onurarik handiena ateratzeko argitaratua, Ararteko erakundeak emandako beka baten emaitza da. Hala ere, egindako lana nahiz ariketa-karpeta honen edukia, euskaraz eta gaztelaniaz, beren egileei zor zaie.

Material hauek argitaratuz, beroriek gehiago zabaldu eta erabil daitezen nahi dugu. Beraz, edozein bidez baliatuz ariketak kopiatzeko baimena ematen eta sustatzen dugu, merkataritza helburuetarako izan ezik.

Obraren egilea:

HIP / IPE, Hezkuntza Ikerketa eta Programak, S.M.
Larrauri kalea, 1A – 3, 7 eta 8. dptoak.
48160 DERIO (BIZKAIA)
Tel. 94 - 454 02 37
Fax: 94 - 454 01 99
e-mail: ipesl.discover@euskalnet.net

Lan taldearen koordinatzailea:

Fernando Díez Ruiz

Lan taldea:

Jasone Aldekoa Arana
Begoña Garamendi Ibarra
Alicia Gil Miguel
Irene González Mendizabal
Maria Luisa Lupardo Camino
Olga Maiz Olabarri

Euskarazko bertsioaren arduraduna:

Joseba Ibarra Bustinza

Eskerrak:

Fermín Barceló Galdácano jaunari, bere ekarpen eta iradokizunengatik eta material hauek zehatz-mehatz gainbegiratzeagatik.

Amaia Pagola Iraolari eta Ines Gandarias Lekuonari euskarazko bertsioan emandako laguntzagatik.

Eta, orobat, Ararteko erakundean aldez edo moldez obra hau hobetzen lagundu duten guztiei.

© ARARTEKO

© IPE, S.L.- Egileak

Diseinu eta Fotokonpasaketa: EPS
Inprimaketa: Gráficas Santamaría
L.G.: VI-237/01

AURKIBIDE OROKORRA

METODOLOGIAREN AZALPENA 5

PROGRAMA NOLA ERABILI 7

TALDE DINAMIKAK 11

AZKEN EBALUAZIOA 17

BIBLIOGRAFIA 23

- MATERIAL OSAGARRIAK 27
- IRAKURGAIAK 29
- IKUS-ENTZUNEZKO BITARTEKOAK 29
- WEB ORRIAK 30

UNITATEAK

1. UNITATEA. HAURROK ERE BADITUGU ESKUBIDEAK 35
2. UNITATEA. NOR OTE NAIZ NI? 47
3. UNITATEA. PERTSONA GARRANTZITSUA NAIZ 57
4. UNITATEA. NI DESBERDINA NAIZ, NI BEREZIA NAIZ 67
5. UNITATEA. ELKARRI ENTZUTEN 77
6. UNITATEA. NORK BERE IRITZIAK AZALTZEN JAKITEA 87
7. UNITATEA. NIRE OSASUNA GARRANTZITSUA DA 97
8. UNITATEA. BURUTIK SANO OTE ZAUDE? 109
9. UNITATEA. ERABAKIAK HARTZEN IKASTEA 121
10. UNITATEA. GATAZKAK ABERASTU EGITEN GAITU 131
11. UNITATEA. HITZ EGINEZ KONPONDUKO GARA 141

12. UNITATEA. ASERTIBOA NAIZ: ZURE ESKUBIDEAK ERRESPETATZEN DITUT ETA NEUREAK DEFENDATZEN 151

13. UNITATEA. DENOK DUGU INTIMITATE-ESKUBIDEA 163

14. UNITATEA. DROGAK DIRELA ETA 175

15. UNITATEA. LAGUNAK AUKERATZEN 185

16. UNITATEA. FAMILIA GUZTIAK EZ DIRA NIREA BEZALAKOAK 195

17. UNITATEA. ETXEAN DENOK GARA BAT 207

18. UNITATEA. NON BIZI NAIZ? 217

19. UNITATEA. DENOK IKAS DEZAKEGU 227

20. UNITATEA. ESKOLAKO LAGUNAK: DENOK BERDINAK, DENOK DESBERDINAK 237

21. UNITATEA. NESKA NAIZEN HAU ETA MUTIL ZAREN HORI EZBERDINAK GARA 247

22. UNITATEA. BATZUETAN EZ GAITUZTE ONDO TRATATZEN 257

23. UNITATEA. IKASGELAN FAMILIA BAT OSATZEN DUGU 267

24. UNITATEA. TALDE BATEKO PARTAIDE 277

25. UNITATEA. AISIALDIA ONDO PASATZEKO 287

26. UNITATEA. INFORMAZIOZ INGURATURIK 297

27. UNITATEA. GURE PLANETA ZAINTZEN 309

28. UNITATEA. HERRI EZBERDINEK OSATZEN DUTE MUNDUA 319

29. UNITATEA. GATAZKAK MUNDUAN ZEHAR 333

30. UNITATEA. EZ DAGO ESKUBIDERIK! 345

ERANSKINAK 357

METODOLOGIAREN AZALPENA

Aurkezten dizugun hezkuntza-material hau Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmena deritzon dokumentuan oinarriturik dago. Bere helburu nagusia mundu osoan onarturik dauden baloreak irakastea da, eta ikasle, irakasle eta familiak horietaz oharraraztea. Balore horiek herri eta nazioen arteko elkarbizitza baketsurako beharrezkoak dira eta gizarte libre, demokratiko eta anitzaren oinarri eta zutabe.

Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmena hamar urtetan barna prestatu zen (1979/1989) eta bere xedea mundu osoko haurren eskubideak (haurrek izan behar dituzten oinarrizko giza eskubideak) babestea eta bermatzea da. Izan ere, eta giza eskubideetarako tresna den aldetik, historia osoan atxikimendu gehien jaso dituen dokumentua da. Bere sorreran, hasieratik bertatik Nazio Batuetako Batzar Orokorrak 1989ko azaroaren 20an onartu zuen arte, gizarte, erlijio eta kultura guztietako ordezkariek hartu zuten parte eta, beraz, mundu osorako balio du. 191 herrialdetatik bi besterik ez dira oraindik sinatu ez dutenak.

Garrantzi handikoa da Hitzarmenaren aplikazioa, honako arrazoi hauengatik:

- Haurrak gizakiak dira.
- Haurren garapen osasuntsua funtsezkoa da eta nahitaezkoa edozein gizarteren geroko ongizaterako.
- Haurra jaiotzean zeharo ezgauza eta menpekoa da.
- Haurrengan izaten dute eraginik handiena gobernuek hartutako neurriek.
- Haurren iritzi eta ikuspuntuak oso gutxitan entzuten dira eta gutxiagotan kontuan hartzen prozesu politikoan.
- Haurrengan ondorio argiak izaten dituzte gizarte-aldaketek.
- Haurrei behar bezalako arreta ematen ez dion gizarte batentzat kostu ekonomikoa ikaragarri handia izaten da.
- Haurrentzat oso kaltegarria izan da mundu osoan ageri den hirietarako joera.

Nahikoa da UNICEF-eko web orriko (http://w.w.w.unicef.org) zenbait datu ikustea munduko ume askoren egoera larri eta negargarriaz ohartzeko:

- 5 urte edo gutxiagoko 12 milioi haur hiltzen dira urtero munduan.
- 130 milioi bat haurrek ez du lehen mailako hezkuntzarik jasotzen garapen bidean diren herrialdeetan; gehienak neskak dira.
- 160 milioi bat umek desnutrizio larri edo ertaina nozitzen du.

- 1.400 milioi bat umek ez dauka ur edangarririk eskueran eta 2.700 milioik saneamendu egokia falta du.
- 250 milioi bat haurrek lanen bat egiten du.

Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmena 41 artikulutan zehaztuta dago eta 18 urtetik beherako haur guztiei dagokie. 41 artikuluotan nazioarteko lege gisa xedatzen da *estatu kideek* segurtatu egin behar dutela haur guztiek izango dituztela babes- eta laguntza-neurri bereziak, zenbait zerbitzutara sarbide izango dutela, hala nola, hezkuntzara eta osasun zerbitzuetara, bere nortasun, trebetasun eta gaitasunak osoki garatu ahal izango dituztela, zoriontasun-, elkar ulertze- eta maitasun-giroan haziko direla eta beren eskubideak lortzeko eta prozesuan era erraz eta aktiboan parte hartzeko informazioa jasoko dutela.

Hezkuntza-material hau Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmena lantzeko sortu dugu. 30 unitatetan partitua da eta unitateok Hitzarmenak dituen 41 artikuluei dagozkie. Unitateen xedea 9tik 12 urtera bitarteko ikasleei mundu osoan onarturik dauden baloreak irakastea da. Balore horiek gizarte libre, demokratiko eta anitzaren oinarri eta zutabe dira eta herri eta nazioen arteko elkarbizitza baketsurako nahitaezkoak.

Obra hau burutzeaz hezkuntza munduan dabiltzan 8 profesional arduratu dira eta hiru alde desberdinetatik heldu diote eginkizunari. Pertsonarenganako hurbilketan hiru maila bereiziko ditugu, beraz:

1. *Mikromaila*, *"ni-a"* izendatuko duguna: gutako bakoitzaren inguru pertsonalaz arduratzen da hasiera batean. Pertsonaren baitan zentratutako ikuspuntua da eta horrek geure buruaren eta besteen balorazio pertsonala errazten digu.
2. *Erdimaila*, *"Ingurua"* deituko duguna: norberaren analisiaren ondoren, hurbilen dugun inguru ezagunari ekingo diogu.
3. Azkenik, *Makromaila* edo *"Mundua"*: maila honetako gaiek ikuspegi orokorragoa eskaintzen diote ikasleari, munduko beste toki batzuetako errealitate eta gatazkak erakutsiz. Geografikoki urrun dauden arren, gizaki garen aldetik eragin zuzen-zuzena dute gugan.

Hurbilketa hirukoitz hau berariaz pentsatua eta sortua da, eta bere xede nagusia ikasleek euren eskubideak zeintzuk diren jakitea da, mundu guztiko ume guztien eskubideak, alegia. Gaia era horretara aztertuz, ikasleak aiseago ulertzen ditu gatazkak, haien barruan koka dezake bere burua, zentzua hartzen du eta horrela jasotako esperientziak bizitzaren beste arloetara hedatzen ditu.

Obrak barne-egitura honi jarraitu badio ere, aipatutako hiru esparruak (*ni*-a, *ingurua* eta *mundua*) hanhemenka ageri dira unitate bakoitzeko jardueretan, hiru mailak ia-ia obra osoan zehar nahasiz. Horrek halako itxura heterogeneoa ematen dio obrari.

Azkenik, zera nabarmendu behar da: hezkuntza-material hau 3 ikasturtetan zehar lantzeko pentsatua da (Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko 2. mailatik hirugarren zikloko 2. mailara arte). 30 unitate hauek sistematikoki landuz ohartu ahal izango gara ikasle, irakasle eta senitartekook gizarte zuzenago bat lortzeko Hitzarmenaren artikuluen garapenak duen garrantziaz. Horixe da, izan ere, obra honen helburua.

PROGRAMA NOLA ERABILI

Hezkuntza-material hau prestatzerakoan hartu dugun helburua hiru baldintza hauek beteko dituen programa bat lortzea izan da:

- Baliagarria izan beharko luke, erabiltzen erraza eta irakasleei prestakuntza handirik eskatzen ez diena.
- Aukera eman beharko luke maila eta era desberdinetako erabilerak egin ahal izateko, lortu nahi den sakontasun mailaren arabera. Irakaskuntzarako ez luke zama izan behar.
- Barne hartu beharko lituzke eta partaide sentiarazi senitartea eta eskola-komunitatea oro har.

Programa hau hezkuntzarako lanabes egokia izatea nahi genuke eta, hartarako, karpeta batean bildu ditugu zenbait baliabide, irakasleek nahiz ikasle eta senideek Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmenaren printzipioak ezagutu eta landu ahal izan ditzaten zenbait ariketa praktikoren bidez.

Unitateen edukiak, proposatzen diren jarduerak, ebaluazioak, gurasoentzako gutunak, etab. urrats metodologikoak dira gizarte hobe bateranzko bidean Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmenak duen garrantziaz jabetzeko.

Garrantzitsua deritzogu gai hau oro har aztertzen saiatzeari, osotasunean, ikasleek mezua bide desberdinetatik jaso ahal izan dezaten, horrela mezua bera ere garbikiago helduko baitzaie; izan ere, ikastetxearen esparruko edozein jakintzagaitan lantzekoak dira unitateok. Halaber, guraso eta senideen laguntza ere eskatzen da, haurrarentzat hain garrantzitsua den gai honetan familia eta eskolaren arteko hurbilketa ezinbestekoa baita.

Esangurazko ikaskuntza eta transferentzia dira lan honetako jarduera guztien bi zutabe nagusiak, ikasleak ikasgaia bereganatzeko erakarri egin behar baitu bere inguruko bizimoduan aurki ditzakeen eredu eta egoera desberdinetatik. Hartarako, ahaleginak egin ditugu proposatzen diren jarduerak adin honetako haurrentzat hurbileko adibide eta egoerak izan daitezen.

Programa hau Euskal Erkidegoko ikasleentzat pentsatua da, **9 urtetik 12ra bitarteko** haurrekin lantzeko bereziki. Euskaraz eta gaztelaniaz egin da.

Materiala **30 unitatek** osatzen dute eta, hortaz, hiru ikasturtetan zehar erabil daiteke. Hala ere, jarduera kopuruari esker (3 jarduera unitateko), gai batean edo bestean sakontzeko aukera ematen du, irakasleak hala nahi izanez gero. Material hauen aniztasunari esker, irakasleak zein jarduera burutu nahi duen erabaki dezake malgutasun osoz, 90 jardueraren artean. Horrela, irakasleak ikasleen arabera ere aukera ditzake jarduerak.

Hezkuntza-material hau **hezkuntzarako zehar-ardatz** modura azter daiteke **giza-eskubide eta bake-hezkuntza** arloan. Gaia arlo horretan bete-betean sartzen baldin bada ere, bere baitan hartzen dituen

gaiak eta aniztasun-izaera kontuan izanik, zehar lerro guzti-guztiak ukitzen ditu era batera edo bestera (osasun-hezkuntza, berdintasunerako hezkuntza...); zentzu horretan, beraz, material hau globalizatzailea da. Bestalde, ikasgeletako errealitate desberdinek eztabaida baten erdian kokatzen gaituzte: zer dugun eta zer nahi genukeen. Material honen malgutasunari esker, askotariko proposamenak egin daitezke: ikuspuntu desberdinetatik aplika daiteke eta ikastetxeetako egoera desberdinetara irekita dago.

Astean ordubetez lantzea gomendatzen da batez beste. Gure ustez, gai hauen balioa denboran egiten den lanketa sistematikoan datza, gure kasuan ikasturtean zehar. Beraz, garrantzitsuena jarraitasunez egitea da, eten handirik gabe. Ezin genezake emaitza nabarmenik espero hezkuntza-materialak txitean-pitean erabiltzen baditugu. Noizean behin barik, sistematikoki eta apurka-apurka erabiliz lortu ahal izango dugu ikasleen jarrerak aldatzea edota baloreak bereganatzea.

Umeen eskubideen hezkuntza ezin daiteke eduki zehatz batzuen bitartez irakatsi; ikaslearen osabetezko garapena lortuko bada, hezkuntza-esperientzia konkretuak eta gizarte-trebetasunak landu beharko dira ikasgelan.

Material hauen egitura honako hau da:

1.- Unitateak: guztira 30 unitate dira, 3 urtetan zehar garatzeko. Unitate bakoitzak atalok ditu:

- *Izenburua:* unitatearen izena garatuko den edukiarekin lotuta dago.
- *Ideia nagusia:* unitatearen edukiaren laburpena ematen da.
- *Helburuak:* unitatean lortu nahi diren helburuak.
- *Unitatearen garapena:* irakasleak behar dituen argibideak izango ditu unitatearen garrantziaz eta haren garapenaz, era horretara lanari ziurtasun osoz ekin diezaion.
- *Zer landu gai honen inguruan:* atal honetan iradokizunak agertuko dira, irakasleek ikastetxean eta etxekoek etxeetan landu dezaketenaren inguruan.

Unitate guztietan **jarduera-fitxak** ageri dira. Jarduerak ikasleen parte-hartze zuzenaz burutuko dira ikasgelan, unitatearen edukia finkatzeko asmoz. Hiru jarduera proposatzen dira unitate bakoitzean, irakasleak aukera zabalagoa izan dezan.

Jarduera bakoitzaren egitura hauxe da:

- *Izenburua eta jardueraren edukia:* jardueren izenburuak erakargarri eta iradokitzaileak izaten dira eta edukiak ikasleen garapen-adinerako egokiak.
- *Jardueraren helburu nagusiak eta helburu zehatzak:* unitatean lortu nahi diren helburuak, nagusiak eta zehatzak, zehazten dira.
- *Aurretiko prestaketa:* zenbait gomendio ematen dira, hala nola, jarduera non burutu beharko litzatekeen, zein baliabide beharko diren eta gutxi gorabeherako iraupena.
- *Jarduera nola burutu:* jarduera arrakastatsua izan dadin zer-nolako urratsak jarraitu behar diren azaltzen da, zehatz-mehatz, jarduera egiterakoan irakasleak inolako zailtasunik izan ez dezan.
- *Curriculumaren arloekiko loturak:* unitatea lantzeko, zein jarduera zein arlotan erabil daitekeen zehazten da.
- *Etxekoentzako fitxa:* unitate bakoitzean senitartekoei zuzendutako fitxa bat ageri da. Ikasgelan landutako gaiaren berri ematea eta etxekoak ere partaide sentiaraztea da fitxa horren xedea. Senideek, gurasoek, ez dute aparteko prestakuntzarik behar; nahikoa du hezkuntza-proposamen horretan elkarlanean aritu nahi izatea. Ezinbestekoa da elkarlana gaia bere

osotasunean landuko bada. Halaber, gurasoen partaidetza behar-beharrezkoa da ikasleak etxean ere errefortzua aurki dezan eta heltzen zaizkion mezuak elkarren kontrakoak izan ez daitezen.

- *Unitatearen balorazioa:* unitatea amaitutakoan, irakasleak balorazio orri bat aurkituko du. Orri hori ikasleekin erabil daiteke ea hasieran ezarri ziren helburuak lortu direnentz baloratzeko.

2.- Bibliografia: materialak gaurkotutako bibliografia du sakondu edo iturrietara jo nahi duten irakasleentzat.

3.- Material osagarriak: gaiari buruz aipatu behar diren funtsezko materialen zerrenda bat ere ematen dugu. Honela banatu ditugu:

- *Kontsulta-liburuak eta hezkuntza-materialak.*
- *Irakurgaiak.*
- *Ikus-entzunezko baliabideak.*
- *Web orriak.*

4.- Talde dinamikak: zenbait talde dinamikari buruzko informazio orriek argibideak ematen dizkiete irakasleei talde dinamikak gelan era eraginkorrean burutzerakoan. Hurrengo dinamikei buruzko argibideak ematen dira:

- *Taldean nola eztabaidatu.*
- *Modelatze edo eredu bidezko ikasketa.*
- *Role playing edo rol jokoa.*
- *Auziaren metodoa.*
- *Taldekako ikasketak.*
- *Hezitzaileak zein paper bete behar du taldekako ikasketa bitartean?*
- *Ikus-entzunezko metodoak.*

5.- Azken ebaluazioa: amaitzeko, ikasleek ikaskuntza amaitzen dutenerako, azken ebaluazio bat gehitu dugu bi zatitan partitua:

- *Bizipenetan oinarritutako jarduera praktikoak.*
- *Galdekizun orokorra.*

TALDE DINAMIKAK

1.- TALDEAN EZTABAIDATU

EZTABAIDA BATEN HASIERA ETA AMAIERA

Proiektu honetan ageri den tresna garrantzitsu bat, besteak beste, taldean egiteko eztabaidak dira. Berebiziko balioa dute ikastaldean elkarreragina sustatzeko eta motibazioa pizteko; halaber, tresna ezin egokiagoa da jarduera bat amaitzeko. Eztabaidaren hasieran egin itzazu galdera errazak gaia berrikusteko. Eztabaida zuzentzean, ohartaraz itzazu ikasleak hizpidea aldatzen edo amaitzen den bakoitzean. Adibidez, honen antzerako zerbait esan dezakezu: ". . . . . –ri emango diot hitza eta geroago . . . . . mintzatuko da".

IKASLEEK EZTABAIDETAN ZAINDU BEHARREKO ARAUAK

Eztabaidak zentzua izan dezan eta lasaitasun giroan egikaritu ahal izan dadin funtsezkoa da oinarrizko arau batzuk ezartzea. Honako arau hauek agerian jar daitezke, ikasleek uneoro gogoan izan ditzaten:

- Parte hartu nahi duzunean, altxa ezazu eskua eta itxaron zure txanda izan arte.
- Batek baino ez du hitz egingo aldi berean. Ez eten besteen hizketaldia.
- Entzun iezaiezu zeure ikaskideei. Ondo entzuteko saiatu beharra dago. Arretaz entzuteak ahalegina eskatzen du.
- Besteek ere euren iritzi eta sentimenduak adierazteko duten eskubidea errespeta ezazu.
- Begirunez mintzatu: erantzunek urguri eta atseginak izan beharko dute. Ez da onartuko inor arbuiatzea.
- Beste pertsonen bizitza pribatua errespeta ezazu. Ez aipatu inoren informazio pertsonalik eta halako galderarik ere ez egin.
- Zenbait galderaren aurrean zilegi da erantzunik ez ematea ere.

Arauoi buruz hitz egitean, pertsona orok bizitza pribatua izateko duen eskubidea nabarmentzea komeni da. Egin behar ez diren galdera ereduak ere eman daitezke. Bestalde, on litzateke eztabaida guztietan arauak betetzeari garrantzi berezia ematea. Adibidez, honen antzerako zerbait esan daiteke: "Orain . . . . . mintzatuko da, berak jaso baitu eskua". Probetxugarria izan daiteke ikasleek eurek ere eztabaida hobetzeko asmotan beste arau batzuk proposatzea.

NOLA LAGUNDU EZTABAIDA ARRAKASTATSUA IZAN DADIN

Hausnarketa-eztabaidak sarriago sortuko dira iradokizun hauek gogoan izanez gero:

- Berrikus itzazu proiektu honetan proposatzen diren jardueretako galderak. Eztabaida behea jotzen hasiz gero, ekin iezaiezu egin daitezkeen galdera zirikagarriei bereziki.
- "Itxaronaldia"-ren balioa azpimarratu (pentsatu hitz egiten hasi baino lehen). Komenigarria izan liteke, inork hitz egiten hasi ordurako, denek gaiaz gogoeta egiteko aukera izatea.
- Antola ezazu bateratze saioa, oinarrizko arauak bete daitezela behin eta berriz esanez, errefortzu positiboa erabiliz eta feedback-eredu baikorra eskainiz.

Buka ezazu ikasitakoaren sintesi-laburpena eginez. Eztabaidaren ondoren, ikasleak esandakoaz eta ikasitakoaz gogoeta egin dezake. Ahoz edota idatziz egin daiteke.

2.- MODELATZEA EDO EREDU BIDEZKO IKASKETA

Funtsezko teknika hau gizarte-trebetasunak eta autoafirmazio-jarrerak lantzeko teknikarik erabiliena dugu. Erakusketa ere esan ohi zaio. Modelatze prozedura behatuzko ikaskuntzan oinarritzen da, hots, ikasi behar diren jokabideen eredu bat (edo batzuk) erakutsi eta eredua behatuz ikasi behar du haurrak. Beraz, ereduaren antzezpena baino ez da, haurrak ikasiko duen trebetasunaren aplikazio zuzenaren eredua aurkeztea. Eredu-adierazpenotan osagai guzti-guztiak aurkeztu behar dira, hau da, haurrak saiatu beharreko jokabide berri horren elementu guztiak erakutsi, ahozkoak eta ahozkoak ez direnak.

Eskolaren esparruan erabiliko diren eredu nagusiak hauek dira: irakaslea, ikaskideak, grabaturiko ereduak (bideo eta kaseteak), argazkiak, etab. Familiaren esparruan senide guztiak sartzen ditugu: anai-arrebak, gurasoak eta beste senideak.

Eredu bidezko ikaskuntzak eragin nabariagoa du puntu hauek betez gero:

- Eredutzat hartzen den pertsonaren ezaugarriak eta behatzaileak dituenak antzekoak izatea (adina, interesak...), horrela identifikatuago sentituko baita.
- Eredu bat baino gehiago erabiltzea.
- Eredu-adierazpena edo antzezpen hori argia izatea, xehetasunak emanda.
- Errefortzu positiboa erabiltzea (laudorio, goraipamen eta gorazarreak...), bai jokaera erakusten duen ereduarekiko, bai jokaera hori imitatzen duenarekiko.

3.- ROLE PLAYING EDO ROLEN JOKOA

Rolen jokoan aldez aurretik esleitutako rolak antzeztuz ikasten dute ikasleek. Ikasleen parte-hartze aktiboa behar da, beraz. Jolas antzeko estiloa erabiliz, jarduera hauek benetako egoeren eredu sinplifikatuak dira. Giro lasaian jardunez gero, rol jokoak aukera paregabea ematen dio ikasleari; bestela, lotsarren edo bizitza errealean izan ditzakeen ondorioen beldurrez, onartuko ez lituzkeen paperak bere egiteko edo landuko ez lituzkeen trebetasunak lantzeko.

ABANTAILAK:

- Ikusleen jakin-mina pizten du gaiarekiko.
- Esku hartzera bultzatzen du.

- Ondorengo eztabaida edo elkarrizketa errazten du jarrera desberdinak aurkeztean (errazagoa da pertsonaia batak edo besteak aurkeztu duen argudioaren inguruan berba egitea "ezereza"-ri buruz baino).

KONTUAN IZAN BEHARREKOAK:

- Role playing-aren xedea ez da gai edo egoera bati buruzko eduki zehatzak ematea, jakin-mina piztea baizik, eztabaida sustatzea, jarrerak aztertzea, etab. Bere eginkizuna, izan ere, gaia era atseginean aurkeztea da, horrela, interesa piztuz, geroago sakontzen lagun dezan.
- Role-playing-ean ez dago gidoirik, ez da aurretiaz ezartzen pertsonaia bakoitzak noiz hitz egingo eta zer esango duen. Bat-bateko saioa da.

PROZEDURA

Gaia aukeratu eta gero, kokatu egingo da egoera baten barruan. Ondoren, irizpide edo pertsonaiak zehaztu behar dira eta "edukiak" emango zaizkie. Antzezpenaren entseguak egingo dira paperak eta gaia doitzeko, egokitzeko eta, behar izanez gero, zuzentzeko. Azkenik, antzeztu egingo da.

EKIDIN BEHARREKO ARRISKUAK

- Antzerki emanaldi batekin nahastea eta, gaiaz eztabaidatu beharrean, aktoreen edo janzkeren egokitasunaz eztabaidatzea. Hori saihesteko, jesarrita egingo dute (antzerki lanetan izan ohi diren sarrera edo irteerarik gabe) eta koordinatzailea saiatu egingo da emanaldi bihur ez dadin.
- Zenbait paper egiteko pertsona "egokiegiak" aukeratzea. Hartarako, saia zaitez ikasleek klasean dituzten estereotipoak manten ez daitezen.
- Gai nagusia bigarren mailako gaien artean galtzea. Hau ekiditeko egiten da, hain zuzen ere, entsegua edo aldez aurretiko saioa.

4.- AUZIAREN METODOA

Funtsean, eztabaidatu nahi den auzia laburki aurkeztea da.

Horren bidez zera lortu nahi da:

- Kasu jakin baten soluzio bila hasita, arazoez jabetzea eta ohartzea.
- Gaitasun kritikoa heztea, parte-hartze ugaria lortzea eta nork bere ideiak azalduz eta inorenak entzunez eztabaidatzen ikastea.
- Oso ikasbide motibagarria da eta partaidetza handikoa, ikasleak auziaren barrenean sarrarazten baititu. Ondorioz, egoera edo pertsonaiaren batekin identifikatuz, auziaren konponbidea barrutik aurkitzen saiatuko dira.

METODOLOGIA

Lehenengo eta behin, kasua hautatu behar da. Kasuak bi baldintza bete beharko lituzke: batetik, ez luke korapilotsua izan behar, hau da, auzi bakarra azaldu beharko luke; bestetik, arazoa ulertzeko eta soluzioa aurkitzeko behar diren xehetasun nagusi guztiak agertu beharko lukete.

Zenbat eta hurbilago egon ikasleen adin eta interesetatik, hainbat motibagarriagoa izango da beraientzat. Hurbiltasuna bilatzeko, ikasleei eska dakieke euren arazorik handiena era anonimoan eta xehetasun guztiak emanez idazteko, taldean azter dadin.

Behin kasua hautatuz gero, idatzi egingo da. On litzateke idazlanarekin batera galdekizun bat ere ematea, galdera-erantzunen bidez gaia zehazten eta eztabaida zedarritzen laguntzeko.

Irakasleak zeregina aurkeztu eta taldetan bananduko du ikastaldea. Talde bakoitzean, eztabaidatu ondoren, idatziz jasoko dira ondorioak.

Azkenean ondorio guztiak bateratuko dira eta elkarrizketa bat hasiko da denon partaidetzaz.

ARRISKUAK

- Zenbaitetan oso zaila izaten da ikasle guztien gustuko kasu bat aurkitzea.
- Talde dinamika guztietan bezala, denbora behar da. Oso garrantzitsua da taldekideak auziaren barrenean sartzea eta konponbidea beraiek ematea, hots, irakaslearen eragin zuzenik gabe. Irakasleak ideiak argitzen lagun dezake zenbait galderari erantzunez, etab., baina ikasleek eurek bilatu behar dute auziaren soluziobidea.

5.-TALDEKAKO IKASKETA

HELBURUAK

Talde lanaren helburu nagusia lankidetza sustatzea da. Neska-mutilek taldean lan eginez gero, indartu egiten dituzte autoestimua, erantzukizuna eta norberarenganako begirunea eta konfiantza. Ezaugarri horiek guztiak lantzeak berebiziko garrantzia du tratu txarren prebentzio-programa batean, ezaugarriok dituzten pertsonek nekez garatuko baitute halako jokaerarik.

TALDEEN ERAKETA ETA HASIERA

Lan-taldeak eratzerakoan eta taldekako ikasketa hasterakoan, irizpideok erabil ditzakezu:

- Taldeek txikiak izan behar dute (hiru edo lau ikasle taldeko, bost gehien jota), jardueraren arabera. Lagun bat aukeratzen utz daiteke eta, behin bikoteak eginik, taldeak eratu. Nolanahi ere ikasleekin negoziatzea komeni da, nahikoa eginkizun zaila izaten baita eta, hein handi batean behintzat, lanaren burutzapena baldintzatuko baitu.
- Taldeen osaera heterogeneoa izanen da, zaletasun, interes, trebezia, gaitasun eta ikasteko era desberdinak dituzten neska-mutilez osatuak. Ez da komeni, ordea, irizpide hau muturreraino eramatea, zeharo desberdinak izateak lana oztopa baitezake.
- Taldearen barruan funtsezkoa da lana ondo antolatzea. Zenbait irizpide ezarri behar dira aldez aurretik, hala nola, zereginak (nork zer egingo duen), epeak, lanaren nondik norakoak, errespetatu behar diren oinarrizko jarrerak... Arauak irakasleak ezar ditzake; bestela, ikasleek eurek hausnarketa bat egin ondoren, taldean lan egiteko arauak proposatuko dituzte. Arauak agerian jarriko dira, talde osoarentzat ikusgai.
- Taldean behar diren rolen banaketa egin behar da (koordinatzaile, idazkari, bozeramaile, etab.) eta hautaketa prozesua zehaztu. Aukera desberdinak daude: taldekideek bozkatzea, zenbakiak ipini taldekideei rol guztietan txandaka daitezen edo rol bakoitzerako boluntarioak izatea. Dena dela, komenigarria da denek era guztietako rolak betetzea.
- Oso garrantzitsua da zereginak banatzea. Bakoitzak lanaren zati bat egin beharko du eta, era berean, besteen beharra izatea lana burutzeko. Horrela lankidetzaren zentzua indartuko da, baita norberaren erantzukizuna ere, lan egin behar denean ezkutatzen ibili barik.

6.- IKUS-ENTZUNEZKO METODOAK

Nork bere burua eta bere ikaskideak bideoan ikustea oso ikasbide interesgarri eta positiboa da. Bideo-grabazioaren bidez ikasleak garatu egin dezake, esperimentatu, behatu eta taldearekiko elkarreraginaren bat-bateko feedback bat ere jaso dezake.

BIDEOAN GRABATZEKO AHOLKUAK

- Ikas ezazu erabilera eta ezagutu ekipoa grabatzen hasi ordurako.
- Har ezazu laguntzaile bat, grabatzen ari zaren bitartean jarduera zuzendu eta jarraibideak eman nahi izango baitituzu.
- Hasi grabatzen kamera urrun samar jarriz. Apurka-apurka gerturatuz joan, baina grabazioa dela-eta jarduera eten gabe.

GRABATZERAKOAN KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

- Hasi aurretik, atzealdera begiratu eta argitasun egokia dagoela ziurtatu edo ez dagoela irudiak islatzen dituen leiho edo ispilurik.
- Kamera hartzen duzularik, argitasuna alboz edota atzez izan behar duzu.
- Grabatzen ari zarelarik, saia zaitez ikasleei jarraitzen mugitzen direnean, baina eutsi iezaiozu kamerari bat-bateko mugimendurik itsumustuan egin gabe.

7.- HEZITZAILEAK ZEIN PAPER BETE BEHAR DU TALDEKAKO IKASKETA EGIN BITARTEAN?

Irakaslearen zeregin nagusia, ziurrenik, orientatzea eta bide errazak eskaintzea da: aurretiaz ikasketaren egoerak prestatuko ditu, lanaren prozesua negoziatuko du, taldeen eraketa, baliabide eta argibideak eskainiko ditu, elkar trukaketak bultzatuko ditu lantaldeetan eta talde handian, taldekiderik ahulenen emaitza arrakastatsua lortzen saiatuko da eta den-denei ezaguera eta adimena eraikitzen lagunduko die.

Talde-lana bitartean ekintza zehatz hauek burutu ditzake:

- Taldeetan gerta litezkeen liskarrak zaindu. Arauak argitzeak konpondu egingo ditu eskuarki gatazkak, baina lantzean behin aldaketak egin beharko dira, agian, lidergoa dela eta.
- Taldearen aurrerapenei adi egon eta, behar izango balitz, denbora aldatu. Taldeen hiru laurdenek amaiturik dutenean, "5 minutu dituzue bukatzeko" esan daiteke.
- Taldeak behatu eta abagunea baliatu ikasle batzuk hobeto ezagutzeko.
- Aldez aurretik zehazturiko sistema bat erabili, neska-mutilek behar duten laguntza eskura dezaten.
- Animatu eta goraipatu taldekideen arteko laguntza –edo laguntza eskaintzea–, elkarri zorionak ematea eta lanari ekarpenak egitea, beti ere lehiakortasuna sustatu gabe.

TALDEAREN ETA TALDEKIDEEN BETEBEHARRAK

Taldeko neska-mutil guztiek lankidetzaren helburua izan behar dute, hots, bata bestearekin lanean aritzea, ideiak elkarrekin trukatzea, arazoak entzun eta konpontzea lanean ari diren artean. Esan bezala, bina taldekide izenda daitezke ardura hauek har ditzaten:

- **Moderatzaile**: taldearen jarduera zuzentzen du: bozeramailea izan daiteke eta gatazkak direnean moderatzaile lana egin dezake.
- **Idazkari**: talde lanean zehar gertatzen denaren berri jasoko du.

TALDEKAKO LANAREN AMAIERA

Taldekako jarduera burutu bezain laster, neska-mutil guztiak bilduko dira talde handian. Talde bakoitzak egindako txosten eta lanak eskatuko dira (eleduna moderatzailea zein idazkaria izan daiteke). Hortik aurrera denon arteko eztabaida bat has daiteke gertatu denaren eta ikasi dutenaren inguruan.

AZKEN EBALUAZIOA

"Umeen eskubideei buruzko" lan hau bukatu ondoren, interesgarria izango litzateke gure ikasleengan honek zenbaterainoko eragina izan duen jakitea. Hartarako, bi ebaluazio mota proposatzen dizkizuegu:

1. Ikasitako guztia (eduki, prozedura eta jarrerak) praktikan erabiliz, bizipenetan oinarritutako jardueraren baten bidez. Eskola osora zuzendutako jarduerak izango dira eta, beraz, denbora horretan zehar egin dugun lana beste ikasleei erakutsi ahal izango diegu bide batez. Proiektuaren amaiera ezin egokiagoa izan daiteke hori.
2. "Umeen eskubideei buruzko" galdera orokorrak egiten dituen galdekizun baten bidez. Erantzunen bidez egiazta dezakegu landutako gaiaren inguruko zenbait ideia nagusi bereganatu dituztenentz.

1. JARDUERA-PROPOSAMENAK

- Landu ditugun eskubideak islatzen dituzten 30 horma-irudi egin. Hogeita hamar gai hauek ikasleen artean banatuko dira, landutako guztiak egin daitezen. Horma-irudiok bukatutakoan, erakusketa bat egingo da areto nagusian edota ikastetxeko pasabideetan, zentroko beste ikasleek ere ikusi ahal izan dezaten.
- Bideo bat egin, taldeka edo ikastalde osoak, Hitzarmenaren berri emateko, umeen eskubideak zeintzuk diren eta eskubideok egikaritu ahal izan daitezen zein baldintza bete behar diren jakinarazteko, etab. (Ikasle bakoitza eskubide bat azalduz ager daiteke bideoan, elkarrizketak sar daitezke, dramatizazioak, soinua, etab.)
- UNICEFek eta PAU Education-ek proposatzen duten honako proiektu honetan parte hartu: "Haurrek euren eskubideei buruzko liburu bat idazten". Proiektu honetan Hitzarmena sinatu duten herrialde guztietako lehen mailako eskolek hartzen duten parte. Ikasleek 24 orriko liburu bat egingo dute eskolan, Hitzarmenean jasotzen diren eskubideetako batean oinarritutako istorio bat idatziz eta irudiz hornituz. Eskolek proiektua burutu ahal izateko laguntza eta argibideak hartzen dituzte; sei hilabeteren buruan, liburua eginda dagoelarik, PAU Education-era bidali behar da editatu eta argitaratua izan dadin. (Interneteko helbidea: http://www.educared.net/unicef/).
- Nazio Batuek aldarrikatutako Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmena ezagutarazteko publizitate kanpaina bat diseinatu. Lehendabizi, denen artean, eslogan bat bakarra bilatuko dute ikastalde osoarentzat. Ondoren, taldeka, iragarki bana egingo dute, talde bakoitzak euskarri desberdina erabiliz: telebistako iragarkia, panela, paperezkoa (eskolako aldizkarian argitaratzeko), irrati bidezko iragarki laburra, eta eskolan web orrialdea balego eta ikasle trebeak izanez gero, iragarki digitala. Kanpaina horrek ikastetxean –eta komunitatean ahal bada– Hitzarmena zabalduko du.

- Umeen Eskubideen Egunean ikastetxeko beste maila batzuetako ikasleentzat ospakizun jai bat antolatu. Hauek izan litezke jai horretako jarduera batzuk:
    - Herrialde behartsuetan bizi diren haurren egoerari buruz bideoren bat ipini eta jarraian hari buruzko solasaldia egin.
    - Herrialde desberdinetako musika entzun.
    - Herrialde desberdinetako janari tipikoak prestatu eta dastatu.
    - Elkarlanerako jolasen eta beste herrialde batzuetako jolasen saioa burutu (Intermon-en bidez eskura daitezke).
    - "Bidezko Merkataritza" stand bat antolatu.
    - Edari osasungarrien txosna jarri ("Ni neu eta drogak" izeneko unitatean proposatzen den etxekoentzako fitxan egin diren koktelak zerbitza daitezke).

Jarduera hauek burutzerakoan, kontzeptu- eta prozedura-edukiak zein neurritan bereganatu diren, eta azken emaitzaz gain, jarrerazko zenbait alderdi izango ditugu kontuan:

- Lanarekiko ardura: ikasle bakoitzak bere gain harturiko erantzukizuna.
- Jardueren antolakuntzan eta garapenean izan duen parte-hartzea.
- Beste ikaskideekin lortutako elkarlan eta lankidetza-jarrera.
- Taldean sortutako gatazkei emandako soluziobidea.
- Gaiarekiko sentsibilizazio maila.
- ...

2. GALDEKIZUNA

1. Zer esan nahi du "haurrok eskubideak ditugu" esaldiak? Zer da "eskubidea"?

2. Eta zer esan nahi du "betebeharrak" izateak?

3. Idatzi umeen eskubideren bat: ... ... –tzeko eskubidea...

4. Idatzi umeen betebeharren bat.

5. Gure eskubideak benetan betetzen al dira?

Gauza bera gertatzen al da herrialde guztietan?

6. Aipa itzazu guk egin ditzakegun bost gauza munduko haur guztien eskubideak bete daitezen.

7. Zein esanahi dute zuretzat hitz hauek?

   Kidea (bizikidea, lankidea,...)

   Elkartasuna

   Osasungarria

   Bidezko Merkataritza

   Desberdintasuna

   Bakea

   Iparra/Hegoa

8. Gobernuz Kanpoko Erakunderik ezagutzen duzu? Zein?

   Zein da erakunde horien zeregina?

   Laguntzarik eman al diezu inoiz?

9. Asko ikasi al duzu proiektu honetan zehar?

10. Zure gustukoak izan al dira egindako jarduerak?

11. Ondo sentitu al zara taldean?

12. Parte hartu al duzu zeure iritzia azalduz, galderak eginez, ikaskideei lagunduz...?

BIBLIOGRAFIA

- AA.VV (1994). *Cuentos de todos los colores*. Bilbao: Adarra.
- AA.VV (1997). *Interculturalidad*. Monográfico de *Eufonía, 6*.
- AA.VV (1999). *X Simposium de Didáctica de las Ciencias Sociales. Un currículum de Ciencias Sociales para el siglo XXI: qué contenidos y para qué.* Logroño: Díada y Universidad de la Rioja.
- ADARRA (1990). *Centros de interés específicos con niños y niñas gitanas.* Bilbao: Adarra.
- ALCÁNTARA, Ricardo (1980). *Pohopol*. Colección Vela Mayor. Barcelona: La Galera.
- ALCOLEA, Esteve (1995). Poema. *Diversidad de culturas. Igualdad de derechos. Boletín extraordinario Campaña XXXVII* (p. 32). Madrid: Manos Unidas.
- ALONSO DELGADO, Julio eta beste batzuk (2000). *Mundu maitea. Unitate didaktikoa.* Madrid: Save the Children y UNICEF.
- ÁLVAREZ, Joaquín (1997). *Habilidades Sociales 1 y 2.* Madrid: Ed. Escuela Española.
- ANSA ASCUNCE, Ana eta beste batzuk (1995). *Osasun eta garapen pertsonalerako gida nerabeekin lan egiteko.* Iruña: Osasun, Hezkuntza eta Kultura Departamentua.
- ARRUGA i VALERI, Artur (1983). *Introducción al test sociométrico*. Barcelona: Herder.
- BERRY, en Colectivo Amani (1997). Sentir, pensar y actuar. *Cuadernos de pedagogía nº 264* (pp. 61-66). Barcelona: Ed. Praxis, S.A.
- BIENEK, Wiener. (citado en): *Chancen der integration durch sport* (1995). Aachen: Meyer & Meyer. p. 9.
- BLAT, Empar y otras (1993). *La escuela coeducativa*. Aula 21.
- BRANDEN, Nathaniel (1994). *Cómo mejorar su autoestima.* Barcelona: Altaya.
- BRANSFORD, John & STAIN, Barrys (1987). *Solución ideal de problemas: guía para mejor pensar, aprender y crear*. Labor: Barcelona.
- BRUNET GUTIÉRREZ, Juan José y NEGRO FAILDE, José Luis (1988). *Tutoría con adolescentes*. 5ª Edición. Madrid: Ediciones San Pío X.
- CARRANZA, Maite (1995). *El topo Timoteo y Mgambo Molido.* Madrid: S.M.
- CARRÉ, Gerard (1999). *Estación de Babilonia.* Colección Pequeños Ciudadanos nº 3. Madrid: Bruño-Intermón.
- CARRERAS y otros/as (1997). *Cómo educar en valores. Madrid: Narcea.*
- CASCÓN Paco y otros/as (1997). *La alternativa del juego II. Juegos y dinámicas de educación para la paz.* Madrid: Los libros de la Catarata. Asociación Pro-Derechos Humanos.

- CASCÓN, Paco y otros/as (Seminario de Educación para la Paz). (1996). *La alternativa del juego I. Juegos y dinámicas de educación para la paz*. Madrid: : Los libros de la Catarata. Asociación Pro-Derechos Humanos.
- CASES TOLDRÁ, Teresa (1999). *La interculturalidad: un reto de futuro. Aula, 86.* Barcelona: Graó.
- CASTANYER, Olga (1996). *La asertividad: expresión de una sana autoestima.* Bilbao: Desclée De Brouwer.
- CEREZO RAMÍREZ, Fuensanta (1997). *Conductas agresivas en la edad escolar*. Madrid: Pirámide.
- CORMAN, Louis (1967). *El test del dibujo de la familia en la práctica médico-pedagógica.* Buenos Aires: Kapelusz.
- COTS i MONER, Jordi et al. (1992). *La convención de los Derechos de las Niñas y los Niños.* Madrid: Cáritas Española.
- DAENINCKX, Didier (1999). *El gato de Tigali.* Madrid: Intermón-Bruño.
- EDEX KOLEKTIBOA (1994). *Aprender a vivir libre de drogas.* Bilbao: Edex Kolektiboa, FAD y Gobierno Vasco.
- ELÉXPURU, Itziar et al. (1992). *Autoconcepto y Educación.* (Estudios y documentos, N. 17). Vitoria-Gasteiz: Gobierno Vasco.
- EMAKUNDE (1999). *Euskadiko Autonomia Erkidegoko eta emakumeentzako ekintza positiboen III. Planaren zirriborroa*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde.
- ERTUK YAKIN (2000). *El velo real está en nuestras mentes.* En EMAKUNDE: nº 39. Instituto Vasco de la Mujer. pp. 20-27.
- FERNÁNDEZ DE AGUIRRE, Marta, BARRANCO JIMÉNEZ, Mercedes eta DÍAZ DE EREÑO, Elena (2000). *Baztertu opila osasunaren bila!* AECC.
- FLECHA Ramón y otros/as (1994). *Nuevas perspectivas críticas en educación*. Barcelona: Paidos Educador.
- FUNCOE (1996). Meninos da Rua. *Jatun Sunqu nº 4* (pp. 22-23). Madrid: Funcoe y Unicef.
- GASTEN, Ruth y CAROTHERS, James (1994). *Juegos de Autoestima.* Madrid: El Manglar.
- EUSKO JAURLARITZA (1992). *Oinarrizko Curriculum Diseinua –Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera-*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- GOBIERNO VASCO - EUSKO JAURLARITZA (1993). *Educación ambiental: principios de enseñanza y aprendizaje.* Bilbao: Serie de Educación Ambiental nº 20. Los libros de la catarata.
- EUSKO JAURLARITZA (1998). *Drogomenpekotasunaren arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzko legea*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- EUSKO JAURLARITZA (2000). *Hezkuntza Berriztatzeko Programak 2000-2003*. Vitoria-Gasteiz: Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza.
- GÓMEZ PALACIOS, José Joaquín (1992). *Educar para la paz.* Madrid: Ed. CCS.
- GÓMEZ, Mª Teresa, MIR, Victoria y SERRATS, Mª Gracia (1990). *Propuestas de intervención en el aula.* Madrid: Narcea.
- GREIG, Sue y otros/as (1987). *Los derechos de la tierra.* Madrid: ADA/WWE.
- HAEUSSLER, P. de A., Isabel Margarita y MILICIC, M. Neva (1997). *Confiar en uno mismo: Programa de autoestima.* Madrid: CEPE.
- HALLEY, Achmy (1999). *El Oasis de Aïcha*. Nº 10 Colección Pequeños Ciudadanos. Madrid: Ed. Bruño-Intermón.
- HEINRICHS, Monika (1998). *Tanzen mit behinderten und nicht behinderten Menschen*. Dortmund: AsbH.

- HIP, HEZKUNTZA IKERKETAK ETA PROGRAMAK-EK ARGITARATUA. – HEZI. DEUSTUKO UNIBERSITATEA (1996). *DISCOVER: Bizitzen ikasten.* Bilbao: IPE-HIP, S.L.
- IPE, INVESTIGACIONES Y PROGRAMAS EDUCATIVOS, S.L. y otros (1998). *DEVA (Desarrollo de Valores y Autoestima,0* Logroño: Gobierno de la Rioja.
- IPE, INVESTIGACIONES Y PROGRAMAS EDUCATIVOS, S.L. (1999). *Sensibilización para la coeducación*. Logroño: Gobierno de la Rioja.
- IMBERNÓN, Francisco (1999). *La educación en el siglo XXI. Los retos del futuro inmediato. Monográfico, 136.* Barcelona: Graó.
- INTERMÓN (1993). *Derechos de la infancia.* Carpeta Primaria. Barcelona: Octaedro.
- INTERMÓN (1996). *Bidezko merkataritza, ardurazko kontsumoa Dossierra: Intermón. Fundación para el Tercer Mundo nº 430.* Barcelona: Intermón.
- ISUS, Sofia y ARNAIZ, Pere (1995). *La tutoría, organización y tareas. Monográfico, 5.* Barcelona: Graó.
- KAUFMAN, Gershen y RAPHAEL, Lev (1994). *La autoestima de los niños.* Madrid: Iberonet.
- KELLOG, Steven y otros/as (1991). *El gran libro de la paz.* Barcelona: Edebé.
- LANGE, Jürgen (1996). *Economía rural tradicional en un valle vasco*. Bilbao: Ediciones Beitia S.L.
- LEGINECHE, Manuel (1996). *Los ángeles perdidos.* Madrid: Espasa.
- LIKERT, Jane Gibson (1986). *Nuevas formas de solucionar conflictos*. México: Trillas.
- LINDENFIELD, Gael (1998). *Cómo desarrollar la autoestima en niños y adolescentes.* Madrid: Neo Person Ediciones.
- LÓPEZ DE GUEREÑO, Sabino (1980). *Euskal Abestiak* (1). Bilbao. Bizkaiko Aurrezki Kutxa.
- LÓPEZ, Félix y FUERTES, Antonio (1996). *Para comprender la sexualidad*. Estella: Verbo Divino.
- MACÍA ANTÓN, Araceli (1990). *Psicología y teoría de la decisión: aplicaciones*. Madrid: UNED.
- MACHARGO SALVADOR, Julio (1996). *Programa de actividades para el desarrollo de la Autoestima 1.* Madrid: Ed. Escuela Española.
- MACHARGO SALVADOR, Julio (1997). *Programa de actividades para el desarrollo de la Autoestima 2.* Madrid: Ed. Escuela Española.
- MAGAZINE de *El Mundo*. Número extra: *El álbum familiar*. Nº 39. segunda época. Correspondiente al domingo 25 de junio de 2000.
- MANOS UNIDAS (1995). *Bidezko merkataritza, merkataritza solidarioa.* Bilbao: Manos Unidas.
- MANOS UNIDAS (1998). *Consumo responsable. Boletín nº 133.* Madrid: Manos Unidas.
- MARÍA Y JOSÉ (1999). *El Hogar de los Pequeñosolos.* Nº 6 Colección Pequeños Ciudadanos. Madrid: Ed. Bruño-Intermón.
- MARISTANY, Clara (1997). *¿Diversidad o heterogeneidad? Cuadernos de Pedagogía, 263.* Barcelona: Praxis.
- MARTÍNEZ-OROZCO, Santiago (1996). *Comercio justo, consumo responsable.* Barcelona: Octaedro-Intermón.
- McLUHAN, Marshall (1993). *La aldea global.* Madrid: Gedisa._
- MONJAS CASARES, Inés (1993). *Programa de enseñanza de habilidades de interacción social para niños y niñas en edad escolar.* Valladolid: Trilce (distribuidor).
- OLWEUS, Dan. (1998). *Conductas de acoso y amenaza entre escolares*. Madrid: Ediciones Morata S.L.
- ORTEGA RUIZ, Rosario. (1994). *Las malas relaciones interpersonales en la escuela: estudio sobre la violencia y el maltrato entre compañeros en segunda etapa de EGB.* Infancia y Sociedad, 27-28.

- ORTEGA RUIZ, Rosario. (1998). *Violencia escolar. Qué es y cómo abordarla.* Consejería de Educación y Ciencia: Junta de Andalucía.
- OSKORRI, (1996) *Oskorri & The pub ibiltaria*. BBK Fundazioa, 49-51. orr.
- OSORO, Marta (1988). *Romaniés.* Madrid: Anaya.
- PALMER, Pat (1991). *El monstruo, el ratón y yo.* Valencia: Promolibro.
- PALMER, Pat (1991). *Gustándome a mí mismo.* Valencia: Promolibro.
- PALMER, Pat y ALBERTI, Melissa (1992). *Autoestima, un manual para adolescentes.* Valencia: Promolibro.
- PEARSON, David (1991). *El libro de la casa natural.* Barcelona: Oasis.
- PERZESMYCKI, Halina (2000). *Pedagogía de contrato. El contrato didáctico en la educación*. Barcelona: Grao.
- REAL ACADEMIA ESPAÑOLA (1984). *Diccionario de la Lengua Española. Vigésima Edición*. Madrid: Espasa-Calpe.
- RENAU, Mª Dolores (1989). *Primeras Jornadas sobre adopción y acogimiento familiar*. Vitoria-Gateiz: Eusko Jaurlaritza. Lan eta Gizarte Segurantza, pp. 9-25.
- RODRÍGUEZ ESTRADA, Mauro y MÁRQUEZ ALEGRÍA, Mateo (1994). *Manejo de problemas y toma de decisiones.* México: Manual Moderno.
- RODRÍGUEZ MORENO, Mª Luisa, DORIO ALCARAZ, Inmaculada y otros/as (1994). *Programa para enseñar a tomar decisiones. Guía didáctica para el tutor*. Barcelona: Laertes.
- RUE, Joan (2000). *La cooperación en el aprendizaje, o cómo incrementar las oportunidades educativas para disminuir la desigualdad. Aula, 90.* Barcelona: Graó.
- SÁNCHEZ MORO, Carmen (Coord.) (1991). *La Convención de los Derechos de los Niños y Niñas. Juegos.* Madrid: Ministerio de Asuntos Sociales.
- SÁNCHEZ, Juana (1993). *La coeducación trabajada como ámbito en el centro, en el aula y con la familia. Aula, 32*, pp. 19-22.
- SAURA CALIXTO, Pilar (1995). *La educación del autoconcepto: cuestiones y propuestas.* Universidad de Murcia.
- SAVE THE CHILDREN (1999). En editorial de la revista *Jatun Sunqu nº 12* (p. 16). Madrid: Save the Children y UNICEF.
- SCHRUMPF, Fred (1997). *Peer mediation, conflict resolution in schools.* Illinois: Research Press.
- SEGURA, Paco (2000). *Ayúdales a llegar alto.* Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación.
- SHURE, Myrna (1992). *I can solve a problem. An interpersonal cognitive problem solving program*. Illinois: Resarch Press.
- SUBIRATS, Marina y TOMÉ, Amparo (1992). *Pautas de observación para el análisis del sexismo en el ámbito educativo*. Barcelona: Institut de Ciéncies deL'Educació.
- TORRES SANTOMÉ, Juan (1994). *Globalización e interdisciplinariedad: el currículum integrado*. Madrid: Ediciones Morata.
- TRIANES, Mª Victoria (1996). *Educación y competencia social. Un programa en el aula.* Archindona: Aljibe.
- TUSQUETS, Esther (1980). *La conejita Marcela.* Barcelona: Lumen.
- TUVILLA RAYO, José (1993). *Educar en los derechos humanos.* Madrid: Ed. CCS.

- VALVERDE LAMSFUS, Lola. (1994). *Entre el deshonor y la miseria. Infancia abandonada en Guipúzcoa y Navarra, siglos XVIII y XIX*. Bilbao, p. 102 y ss.
- VALLES ARÁNDIGA, Antonio (1994). *Programas de refuerzo de las Habilidades Sociales I y II.* Madrid: EOS.
- VALLES ARÁNDIGA, Antonio (1998). *Autoconcepto y Autoestima.* Cuadernos de Tutoría de ESO Madrid: Ed. Escuela Española.
- WHITEFIELD, Charles L. (1999). *Límites, Fronteras y Relaciones*. Bilbao: Desclée de Brower.
- WIEMANN, Irmela (1992). *Niños y niñas en adopción y acogimiento familiar. Equipo de promoción del acogimiento familiar.* Bizkaia: Agintzari, S. Coop.
- YANKURA, Joseph & DRYDEN, Windy (2000). *Terapia Conductual Racional Emotiva (REBT). Casos ilustrativos.* Bilbao: Desclée de Brower.

MATERIAL OSAGARRIAK

KONTSULTA LIBURUAK ETA BITARTEKO DIDAKTIKOAK

- AA.VV (1996). Comportamientos no violentos. Propuestas interdisciplinares para construir la paz. Madrid: Narcea.
- AA.VV (1998). Garapen aldeko Hezkuntza kanpaina. Madrid: Fundación Paz y Solidaridad Serafín Aliaga y Federación de Enseñanza CC.OO.
- AA.VV (1995) Jatun sunqu/Corazón grande 2. Madrid: UNICEF FUNCOE.
- AA.VV (1996) Jatun sunqu/Corazón grande 3. Madrid: UNICEF FUNCOE.
- ACNUR España (1996). Refugiados. Madrid: ACNUR.
- ADARRA (1990). Papel del profesorado de EGB con niños y niñas gitanas. Bilbao: Adarra.
- ARQUÉ, Maite, BASTIDA, Anna y PALOS, José (1993). La infancia en el mundo: trabajadores de 10 años. Barcelona: Octaedro-Intermón.
- BUXARRAIS, Mª Rosa et al (1993). El interculturalismo en el Currículum. El Racismo. Barcelona: A.M. Rosa Sensat y Centro de Publicaciones del MEC.
- CARBONELL, Leonor (1993). Beto quiere crecer: alimentación y salud. Barcelona: Octaedro-Intermón.
- CHAZARRA, Antonio (1988). Convivencia y tolerancia. Madrid: CEAPA.
- EUSKO JAURLARITZA (1997). Munduko haurren egoera. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- FERNÁNDEZ, Isabel (1998). Prevención de la violencia y resolución de conflictos. Madrid: Narcea.
- FERRER, Empar et al (1993). Ejemplificaciones de Unidades Didácticas. Una perspectiva intercultural. Madrid: MEC.
- FRADERA, María (1996). Kevinekin merkatura. Barcelona: Octaedro-Intermón.
- GAIAK (1992). Arrazismoa beti bizirik. Bilbao: Gaiak.
- GARCÍA, Mª Dolores, (1997). Hezkuntza eta askapen emotiboa bultzatzeko heziketa programa. Donostia: Ikastolen Elkartea/TEA S.A.

- GARCÍA, Román (1996). Guía de recursos y materiales contra el racismo y la xenofobia. Avilés: MPDLA.
- GARCÍ NOVELL, Francisco (1992). Inventar el periódico. Madrid: Ed. De la Torre.
- GESTO POR LA PAZ (1997). Tolerantzian gure burua hezitzea. Bilbao: Gesto por la Paz.
- GÓMEZ, Mª Teresa, MIR I COSTA, Victoria y SERRATS I PARETAS, Mª Gracia (1990). Propuestas de intervención en el aula. Técnicas para lograr un clima favorable en la clase. Madrid: Narcea.
- GONZÁLEZ, Rosa y DÍEZ, Esther (2000). Valores en familia.Madrid: CCS.
- HICKS, David (1993). Educación para la paz. Madrid: Morata S.L.
- IKASTOLEN ELKARTEA-ELKARRI (1996). Arian-arian. Bakegintzarako hezkuntza 2. Nafarroa: Ikastolen Elkartea-Elkarri.
- IKASTOLEN ELKARTEA-ELKARRI (1996). Arian-arian. Bakegintzarako hezkuntza 3. Nafarroa: Ikastolen Elkartea-Elkarri.
- IKASTOLEN ELKARTEA-ELKARRI (1996). Arian-arian. Bakegintzarako hezkuntza 4. Nafarroa: Ikastolen Elkartea-Elkarri.
- INTERMÓN (1996). Dossier: Comercio Justo, Consumo Responsable. Intermón. Fundación para el Tercer Mundo nº 430. Barcelona: Intermón.
- INTERMÓN 1998). Dossier: Trabajar...¿un juego de niños?. Intermón Fundación para el Tercer Mundo nº 436. Barcelona: Intermón.
- LARA, Carmen y VIÑAMATA, Agustín (1990). Hagamos un solo mundo.Barcelona: Manos Unidas.
- LEVIN, Leah (1999). Derechos Humanos. Preguntas y respuestas. Bilbao: Eusko Jaurlaritza.
- LOBATO, Clemente y MEDINA, Rosa (1996). Técnicas de animación para grupos de preadolescentes. Bilbao: ADARRA.
- MADRAZO, Jose Luis (1995). Materialen gida/Guía de materiales. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- MANOS UNIDAS (1994). Kontsumo eta ingurugiro heziketa. Bilbo: Manos Unidas.
- MANOS UNIDAS (1995). Berdintasunerako heziketa desberdintasunean. Bilbo: Manos Unidas.
- MANOS UNIDAS (1995). Bidezko merkataritza, merkataritza solidarioa. Bilbo: Manos Unidas.
- MANOS UNIDAS (1995). Esklaboen askapena. Bilbo: Manos Unidas.
- MANOS UNIDAS (1995). Osasunerako eta ongizaterako hezkuntza. Bilbo: Manos Unidas.
- MANOS UNIDAS (1996). Informe Igualdad en la diferencia. Boletín nº 124. Madrid: Manos Unidas.
- MANOS UNIDAS (1996). Informe Igualdad en la diferencia. Boletín nº 122. Madrid: Manos Unidas.
- MANOS UNIDAS (1998). Consumo responsable.Boletín nº 133. Madrid: Manos Unidas.
- MANOS UNIDAS (1999). La explotación de la infancia. Boletín nº 136. Madrid: Manos Unidas.
- MANOS UNIDAS (1999). Lurrak banatu. Bilbo: Manos Unidas.
- MARTÍNEZ-OROZCO, Santiago (1996). Comercio justo, consumo responsable. Barcelona: Octaedro-Intermón.
- MONTANER, Pedro y MOYANO, Rafael (1995). ¿Cómo nos comunicamos? Madrid: Alambra Longman.
- PARCERISA, Artur (2000). Valores y temas transversales en el currículum. Barcelona: Graó.
- ROCABERT, Mª Jesús (1997). Programa educar para la solidaridad. Barcelona: Octaedro-Intermón.
- ROMERO, Eduard (2000). Valores para vivir/2. Madrid: CCS.
- SEQUEIROS, Leandro (1997). Educar para solidaridad. Barcelona: Octaedro.
- URRUZOLA ZABALZA, Mª José (1996). Aprendiendo a amar desde el aula –Educación Secundaria. Bilbao: Maite Canal Editora.

- VARIOS/AS (1996). Monográfico: Educación para la cooperación. Cuadernos de Pedagogía nº 249. Barcelona: Ed. Fontalba.
- VISQUEM LA DIVERSITAT (1998). Vivamos la diversidad. Materiales para una acción educativa intercultural. Madrid: Los libros de la Catarata.

IRAKURGAIAK

- AA.VV (1979). Los derechos del niño. Editorial Plesa.
- AA.VV (1988). Eugenio, Tina y el gato Arthur contra los traficantes. Bilbao: Telexin, S.A.
- AA.VV (1991). El gran libro de la paz. Barcelona: Edebé.
- AA.VV (1994). Cuentos de todos los colores. Bilbao. Adarra.
- AAVV (1988). Eugenio, Tina y el gato Arthur contra los traficantes. Bilbao: Telexin, S.A.ALCÁNTARA, Ricardo (1980). Pohopol. Colección Vela Mayor. Barcelona: La Galera.
- BENSON, Bernard (1982). El libro de la paz. Madrid. Integral.
- CAMERON, Ann (1999). El lugar más bonito del mundo. Madrid: Alfaguara.
- CARRANZA, Maite (1995). El topo Timoteo y Mgambo Molido. Madrid: S.M.
- CARRASCO, Marta (1985). El club de los diferentes. Ediciones Destino.
- DAENINCKX, Didier (1999). El gato de Tigali. Madrid: Intermón-Bruño.
- DAMON, Emma (1995). Cada uno es especial. Besacoa, S.A.
- DORRIS, Michel (1996). Taínos. Madrid: Alfaguara.
- GERGHTY, Paul (1998). Yamina.Barcelona: Zendrera Zariquiey.
- GORDON, Sheila (1990). ¡Ni una hora más! Madrid: S.M.
- KÄSTNER, E. (1990). La conferencia de los animales. Madrid: Alfaguara.
- LÓPEZ, Concha (1990). El tiempo y la promesa. Madrid: Bruño.
- MATTINGLEY, Christobel (1996). Asmir no quiere pistolas. Madrid: Alfaguara.
- O'DELL, Scott (1992). La canción de la luna. Barcelona: Ediciones B.
- OLLE, M. Angels (1988). Samir. Barcelona: Onda.
- OSORO, Marta (1988). Romaniés. Madrid: Anaya.
- PÁEZ, Enrique (1999). Abdel. Madrid: S.M.
- PERNIN, Muriel (2000). Un día en Ucrania. Madrid: Bruño- Amnistía Internacional.
- WÖLFEL, Ursula (1984). Campos verdes, campos grises. Salamanca: Ediciones Lóguez.
- PINGUILLY, Yves (2000). Cuentos y leyendas de Africa. Madrid: Espasa Juvenil.
- TUSQUETS, Esther (1980). La conejita Marcela. Barcelona: Lumen.
- WÖLFEL, Ursula (1984). Campos verdes, campos grises. Salamanca: Ediciones Lóguez.

IKUS-ENTZUNEZKO BITARTEKOAK

- ZABALKETA. ELKARTEA. Hamarretik zortzi (bizitzeko burrukan). Eusko Jaurlaritza.
- ZABALKETA. ELKARTEA. Hamarretik zortzi (II Zatia). Eusko Jaurlaritza.

- ZABALKETA. ELKARTEA. Hamarretik zortzi (III Zatian). Eusko Jaurlaritza.
- BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. Ardura zaitez.
- INTERMÓN. También quieren ser niñas y niños. Intermón videoteca.
- LAUREN FILMS, S.A. La vida es bella. Director: Roberto Benigni.
- UNIVERSIDAD DE DEUSTO, ICE/HEZI, Dpto. de Audiovisuales (1997). Serie: La aventura de crecer. Cap. Aprendiendo a amar (experiencia de H. Harlow en la Universidad de Wiscosin), AA.VV (psicología 004).

WEB ORRIAK

- http://www.alava.net
- http://www.bizkaia.net
- http://www.conflicto.com
- http://www.cfnavarra.es
- http://www.emakunde.net
- http://www.eustat.es
- http://www.gipuzkoa.net
- http://www.ihobe.es/suel2.htm
- http://www.boes.org
- http://www.paz.com
- http://www.premios nobel.com
- http://www.unicef.org/spanish
- http://www2.comadrid.es

UNITATEEN AURKIBIDEA

1. UNITATEA. HAURROK ERE BADITUGU ESKUBIDEAK 35

1. JARDUERA. HAURRIK GABEKO MUNDUA 38
2. JARDUERA. UME GUZTIOK DITUGU ESKUBIDEAK 40
3. JARDUERA. ARTURA ERREGINAREN GORTEAN 42

2. UNITATEA. NOR OTE NAIZ NI? 47

1. JARDUERA. AURKEZTU ZEURE NORTASUN AGIRI PERTSONALIZATUA 49
2. JARDUERA. "BILA ARI GARA" 51
3. JARDUERA. AMAIERARIK GABEKO ISTORIOA 53

3. UNITATEA. PERTSONA GARRANTZITSUA NAIZ 53

1. JARDUERA. JONTXU "TXANKAMEHE" 59
2. JARDUERA. ANAIA HANDIA 61
3. JARDUERA. SOS ALBANIA 63

4. UNITATEA. NI DESBERDINA NAIZ, NI BEREZIA NAIZ 67

1. JARDUERA. GUTUN-TRUKE PRIBATUA 69
2. JARDUERA. ESTIMAGARRIEN HORMA-IRUDIA 71
3. JARDUERA. EGIA ALA GEZURRA? - BEGI BIEN ERDIAN SUDURRA 73

5. UNITATEA. ELKARRI ENTZUTEN 77

1. JARDUERA. ANTZERKI MUTUA 80
2. JARDUERA. ZERA BALITZ 82
3. JARDUERA. DIKTAKETAK 83

6. UNITATEA. NORK BERE IRITZIAK AZALTZEN JAKITEA 87

1. JARDUERA. NIK BADUT IRITZIA 89
2. JARDUERA. GUSTATZEN ZAIT, EZ ZAIT GUSTATZEN 91
3. JARDUERA. KEXA-KAXA 93

7. UNITATEA. NIRE OSASUNA GARRANTZITSUA DA 97

1. JARDUERA. GORPUTZA GARBI, DENON OSASUNGARRI 100
2. JARDUERA. ATSEDENA 102
3. JARDUERA. "BEHIN JOAN NINTZEN AZOKARA, EROSI NUEN..." 104

8. UNITATEA. BURUTIK SANO OTE ZAUDE? 119

1. JARDUERA. BAZEN BEHIN... 112
2. JARDUERA. TXIMINOKUMEA 114
3. JARDUERA. PSIKOLOGOAREN KONTSULTARA 116

9. UNITATEA. ERABAKIAK HARTZEN IKASTEA 121

1. JARDUERA. BIDEGABEKERIAK 123
2. JARDUERA. NIK NEUK ERABAKITZEN DUT 125
3. JARDUERA. GERRA-PRESOAK 127

10. UNITATEA. GATAZKAK ABERASTU EGITEN GAITU 131

1. JARDUERA. KULTUR GATAZKAK 133
2. JARDUERA. AURKARIAK 135
3. JARDUERA. JAZZ MUSIKA 137

11. UNITATEA. HITZ EGINEZ KONPONDUKO GARA 141

1. JARDUERA. BAKEZALE OSPETSUAK 143
2. JARDUERA. PLANETARTEKO GATAZKA 145
3. JARDUERA. GERRAKO HAURRAK 147

12. UNITATEA. ASERTIBOA NAIZ: ZURE ESKUBIDEAK ERRESPETATZEN DITUT ETA NEUREAK DEFENDATZEN 151

1. JARDUERA. ZAILTASUNEI AURRE EGIN 153
2. JARDUERA. ZURE ESKUBIDEAK ETA NIREAK: A ZELAKO NAHASTE-BORRASTEA! 155
3. JARDUERA. EZETZ BA! 157

13. UNITATEA. DENOK DUGU INTIMITATE-ESKUBIDEA 163

1. JARDUERA. ARATUSTE EZ DENEAN ERE MOZORROA 165
2. JARDUERA. NINIA 167
3. JARDUERA. AMA! 170

14. UNITATEA. DROGAK DIRELA ETA 175

1. JARDUERA. ZER DAKIGU DROGEI BURUZ? 177
2. JARDUERA. ALKOHOLIK? EZ, ESKERRIK ASKO 179
3. JARDUERA. TABAKOA AUZITAN 180

15. UNITATEA. LAGUNAK AUKERATZEN 185

1. JARDUERA. LAGUNA, ADISKIDEA, ADISKIDETASUNA 187
2. JARDUERA. ENE LAGUNAK 189
3. JARDUERA. JANTZIEN JOKOA 191

16. UNITATEA. FAMILIA GUZTIAK EZ DIRA NIREA BEZALAKOAK 195

1. JARDUERA. NIRE FAMILIA ETA ZUREA EZ DIRA BERDINAK 198
2. JARDUERA. HAU BIZIMODUA! 200
3. JARDUERA. BAKARRIK EZ! 202

17. UNITATEA. ETXEAN DENOK GARA BAT 207

1. JARDUERA. MARRAZ DEZAGUN GEURE FAMILIA 209
2. JARDUERA. BIZI AL GAITEZKE FAMILIARIK GABE? 211
3. JARDUERA. GURE FAMILIAK TALDE BAT OSATZEN DU 213

18. UNITATEA. NON BIZI NAIZ? 217

1. JARDUERA. ZATOZ ETA IKUS 219
2. JARDUERA. KANTA DEZAGUN DENOK! 221
3. JARDUERA. BAZKALTZERA! 223

19. UNITATEA. DENOK IKAS DEZAKEGU 227

1. JARDUERA. NEURE AGENDA EGITEN 229
2. JARDUERA. NI ANGOLAKOA NAIZ; ZU, BERRIZ, EUSKAL HERRIKOA; ZU... 231
3. JARDUERA. HONA HEMEN NIRE ITUNA! 233

20. UNITATEA. ESKOLAKO LAGUNAK: DENOK BERDINAK, DENOK DESBERDINAK 237

1. JARDUERA. NORMALA! 239
2. JARDUERA. ITSUMUSTUKA 241
3. JARDUERA. "DANTZARA, PLAZARA, DANTZARA..." 243

21. UNITATEA. NESKA NAIZEN HAU ETA MUTIL ZAREN HORI EZBERDINAK GARA 247

1. JARDUERA. NEURE BURUARI BEGIRA 249
2. JARDUERA. ZURETZAT NAHI NUKE 251
3. JARDUERA. DENONTZAT DAGO LEKUA 253

22. UNITATEA. BATZUETAN EZ GAITUZTE ONDO TRATATZEN 257

1. JARDUERA. GURE ARTEAN 259
2. JARDUERA. EMAN DEZAGUN 261
3. JARDUERA. EIDERREN SEKRETUA 263

23. UNITATEA. IKASGELAN FAMILIA BAT OSATZEN DUGU 267

1. JARDUERA. EZAUGARRI POSITIBOAK DAUZKAGU 269
2. JARDUERA. IDOIA LAGUNA DUT 271
3. JARDUERA. MUSIKAK BATU EGITEN GAITU 273

24. UNITATEA. TALDE BATEKO PARTAIDE 277

1. JARDUERA. GURE TALDEA 279
2. JARDUERA. PARTE HARTZEA DA GARRANTZITSUENA 281
3. JARDUERA. ZERTAN IZAN GAITEZKE LANKIDE 283

25. UNITATEA. AISIALDIA ONDO PASATZEKO 287

1. JARDUERA. ESKOLA-EGUNA BUKATUTAKOAN 289
2. JARDUERA. ZER BEHAR DUT ONDO PASATZEKO? 291
3. JARDUERA. JOSTAILUEN BAZARRA 293

26. UNITATEA. INFORMAZIOZ INGURATURIK 297

1. JARDUERA. TELEBISTARA KATEATUTA 300
2. JARDUERA. ZER KONTATZEN DIGUTE EGUNKARIEK? 303
3. JARDUERA. ETA ZUK ZER DERITZOZU...? 305

27. UNITATEA. GURE PLANETA ZAINTZEN 309

1. JARDUERA. BADA ZABORRIK HEMEN! 311
2. JARDUERA. PRODUKTU NATURALEI, BAI! 313
3. JARDUERA. NEU ERE OLERKARIEN ENTZULE 315

28. UNITATEA. HERRI EZBERDINEK OSATZEN DUTE MUNDUA 319

1. JARDUERA. FAMILIAK MUNDUAN ZEHAR 322
2. JARDUERA. PASTELA ZATITZEN DUENAK... 325
3. JARDUERA. ATSEGIN DUT ZU EZAGUTZEA 329

29. UNITATEA. GATAZKAK MUNDUAN ZEHAR 333

1. JARDUERA. MUNDUKO GATAZKAK 336
2. JARDUERA. JAR ZAITEZ HAREN TOKIAN 338
3. JARDUERA. BAKEAREKIN BAT EGINIK 340

30. UNITATEA. EZ DAGO ESKUBIDERIK! 345

1. JARDUERA. SOLIDARITATE(RIK GABEKO) ASKARIA. 348
2. JARDUERA. IKASTEN ALA LANEAN? 350
3. JARDUERA. ARDURAZ KONTSUMITU 353

UNITATEAK

HAURROK ERE BADITUGU ESKUBIDEAK

■ IDEIA NAGUSIA

Gizakiok baditugu geure segurtasun eta osasun fisiko zein psikikoa babesten dituzten eskubideak, baita haurrek ere. Haurren eskubide guztiek garrantzi bera dute. Eskubideok zatiezinak dira eta bata bestearekin erlazionaturik daude. Haien helburua, berriz, haurraren nortasun osoaren garapena da. Nazio Batuek aldarrikatutako Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmenak, 1989an nazioarteko komunitateak sinatu zuenak, mundu *guztiko* ume *guztienak* izan behar duten eskubideak biltzen ditu.

■ HELBURUAK

- Haurrei buruzko jarrerez gogoeta egitea.
- Haurren eskubideak ezagutzea.
- Haurraren inguruan edota herrialdeetan eskubide hauen presentzia aztertzea.
- Eskubideen jabe izateak betebeharrak aintzat hartzea ere badakarrela ikastea.
- Eskubideok eguneroko bizitzan txertatzea.

■ UNITATEAREN GARAPENA

Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmena sinatu duten estatu guztiak (1999 urtean nazioarteko komunitate osoak sinatua zuen, Estatu Batuek eta Somaliak izan ezik) juridikoki behartuta daude umeen eskubideak erabateko lehentasunez errespetatu eta defendatzera. Bere sorreran, hasieratik 1989ko azaroaren 20an onartu zen arte, gizarte, erlijio eta kultura guztietako ordezkariek hartu zuten parte. Hitzarmenak giza eskubide mota posible guztiak hartzen ditu bere baitan: politikoak, sozialak, ekonomikoak, zibilak eta kulturalak.

Hitzarmenak umeenganako jarrera berria ezartzen du, umea *pixkanaka haziz eta autonomia-maila handiagoak eskuratuz doan pertsona libre*tzat harturik. 1. artikuluan dioenez, 18 urtetik beherako gizaki guztiak dira ume (adin nagusitasuna lehenago ezarrita duten herrialdeetan izan ezik). Adin zehaztapen horretatik abiatu ondoren, haurtzaroan pertsona helduaren beharra aldarrikatzen da; horrek ez du inola ere esan nahi umeak harenak ez inorenak direnik. Aitzitik, adinduna haurraren garapenaren babeslea da, haurtxo txikiaren menpekotasun oso-osotik hasi eta, haziz doan heinean, arian-arian erantzukizunak hartu arte.

Hitzarmenaren funtsean *lau* printzipio orokor daude, gainerako guztien oinarrian daudenak: bereizkeriarik eza, adin-txikikoen interesaren nagusitasuna, bizitzeko eskubidea eta haren iritziari zor zaion begirunea. Azter ditzagun banan-banan:

1. *Bereizkeriarik eza*. Hitzarmenaren 2. artikuluak dioen legez, eskubideek mundu osoko ume guztientzat balio dute, inolako bereizketarik egin gabe eta arraza, kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, jatorri, maila ekonomiko, haurraren ezintasun fisiko edo haurraren eta bere ordezkarien iritziak kontuan hartu gabe. Eskubide horrekin zuzen-zuzenean lotuta daude desberdinak diren haurren eskubideak, hala nola ezinduen eskubideak (23.artikulua), errefuxiatuenak edo gerran dauden herrialdeetako umeenak (22. eta 38. artikuluak), etab.
2. *Haurraren interes nagusiaren lehentasuna*, 3. artikuluak agintzen duen legez. Familia da eskubide horren babesle nagusia eta, seniderik ezean, estatuak bermatu behar du. Hartzen diren neurri guztiak umearen onerako hartuko dira eta laguntza edo zerbitzu guzti-guztietan lehentasuna umearen interes gorenari emango zaio. Umearen ardurarekiko, zainketarekiko eta babesarekiko familiak eta estatuak duten betebeharra aipatzen duten eskubide guztiekin erlazionaturik dago eskubide hau (4., 5., 18., 20. eta 21. artikuluak).
3. *Bizitzeko eskubidea* (6. artikulua). Bizitza, biziraupen eta garapenerako berezko eskubide hau estatuak bermatu behar du. Oinarrizko eskubide hau osasunerako eskubideekin erlazionaturik dago (24. artikulua), hezkuntzarako eskubideekin (28. eta 29. artikuluak), jolaserako eskubidearekin (31. artikulua), etab.
4. *Haurraren iritziari begirunea zor zaio*. Haiek ere badaukate zer esanik. Euren iritzia esateko eskubide osoa dute, baita entzun dadin ere, 12. artikuluak adierazten duen legez. Eskubide honek badu, ordea, bigarren alde bat: besteak ere badaude, hots, nork bere iritzia adierazteko eskubidea du, baina besteei entzuten eta haien iritzia kontuan izaten ere jakin behar du. Eskubide horiekin lotuta daude askatasun eta eskubide zibilak jasotzen dituztenak, hala nola pentsaera-, kontzientzia- eta erlijio-askatasuna (14. artikulua), biltzeko eta elkarteak sortzeko askatasuna (15. artikulua), nortasuna izateko eskubidea (7., 8. eta 10. artikuluak), etab. Ignacio de Senillosak Intermon-en dokumentuan dioskunez (1993, 29. or.), errealitateak erakusten digu iritzi gutxi eta gutxitan eskatzen zaiela eta gutxiagotan errespetatzen direla euren ikusmoldeak.

> "Nagusiok haurraren beharrizan eta gurari guztiak asetzeko errezetak ditugula uste dugu. Hala ere, zenbateraino erreparatzen diogu beraien benetako asmoen handitasun xumeari? Guk dugun ikuspegi mugatuaren neurrira eraikitzen dugu geure mundua: telebista baten pantaila, epe motzeko helburuak, segurtasuna, pribatutasuna, asfaltoa eta produktibitatea."

Azken baten, pertsona orok du eskubidea haurtzaroa bizitzeko, goizegi heldutako haur nagusi goiztiarra ez izateko, jolasean jarduteko, beste jende eta kultura desberdinekin bizi ahal izateko, norbait bere segurtasunaz, bere elikaduraz eta osasunaz ardura dadin, guztiz ahula den egoeretan babes dezaten, etab. Hitzarmena haurraren eskubideen babesa lortzeko behar diren arau eta betebeharrak biltzen dituen tresna da. Zentzu horretan, Hitzarmenaren zeregin nagusia hauxe litzateke: oinarrizko akordio bat eskaintzea gobernuei eta gizarte osoari oro har haurren alde lan egin dezaten, haurren alde gaur egiten dena geroko gizartearen ongizatearen alde egiten baita.

■ ZER LANDU GAI HONEN INGURUAN?

Irakasleek

- Autorregulazioa erdiesteko eskema kognitiboak landu.
- Eskubideok eguneroko egoeretara hurbildu.
- Eskubideon ikusmoldearekin bat datozen berriak aztertu.
- Hedabideek egunero plazaratzen dituzten arazoei buruzko iritziak jaso (inmigrazioa, gerrateko haurrak, etab.).

- Munduko beste herrialde batzuetako errealitateak erakutsi.
- Beraiekin erlazionatzen diren pertsonen beharrizanak ezagutu.

Familiak

- Familiaren funtzionamenduaz zein iritzi duen galdetu.
- Nork bere kontuetan erabakitzeko gero eta aukera gehiago eman.
- Beste herrialde batzuetan kultura eta bizimodu desberdinak ezagutu.
- Bere inguruan bertan ere badagoela jende behartsuagoa berarekin batera balioztatu.
- Geure gizartean bizi ditugun arazoez zein iritzi duen eta, bere ustez, zein soluziobide eman dakiekeen arretaz entzun.

1. JARDUERA:

HAURRIK GABEKO MUNDUA

Haurtzaroaz mintzo garelarik, haien artean oso desberdinak diren ezaugarri eta garapen faseez ari gara. Hain zuzen ere, bizitzaren aldi honetan zein interes, zein beharrizan dituzten hobeto ezagutzen jakiteko diseinatu da jarduera hau. Horretarako zenbait aukera aurkeztuko zaizkio umeari, hala nola objektuak, ondasunak, beharrizanak edota baloreak. Haien artean lehentasunak ezarri beharko ditu eta arrazoituz hautatu. Jarduera honen bidez zera lortu nahi da: bizi ahal izateko gizabanakoak dituen ezinbesteko premietatik abiaturik, edozein pertsonak izan behar lituzkeen eskubideetara iritsi. Hargatik, garrantzizkoa da horren ondoren proposatzen den jarduera ere egitea eta haurraren hazkuntza babestu eta gidatu behar duten eskubideak zerrendatzea.

■ HELBURU NAGUSIA

- Ikasleen bizi-jarrerez gogoeta egitea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Pertsonaren bizitzan zehar garrantzi handikoak diren gaietan erabakiak hartzea.
- Arrazoiketa kritikoari eragitea.
- Talde-lana sustatzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: gelan.

BALIABIDEAK: erantzun orria

Ondoko gauza hauen guztien artean, zoriontsu bizitzeko sei garrantzizkoenak aukeratu behar dituzue. Argudia ezazu zergatik erabaki duzun horrela.

1. liburuak	10. «gominolak»	19. magia
2. jolasak	11. laztan eta musuak	20. justizia
3. adiskideak	12. botikak	21. ondo lo egitea
4. elikadura	13. etxearen jabe izatea	22. barreak
5. beste pertsona batzuei laguntzea	14. jantziak	23. fantasia
6. tolesgabetasuna, maltzurkeriarik eza	15. edertasuna	24. eguzkia
7. ikastea	16. gauzak elkarbanatzea	25. telebista
8. elkartasuna, solidaritatea	17. kirolak	26. Beste batzuk...
9. familia	18. musika	.....

JARDUERAREN IRAUPENA: 45 minutuko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Ariketa ipuin modura aurkeztuko da. Irakasleak testu hau irakurriko die ikasleei: *"Umerik gabeko herrialdea munduaz nagusituz doa eta gizateria osoaz jabetzen ari da. Zorionez, gizaki aldra batek, tartean zu zeu eta zeure lagunak, Lurra planeta tristura eta hondamenditik salbatzeko ahalmena daukazue. Zein izango da zuen zeregina? Taldeka, zoriontsu izateko sei arlo garrantzitsuenak aukeratu behar dituzue. Aukeraketa horri esker, Lurra planeta salbatu ahal izango duzue".*

Aukera guztiek arrazoituak izan behar dute. Jarduera amaitzeko, talde guztien ekarpenak bateratu eta garrantzizkoenak jasoko dira. Taldeek eginiko aukerez berba ere egin daiteke.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Euskara eta Literatura / Gaztelania eta Literatura / Tutoretza

2. JARDUERA:

UME GUZTIOK DITUGU ESKUBIDEAK

Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmenak (1989), adin txikikoen osabetezko garapena lortzea du helburu. Horretarako, Hitzarmenaren lehen zatian, eskubide andana luze bat ezartzen du berrogeita bat artikulutan zehar, eskubide zibil ekonomiko edo politikoetatik hasi eta sozial edo kulturalak arte. Hobe da, beraz, hitzarmenaren luzera dela eta, Umearen Eskubideen Aldarrikapenak (1969) biltzen dituen hamar eskubideak erabiltzea, hauetan biltzen baitira printzipio nagusienak.

Umearen Eskubideen Aldarrikapena

1. *Berdintasuna.* Eskubideak ume guztientzat dira, inolako bereizketarik egin gabe, ez umeagatik beragatik ez bere familiarengatik ere.
2. *Babesa.* Legearen babesa behar du umeak beste ezer eta inoren aurretik askatasun eta duintasunez hazi eta garatu ahal izan dadin (gure auzoa, gure herria, gure planeta babestu.)
3. *Nortasuna.* Izena eta herritartasuna edukitzeko eskubidea ni neu izaten hasi ahal izateko.
4. *Bizi-kalitatea.* Elikadura, etxebizitza eta zerbitzu medikuak osasuntsu hazteko.
5. *Gizarte-integrazioa.* «Berdinak baina desberdinak gara». Gorputz edo adimen aldetik ezinduak diren umeek zainketa eta heziketa berezia hartu behar dute.
6. *Maitasuna.* Maitasuna eta segurtasuna behar-beharrezkoak dira umearen garapen orekatua lortzeko; ahal den guztietan gurasoen erantzukizun eta babespean haziko da.
7. *Hezkuntza eta jolasa.* Pentsatzen eta bere gaitasunak garatzen ikasteko eskubidea du, baita elkarrizketarako eta jolasez gozatzeko ere.
8. *Laguntza.* Laguntza eta babesa jasotzeko behar duen guztietan.
9. *Salaketa.* Haurrak ez du abandonatua izan behar eta babestu egin behar da edozein motatako esplotazio edo tratu txarretatik.
10. *Elkartasuna*. Elkartasun, ulerkortasun, tolerantzia eta bake giroan hezi behar da.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Umeen eskubideak zein diren jakitea
- Gure inguruan, gertukoan edo urrunagokoan, betetzen direnentz aztertzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Euren eskubideez eta beharrizanez hausnartzeari ekitea.
- Erkatzea eskubideen betetze maila bere inguruan eta beste inguru batzuetan.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: gelan.

BALIABIDEAK: eskubideen zerrenda, fotokopiaturiko orrian.

JARDUERAREN IRAUPENA: 30 minutuko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Hasteko, ikasleak talde txikietan bilduko dira honako gai honetaz eztabaidatzeko: *"zer behar dugu, egiazki, bizitzeko?".* Jasotako erantzunekin oinarrizko beharrizanen zerrenda bat osa daiteke, haur guztien eskubidetzat hartuko ditugunak. Horren ondoan eskubideen zerrenda jarri eta konparatu egingo dira. Azkenik, gure inguruan eta beste herri batzuetan zenbateraino betetzen diren ikusiko da.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Euskara eta Literatura / Gaztelania eta Literatura / Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera.

3. JARDUERA:

ARTURA ERREGINAREN GORTEAN

Jarduera honetan desberdina izateko eskubidea aukeratu da. Zergatik eskubide hau? Izan ere, ikasgela barruan sarri eta erraz urratzen den eskubidea delako. Agian zenbait ikaskideri, baita zenbait ezagun eta senideri ere, tratu txarra ematen dietela eta mintzen ari direla konturatzea nahi dugu, eta hori egiteko beste arrazoirik ez dutela haiek desberdinak direla baino. Garbi utziko dugu desberdintasuna ez dela larru-azalaren koloreak emana edo hezkuntza bereziko talde batekoa izatea bakarrik. Sarri askotan desberdintzat hartzen ditugu gure ustetan "normala" denaren araberakoak ez direnak (neskatoekin jolasten den mutikoa, betaurrekoduna, lodi samar dagoena, auzo pobrean bizi dena edo praka zaharrak janzten dituena, etab.). Horixe da, hain zuzen ere, xedea: ikasleak horren jakitun egotea. Azken helburua, sakonagoa, desberdintasun horrenganako errespetua barneratzea litzateke, baina horretarako saio gehiago beharko lirateke...

■ HELBURU NAGUSIAK

- Inolako bereizkeriarik gabe errespetatua izateko eskubidea eguneroko bizimoduan txertatzea.
- Eskubideen jabe izateak betebeharrak onartzea dakarrelako ideia praktikatzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Pertsonaren desberdintasuna definitzen duten ezaugarri guztiak identifikatzea.
- Ume desberdinari tratu txarra emateko ohiko erak aztertzea.
- Bere inguruan pertsona desberdinak izatea baloratzea.
- Desberdintasuna defendatzeko jarrerak bilatzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: gelan.

BALIABIDEAK: fotokopiaturiko orria eta idazteko tresnak.

PERTSONA DESBERDINA (nire senitartean, nire ikastetxean, nire auzoan edo nire herrian)	***ZERTAN DATZAN BERE DESBERDINTASUNA***	**NOLA BABES DEZAKET** (besteen "eraso"etatik)

JARDUERAREN IRAUPENA: 54 minutuko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Hau irakurriz hasiko da eginkizuna: *"Artura erreginaren Gortean nagikerian ibili izan dira aspaldi honetan, baina orain zuzen eta artez jarri dira denak. Erreginak lan egin behar dela esan die, azkenaldian eskubideak errespetatzen ez dituen alferrontzi gehiegi dagoela. Horrenbestez, eskubide bat hautatu du –begirunezko trataera hartzeko eskubidea, arraza, sexu, erlijio edota egoera ekonomiko soziala dela-eta inor baztertu gabe– eta geu izendatu gaitu eskubide horren Babesle. Orain, eskubide hori defendatzeko nola borrokatu beharko dudan eta aurre egiteko zein arrazoi ditudan hausnartu behar dut."*

Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleekin "Ahate itsusia" ipuina erabil liteke sarrera modura.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Euskara eta Literatura / Gaztelania eta Literatura / Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera.

ETXEKOENTZAKO

FITXA

Guraso agurgarriok:

Geure seme-alaben Eskubideez gogoeta egiten lagunduko digun gaia lantzen hasiko gara. Gaiari ekin aurretik, geure usteak berraztertzea komeni da.

Zintzotasunez erantzun dezazuen nahi dugu, esaldi bakoitzari Egia / Gezurra jarriz, baina marra azpian dagoenari begiratu gabe. Erantzun guztiak eman ondoren, irakur dezakezue zeri buruzkoak diren eta, behar izanez gero, zenbait ideia astiroago birplanteatu.

Egia / Gezurra

1. Umeari bere iritzia galdetzea denbora alferrik galtzea da, gaur gauza bat eta bihar beste bat esaten dizute eta.
2. Umeaz hitz egitean, bera eta gu bat bakarra bagina bezala aritzen naiz, esaterako: "Sekulakoak egiten dizkit...!", "ez *dugu* gainditu", "zorte txarra izan *genuen*", "alaba *bere* aita bezalakoa da; semea, berriz, *ni* bezalakoxea".
3. Neskatoei jaiotzetik bertatik antzematen zaie sorgin galantak direla; mutikoak, aldiz, "aingerutxo bedeinkatuak" dira, zintzoak eta oso-osoak.
4. Neure seme edo neure alaba animatzen dut beste ume batzuekin taldeetan parte har dezan, dela kirol taldeetan, dela eskaut edo bestelako taldeetan.
5. Seme eta alaba guztiei tratu berbera eman behar zaie. Berdin maite ditugu denak; beraz, denei berdin eman behar zaie eta berdin eskatu.
6. Bananduko bagina haurrak hobeto leudeke nirekin. Asteburuen erdibanatze hori ere niri oinaze emateko baino ez litzateke izango.
7. Ez zait bat ere gustatzen nire seme edo alabaren gelan atzeratutako umeak egotea, ikasketa erritmoa moteldu egiten baitiote.
8. Eskola-orduz kanpoko ekintzetan sartu baino nahiago dut eskola ostean jolastera joatea, gutxiago ikasiko duela esaten didaten arren.
9. Senetik irtendako gurasoek seme-alabak jotzen edota iraintzen ikusteari jasangaitza deritzot.

Aurreko esaldiek zerikusi zuzena dute ondoko eskubide edo gai hauekin:

1. Haurrak eskubidea du bere iritzia entzun dadin. Haurrek askotan iritzi aldakorrak izaten dituzte, egia da hori, baina galdetzeak estimu handitan daukagula eta aintzat hartzen dugula esan nahi du eta, gainera, heltzen eta ikasteko gaitasuna hobetzen lagunduko dio.
2. Haurrak ez dira beren gurasoen jabego pribatua. Aitzitik, gurasoek euren buruaren jabe izaten irakatsi behar diete, gero eta autonomoagoak eta arduratsuagoak izan daitezen.

3. Eskubidea du baztertua ez izateko, ez bere eta ez bere gurasoen erlijio, egoera ekonomiko ezta egoera sozialagatik ere. Heziketa sexista txiki-txikitatik hasten da.
4. Beste pertsona batzuekin biltzeko eta elkarteak sortzeko eskubidea.
5. Nork bere nortasuna izateko eskubidea, bakoitzaren berezitasun eta gaitasunak errespetatuz.
6. Bi gurasoak edukitzeko eskubidea.
7. Gizarteratzeko eskubidea eta eragozpen fisiko edo adimenezkoengatik bereizkeriarik ez nozitzeko eskubidea. Horrek haurtzaroa elkartasun eta tolerantzia giroan bizitzen lagunduko dio.
8. Ume izateko eskubidea, jostatzeko, atseden hartzeko eta kirola egiteko, baita gorputzez, buruz eta izpirituz ere osasuntsu hazteko eskubidea.
9. Tratu txarrik ez nozitzeko eta helduengandik babes eta maitasuna jasotzeko eskubidea.

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

UNITATEAREN BALORAZIOA

Aukera ezazu eskubide bat, gogokoen duzuna, eta konta ezazu edo marraztu harekin zerikusia duen istorio bat. Azal iezaiezu ondoren beste lagunei zergatik den garrantzitsua eskubide hori eta zer beharko litzatekeen hura garatzeko edo beharrezko balitz, defendatzeko.

Nik eskubide hau aukeratu dut:

Nire istorio edo marrazkia:

Eskubide hau zergatik da garrantzitsua?

Zer beharko litzateke?

NOR OTE NAIZ NI ?

■ IDEIA NAGUSIA

Gizaki orok du –eta behar du– bere nortasun propioa edukitzeko eskubidea, bai gizabanako legez eta bai giza talde bateko partaide legez ezagut dezaten. Eskubide honen onespen juridikoa izen eta herritartasunaren bidez aldarrikatuko da.

Norberaren nortasun sentimenari laguntzeko ezinbesteko baldintzetariko bat dugu autokontzeptu eta autoestimu baikorraren garapena. Autokontzeptuak eta autoestimuak funtsezko eginkizuna dute gure bizian, gizaki batek bere buruaz duen iritziak eta bere buruarekiko sentipenak erabateko eragina baitute bere bizitzaren arlo guztietan: ingurukoekin dituen harremanetan –lagunartean, familian, auzoan...–, norbere buruaren ardura eta zainketarako ohituretan, bizitzan azalduko zaizkion arazoei aurre egiteko moduan, eskola- eta lan- emaitzetan, dibertitzeko eran, etab.

Beraz, esan dezakegu, okerrik egiteko beldur handirik gabe, autokontzeptuak norberaren nortasun sentimenari laguntzen diola eta kanpoko errealitatea zein barne esperientziak ulertzeko erreferentzia-markoa dela. Norbanakoaren nortasuna autoezagutzan oinarritzen da: geure gustuak, trebeziak, izaera, pentsaera eta geure burua oso-osoan onartzea.

Gai honetan haurraren nortasunaren une garrantzitsuak landuko ditugu (jaiotza, zuhaitz genealogikoa, bere historia, jokoak, etab.), arlo kognitiboan eta datu objektiboetan oinarrituz batik bat.

■ HELBURUAK

- Norberaren buruaz gogoeta egitea.
- Norberaren nortasun sentimena garatzea.
- Pertsona-ezaugarriez konturatzea.
- Norberaren berezitasunaz jabetzea eta besteak errespetatzen ikastea.

■ UNITATEAREN GARAPENA

Nork bere burua ondo ezagutzea ezinbesteko baldintza da nortasuna garatu ahal izateko. Zer da nortasuna, ordea? Pertsona batek bere buruaz duen kontzientzia, gizabanako desberdin eta besteengandik berezi den aldetik. Nortasuna aipatzean ni pertsonalaz ari gara, bere berezitasunez eta deskribatzen duten ezaugarriez, alegia. Ezaugarri hauek guztiok (biologikoak, psikologikoak eta testuingurukoak) bere burua gizabanako desberdintzat definitzen lagunduko diote haurrari, besteengandik berezia eta inorekin nahasi gabe ezagutua izan dadin; aldi berean, kultura bera duen giza talde bateko partaide sentiaraziko dute.

Bere buruaren ezagutza sendorik ezean, haurrak arrisku handia izan dezake gezurrezko ni-a garatzeko, besteek –bere bizitzan esanguratsu direnek batez ere– beragandik espero dutenaren neurrira egina, non

ideiak, jarrerak eta jokabideak horren arabera egokituak izaten diren. Ahalegin horretan, bere burua ezagutzeko jakin-mina bertan behera utzi eta "norbera", berezko, lasai-eta izateko gaitasuna gal dezake, bere autokontzeptu eta autoestimua garatzeko guztiz kaltegarri gerta daitekeena.

Bizitzako egoera bakoitzari ematen zaion erantzuna nork bere buruaz duen iritziaren araberakoa izan ohi da. Ditugun epaile guztien artean gu geu gara, inondik ere, epailerik garrantzitsuena. Ongizate psikologikoa, harreman sozioafektiboak, arazoei aurre egiteko era... dena izango da geure epaiaren bahetik pasatua, hau da, geure autokontzeptu eta autoestimuaren araberakoa.

Baina, zer ote da autokontzeptua? Zer autoestimua? Bitzuok esanahi berekotzat jo izan dira sarritan eta horrela ageri dira anitz argitarapenetan: bakoitzak bere buruaren osagaitzat dituen irudi, sentipen eta ezaugarri multzoa. Beste batzuek, aldiz, bereizi egiten dituzte berba biak. Autokontzeptuaren esparrua kognitibo hutsa litzateke –nork bere buruaren pertzepzioa, pertsonak bere buruaz duen irudia (ezaugarri fisikoak, psikologikoak, alde onak, txarrak...)–, baina inolako ebaluazio edo balorapen emozionalik gabe. Izan ere, horixe bailitzateke autoestimuaren funtsa, gizakiak bere buruaz pentsatzen duenaren balorazio emozionala, alegia. Arlo kognitiboa eta ebaluatiboak bereizten erraza ez bada ere (pentsatzen dut / sentitzen dut), gure ustez funtsezko bi urrats dira pertsonaren hazkuntza prozesuan eta merezi du bereizirik aztertzea.

Autokontzeptuak adiera zabalean duen konplexutasunaren barruan, beste "autokontzeptu" batzuk bereiz daitezke, zehatzagoak, pertsonaren esperientziaren zenbait arlori buruzkoak. Horrela, autokontzeptu akademikoa aipa dezakegu, fisikoa, soziala, emozionala, etab.

■ ZER LANDU GAI HONEN INGURUAN?

Irakasleek

- Adibideak jarri eskolan, bere taldeko ikasleen berezitasunak aipatuz: kultur berezitasunak, etnikoak, banakakoak...
- Ikasle bakoitzaren hizkera (tokian tokiko azentuak, esate baterako) eta jokaera bereziak goraipatu.
- Talde-dinamikak erabili, haurrek elkarren datu pertsonalak jakin ditzaten.
- Ikastetxearen Ikasketa Proiektuan (IIPn) eta Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan (IHPn) autokontzeptu eta autoestimuari buruzko gaiak sartu.

Familiak

- Senitartean hizpidetzat hartu bakoitzaren izena, abizenak, etab.
- Beste pertsonengandik bereizten duten ezaugarriak nabarmendu.
- Umeak familiaren bizitzan izan duen eragin positiboa ezagutarazi, berekin bizi izandako pasadizo gogoangarriak kontatuz.

1. JARDUERA:

AURKEZTU ZEURE NORTASUN AGIRI PERTSONALIZATUA

Autokontzeptua eta autoestimua nondik datozkigu? Hain zuzen ere, guk geure ezaugarri pertsonalak, geure nortasun eta inguru hurbila ezagutzetik eta estimatzetik.

Sarri askotan ez diegu garrantzirik ematen betidanik izan ditugun gauzei: izena, abizenak, irudia... denok ditugu, ohituta gaude eta ez dute aparteko baliorik guretzat. Gainera, hainbeste gauza egin behar izaten ditu ikasleak –eskolako lanak, lo, jan, jolastu...– ezen oso gutxitan jartzen baita bere buruaz pentsatzen. Nor naiz ni? Nire adineko beste umeak bezalakoa ote naiz? Ala, haiengandik bereizten nauen zerbait ote daukat? Zerk egiten nau desberdin? Lantzean behin komeni izaten da geldiune bat egitea eta norberari buruzko gauzak bilatzeari ekitea. Aurkitutako zenbait gauza ezagunak direteke; beste batzuk, ordea, bitxiak, berriak. Ikasle bakoitza gauza horien guztien emaitza da. Horretaz ohartzeak lagundu egingo dio benetan pertsona garrantzitsua dela egiaztatzen, eta ongi sentituko da horregatik.

Irakasleak bere ikasleei azalduko die ume guztiek dutela izena eta herrialdea edukitzeko eskubidea, baita besteengandik bereiziak eta ezagutuak izateko ezaugarriak edukitzeko ere. Horrenbestez, hauxe da jarduera honen xedea: autokontzeptu eta autoestimuaren oinarrian dauden hasierako elementuez (izena, abizenak, sorterria, etab.) ohartzea.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Norberaren nortasun sentimena garatzea: jaiotza, aurrekoak (gurasoak, aiton-amonak...), berezitasun pertsonalak (trebeziak, gustuak, izaera) etab.
- Norberaren berezitasunaz jabetzea eta besteak errespetatzen ikastea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Nork bere buruaz informazio esanguratsua biltzea: jaiotzari buruzko datuak, norberaren ezaugarri, berezitasun eta trebetasunak, etab.
- Nork bere buruaz idatzizko dokumentu bat sortzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: gelan, mahaiak biribilean jarrita.

BALIABIDEAK: idazteko eta marrazteko tresnak, norberaren argazki bat, kartulina, artaziak eta orri bat gidoiarekin.

JARDUERAREN IRAUPENA: bi saio, lehena 10 minutukoa eta bigarrena 40 minutukoa.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak eginbeharrekoaren* nondik norakoak azalduko dizkie ikasleei lehen saio batean eta astebeteko epea emango die behar dituzten datuak eskuratzeko. Eginkizuna errazteko gidoi bat** eskainiko zaie

(aukera dute, nahi izanez gero, beste modu batera egiteko). Bigarren saioan, lan-tresnak banatu eta, gidoia betetzeko zalantzarik badago, argitu egingo dira. Ikasle bakoitzak bere nortasun agiri pertsonalizatua egingo du (30 minutu) eta, jarraian, "agiri pertsonalizatu" guztien erakusketa egingo da.

* Eginbeharra honela aurkeztuko zaie: *"Kalean zehar osteratxo bat egiten ari zarela, Ertzaintzaren talde berezi batek geldiarazi eta zeure 'nortasun agiri pertsonalizatua' eskatu dizu"*. Aldean ez badaukazu, astebeteko epea emango dizute egin dezazun. Epe horren buruan aurkeztu ezik, hiritar ez-garrantzitsua zarela erabakiko dute eta, gure planetan superpopulazioa dagoenez, beste planeta batera bidal zaitzakete. Jende asko duzu zeregin horretan laguntzeko prest: senitartekoak, auzokoak, lagunak, irakasleak... Bila eta bil itzazu behar dituzun datuak, baina zutaz gehien dakiena eta ondoen ezagutzen zaituena zu zeu zarela ahaztu gabe. Ikasle bakoitzak egin beza bere nortasun agiri pertsonalizatua (diseinu grafikoa eta datuak).

**** Zeregina errazteko gidoia**

<table>
<tr><td>ARGAZKIA</td><td colspan="2">IZENA:
ABIZENAK:
Sorlekua:
Jaioteguna:
Bizilekua:
Gurasoen izenak:
Neba-arreben izenak:</td></tr>
<tr><td>Deskribapen fisikoa:
AURPEGIA:
Begien kolorea:
Adatsaren kolorea:
Larru-azala:
Ezpainak:
Sudurra:
Bestelako ezaugarriak:
GORPUTZA
Garaiera:
Gorpuzkera (argal/ lodi/...):
etab.</td><td colspan="2">MARRAZKIAK:

Zeure hiri edo herriaren berezitasunen bat (paisaia, eraikuntza(k)...)

Zeure etxea:</td></tr>
</table>

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Euskara / Gaztelania / Atzerriko hizkuntzak / Arte Hezkuntza (Plastika eta Ikus Adierazpena) / Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera.

2. JARDUERA:

"BILA ARI GARA"

Zenbait pertsonarentzat oso zaila izaten da bere burua deskribatzea edo bere buruaz mintzatzea, lotsa delako bere gauzak azaltzeko edo zer esan askorik ez daukalako edota bere burua ez duelako behar adina ezagutzen. Halakoetan, joko dibertigarri eta desberdina izan liteke ezagutzen gaituztenek gutaz egiten dituzten deskribapenetan geure burua ikusten saiatzea.

Irakasleak azaldu egingo die pertsonok geure buruaz dugun irudia (nolakoak garen ...) eta gure ingurukoek (etxekoek, lagunek, irakasleek...) gutaz dutena zenbaitetan ez datozela bat. Zergatik hori? Pertsona bakoitzak gauza desberdinei erreparatzen dielako. Ziur asko horien guztien nahastea gara: guk geure burua nolakoa ikusten dugun eta ingurukoek nolakoak ikusten gaituzten.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Norbere nortasunaren sentimena garatzea.
- Pertsona ezaugarrien kontzientzia areagotzea.
- Norberaren berezitasunaz jabetzea eta besteak errespetatzen ikastea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Taldeko ikaskideei erreparatzea.
- Berdinen iritziak jasoz norberaren ezaguera aberastea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: gelan, lauko taldeetan.

BALIABIDEAK: kartulinazko txartelak, idazteko eta marrazteko tresnak.

JARDUERAREN IRAUPENA: 50 minutu.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleek honela azalduko die zeregina ikasleei: *"Geure burua hobeto ezagutzen saiatu behar dugu eta, horretarako, gaurkoan, gure ikaskideek nola ikusten gaituzten hartuko dugu aintzakotzat. Beraz, lehenik ikasle bakoitzaren ezaugarri bereziak nabarmenduko ditugu; ondoren, ikasle horren eta bere familiako, ikasgelako edo herriko ume batzuen ezaugarri berdinak aipatuko ditugu"*

Irakasleak txartel bakoitzean pertsona baten izena idatziko du eta taldeka banatuko ditu txartelok. Ikasleek txartel bana aukeratuko dute. Gero ikasleek "paskin" antzeko batzuk egingo dituzte "bila ari gara" lelopean. Txartelburuan ".....-REN BILA ARI GARA" agertuko da eta azpian pertsona horren marrazkia (zenbait aldaera ere pentsa daitezke, hala nola pertsona horrentzat esanahi berezia duten edo haren antza duten pertsonaia ospetsuen argazkiak...). Horrekin batera pertsonaren deskribapena jarriko da: ezaugarri fisikoak (kanpo-

itxura, mugimen-trebeziak...), bere izaera edota gelako lagunekin eta irakasleekin erakusten duen jarrera, etab. Irakasleak, betiere kontu handiz, aldatu edo ezabatu egingo ditu iruzkin negatibo eta iraingarriak.

Hori egin ondoren, ikasle bakoitzak bere txartela erakutsiko die gelako lagunei, haien iritzia jasotzearren eta zertxobait aldatzeko, beharrezko balitz. Behin "zentsura" hori pasatuz gero, "paskin" edo txartel hori kartulina handi batean jarriko dute denen agerian. Jarraian 5-10 minutu utziko dira ikasle bakoitzak paskin guztien artean berea aurkitu eta bere burua hartan ezagut dezan (taldeak aurretiaz erabaki dezake galderarik egin daitekeenentz, zenbat...).

■ CURRICULUMAREN BESTE ARLOEKIKO LOTURAK

Atzerriko hizkuntzak / Arte Hezkuntza (Plastika eta Ikus Adierazpena / Adierazpen Dramatikoa).

3. JARDUERA:

AMAIERARIK GABEKO ISTORIOA

Biografia eta autobiografia ugari idatzi izan eta idazten dira. Sarritan autobiografiak are interesgarriagoak bilakatzen dira denbora igaro ahala, beste alde eta garai batzuetako ekintzak eta orduko pertsonen sentimendu eta bizipenak erakusten baitizkigute. Gure bizitza ere –oraindik laburra izan arren–, urteak joan eta urteak etorri, aldatuz joaten da. Gauza polita da, kasurako, geure erretratu bat izatea eta etorkizunerako gordetzea (gogora dezagun, adibidez, Ana Frank-en egunkaria).

Pertsona bakoitzak bizimodu eta historia desberdinak dituela azalduko du irakasleak, bakoitzak bere eskarmentuak eta etorkizunerako amets eta egitasmo diferenteak. Bere bizitza interesgarria dela ere emango dio aditzera ikasleari. Hargatik, benetan merezi du orain artekoaren berri ematea eta idatzirik edukitzea. Urte batzuen buruan estimatuko du irakurri ahal izatea eta urte haietan bere burua nola ikusten zuen oroitzea.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Nork bere buruaz gogoeta egitea.
- Norberaren nortasun sentimena garatzea.
- Norberaren berezitasunaz jabetzea eta besteak errespetatzen ikastea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Gure bizitzan izandako esperientzia garrantzitsuak biltzea.
- Haurraren eta bere inguruaren artean lokarriak sendotzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: gelan.

BALIABIDEAK: liburua egiteko materialak: orriak, uztai karpeta, idazteko eta marrazteko tresnak.

JARDUERAREN IRAUPENA: saio laburretan (10 bat minutukoak) egitea litzateke erarik egokiena; hala ere, 50 minutuko saio bakarrean ere egin liteke.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak zeregina azalduko die ikasleei: *"Liburu bat idatziko dugu geure bizitzaz. Zuetariko bakoitzak erabakiko du zein izenburu jarri (besterik ezean, " ... ...-ren amaierarik gabeko istorioa" ontzat har liteke) eta han jasoko dituzue bizitzan zehar izan dituzuen pasadizo eta gertaerak. Zeregin horretan laguntzeko gai andana bat emango dizuet (1 edo 2 saioko), haietaz idatz dezazuen. Halaber, irudiak ere gehi ditzakezue".*

Gai posibleak:

1. Neuri buruzko datuak (izena eta abizenak, goitizen edo ezizenak, jaiotze data eta tokia, ikastetxea, maila, etab.).
2. Nire familia (izenak, adinak, zuhaitz genealogikoa, beretzat animalia garrantzitsurik baldin badago ere barne delarik).
3. Jaio nintzen eguna (nolakoa izan zen egun hura, nolakoa nintzen jaiotzean...).
4. Nire lehen urteak (noiz hasi nintzen oinez, hitz egiten, jaten, zerekin/norekin jostatzen nintzen...).
5. Nire lehen oroitzapenak (jolasak, bidaiak, "ezbeharrak", opariak, otorduak...).
6. Iazko urtea (etxean, ikastetxean, oporretan, Gabonetan, nire urtebetetzean, nire herrian edo auzoan...).
7. Gure etxea (zer-nolakoa den, txokorik kuttunenak...).
8. Gurasoak (haien historiari buruzko zerbait, nolakoak diren, zer ematen didaten, zer nik beraiei...).
9. Nire anaia / arreba –edo neba/ahizpa– (nolakoa den, zer ematen didan, zer ematen diodan nik...)
10. Nire lagunak.
11. Nire ikastetxea (nolakoa den, zer den gehien gustatzen zaidana...)
12. Nire auzoa, herria, hiria, etab.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Euskara eta Gaztelania / Atzerriko Hizkuntzak: Ingelesa / Arte Hezkuntza (Plastika eta Ikus Adierazpena) / Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera.

ETXEKOENTZAKO FITXA

Guraso agurgarriok:

Gizakiok geure nortasun propioaren beharra dugu, besteengandik gizabanako legez zein giza talde legez bereizten gaituena. Nortasun behar hori zeuen seme edo alabaren autoestimua suspertuz ase dezakezue. Nola, baina? Pertsona oro –zeinahi sexu, adin edo egoera (maila sozioekonomikoa, arraza, etab.) duelarik ere, berez, duin eta baliotsu delako ideia garatuz, hain zuzen ere.

Anitz ikerketak frogatzen duenez, pertsonaren baliozkotasun eta duintasun sentimenduak lotura estu-estua du autokontzeptu eta autoestimu positiboekin. Autoestimua ez da, inola ere, gurasoengandik jasotzen den ezaugarria, urteetan zehar izandako bizipenen bidez garatua baizik. Hortaz, familia, aita eta ama, zarete haurraren autoestimua garatzeko eragile nagusiak.

Autoestimu baikorra garatzea zeregin samurra ez bada ere, geure seme edo alabari bere burua hobeto ezagutzen laguntzea dateke aurreneko urratsa. Horrela, bere nortasun bereziaren kontzientzia hartuko du (bere izen-deiturak, bere familia, giza taldea...), konturatuko da guretzat erabat berezia dela eta gure maitasuna eta laguntza beti izango dituela horregatik, eta horretarako aparteko arrazoirik ez dagoela, geure-geurea den seme edo alaba dela baizik. Zentzu horretan, lantxo erraz bat proposatzen dizuegu. Zeuen seme edo alabarekin batera, gogora itzazue eta idatz "egunkarian" bere bizitzan izandako gertaera gogoangarriak (eta baikorrak) –haurdunaldian nola "portatu" zen eta erditzea nolakoa izan zen, zergatik eman zitzaion duen izena eta ez beste bat, noiz hasi zen oinez ibiltzen, noiz mintzatzen, nolako "kontutxoak" egiten zituen, pasadizo xelebreak...–, horien bidez familia bateko partaide dela eta zuen bizitzetan ere ordezkaezina dela kontura dadin.

Mila esker zeuen laguntzagatik.

UNITATEAREN BALORAZIOA

Zenbait familiak, arrazoi desberdinak direla eta (ama ezkongabea edo nerabea delako, baliabide ekonomiko urriagatik...), bere seme edo alaba bertan behera abandonatzen du. Hori ez da atzo goizeko usadioa. Beti gertatu izan da. Duela urte batzuk, haurrak erakunde erlijiosoetan uzten ziren, ospitaleetan, umezurztegietan edota, zenbaitetan, baita kale gorrian ere. Haur haiek ez zuten izen-deiturarik, ez jatorrizko familiarik ezta sorterririk ere. Alabaina, gizakumeak ziren, pertsona, eta nortasuna edukitzeko eskubidea zuten.

Era horretako gertakariez ari garela, benetako kasu bat kontatuko dizuet: neskatotxo bat Aita Mendi ospitaleko ate aurrean abandonatu zuten, Arrasate (Gipuzkoa) herriko Gesalibar auzoan. Neskato hura ezagutu nuenean –artean koskortua zen– nik ez nuen haren berririk eta honela aurkeztu zidan bere burua: Maria Gesalibar Mondragón, Arrasaten jaioa (Maria izeneko moja batek aurkitu zueneko data)-(e)an.

Orain saia zaitez galdera hauei erantzuten:

1. Zergatik uste duzu dituela izen-deitura horiek? Ba al dute zentzurik, esanahi berezirik? Nola azalduko zenuke?
2. Izen eta abizen horiek, sorterri eta jaiotegun horiek nortasun propio eta berezia ematen al diote neska horri? Zergatik?



PERTSONA GARRANTZITSUA NAIZ

■ IDEIA NAGUSIA

"Haurraren interesak aurrena!" Hala dio Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmenak 3. artikuluan. Printzipio horrek, funtsean, haurtzaroari izate berezia onartzen dio eta horren arabera, beraz, haurtzaroa beharrizan eta interes bereziak dituen aldia da. Haurrak, halaber, bere-bereak diren eskubideak ditu eta behar dituen babes eta zainketak eman behar zaizkio bai fisikoki eta bai psikikoki, sozialki zein espiritualki garatzeko.

Haurtzaroaren adiera horrek –haurra pertsona garrantzitsua dela, alegia, eskubide eta erantzukizunak dituena eta ongizatea merezi duena– behartu egiten ditu estatu kideak, familia, irakasleak, etab. eta, horiek ez ezik, baita haurra bera ere. Hori dela eta, nahitaezkoa deritzogu umearen autoestimua lantzeari, barru-barrutik sinets dezan pertsona baliotsu eta garrantzitsua dela izatez. Autoestimua lantzea, hortaz, haurraren nortasunaren bilakaera zuzenaren tresna eta berme bihurtzen da, aldi berean.

■ HELBURUAK

- Bere buruaren ezagutza areagotzea.
- Bere burua balioztatzeko eta onesteko jarrera garatzea.
- Beste pertsonentzat ere maitagarri eta errespetagarri dela sentiaraztea.
- Bere beharrizan eta interesetarako, oro har, nagusiek eta gizarteak zor dioten babes eta zainketaz gogoeta egitea.

■ UNITATEAREN GARAPENA

Haurrak era osasungarri eta baikorrean garatzeko eskubidea du, bai fisikoki bai psikikoki, sozialki zein espiritualki. Haurraren arduradun diren pertsonek, baita estatuak ere, behar dituen babes eta zainketak ziurtatuko dizkiote, bere garapena askatasun eta duintasun giroan izan dadin bermatzeko.

Haurra eskubide eta beharrizan horien jabe izan dadin, hots, "subjektu" izan dadin eta ez horien "objektu" hutsa, ezinbestekoa deritzogu prebentzio lanari. Ume guztiak eta haietako bakoitza, pertsona garrantzitsua delako barne-sentimena landu beharra dago, bera garrantzitsua dela sinestaraziz hain zuzen pertsona delako, eta hori arrazoi nahikoa dela edonon, edonoiz, edonola eta edozein kolorez jaio zela ere.

Garrantzitsuak garelako barne-sentimen hori suspertzeko, lehen-lehenik hausnarketa prozesu bati ekin behar zaio; hausnarketa horren bidez jakingo dugu nor eta zer garen, hau da, nortasun baten jabe egingo gara (aurreko unitatean hasitako zeregina). Dena dela, hau guztia beharrezkoa izanik ere, ez da nahikoa izaten edozein pertsona baliotsu, garrantzitsu, errespetagarri eta berez duina delako barne-sentimendua erdiesteko; alegia, erabateko garapena lortzeko, une oro behar dituen bitarteko eta aukerak zor zaizkion pertsona dela sinisteko.

Unitate honetan arlo afektiboaz eta ebaluatiboaz ari gara, sentimen eta sinesteei buruz... arlo kognitibo eta arrazionalak berariaz alde batera utzita. Hau da, autoestimuari buruz dihardugu. Autoestimuak, izenak berak aitortzen duenez, nork bere burua estimatzea esan nahi du; hortaz, emoziozko ebaluapena da, funtsean. Autoestimua da, azken batean, umearen garapen osoaren barne-euskarri, hezurdura, eta hala landu behar da.

Autoestimua (pertsona batek zenbateraino estimatu eta maite duen bere burua) aldagai askoren ondorio eta fruitu da: bizitzan zehar jaso ditugun alde onak eta txarrak –"lorpenak" eta "porrotak– eta horiek esplikatzeko era, pertsona esanguratsuek gutaz duten iritzia, norberaren eraginkortasunaren sentipena, besteekin harremanak izateko trebetasuna, etab. Aldagai hauetan oinarriturik, pertsona bakoitzak irudi bat du bere buruaz, bere baliozkotasunaz. Emoziozko balorazio hori –bere baitan ikusten dituen gogoko gauzak eta gogoko ez dituenen arteko balantzea– baikorra baldin bada, autoestimu positiboa, sanoa duela esango dugu. Balorazioa ezkorra bada, berriz, –balantze negatiboa, alegia–, autoestimu pobrea duela. Autoestimu sendoa garatzen duten umeek behar bezalako garapena -osasungarri eta onuragarria- lortzeko aukera gehiago izango dute, bere gaitasunak hobeto erabiliko baititu eta eragozpenen aurrean jarrera baikorragoa erakutsiko baitu; halaber, jarrera asertiboagoa agertuko du, laguntza eta babesa hartzeko dauzkan eskubideak defendatuz.

Nola gotor dezakegu geure autoestimua?

1. *Nortasun sentimena garatuz.*
2. *Geure buruarentzat gustagarri izaten ikasiz.* Geure ezaugarri eta alde positiboei erreparatuz, jokaera egokien aurrean geure burua goraipatuz...
3. *Garen bezalakoak garela onartuz.* Horretarako, egokiak ez diren jarrera, jokabide edo ezaugarriak aitortuko ditugu, betiere handiagotu gabe edo hargatik nahigabetu gabe, baina hobetzeko bideak bilatuz.

■ ZER LANDU GAI HONEN INGURUAN?

Irakasleek

- "Eredu" gisara jokatu: bere burua ozenki indartu, dagokionean bere burua goraipatuz eta barne-poza agertuz.
- Ikasleen alde positiboak indartu (egin eta esaten dituenak, jarrerak...). Ikaskideen goraipamen edo errefortzuak ere pizten saiatu.
- "Maitegramak" eta tankera horretako jarduerak egin (pertsona bat maitagarri eta estimagarri egiten duten ezaugarriei buruzko mezu laburrak).
- Ekintza edo jarrera negatiboren batengatik agiraka egin behar bazaio, umiliatu eta iraindu gabe egin, ahal dela bestelako aukerak eskainiz.

Familiak

- "Eredu" gisara jokatu: nork bere buruaz harrotasuna eta poza azaldu, dagokionean ozenki adieraziz.
- Semeak edo alabak ondo eginak kontuan hartu eta goraipatu (ez nahastu laudorioak eta balorazio ezkorrak).

1. JARDUERA:

JONTXU "TXANKAMEHE"

Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmenak aldarrikatzen dituen printzipioen artean oinarri-oinarrizkoa dugu 6. artikuluak dioskuna: ume guztiek dute bizitzeko eskubidea eta estatu kideek bermatu egingo dute ahalik eta ondoen umearen biziraupen eta garapena.

Bizitzeko eskubidea oso ezagun eta "ospetsua" dugu, zabalduena hurrean, eta ia mundu osoko pertsonek onartua; alabaina, egunero urratzen den eskubidea da: pasiboki, esate baterako, "hirugarren mundu" deritzogun horretan, ezer egin gabe hainbeste eta hainbeste ume goseak hiltzen uzten ditugunean; aktiboki, berriz, gerrateetan, atentatuetan, etab.

Irakasleak zeregina azalduko die umeei: "Arretaz irakurriko dugu orain Jontxu "txankamehe"ren istorioa, gero herri-epaimahai bihurtu eta iritzia eman ahal izan dezagun, bai bere gurasoen eginbideaz, bai mediku eta osasun agintarien jokabideaz..."

■ HELBURU NAGUSIAK

- Beste pertsonentzat maitagarri eta errespetagarri dela sentiaraztea eta sentimen hori areago garatzea.
- Bere beharrizan eta interesetarako, oro har, nagusiek eta gizarteak zor dioten babes eta zainketaz gogoeta egitea.
- Bizitzeko eskubideari buruz hausnartzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Edozein pertsonak duen oinarri-oinarrizko eskubideaz jardutea, hots, bizitzeko eskubideaz.
- Helduek umeei emandako babes eta zainketari buruzko sentipen eta iritziak adieraztea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: gelan, mahaiak biribilean jarrita.

BALIABIDEAK: Jontxu "txankamehe"ren istorioaren fotokopiak, galdera sorta eta idazteko tresnak.

JARDUERAREN IRAUPENA: 40 minutu.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak Jontxu "txankamehe"ren istorioa fotokopiaturik emango die ikasleei eta ozenki irakurriko du, den-denek ulertu dutela ziurtatzeko. Bakarka berrirakurri eta gero, bakoitzak honako galdekizun honi erantzungo dio:

1. Zer deritzozue medikuaren jokabideari? Nori saldu behar ziokeen sendagaia?
2. Berdin balio ahal dute pobrea eta sei neba-arrebatan bosgarrena den ume atzeratu baten bizitzak eta adimen normala duen, alaba bakarra eta, gainera, aberatsa den batenak? Zergatik?

3. Noren erantzukizuna da Jontxuren osasun-zainketa?
4. Zein da Jontxuren heriotzaren errudun? Zein "zigor"-mota ezarriko zenioke?

Ondoren, bateratu egingo dira erantzunak eta denon artean erabakiko zer egin medikuari eta zein ondorio ekar diezaiokeen bere jokabideak.

ISTORIOA: JONTXU "TXANKAMEHE"

Jontxu Bilboko Peñascal auzoan bizi den bederatzi urteko ume bat da. Sei neba-arreba artean bosgarrena da (lau nagusiak mutilak dira eta txikiena neskatoa, gurasoek biziki desiratutako alabatxoa). Jontxu adimen-atzerapenarekin jaio zen eta beti-beti ibili izan da makal eta osasun arazoekin. Orain dela bi urte Jontxuri ezohiko gaitz bitxi bat diagnostikatu zioten, sendagaitza zen endekapenezko gaixotasuna (bere giharrak "mehetuz" joango ziren guztiz deuseztatu arte eta horrek heriotza ekarriko zion ezinbestez). A zer-nolako atsekabea hartu zuten gurasoek! Hala ere, pobreak izan arren (gizarte laguntzei esker bizi dira), gogotik saiatu ziren semeari laguntzen eta ahal izan zuten guztia egin zuten semetxoa aurrera ateratzeko. Mediku partikularrengana ere jo zuten, baina denek esaten zieten ez zegoela itxaropenik. Duela bi hilabete, ordea, berri on bat jaso zuten: Tolosako mediku batek beren semea salba zezakeen sendagai berri bat aurkitu zuen! Botika hura oso garestia zen, baina auzoko bizilagunen laguntzaz dirua batzea lortu zuten eta Tolosarantz abiatu ziren erosteko asmoz. Tolosako medikuak, ostera, eurei entzun eta gero, ezezko erantzuna eman zien. Eskatu zuten lehenak izan ziren arren, sendagai gutxi zegoen -bi pote besterik ez zeuzkan- eta ezin zien saldu, beste familia batzuek lehentasuna baitzuten. Haiek seme-alaba gutxiago zituzten (familia batek bi: neska eta mutila, eta besteak alaba bakarra) eta, gainera, "normalak" ziren (ez atzeratuak). Bestalde, maila ekonomiko hobea zuten eta eurek baino hobeto hezi ahal izango zituzten). Bestalde, maila ekonomiko hobea zuten eta eurek baino hobeto hezi ahal izango zituzten. Handik hiru hilabetera Jontxu hil egin zen eta lur jota geratu ziren bere familiakoak, oinazeak barrena lehertuta".

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURA

Tutoretza

2. JARDUERA:

ANAIA HANDIA

Autoestimua ez da jaiotzez edo genetikoki heldu zaigun berezitasuna –begien edo larru-azalaren kolorea bezala, atzamar luze/laburrak, etab.–, bizitzan zehar garatuz eta hezurmamituz doan ezaugarria baizik. Inguruan ditugun pertsonak ezagutuz goazen heinean estimagarriak edo arbuiagarriak iruditzen zaizkigun bezala, geure burua maitatzen ere ikasten dugu zenbat eta hobeto ezagutu. Autoestimua, hortaz, landu egin behar da. Geure autoestimua sendo eta osasuntsu garatzea nahi badugu, hazi egin beharko dugu eta horretarako elikagairik egokiena nork bere alde ona ezagutzea da, ezaugarri positiboak nabarmentzea (jokabide aproposak, trebeziak...). Era berean, alde negatiboari ere aurre egin beharko diogu...

Irakasleak zereginaren berri emango die ikasleei: "Geure ezaugarri positiboak sendotu eta negatiboak ahuldu egingo ditugu".

■ HELBURU NAGUSIAK

- Nork bere buruaren ezagutza areagotzea.
- Nork bere buruaren balioztapen eta onespen jarrera garatzea.
- Besteentzat ere pertsona maitagarri eta errespetagarriak garela sentiaraztea.
- Nork bere ezaugarri onuragarriak identifikatzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Geure ezaugarri onak eta gure lagunenak izendatzea.
- Autoindartze positiboa praktikatzea.
- Sormena garatzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: gelan, bosteko taldeetan, mahaiak biribilean jarrita.

BALIABIDEAK: kartulinak, eta idazteko, marrazteko eta margotzeko tresnak.

JARDUERAREN IRAUPENA: 30 minutuko 4 edo 5 saio (ikasle kopurua eta adinaren arabera) txostena egin eta berrikusiz joateko. Azken saioa 40 minutukoa.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak hau esanez hasiko du eginkizuna: *"Talde bakoitzean bost ikasle zarete eta bostok izan zarete "Anaia handia" izeneko telesaio baterako aukeratuak.*

Arauak edo hasi aurretiko baldintzak honako hauek dira:

- Ikasleen taldeak edonola aukeratuak izango dira.

- Txostena burutzeko gidoi batez balia daitezke.
- Jardueraren iraupena aldatu egin daiteke ikasleen adinaren arabera.
- Saria zein izango den ikasleek eurek erabaki dezakete lehiaketa hasi aurretik.
- Epaimahaia irakasle batek edo bik eta talde bakoitzeko ikasle batek osatuko dute.
- Txostenak agerian jar daitezke ikasgelan.

Zu zeu aukeratutako bat zara eta, arauetan esan bezala, hiru hilabeteko epea duzue saria eskuratuko duen taldea zein den jakiteko. Saria hauxe izango da: zu(e)k urtean zehar izan nahi duzu(e)na izatea (edo gehien desiratzen dituzuen hiru gurariak lortzea). Zer egin behar da? Astero-astero txosten bat aurkeztu beharko duzue (txosten nagusia) taldekideei buruz. Txosten horretan adieraziko duzue zein arrazoi duzuen –betiere egiak izanez gero– taldekide bakoitza guztiz baliotsua dela (bere izaera, trebeziak eta berezitasunengatik) eta inguruko umeei laguntza handia eskain diezaiokeela frogatzeko eta epaimahaikoak horretaz konbentzitzeko. Txosten horri puntuak emango dizkio irakasleek eta ikasleek osatutako epaimahai batek. Hiru hilabeteren buruan balorazio globala egingo da. Azkenean, txostenik joriena burutzen duen taldeak eskuratuko du saria".

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Arte Hezkuntza (Plastika eta Ikus Adierazpena / Adierazpen Dramatikoa / Musika) / Euskara / Gaztelania.

3. JARDUERA:

SOS ALBANIA

Ume guztiek dituzte beren gaitasun eta berezitasunak. Bere inguruan gaudenon eginkizuna da, berriz, barnean dituen gaitasun horiek azaleratzen eta garatzen laguntzea. Hartarako, une oro behar duen laguntza eman behar diogu (sendatuz gaixo denean, elikatuz hazi eta hezi dadin, triste eta kezkaturik dagoenean entzunez, bere burua zaintzen irakatsiz –garbitzen, behar den adina ordu lo egiten, etab.–). Haurrak bizibaldintza egokiak baditu, osasuntsu eta zoriontsu haziko da, baliotsu eta garrantzitsu sentituko da, hots, gustura sentituko da bere buruarekin.

Irakasleak zeregina azalduko die ikasleei: "Premia handiko bidaia bat antolatuko dugu Europako herrialde txiki batera laguntza humanitarioa eramateko".

■ HELBURU NAGUSIAK

- Taldearekiko elkarlana eta lankidetza-jarrera bultzatzea.
- Haurraren babeserako eskubideaz gogoeta egitea.
- Besteentzat ere pertsona maitagarri eta errespetagarri dela eta haientzat baliagarri ere izan daitekeelako sentimena garatzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Nork bere trebetasunak ezagutzea eta haiek baloratzen ikastea.
- Talde-lan bat burutzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan, taldeka eserita.

BALIABIDEAK: idazteko tresnak eta Europako mapak.

JARDUERAREN IRAUPENA: 40 minutu.

■ JARDUERA NOLA BURUTU:

Irakasleak zeregina azalduko die*: "Eman dezagun umeen GKE bateko partaide zaretela (*azal iezaiezue Gobernuz Kanpoko Erakunde bat zer den*) eta premiazko eginkizun bat bete behar duzuela: Albaniako hiriburutik, Tiranatik, hango umeek igorritako SOS mezu bat jaso duzue laguntza eske. Egoera larrian daude, gerraren ondorioz goseak hiltzen ari baitira. Zuek konboi bat –jakiz hornitutako kamioiak– kontratuko duzue Tiranara elikagaiak hiru egunen buruan irits daitezen. Baina arazotxo bat duzue: gidariak oso trebeak dira kamioiak gidatzen, baina ia ez dakite irakurtzen eta zeuek joan beharko duzue beraiekin. Ibilbidea ere markatu beharko diezue, Bilbotik irtenda. Taldekide bakoitzak Europako mapa zati bat du eta berak bakarrik begira dezake (ezin dio lagunari erakutsi). Denon artean ibilbidea marratu behar duzue. Adieraz ezazue*

zehatz-mehatz zein hiri eta herritatik igaro behar duen konboiak eta antola ezazue dena kamioi-gidariek argi eta garbi uler dezaten".

Irakasleak bakar-lan eta talde-lanerako denborak muga ditzake.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Arte Hezkuntza (Plastika eta Ikus Adierazpena) / Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera.

ETXEKOENTZAKO

FITXA

Guraso agurgarriok:

Autoestimua gure iritziz ezinbesteko baldintza da zuen seme edo alaba behar bezala hazi ahal izan dadin. Horrexegatik ari gara ikasgelan lantzen, bizitzan agertuko zaizkion eragozpenei egokiro erantzuteko behar dituen errekurtso pertsonalak garatuz. Zuen seme edo alaba oztopo eta erronkak gainditzeko gai sentitzen den ala ez, laguntza hartzeko merezimendurik baduen ala ez, hitz batez, bere buruarekin nola sentitzen den, halako jarrera erakutsiko du. Bere buruarekin harro sentitzen bada, arazoei aurre egiteko jarrera ausartagoa izango du.

Autoestimu osasuntsuaren garapenean zuok gurasook duzuen erantzukizuna ez da, hortaz, batere txikia, baina ez horregatik ikaratu. Bidea ibiliz egiten da. Horretarako, honako ariketatxo hau proposatzen dizuet: "X-Z FAMILIAREN LAN-TALDEA". Helburua zeuen familia lan-talde bat balitz bezala antolatzea da: astean zehar senitarteko guztiek –aitonak, amonak, aitak, amak, neba-arrebek...– zenbait ardura eta zeregin dituzte (bakoitzaren adin eta gaitasunerako egokiak direnak, jakina). Denon artean erabaki eta idatziz jasoko dituzue. Astearen amaieran berrikusi egingo dira eta ondoen betetzen dituenak sari berezia izan dezake.

PERTSONA	ZEREGINA	BETETZE-MAILA
Adibidez: Xabier	- Gauetan mahaia batu (jaso). - Amamari lagundu bizikleta estatikoa mugitzen	Astelehen, astearte eta ostegunetan

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

UNITATEAREN BALORAZIOA

Duela zenbait urte Elizbarrutiko Caritas-ek honako eslogan hau erabili zuen aterperik gabeko pertsonak direla-eta sentsibilizazio-kanpaina bati ekiteko (txaboletan egoera penagarrian edota kale gorrian kartoi artean lo eginez bizi diren gizon-emakumeak, haur eta nagusiak): *"Ez daukat aterperik; bai, ordea, eskubiderik"*. Egizu hausnarketa esaldi horren esanahiaz eta erantzun ondoko galderei:

1. Kalean bizi diren umeek beste pertsona guztien eskubide berberak merezi dituzte? Arrazoitu erantzuna.
2. Zein da, zure ustez, edozein gizakik duen lehen eskubidea?
3. Norena –edo nortzuena– da ardura, "aterperik gabeko" umeek euren eskubideak erabili ahal izan ditzaten? Izenda itzazu gutxienez hiru arduradun:

a) _____

b) _____

c) _____

NI DESBERDINA NAIZ, NI BEREZIA NAIZ

■ IDEIA NAGUSIA

"Bi pertsona berdin baino gauza desberdinagorik ez dago". Itxuraz kontraesana den esaldi honetan oinarritzen da Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmeneko eskubide bat: arraza, kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, iritzi politiko, jatorri, maila ekonomiko edo beste baldintzagatiko inolako bereizketarik ez egitearena. Azken batean, berdintasuna onartzea desberdintasunak errespetatuz.

Gizaki guztiak dira, izatez, BERDINAK juridikoki (horretan animaliengandik, landareengandik edo bestelako izakiengandik bereizten dira). Hau da, denek dituzte eskubide berberak eta neurri berean.

Orobat, gizakiak oro dira EZBERDIN eta banakako berezitasunak deritzen funtsezko edo garrantzirik gabeko desberdintasunen bidez bereizten dira elkarrengandik.

■ HELBURUAK

- Nork bere buruaz gogoeta egitea: trebetasunak, izaera, gogoko gauzak...
- Pertsona ezaugarriei buruzko kontzientzia areagotzea.
- Pertsona bakoitzak –gizonezko zein emakumezko izan– bere ezaugarri eta berezitasunak dituela gogoan hartzea.
- Aniztasunak aberastasuna dakarrelako ideia indartzea.
- Berdintasunaren ideia garatzea.

■ UNITATEAREN GARAPENA

Hasierako esaldira itzuliz –"bi pertsona berdin baino gauza desberdinagorik ez dago"–, ideia hori nabarmentzeko adibide asko jar daitezke. Esaterako, aita edo amarentzat berdin al litzateke erditzearen ondoren edozein ume emango baliete? Ziurtasun berbera ematen al du zirujau batek edo bestek "bihotza irekita" egindako ebakuntzan? Ez, noski, ume guztiak eta kirurgilari kardiobaskular guztiak ez baitira berdinak.

Jaiotzetik bertatik pertsona bakoitza berezia da: bakoitzak kanpo-itxura (begien, adatsaren edo azalaren kolorea, zenbait elbarritasun edo ezintasun fisiko...) ematen dion kode genetiko bakarra eta errepikaezina du (bikien kasuan izan ezik). Pertsona bakoitzak aita bakarra eta ama bakarra du, leku batean edo bestean jaio da (etxean, erietxe pribatuan, publikoan...), herri edo hiri batean bizi da (Zeberio, Beasain, Madril, Uganda, Brasil...), gustu eta interes bereziak garatzen ditu, nahiago ditu lagun batzuk beste batzuk baino, etab.

Lehen begirada batean, badirudi oso erosoa litzatekeela munduko pertsona guztiak arlo guztietan berdinberdinak bagina, bai arlo fisikoan, sozial eta afektiboan, bai interesei, gustuei edo sineskerei dagokienez. Dena litzateke errazago, aurretiaz jakingo baikenituzke jokaerak, portaerak aurreikusiko genituzke, pertsona guztiok izango genituzke ahalmen eta gaitasun berberak; baina iritzi eta kultur desberdintasunak, ideologia

eta interes diferenteak alde batera utzita, baita desberdintasun fisiko eta trebetasun diferenteak desagertuta ere, ez ote litzateke pobretuko gure gizartea? Nola aberastu geure ideiak? Nola sentipenak? Zerk harrapatuko gintuzke ezustean? Nola harrituko ginateke? Zorionez, desberdinak gara.

Horren bitartez desberdintasuna aldarrikatu nahi dugu, horixe baita gizakiaren aniztasun eta aberastasun iturri. Ezin daitezke inola ere gure arteko desberdintasunak bereizketak egiteko erabili, ezta pertsona batzuek beste batzuek menderatu nahi izatea sexu, arraza, maila ekonomikoa, ezintasun fisiko eta psikikoak... arazoengatik, ezta gehiegikeriak eta nagusikeria-jarrerak justifikatzeko ere. Desberdintasunak direla-eta, era horretako bereizkeriak ekiditeko modua hauxe da:

1. *Denok, ditugun eskubideei dagokienez behintzat, berdinak garelako ideiari ekinez.* Ildo horretan, itxura, maila ekonomikoa, adimen-kozientea, jatorria, arraza, etab. edozein direlarik ere, zeinahi umek du nortasun bat izateko eskubidea, ikasteko eta hezkuntza hartzeko eskubidea, tratu txarrik eta esplotaziorik ezagutuko ez duen maitasun giroan bizitzeko, bere gaitasunak garatzea bermatuko duten babes eta zainketa izateko... Halaber, bere iritzia agertzeko eskubidea du, aisialdia izateko eta jostatzeko, etab.
2. *Geure autoestimua sendotuz, gizaki guztiok baitugu bakarrak izateko beharrizana, nortasun eta ezaugarri fisiko bereziak edukitzeko beharra.* Errealitate honek aniztasunaren puzzlearen ezinbesteko pieza bihurtzen du pertsona, baliotsu eta, bai besteentzat eta bai bere buruarentzat, estimagarri eta errespetagarri sentiaraziko du. Barne-konbentzimendu horrek, batetik, konfiantza emango dio bizitzako egoerei aurre egin ahal izan diezaion eta, bestetik, segurtasun handiagoa, bai egoera horietaz gozatzean, bai bere eskubideak defendatzeko orduan ere.

Azkenik, esan liteke pertsona bakoitza bere herentziaren eta bera garatzen deneko ingurugiroaren emaitza dela. Kode genetiko berdin-berdin bi ez daudenez gero (sorkide diren biki unibitelinoak izan ezik), ezta testuinguru berdin-berdinak ere, inoiz ez dira pertsona berdin-berdin bi izanen, pertsona direlako hasiera-hasierako egitatean izan ezik, eta, beraz, pertsona diren aldetik, eskubide berberak zor zaizkie.

■ ZER LANDU GAI HONEN INGURUAN?

Irakasleek

- Ikasle bakoitzaren gaitasunei egokitutako xede egingarriak ezarri.
- Beste kultura, komunitate eta abarreko umeei buruzko iruzkin iraingarriak zentsuratu, alegia, aurreiritzi eta estereotipoak islatzen dituztenak.
- Elkarlana bultza dezaketen talde-dinamikak sortu.
- Bereizketarik eza Ikastetxearen Curriculumaren barruan jaso.
- Ikasleen integrazioaren aldeko programak edo egitasmoak garatu.
- Eredu ona izan, desberdintasunen aurrean jarrera positiboa erakutsiz.
- AJAn gai honen inguruan klaustroak hartutako erabakiak idatziz jaso.

Familiak

- Seme / alabarekin hitz egin hark maite dituen beste pertsona batzuez (amona, lagunik onena, irakaslerik onena...) eta galdetu ea zer dela-eta diren hain bereziak.
- Bere aita eta amarentzat, ume berezi eta bakarra egiten duten ezaugarriak azaldu.
- Berari buruz hitz egiteko era zaindu.

1. JARDUERA:

GUTUN-TRUKE PRIBATUA

Azken garaiotan, gero eta sarriago, albiste asko entzun eta irakurri ohi ditugu giza-genomaz eta kode genetikoaren inguruko aurkikuntza handiez. Ikerketa hauek direla eta, gizakien klonazioaz ***** ere hitz egitera iritsi gara (gogora dezagun Dolly ardiaren kasua). Lortuko al da bi gizaki berdin-berdin egitea? Gauza guztietan berdinak, kanpo-itxura eta barne-mundua berdinak dituzten gizakiak egiteraino? Guk garbi dugu hori ezinezkoa dela. "Klonatu" ahal izango dira gizakiak, beren kode genetikoa erabat berdina izango dute, baina pertsona bakoitzak bere berezitasunak izango ditu: "bere" familia, "bere" lagunak, "bere" gustuko janzkera, "bere" hobby edo zaletasunak, "bere" emozioak (nahigabeak, poztasunak...), bakoitzak bere inguruko gertakariei ematen dizkien erantzunen ondorioz.

Irakasleak jarduera honen nondik norakoak azalduko ditu: "Gure adineko neska-mutilekin harremanetan jarriko gara, haiek pixkatxo bat ezagutzearren eta munduan den aniztasun izugarriaz kontura gaitezen".

***** KLON: jatorrizko zelula ama bakar batetik zehatz-mehatz berregindako *izakia*.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Pertsona ezaugarriei buruzko kontzientzia areagotzea.
- Pertsona bakoitzak –gizonezko zein emakumezko izan– bere ezaugarri eta berezitasunak dituela gogoan hartzea.
- Autorrespetu jarrera garatzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Nork bere buruaren eta bere berezitasunen deskribapena egitea.
- Bere adineko beste ume batzuen ezaugarri bereizgarriak ezagutzea.
- Desberdintasunak positiboki deskribatzea.
- Geure nortasun bereziaz pentsatuz gozatzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan, biribilean eserita.

BALIABIDEAK: idazteko tresnak.

JARDUERAREN IRAUPENA: 40 minutu.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak zeregina azalduko die ikasleei: *"Gutariko bakoitza bere adineko hiru pertsonarekin jarriko da harremanetan, baina beste erkidego edo beste herrialde batzuetakoak izan beharko dute. Haiekin bat*

egiteko Internet edo beste bitarteko batzuk erabil ditzakezue. Behin pertsonak aukeratuz gero, eskutitz bana (edo gehiago, komenigarri irudituz gero) idatziko diegu, norberari buruzko informazioa emanez. Adibidez: datu pertsonalak (izen-deiturak, beste hizkuntza batzuetako balizko ordainak...), neure itxura, familia, lagunak, ikasketak (gehien eta gutxien gustatzen zaidana), nire herria/hiria, ohiturak (jaiak eta bestelako ospakizunak), aisialdian zer egiten dudan, etab.

Bakoitzak bere erantzun gutuna jaso ondoren, ikasgelan jarriko dira denak ikusgai (nahi den bezala egin daiteke: erantzuleen jatorriaren arabera, jasotzaileen arabera...) eta bertan izango dira astebetean, denek irakur ahal izan ditzaten.

Ondoren, bateratze-saio bat egingo da berezitasunik deigarrienak aipatzeko eta Europako edo Munduko mapetan jasotako eskutitzen jatorriak kokatuko dira".

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Euskara eta Gaztelania / Atzerriko Hizkuntzak / Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera / Informatika.

2. JARDUERA:

ESTIMAGARRIEN HORMA-IRUDIA:

"Dena ...-ri buruz", "X pertsona bere taldeak ikusita" edo "... ... bere ikaskideen arabera"

Geure buruari begira jarrita, sarritan –gehiegitan– geure irudi on eta baikorra erakusten duten ezaugarriei erreparatu barik, gustatzen ez zaizkigun eta tristura, nahigabea edo etsipena eragiten diguten ezaugarriei erreparatzen diegu eta horiei ekin eta ekin ibiltzen gara... Horrek baliogabeko pertsonaren sentsazioa dakarkigu, kontuan izatea merezi ez duen huskeria sentitzeraino. Ohitura makurra dugu berau, eta geure buruarekin ez eze, inguruko pertsonekin ere gauza bera egiten dugu.

Horrezaz gainera, haurtzaroan eta gaztaroan ikaslea oso sentibera izaten da oraindik eta inoren iritziak eragin handia izaten du berarengan, bai inguruan dituen nagusien iritziak, bai ikaskideenak. Hori dela eta, adin honetako ikasleak gogoko izaten ditu besteek berari buruz esaten dituzten laudoriozko iruzkinak.

Irakasleek jardueraren funtsa azalduko die ikasleei*: "Saia gaitezen ezaugarri on eta baikorrei erreparatzeko ohitura hartzen. Pertsona bat desberdin eta apartekoa egiten duten ezaugarri onak landuko ditugu, pertsona izaki berezi eta bakarra baita –den bezalakoa delako, besterik gabe–, munduan bere lekutxoaren jabe izateko eskubidea duena".*

■ HELBURU NAGUSIAK

- Besteen "alde ona" nabarmentzeko ohitura garatzea.
- Pertsona bakoitzak bere ezaugarri eta berezitasunak dituela gogoan izatea.
- Gure inguruko pertsonenganako begirune-jarrera garatzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Ikasgelako pertsonen ezaugarri on eta baikorrak zehaztea.
- Beste pertsona batzuen berezitasunak aintzat hartzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: gelan.

BALIABIDEAK: norberaren argazkia, kartulinak, idazteko edo margotzeko tresnak.

JARDUERAREN IRAUPENA: jarduera hau ikasturte osoan zehar egitekoa da. Bestalde, aste amaieretan 5 -10 minutuko bateratze saio laburrak egingo dituzte ikasle guztiek, banan-banan.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak zeregina azalduko die ikasleei*: "Taldeko guztiok ikaskide bati buruz lan egin behar duzue. Aste bakoitzean (astero barik egunero ere egin liteke) pertsona bat aukeratuko da (ziurtatu egin behar da ume*

guztiek izango dutela euren horma-irudia) eta bere argazki bat –edo irudi bat– duen kartulina bat jarriko da horman. Ikasgelako beste ikaskideok pertsona horri buruzko ezaugarri baikor eta onak idatziko dituzue. Denok idatzi behar duzue zerbait, aste horretan zehar edozein egunetan eta edozein ordutan. Honelako zerbait jar daiteke kartulinan, adibidez: "Alexander Salazar bere ikaskideen arabera". Inork iruzkin ezkor edo iraingarririk idatz ez dezan, komenigarri litzateke irakasleak berak hastea eta kartulina-buruan denok segida emateko moduko esaldia jartzea, hala nola: "Alexander Salazarren ezaugarrien artean (gehien) gustatzen zaidana . . . da". Denek zerbait idatzi dutelarik eta astea (edo eguna) bukatuta, bateratze-saio bat egingo da. Bateratze-saioan dagokion pertsonari ea zer-nolako esperientzia izan den galdetuko zaio. Azkenean, horma-irudia etxera eraman dezake bere guraso eta senideei erakusteko".

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Euskara eta Gaztelania / Arte Hezkuntza (Plastika eta Ikus Adierazpena) / Atzerriko Hizkuntzak / Tutoretza.

3. JARDUERA:

EGIA ALA GEZURRA? – BEGI BIEN ERDIAN SUDURRA

Gizaki guztiak izatez berdinak diren arren, banakako berezitasunak deritzen funtsezko edo garrantzirik gabeko desberdintasunen bidez bereizten dira elkarrengandik. Beraz, gizakiak badira eta EZ dira berdinak. Kontraesana dirudi, baina ez da. Honela azal daiteke:

- Pertsona guztiak BERDINAK DIRA LEGEAREN AURREAN, hau da, legearen arabera pertsona guztiak dira gai eskubide berberak edukitzeko (gizarte batek denon ongizatea bermatzeko ezartzen dituen arauak dira eskubideak eta agintariak dira horien babesle).
- Pertsona bakoitza bakarra da eta desberdina beste guztiekiko, bakoitzak ezaugarri morfologiko bereizgarriak baititu, inguruko gertaerak ulertzeko eta haien aurrean erreakzionatzeko modu berezia, bakoitzak bere jokabideak, bere-bereak diren azturak, trebeziak... eta bukaerarik gabeko abar luze bat.

Irakasleak jardueraren xedea azalduko die ikasleei: *"Bi pertsona berdin baino gauza desberdinagorik ez dago". Horra eztabaidarako eta gogoetarako gaiaren izenburua. Geure inguruko adibideak oinarritzat hartuta –etxea, ikastetxea, herri/hiria...–, esaldi horrek adierazten dituen berdintasun- eta desberdintasun-kontzeptuez jardungo gara".*

■ HELBURU NAGUSIAK

- Gizakien "berdintasun" eta "bakantasun" kontzeptuez gogoeta egitea.
- Giza eskubideen esparruan sartuz joatea.
- Pertsona bakoitzak bere ezaugarri eta berezitasunak dituela kontuan izatea.
- Inguruko pertsonenganako begirune-jarrera garatzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Iritziak adierazten ikastea.
- Beste ikaskideen iritziak entzutea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: gelan, taldea bi azpitaldetan banaturik eta, biribil erdiak eginez, aurrez aurre jarriko dira.

BALIABIDEAK: eztabaida gidatzeko esaldiez hornituriko orria.

JARDUERAREN IRAUPENA: 40 minutuko saio bakarra (10 minutu prestatzeko, 20 minutu eztabaidarako eta 10 minutu iritziak bateratzeko).

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak zeregina azalduko die ikasleei: *"Orain, orri bana emango dizuet eta bertan berdintasuna/justizia eta desberdintasuna/berezitasuna/bakantasuna kontzeptuei buruzko baieztapen batzuk irakurri ahal izango*

dituzue. Talde bakoitzak aldeko edo aurkako argudio eta adibideak pentsatuko ditu, defendatu behar duenaren arabera. Hamar minutu dituzue horretaz hausnartzeko eta ondoren eztabaidari ekingo diogu".

BANATUKO ZAIZKIEN ESALDIAK:

1. "Haurtxo guztiak berdinak dira: jan, lo, txiza eta kaka besterik ez dute egiten".
2. "Umerik azkarrenei, adimentsuenei, arreta handiagoa eskaini behar diete irakasleek, haien esku izango baita gure herriaren etorkizuna".
3. "Mutil guztiei gustatzen zaie futbola; neskek, berriz, nahiago izaten dute andrakila eta panpinekin jostatu".
4. "Nire aitak/amak bera bezala-bezalakoa naizela esaten dit".
5. "Nire lagunak nitaz trufatzen dira, mutila izateko ahots gozoegia omen dudalako".
6. "Ume guztiek atsegin dute lagunak izatea".
7. "Ume nagusiek aginduak eman diezazkiekete txikiei, gehiago baitakite".
8. "Eztei egunean emaztegai guztiak dira berdinak".
9. "Gaixorik gaudelarik, denoi gustatzen zaigu aitak eta amak zaintzea".
10. "Herrialde aberatsetako umeak hobeto zaindu behar dira leku pobreetako umeak baino, gutxiago baitira".
11. "Ume atzeratuak aparteko geletan egotea komeni da, besteak atzeratuko bailituzkete bestela".

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Euskara eta Gaztelania / Tutoretza.

ETXEKOENTZAKO FITXA

Guraso agurgarriok:

Eskolan autoestimua lantzen ari gara, denok berdinak eta aldi berean desberdinak garela abiapuntutzat hartuta. Hau da, ez daude munduan pertsona berdin bi –eskubideetan izan ezik– ; beraz, mundu osoan ez dago zuen seme edo alaba bezalako umerik eta horrexegatik da, hain zuzen ere, zuentzat berezia eta maitagarria. Hala ere, eguneroko bizimoduan, beraien adineko beste umeak bezalakoak direla adierazi beharrean, kontrakoa adierazten diegu geure esaera eta iruzkinen bidez. Gure ustez, geure umeez ari garelarik erabiltzen dugun hizkerak eragin handia du haren autoestimu eta segurtasunean. Horregatik, autobehaketa ariketa bat proposatzen dizuegu, zeuen seme-alabei zer-nolako mezuak bidaltzen dizkiezuen ohar zaitezten. Horrekin batera, gehien egiten diren akatsak bidaltzen dizkizuegu eta hauek nola zuzendu.

Zuen hizkera zaintzeko

EZ	BAI
KLITXEAK Zuok umeok... Gaurko gazteria... Ume guztiak berdinak zarete! Horrelakoak al zarete gaur egungo neskak?	**SENTIMENDU BAIKORRAK ADIERAZI** Maite-maite zaitut. Zein ondo egon naizen zurekin! Gustatzen zait zurekin berba egitea. Zutaz harro nago . . . –nean. Oso garrantzitsua zara niretzat.
SASI-PSIKOLOGOAK Zu nagi hutsa zara, horixe besterik ez! Ez duzu pentsatzen, horixe da zure arazoa! Zure atzetik norbait behar duzu beti! Arreta erakarri egin nahi duzu, ez besterik!	**AINTZAT HARTU – INDARTU** Oso trebea zara . . . –t(z)eko. Grazia berezia duzu! Goxo-goxo kantatzen duzu. Zorionak atzokoagatik. Zein ederra zaren! Egia esan, ahalegin handiak egin dituzu. Letra hobea darabilzu orain.
KONPARAZIOAK Zure arreba/ahizpa beti izan da zu baino . . . –agoa. Ikerrek ez lioke inoiz horrela hitz egingo aitari. Honek lehenengoan harrapatzen du; horrek, ordea... Zeure aita bezalakoxea zara...!	**KRITIKA EGOKIAK** Haserretu egiten naiz kanpoan jolasten geratzen zarenean jakinarazten ez badidazu. Atzo aitari agiraka egitea gehiegikeria izan zen. Batu zeure arropa zikina, bestela haserretu egingo naiz.
OROKORREGIA – GEHIEGIKERIA Zuk beti / zuk inoiz ez . . . Den-dena egin behar al duzu txarto? Kexatu besterik ez duzu egiten. Ez zara ezertaz ere arduratzen.	**JARRERA ULERKORRA** Badakit hori erosi nahi duzuna, baina... Ulertzen dut horrek min ematea. Ulertzekoa da amorraturik egotea.
MANIPULATU – ERRUDUNTZAT JO Hil egingo nauzu. . . . –ko mina eragin didazu. Nahikoa nuen zu gabe ere! Begira zer lortu duzun. Ikusten ile urdinok? Zure erruz ditut.	

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

UNITATEAREN BALORAZIOA

Ume bakoitzak bere izen eta abizenak ditu eta horiexek erabiltzen ditugu haietaz hitz egin edo haien arreta erakarri nahi dugunean. Baina sarri askotan, izen eta abizenez gain edo haien ordez, pertsona horren berezitasunen bat gogorarazten digun goitizen edo "ezizen" bat erabili ohi dugu. Batzuetan itxura fisikoa aipatzen da ("beltza", "kirru", "hankandi", "txankamehe", "morrosko"...), beste batzuetan jatorria[1] (herria edo herriaren ezizena: "Ondarru", "Apata", "Azkoiti", "Tronperri" –Durango–, "Txantxiku" –Oñati–, "Mozollo" –Galdakao–, etab.); batzuek bere izaerari aipu egiten diote ("sorgintxu", "artobero", "babalasto"...) edo, konparazioz, animalia bati ("inurri" edo "txingurri", "musker", "lukito"...), etab. Zenbait ezizen, ordea, mingarriak izaten dira ("popandi", "kokolo" edo "betoker", kasu) eta sufriarazi egiten dute.

Pentsa ezazu horretaz eta egizu zuk erabiltzen dituzun edo ezagutzen dituzun goitizenen eta "ezizenen" zerrenda, zer dela-eta esaten zaion horrela eta nola senti daitekeen pertsona hori azalduz.

Goitizen / ezizena	Zer dela eta	Nola sentitzen ote da?

[1] Euskal Herriko toki askotan abizenak berak ere gurasoei aipu egiten die (patronimikoa), edota haien lanbideari: "Perurena", "Jaimerena", "Antsorena", "Mitxelena", "Arotzarena" edo "Arotzena", "Argiñarena"...

ELKARRI ENTZUTEN

■ IDEIA NAGUSIA

Hitzarmenak 13. artikuluan dioenez, adierazpen askatasunaren oinarri-oinarrian entzuteko gaitasuna dago. Hortaz, informazio bat bilatu, jaso eta hedatzeko askatasuna lortuko bada, entzuteko gaitasuna trebatu beharra dago. Horren muga, berriz, ondoan dugun pertsonaren eskubideetan ezartzen du adierazpen askatasunak, gureak bezalakoak ez diren iritzi eta jarrerak entzuteko eta onartzeko gaitasunean, alegia. Bestalde, inoren lekuan jartzeko eta hari entzuteko gai izatea, pertsona adeitsu eta tolerantea izaten ikasteko modu bat da, kultura edo ingurua edozein delarik ere. Unitate honetan trebetasun hau hobetzen saiatuko gara.

■ HELBURUAK

- Edozein komunikaziotako lehen baldintzari, entzuteari, garrantzia ematea.
- Entzuteko ekintzan eragina duten hitzezko eta ez-hitzezko mezuak bereiztea.
- Mezu bat jasotzean entzuketaren eta galderen erabilera optimizatzea.
- Joan-etorriko komunikazioaren abantailak nabarmentzea.

■ UNITATEAREN GARAPENA

Adierazpen askatasunak bi trebezia desberdin biltzen ditu: lehena, mezua eskatzen eta jasotzen jakitea, hots, galderak egiten eta entzuten jakin behar da, eta bigarrena, mezu hori bidaltzeko eta zabalkundea emateko gaitasuna, hau da, adierazmena hobetu behar da. Bi gaitasun hauek garrantzi handikoak dira eta, horregatik, unitate banatan landuko dira. Mezuak jasotzeko gaitasuna hobetzea izango da unitate honen xedea; adierazteko gaitasuna, berriz, hurrengo unitatean landuko da, nork bere iritzia adierazteko eskubidearekin batera.

Informazioa eskatzeko eta jasotzeko eskubidea bete dadin, funtsezko bi trebetasun erabili behar dira: entzutea eta galderak egitea. Biak ere edozein komunikazioren oinarrian daude. Adi-adi entzutean besteak dioenaz eta esan nahi duenaz jabetuko gara. Galdegiten jakiteak jasotako informazioa zehazten eta zabaltzen lagunduko digu.

Adi-adi entzuteak aktiboki eta enpatiaz entzutea esan nahi du, hau da, norberaren eskemetatik irten eta besteak egiten duen planteamendua bere ikuspuntutik ulertzen saiatzea. Alegia, arazoa ez da nik nola ikusten dudan, baizik eta berak arazo hori nola bizi duen ulertzeko ahaleginak egitea, bere ikusmoldearekin ados egon ez arren. Izan ere, beste pertsona baten lekuan jartzeko gai izateak bizimodu eta errealitate berriak onartzeko bidean, tolerantziaren bidean, jartzen gaitu.

Entzuteak *eragin positiboak* ditu:

- Elkarrekikotasuna bultzatzen du eta harmena hobetzen. Adi entzunez gero errazagoa da besteek ere guri entzutea.

- Adimena aberasten da: beste iritzi eta ikuspuntuetatik heltzen zaizkigun ekarpenek informazioaren analisia eta ulermena hobetu egiten dituzte. Entzuten duten pertsonak komunikatzaile trebeagoak izan ohi dira, galdera zuhurragoak egiten dituzte eta gaiari egokiago erantzuten diote.
- Autoestimua hobetzen du. Entzuna sentitzen den pertsona onartua sentitzen da eta solaskidearekin gustura.
- Enpatia lortzeko gaitasuna areagotzen du. Arretaz entzuteak "bestearen larruan" sartzen eta haren jarrera hobeto ulertzea ahalbidetzen digu.
- Lankidetza giroa sortzen da. Entzuten dakiten pertsonek giro hobea sortzen dute pertsona arteko harremanetan eta haienganako iritzia hobea izaten da.

Entzuketa eraginkorra lortzeko arauak

- Aditasun osoz, solaskideari denbora emanez; dioena ez eze, esan nahi duena ere antzemanez.
- Gorputzaz, begiratuz, baiezko keinuak eginez, adierazten denaren araberako aurpegierak jarriz, arreta-jarrera erakutsiz, solaskideari begira jarriz, ukituz, etab.
- Berbaz:
  - Iruzkin laburrez edo "bai ba", "baita", "bai zera", "bai, gero?", "ez horixe!", "ez ba"... edo horrelako esamoldeak erabiliz.
  - Ulertutakoa errepikatuz edo adierazitakoaren laburpen txikiak eginez.
  - Galdera aproposak eginez.
  - Galderei ez eze, atzean duten sentimenduei ere erantzunez.
- Etengabe mozten, norberaren istorioa kontatzen edo aldi berean beste gauza bat egiten ibili gabe. Solaskidea aztoratzeak eta aurreiritziek ez diote batere mesede egiten entzuketari.

Galdegiteak helburu bikoitza betetzen du komunikazioaren alorrean: lehen xedea argibideak jasotzea bada ere, bigarrena gogoetarako bidea ematea izan daiteke, zalantzak sortuz adibidez. Galdera itxiak egiteak informazioa zehazten laguntzen du; galdera irekiak eginez, berriz, komunikazioa gogoetatsuagoa bilakatzen da.

Galdetzen jakitea eta entzuten jakitea, horra hor komunikazioaren jokoa. Estrategia biak batera erabiltzeak hurbildu egiten ditu harremanetan hasi nahi duten bi aldeak. Beraz, trebezia hauek ikasteak adierazpen askatasunaren beraren nahitaezko baldintza izan beharko luke, pertsona baten entzuketak bestearen adierazpena ahalbidetzen baitu.

Azkenik, ikasleei era honetako estrategiak irakastea hertsiki lotuta dago Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmenaren zutabe diren helburuekin, hots, besteenganako begirune, tolerantzia eta bakearekin.

■ ZER LANDU GAI HONEN INGURUAN?

Irakasleek

- Ikasle guztiei errespetuz entzun. Honek zera esan nahi du:
  - Hitz egiteko txandak errespetatzea, ikasle guzti-guztiei entzutea salbuespenik egin gabe.
  - Ez saiatu inor barregarri uzten, ironikoki edota gaizki esaka, ez hitzez ezta bestela ere.
- Galdera bat egindakoan, erantzuteko denbora eman.
- Eskola orduetan tartetxo batzuk adierazpena eta entzuketa saioak sustatzeko erabili.

Familiak

- Seme-alabekiko komunikazioa areago suspertu, zein gai den haien interesekoa ikusiz eta beraien iritzia adierazten animatuz.
- Elkarrizketa osoan haien maila berean jarri, inola ere ez haien ideiak gutxietsi edo haietaz trufatu, hots, nagusikeriarik ez azaldu.
- Haien ikuspuntutik entzun, hau da, ez arazoak guk nola ikusten ditugun, baizik eta eurek nola bizi dituzten ulertzeko ahaleginak egin.

1. JARDUERA:
ANTZERKI MUTUA

Komunikazio prozesu batean zeinu ez linguistikoek ukatu edo ordeztu egin dezakete hitzezko mezua. Komunikazio mota hau, ez-hitzezkoa alegia, ezagutzea eta lantzea hura egokitzeko era aproposa izan daiteke, baita lortu nahi dugun helburuaren alde lan egiteko ere.

Irakasleak era honetara aurkeztuko du zeregina: *"Mintzo garelarik, ahoz ez ezik (fonazio-organoez, zehazkiago), gorputzez ere mintzatzen gara. Gorputz imintzioak gehiago edo gutxiago erabiltzen dira kultura desberdinen arabera. Horrela, iparraldeko herrialdeetan keinu gutxiago egiten dituzte, elkarri ukiturik apenas egiten dioten, hizketan hegoaldeko herrialdeetan baino gutxiago "kantatzen" dute –ahots tonua ere ez da hain bizia izaten– eta solaskideen arteko distantzia handiagoa izaten da. Gaur geure gorputzaz baliatuz lan egingo dugu: gorputzaren bidez komunikatuko gara".*

■ HELBURU NAGUSIA

- Partaideen ez-hitzezko zeinuak identifikatzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Komunikazio motari dagozkion mezu ez linguistikoak igortzen ikastea.
- Bidali behar den mezuaren araberako imintzioen kalitatea bereiztea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: poltsatxo bat, txartelak eta erregistro orria.

JARDUERAREN IRAUPENA: gutxienez 15 minutuko saioa egoera bakoitzeko.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak mimikaren bidez antzezteko moduko egoera zerrenda bat batuko du. Ondoren, txartelak egingo dira, era honetako egoerak idatziz, adibidez:

- Gorra den nire ikaskidea iraindu dute.
- Klasean agiraka egin didate "lainoetan" nagoelako.
- Amak zoriondu egin nau neure gela ondo batuta edukitzeagatik.
- Saskibaloian garaipena eman digun azken saskiratzea egin dut.
- Alkohola edan dezadan ekiten didate beste ume batzuek, baina nik ez dut nahi.
- Hitz egiten didate eta zait axola.
- Gustatzen ez zaidan eta artega jartzen nauen istorio bat kontatzen didate.

- Nire lagunik onenak arazo bat kontatu dit.

Ikastaldea bi edo hiruko talde txikietan antolatu ondoren, txartel bana hartu eta, minutu bat edo biko prestaketaren ondoren, antzeztu egingo da.

Ikasleek, hautematen dituen keinu eta imintzioetan oinarriturik, egoera zein den igarri eta erregistro orrian idatzi behar dute.

TALDEA	EGOERA	ZEINU EZ LINGUISTIKOAK

Ondoren, talde handian, talde bakoitzeko partaideek antzeman dituzten zeinu ez linguistikoak antzeztuko dituzte (begirada, aurpegiera, gorputz-jarrera, nora begira jarri, distantziak, ukituak...) eta bere ondorioak arrazoituko ditu. Interesgarria litzateke aurrean izatea –arbelean edo kartulina batean– komunikazioaren elementurik garrantzitsuenak, antzezpen saioetan gida modura erabiltzeko.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Arte Hezkuntza (Adierazpen Dramatikoa) / Gorputz Hezkuntza.

2. JARDUERA:

ZERA BALITZ ...

Komunikazioa informazio-trukaketa da. Besteek eskain diezazkiguketen datuak eskatzen eta jasotzen jakitea izaten da sarritan geure arazoen soluziobidea. Beraz, funtsezkoa da datuak jasotzeko eta antolatzeko gaitasuna lantzea. Ariketa honetan ezkutuko pertsonaia aurkitzen saiatu behar dute ikasleek.

■ HELBURU NAGUSIA

- Entzunez eta galdeginez komunikazio gaitasuna bultzatzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Galdera zehatzak egiten jakitea.
- Entzutea eta datuak antolatzea soluzio eragingarrietara iristeko.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: idazteko tresnak.

JARDUERAREN IRAUPENA: 30 minutuko bi saio edo 60 minutuko saio bakarra.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Ikastaldea 4 edo 5eko talde txikietan antolatu ondoren, talde bakoitzak bi zeregin izango ditu: lehenengoa, pertsonaia ospetsu bat pentsatu (aurretiaz mugatu esparruak; esate baterako, artistak, inguruko pertsonak, pertsonaia historikoak, etab.). Bigarrena, beste taldeek zein pertsonaia ezkutatzen duten asmatzeko egin behar dizkieten galderak aukeratu eta idatzi.

Honelako galderak egingo dira: *... balitz, ...* Adibidez*: Animalia balitz, zein litzateke?*

Talde bakoitzak galdera bana egingo du txandaka, pertsonaia asmatu arte (soluzioa eman nahi izatea galderatzat hartuko da eta txanda dagokienean bakarrik egin ahal izango dute).

***** Ariketaren iraupena alda daiteke, nahi eta behar diren adina txanda egin baitaitezke. Bestalde, ariketan aipatzen diren pertsonaiak curriculumaren arlo desberdinetan erabil daitezke.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Euskara eta Gaztelania / Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera / Ingelesa.

3. JARDUERA:
DIKTAKETAK

Entzuteak duen garrantzia eta joan-etorriko komunikazioan galderak egin ahal izateak dituen abantailak nabarmentzearren, honako ariketa hau aurkezten dugu:

"Eskolan irakasleari entzuten ari naizelarik, azalpen zati batzuk ahaztu egiten ditut edo ez ditut beti ondo ulertzen. Gauza bera gertatzen zaigu beste pertsona bati entzuten diogunean, beti galtzen da informazioren bat. Ariketa honetan besteekin izaten dugun komunikazioan zein faktorek eragiten duen aztertuko dugu".

■ HELBURU NAGUSIAK

- Edozein komunikazio prozesutan entzuteak duen garrantzia aintzat hartzea.
- Joan-etorriko komunikazioaren eraginkortasuna frogatzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Entzuten eta aginduak jarraitzen jakitea.
- Behar diren adina galdera egiteko gai izatea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: idazteko tresnak.

JARDUERAREN IRAUPENA: 45 minutu.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak bi marrazki egingo ditu orri banatan –bi marrazki behar ditugu, bi baldintza desberdin landuko baitira–. Marrazkien edukiari dagokionez, herriko plaza izan daiteke, adibidez, eta han zenbait etxe, eraikin edo pertsona. Ikasleei ere eska dakieke herriko, auzoko edo etxeko irudiren bat marrazteko (euren gelakoa, kasurako) marrazki horietaz lan egiteko. Horrek beste 15 minutu luzatuko luke jarduera.

Ikasleek, diktaketaren bidez, entzunez, marrazki horiek berregin beharko dituzte euren orrietan.

Ikasgela azterketetan bezala prestatuko da, eta ez kopiatzeko eta ez hitz egiteko eskatuko zaie ikasleei. Gero, diktatzen duenaren esanetara marraz dezatela esango zaie, hark adierazten duena marraztuz.

Lehen irudian, marrazkigileak kontuan izan gabe egingo da diktaketa. Diktatzen duenak bera bakarrik balego bezala egingo du diktaketa, ezein iruzkin edo galderari jaramonik egin gabe, keinurik edo imintziorik egin gabe eta arbela erabili gabe. Bigarrenean, aldiz, irudia egiteko lagungarri izan daitekeen edozein galdera egin dakioke diktatzaileari.

Behin ariketa amaituz gero, zuzendu egingo da eta, jarraian, agertu diren zailtasunak aztertuko dira. Eztabaida puntu hauen inguruan egin beharko litzateke:

- Entzuteak duen garrantzia.
- Arreta eta interesaren eginkizuna.
- Egoera batetik bestera dagoen aldea.
- Galdetu ahal izatearen abantailak.
- Ikastaldeari aplika dakizkiokeen ondorioak.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Euskara eta Gaztelania / Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera / Arte Hezkuntza (Plastika eta ikus Adierazpena) / Atzerriko Hizkuntzak.

ETXEKOENTZAKO FITXA

Guraso agurgarriok:

Ikasgelan funtsezko eskubide bat lantzen ari gara: edozein pertsonak informazioa eskatzeko eta jasotzeko duen eskubidea, hain zuzen ere. Horretarako, beharrezko trebeziak dira entzuteko gaitasuna eta beste pertsonaren lekuan jarri ahal izateko erraztasuna. Besteen lekuan jartzeko gai baldin bagara, hobeto ulertuko ditugu haien jarrera eta iritziak.

Zeuen seme edo alabarekin batera egiteko zeregin bat proposatzen dizuegu oraingoan: aukera ezazue azken aste honetan etxean eztabaidatu duzuen gai bat eta saia zaitezte bestearen ikuspuntutik aztertzen.

Hartarako, idatz ezazue bidaltzen dizuegun orri honetan bakoitzak nola ikusten duen arazoa bestearen ikuspuntutik. Horrela, zuok, aita eta ama, ... (seme edo alabaren izena) izango zarete eta zu, ... (umea), orain, aita edo ama zara.

ROL TRUKAKETA

Elkarrizketa gai honen inguruan:.....

SEMEA/ALABA: _____

_____

_____

AITA/AMA:_____

SEMEA/ALABA: _____

_____

_____

AITA/AMA:_____

_____

_____

SEMEA/ALABA: _____

_____

_____

Mila esker zuen laguntzagatik.

UNITATEAREN BALORAZIOA

Hirunaka, trukatuko diren 3 rol desberdin jarriko dira:

- *Taldekide bat* narratzaile izango da, hau da, istorioa kontatzen duena.
- *Beste bat* entzule izango da: arretaz adituko ditu narratzailearen hitzak eta keinuak; ondoren, istorioaren laburpentxo bat egingo du.
- *Hirugarrena*, berriz, behatzaile: berak esango du entzuleak zer egin duen ondo eta zer egin dezakeen hobeto.

Komenigarria litzateke, indargarri gisa, aldian-aldian entzuketa saioak egitea.

NORK BERE IRITZIAK ADIERAZTEN JAKITEA

■ IDEIA NAGUSIA

Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmenak 12. artikuluan dioenez, haurrak bere iritzia adierazteko eskubidea dauka, baita iritzi hori aintzat hartua izan dadin ere. Bestalde, nork bere iritziak eta sentimenduak egokiro adierazten jakiteak geure harremanen kalitatea hobetzen du. Pertsonen arteko harremanetan sentimenduak komunikatzen jakitea –zerk sentiarazten gaituen ondo, zerk gaizki edo zer dugun gogoko eta zer ez, besteari errurik bota gabe eta bere ikuspuntuak ontzat hartuz– interesa, arreta eta tolerantziaren seinale da. Tolerantzia eta begirunearen bidea noranzko biko bidea da, joan-etorrikoa alegia. Alde batetik, adierazpen askatasuna dugu, hau da, nork bere iritzia askatasunez adierazteko eskubidea; bestetik, besteen iritziak jasotzeko eta entzutekoa –5. unitatea– .Elkarrekiko begirunea eta tolerantzia gauzatuko badira, beraz, bi noranzkoetan ibili beharra dago.

■ HELBURUAK

- Ikasleen adierazpen gaitasuna areagotzea.
- Ikaskideenganako sentimendu onak adieraz ditzaten adore ematea.
- Sentimendu txarrak adierazten jakitea.

■ UNITATEAREN GARAPENA

Edozein pertsonak dauka bere iritzia eta sentimenduak adierazteko eskubidea, baina era batera esan edo beste batera esan, mezua hobeto edo txarrago iritsiko da. Adierazmena eta mezuak helarazteko gaitasuna hobetzean, komunikatzeko gaitasuna hobetzen dugu, baita elkarreraginaren kalitatea ere.

Hitz egiterakoan zenbait puntu izan behar dira kontuan ezer esan ordurako:

- Aipatu nahi den gertaera ondo pentsatu mintzatzen hasi aurretik.
- Ez nahasi emozioen eta errealitatearen planoak, gauzak ez baitira beti izaten sentitzen ditugun bezalakoak.
- Esan nahi dena ondo zedarritu eta zehaztu:
  - Entzuleari berari zuzendu –gorputza bera dagoen alderantz jarriz eta aurpegira begiratuz– eta mezuarekin bat datozen aurpegiera, distantzia eta ahots tonua erabiliz.
  - Lehen pertsonan hitz eginez gero, adierazten diren iritzi eta sentimenduen erantzukizuna hartzen dela ematen da aditzera.
  - Esan beharrekoa argi eta garbi esatea. Saihestu beharreko akatsak honako hauek dira: orokortu nahi izatea, hizkera anbiguoa erabiltzea, bestearenganako kritika eta etiketak, azken bururaino eramandako interpretazio absolutuak, hitzaldi luzeegiak... mezua iluntzen baitute sarritan.
- Elkarrizketa sustatu, erantzuteko denbora emanez, solasaldia monopolizatu gabe.

Ideiak adierazten diren era berean, afektuak ere baditugu sakonagoko maila batean. Afektuok aldekoak zein aurkakoak izan, denek egiten dute gizakia libreago eta inguruarekiko harremanak hobetzen dituzte.

Aurkako afektuak, kexuak eta kritikak adieraztea, atsekabea edo bestelako sentipen negatiboak zerk eragin dituen esatea komenigarria da guztiz, zeren haserrearen sorburua zuzenean eta une egokian esanez harremanetako tentsioak ebazten laguntzen baitu. Halaber, egiazko harremana eratzeko modua izan daiteke, gustuko gauzak eta gustukoak ez direnak onartzen dituen harreman jatorragoa.

Kritika egiterakoan jarraitu beharreko arauak:

- Lehenengo eta behin, erabaki kexua adierazteko une egokia den ala ez, hau da, ea era egokian egiteko inplikazio emozional handiegia dagoen ala hobe litzatekeen beste baterako uztea.
- Eskema bati jarraituz gero, helarazi nahi dugun mezuari errazago lotuko gatzaizkio. Horretarako:
  - Arazoak sorrarazten dituen jokabidea zehazki eta argi deskribatu. Adibidez, "'beltza´ edo 'lodikote´ deitzen didazunean".
  - Eragiten duen sentipena azaldu, gehiegikeriarik gabe eta errurik bota gabe, kasu baterako: "Gaizki sentitzen naiz eta haserrarazi egiten nauzu".
  - Jokaeraz aldatzeko eskatzekotan, nahi genukeen jokabidea ere zehatz-mehatz deskribatu behar da: "nire izena erabiltzea nahi nuke".
  - Aldaketa horrek eragin positiboa lekarkeela adieraztea indargarria dateke: "hobeto konponduko ginateke horrela, seguru". Hala ere, onean lortu ezik, ondorio kaltegarriak aipatzea ere eraginkorra izan liteke: "bestela kontseilura jo beharko dut".
- Bere ikuspuntua adierazteko aukera eman.

Era berean, *aldeko afektuak adieraziz*, hots, laudorioak eta konplimenduak eginez edo bestearen alde positiboa goraipatuz, bestearenganako begirune eta estimua adierazten da. Pertsona bati arretaz entzutea ere –aurreko gaian esan bezala, enpatiaz hitz eginez, gertutasuna erakutsiz, ukituz...–, estimuaren adierazgarri izan ohi da. Horrela hainbat gauza lortzen dira: giza harremanak hobetzea, bestearen eraginkortasun sentsazioa eta autoestimua sendotzea, trukean begirune handiagoa ere jasotzen da bestearengandik eta, gainera, errealitatea era baikorragoan ikusten da.

Konplimenduak egiazkoak izateak garrantzi handia du; zintzoak izan behar dute, aproposak, egokiak eta gehiegikeriarik edo balorazio txarrik gabeak. Horrekin batera, ahots tonuak, aurpegierak eta begiradak orobat sentimendu egokia islatu behar dute.

Nork bere gurari, sentimendu eta iritziak adierazten jakitea gizaki guztien eskubidea da. Eskubide hau biribiltzeko beste gaitasun bat ere beharrezkoa da: entzuten jakitea, hau da, besteengandik informazioa jasotzeko eskubidea aztertzean landu den trebezia.

■ ZER LANDU GAI HONEN INGURUAN?

Irakasleek

- Lehen pertsonan mintzatu –"ni"– eta mezu argi, labur eta zehatzak eman.
- Adierazpen positiboak trukatzearen aldeko dinamikak burutu.
- Balioztapen positiboak ikasle guztiei helarazi.
- Ikasgelan kritikak egitean, proposatutako eskemari jarraitu.

Familiak

- Seme-alaben adierazpen gaitasuna sendotu, euren iritziak galdetu eta erantzuteko denbora emanez.
- Etxean elkarreragin positiboak ugaldu.
- Elkarreragin negatiboetan autokontrolatu, mezu argi, labur eta zehatza bidaliz.

1. JARDUERA:
NIK BADUT IRITZIA

Irakasleak boza emango die ikasleei proiekzio soziala duten gaietan; hitza eta botoa emateko aukera, alegia. Unitate honetan, ikasleen iritziei zor zaien begirunea eta duten garrantzia eman nahi zaie. Umearen adina ezin daiteke inola ere aitzakiatzat erabil, ezin daiteke eragozpen bilaka, bere iritziak aintzat hartzeko orduan. Aitzitik, iritziak adierazten ikasi behar du, adierazpena landuz bere gaitasunak garatuko baititu: analisirako eta mintzamenerako trebetasunak, irizpide kritikoa... azken batean, jakin-mina piztuko diegu eta pertsona askeago eta kritikoagoa bilakatuko da.

Erabil daitekeen testu apropos bat: El País egunkarian 2000ko uztailaren 4an, Unicef eta Mexikoko Hauteskundeetarako Institutu Federalak *"Los niños también votan en Méxixo"* izeneko artikulu bat argitaratu zuten. 17 urtetik beherako hamabi milioi umeri galdetu zitzaien ea zein arazo sozial nahi duten desager dadin. Artikulu honetan ume horien guztien botoak eta giza arazoez dituzten iritziak biltzen dira.

■ HELBURU NAGUSIA

- Ikasleen adierazmena aberastea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Beste haur batzuen ikuspuntuan jartzea.
- Azaltzen diren egoerez gogoeta egitea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: idazteko tresnak.

JARDUERAREN IRAUPENA: gutxienez 15 minutuko saioa egoera bakoitzeko.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Honako ideia honen bidez hasiko da: *"Askotan ez zaigu jaramon handiirik egiten, zeren, umeak garenez, bigarren mailako pertsonatzat hartzen baikaituzte. Guk ere baditugu ideiak, baditugu iritziak, eta hori frogatuko dugu jarduera honetan ".*

Ikasleak hirunaka edo launaka taldekatuz, azaldutako egoerei erantzuna emango diete, euren iritzia emanez. Ondoren, taldeak ateratako ondorioak azalduko dituzte talde handian. Gomendagarria da taldeko pertsona bakoitzak galdera bati erantzutea.

Irakasleak honako egoera hauek aurkeztuko ditu:

- *"Lehengo egunean Iker deitu zuten epailearengana. Geroago geuri kontatu zigun: bere gurasoak banatzekotan dabiltzanez, Ikerrek "bere aita edo ama gal ez dezan" bere esku dagoen guztia egingo*

duela esan omen zion epaile andreak eta ea bere ustez zer zen bidezkoena galdetu omen zion". Iker bazina, zer erantzungo zenioke?

- *"Albita ikasgelan dagoen kubatar neskato bat da. Lehengo egunean Ander eta Ainhoaren taldekoek iraindu egin zuten bere larruazalaren koloreagatik eta atzerritarra izateagatik. Beltzak zuriak baino tentelagoak direla esan zioten eta bere herrialdera joateko". Zer deritzozu? Benetan leloagoak direla uste duzu? Zergatik?*
- *"Mariak jakin ahal izan duenez, Mikelen aita etxera mozkor-mozkor eginda etorri eta Mikel jo egin omen zuen. Horixe omen da eskolara hiru egun hauetan etorri ez izanaren arrazoia".*
- *"Fata afganiar neskatila bat da, bere amarekin Afganistandik ihes egitea lortu zuena. Herrialde hartan geratu balitz, oso dohakabea izango zen, emakume jaio direnek ez baitute inolako eskubiderik. Izan ere, bere ahizpak, Aliak, ezin izan zuen handik irten, eta orain ezin daiteke eskolara joan, ezta medikuarenera ere gaixorik dagoenean. Bere aitaren menpean biziko da beti, hark beste pertsona nagusiago batekin ezkontzeko saldu arte". Zer deritzozu Aliaren bizimoduari? Zer-nolako etorkizuna izango du? Bidezkoa iruditzen al zaizu? Eta zer-nolako bizimodua izango du Fatak? Zein abantaila du hemen jaio izanak?*

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Euskara eta Gaztelania / Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera.

2: JARDUERA:

GUSTATZEN ZAIT, EZ ZAIT GUSTATZEN

Jarduera honetan afektu positibo eta afektu negatiboen adierazpena landuko da. Begikotasuna eta ezinikusia era egokian adierazi behar dira, ondoko eskeman azaltzen diren arauei jarraituz:

- Hitz egiten diogun pertsonari berari zuzendu – gorputza bera dagoen alderantz jarriz eta aurpegira begiratuz– eta mezuarekin bat datozen aurpegiera, distantzia eta ahots tonua erabiliz.
- Lehen pertsonan hitz egin, lehenik zer dugun bere alde esanez, "niri gustatzen zait...", eta geroago zer ez dugun gogoko, "ez zait gustatzen zure...".
- Esan beharrekoa argi eta garbi esan, azalpenetan nahasi gabe.
- Bere ustea galdetu, iritzi kontua da eta.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Ikasleen adierazmena hobetzea.
- Gelan azaleratzen diren emoziozko adierazpenak areagotzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Emozioen adierazmena hobetzeko arauak ezagutzea.
- Afektu positiboak eta negatiboak bereiztea pertsona berarengan.
- Sentimendu on eta grina txarren komunikazioa praktikatzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: idazteko tresnak eta erregistro-orria.

JARDUERAREN IRAUPENA: 45 minutuko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak zeregina azalduko die: *"Egunero-egunero jende askorekin egiten dugu topo, etxean, kalean, gelan... Pertsona horiengan geure gustuko gauza asko aurkitzen ditugu eta zoriontsu egiten gaituzte; beste batzuetan, aldiz, esaten edo egiten dituzten gauzek ez digute batere graziarik egiten. Izan ere, denok ez gara berdinak eta pertsona perfekturik ere ez dago. Gaurkoan, geure ikaskideei erreparatuko diegu eta eurengan zer dugun gustuko eta zer ez esango diegu"*.

Irakasleek zenbait iradokizun egin ditzake, hala nola, ezaugarri fisikoak edo psikologikoak kontuan hartzeko, haien gauzak, jokabideak, haien adeitasuna eta detaileak hurbilen dituen lagunekiko... Erregistro orrian zer gustatzen zaion eta zer ez idatziz joango da 15 bat minututan.

Ikaskideak	Gustatzen zait	Ez zait gustatzen

Idatzitakoa bere ikaskideei aurkeztu baino lehen, era egokian adierazteko jarraitu behar den eredua azalduko da. Aurkezpena ahoz edo idatziz egin dezakete, irakaslearen iritziaren arabera.

■ CURRICULUMAREN BESTE ARLOEKIKO LOTURAK

Euskara eta Gaztelania / Tutoretza.

3. JARDUERA:
KEXA-KAXA

Grina txarrak adierazteak sumindura eta ezinikusi askoren iturburuak baretzen laguntzen du. Harreman giroa hobetzeko oso era gomendagarria dugu, zalantzarik gabe, gai hau gela barruan lantzea. Oso garrantzitsua da, bestalde, kexa bat ematerakoan axaleko kontuetan edo eraso-kontraeraso borroka antzuetan ez galtzea. Hargatik, eskema honi jarraitu beharko litzaioke (komenigarria da lantzen den bitartean denon agerian egotea, arbelean edo kartulina batean):

- Esan zer gertatu den (jokabideak). Esazu argi eta garbi. Zehaztu. Ez orokortu edo hitz absolutuetan hitz egin.
- Zer eragin dizun (nola sentitu zaren).
- Uzi berari ere hitz egiten.
- Esaiozu zer nahi zenukeen berak egitea.
- Orain, esaiozu zein alde on duen horrela egiteak eta zein alde txar ez egiteak.

■ HELBURU NAGUSIA

- Sentipen negatiboak adierazten jakitea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Pertsona batek egiten duenaren eta norberaren sentipenaren artean bereiztea.
- Pertsona eta bere jokabidea desberdintzea.
- Kexaren zioa zehatz-mehatz eta orokortu gabe deskribatzea.
- Nahi den aldaketa argi eta zehazki adieraztea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: forraturiko kartoizko kaxa bat "kexak" errotulua duena, egoera zailak azaltzen dituzten txartelak, kartulina eta errotuladoreak.

JARDUERAREN IRAUPENA: gutxienez 20 minutuko saio bat (luzatu egin daiteke, erabil dezakegun denboraren arabera).

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak jardueraren berri ematen die ikasleei: *"Sarri askotan zenbait gauzak eta gertatzen diren egoerak atsekabea edo ondoeza eragiten digute, haserrea edo amorrazioa dakarkigute edo, besterik gabe,*

desberdinak izatea nahi genuke. Adierazi egiten ez badugu, inork ez digu igarriko. Adierazteak aberastu egiten gaitu. Hargatik, kexa horiek guztiak kaxa batean sartuko ditugu eta, itsas lapurrek planoekin egiten zuten bezala, handik aterako ditugu konponbidearen bila joateko".

Kexa-kaxa ikasle guztiek ondo ikusten duten toki jakin batean kokatuko da. Jarraian, irakasleak eta ikasleek kexarik eman ez duten edo ematen jakin ez duten egoerak idatziko dituzte txartel batzuetan. Ondoren, txartelak kaxan sartuz joango dira.

Aldez aurretik zehaztutako unean, kaxatik txartel bat atera eta denon artean egoera horri soluziobidea bilatzen saiatuko dira, kritikaren adierazpena ikasitako eskemaren arabera modelatuz.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Euskara eta Literatura / Gaztelania eta Literatura / Tutoretza.

ETXEKOENTZAKO FITXA

Guraso agurgarriok:

Egunotan geure iritzi eta sentipenak adierazteko eskubidea lantzen ari gara. Irakasleok euren iritzia galdetzen saiatzen gara ikasgelan eta edozein gairi buruz, "nagusien gaiak" omen direnetan ere bai, esaten diguten guztia entzuten. Guk garrantzi handiko jarduera deritzogu horri, baina ez da hau gaur zuei proposatu nahi dizueguna.

Gaurkoan *sentipen positiboei buruzko joko bat* proposatzen dizuegu. Zertan datza jokoa? Aste honetan zehar senide guztiok mazalak izaten saiatu beharko duzue: beste senideekin atseginak izango zarete, eurengan ikusten dituzuen gogoko gauzak esango dizkiezue, baita laudorio eta konplimenduak egin, elkarrekin gauzak egin, lagundu, etab.

Jokoaren funtsa hori egitea ez ezik, beste bat ere bada: bestea *harrapatu* behar da gauza bera egiten, idatzi eta, ondoren, elkarri komunikatu. Saia zaitezte aste batean ea zer moduz eta, ondo badoakizue, jokatu lantzean behin.

Honekin batera bidaltzen dizugun orria "opariak" jasotzen laguntzeko da.

Noiz	Nork	Zer esan/egin zuen	Esan al diot?
Astelehenean			
Asteartean			
Asteazkenean			
Ostegunean			
Ostiralean			
Larunbatean			
Igandean			

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

UNITATEAREN BALORAZIOA

Idatzi gutun bat irakasleari *gustatu zaizkidan gauzez* –bere lanean, nirekiko harreman edo jokabidean– eta *gustatu ez zaizkidanez*. Horretarako, saia zaitez adierazpide egokia erabiltzen, aurreko jardueraren batean ikusitakoaren arabera.

Irakaslearentzako oharra:

Gutunaren bidez balorazio positibo eta negatiboak nola adierazten dituen aztertuko dugu.

Halaber, gutuna dela eta, feedback lortuko dugu ikasleekin, haien iritziz gure lana nola egin beharko genukeen...

NIRE OSASUNA GARRANTZITSUA DA

■ IDEIA NAGUSIA

Osasunaz dugun ikuskera bi zutabe nagusitan oinarritzen da: *ardurakidetzan* eta *dinamismoan*. Lehen ideiaz, *ardurakidetzaz*, osasuna norberaren ardura dela esan behar da, baina, aldi berean, gizarte osoaren ardura ere bai. Giza komunitateko sektore guztien erantzukizuna da umearen hazkuntzarako osasun zerbitzu egokiak bermatzea: *estatua*k, osasun zerbitzuen bitartez, behar diren zainketa eta laguntza medikoak bermatu behar ditu; *osasun adituek*, espezialistek eta langileek oro har, euren lan serio eta arduratsuaren bidez; eta, batez ere, *gurasoek eta umeek*, osasunaren oinarrizko arauak ezagututa, aztura egokiak bereganatuz eta osasunaren kalterako direnak baztertuz.

Bigarren ideiaren arabera, osasuna ez da daukagun edo ez daukagun "egoera" edo berezitasun bat, zerbait dinamikoa baizik: gero eta osasuntsuago egon gaitezke edo gero eta makalago. Osasunaz zentzu zabalean ari gara, orokorrean. Osasuna ez da, beraz, "gaixorik ez egotea" soilki; aitzitik, beste ikuskera desberdin bat da, bizitzarekiko jarrera bat, pertsonaren gaitasunak garatzea eta haietaz gozatzea ahalbidetuko duena.

■ HELBURUAK

- Osasunaren ikuspegi orokorra gureganatzea.
- Osasunak gure bizitzaren arlo guztietan duen garrantziaz jabetzea.
- Gure osasunaren eta osasun kolektiboaren defentsa eta sustapenerako funtsezko ezaguerak, jarrerak eta ohiturak hartzea.
- Gure kulturan sustrai sakonak dituzten eta, gainera, sarritan publizitateak bultzatzen dituen ohitura kaltegarriak alboratu eta errotik ateratzea.
- Osasunak jasaten dituen eragin sozialak ezagutzea eta giza osasunerako arrisku larrien eta ohikoenei buruzko iritziak heltzen laguntzea.
- Haurraren komunitateko osasun zerbitzuak eta, behar denean, hara iristeko bidea ezagutzea.
- Haurra gai bilakatzea bere burua zaindu eta osasun sistemaren kudeaketan esku har dezan.

■ UNITATEAREN GARAPENA

Osasuna bizitzarekiko jarrera bat da, bizitzan gero eta autonomia maila handiagoa eman diezagukeen jardunbidea, gaixotasuna saihestu edo sendatu egin dezakeena (horrek bizimodu libreago, arduratsuago eta lasaiagoa emango digu). Osasunaren ikuskera horrek berekin dakar justiziazko jarrera solidarioa beste pertsonekiko, denek bakean hazteko eta bizitzeko askatasunaz gozatu ahal izan dezaten.

Osasuna ez da, ezta hurrik eman ere, adituen kontua soilki (nutrizionista, mediku, etabarrena). Denok gara, neurri batean edo bestean, arduradun: familia, ikastetxea, estatua eta, osasunaren lehen arduraduna, pertsona bera da bereziki. Hala ere, osasun arazoak geurez konpontzeko zailtasunak ditugunean, eta orduan baino ez, joko dugu adituengana.

Bestalde, osasuna bide aldakorra dugu, egoera dinamikoa. Osasunak, batetik, mugak eta ezintasunak –fisiko zein psikologiko edo sozialak– murriztu egiten dizkio gizakiari eta, bestetik, bere gaitasunak garatzea ahalbidetzen duen biziera da.

Osasunean eragin zuzena duten faktoreen artean honako hauek nabarmenduko ditugu: giza biologia (herentzia), ingurunea (kutsadura fisikoa, biologikoa, psikosoziala...), gizarteko osasun-laguntza sistema eta bizimodua. Haietako bakoitzaren eragina aldatu egin daiteke kasuen arabera, baina, eskuarki, ondoko grafiko honetan ematen dugun antzera adieraz liteke:



Faktore hauek kontuan harturik eta, batez ere, gizarteko estamentu bakoitzak duen erantzukizuna ahaztu gabe (haurra izaki autonomo gisa garatu ahal izan dadin, osasun zerbitzu egokiak behar ditu), unitate honetan bizimoduarekin lotutako faktoreei ekingo diegu bereziki, hauek hobetu, aldatu eta indartu egin baitaitezke.

Garrantzitsua da oso, halaber, haurrak jakitea beste batzuek –bere familiak batik bat– bere osasuna babes dezaten eskubidea duela, baina, aldi berean, berak hartu behar duela apurka-apurka bere gain erantzukizun hori. Besteak beste, norberaren garbitasuna (larruazala, adatsa, sentimen organoak...), edo oinetako eta jantzien garbitasuna, ekintza eta atsedena (loa, jolasa...), elikadura eta nutrizioa, gaixotasunen eta egoera edo jarduera arriskugarrien prebentzio eta kontrola, osasun mental eta emozionala (honi unitate oso bat eskainiko diogu aurrerago), drogak, alkohola eta tabakoa (gai hauek ere sakonki aztertuko dira beste unitate batean).

■ ZER LANDU GAI HONEN INGURUAN?

Irakasleek

- Ikastetxeko Curriculumean aintzat hartu garbitasunari buruzko gaiak.
- Garbitasuna curriculumeko zenbait irakasgairekin lotu.
- Goraipatu publikoki ikasleen garbitasun azturak, atsedena, ariketa fisikoa, elikadura egokia...
- Aztura osasungarrien eredu izan (ikastetxeko jantokian, adibidez, edo erretzeko gune eta momentu egokiak kontrolatuz...).
- Ikasleen artean elikadura arazoak sumatuz gero –publizitateak eta egungo balore estetikoek adin honetan are eragin handiagoa dutela izan dezagun kontuan–, gurasoei parte eman edota profesionalengana bideratu.

Familiak

- Norberaren garbitasun- eta etxeko garbitasun-ohiturak sustatu.
- Kontrolpeko ariketa fisikoa suspertu, baita atsedenerako eta loaldirako arau osasungarriak ere.
- Seme-alaben jolasaldi eta aisialdia errespetatu.
- Gazteagoen elikadura eta mahaian dituzten ohiturak zaindu.
- Adi egon haurren osasunari, zentzu zabalean, eta, arazoren bat sumatzean, "sendabideak" bila ditzaten lagundu (termometroa jar dezala, adibidez, edo medikuarenera joan eta hark azal diezaiola zer gertatzen zaion, berarekin batera hartu medikuak agindutakoa betetzearen ardura, etab.).
- Seme-alaben elikadura kontu handiz zaindu, eta arazoren baten susmorik izanez gero, espezialistengana jo.

1. JARDUERA:

"GORPUTZA GARBI, DENON OSASUNGARRI"

Osasunaren ikuspuntutik, bistan da geure gorputzaren garbitasun eta higienea zaindu beharra dagoela. Osasunaz eta itxura fisikoaz arduratzen den pertsonak bere burua maite du. Garbirik joan nahi duen haurrak, bere ilea, atzazalak, hortz-haginak... jagoten dituen haurrak bere burua zaintzen daki; bere begiak, bere belarriak... zaintzen dituen umeak, eguraldiaren arabera janzten dakienak, gorputz-azal edo "karrozeria" sendo, osasuntsu, erakargarri, atsegin eta erosoa du eta behar den bezala zaintzen daki (izan ere, bizi osorako dugun gorputz bakarra da).

Bestalde, garbitasuna eta itxura fisikoa funtsezko elementuak dira giza harremanetan. Ezagun da bere garbitasuna eta irudia zaintzen ez duenak nolako bazterketa jasan behar izaten duen taldearengandik. Horrek ez du esan nahi, haatik, ikasle guztiek uneoro garbi-garbirik egon behar dutenik edo marka ezagun eta garestidun arropak jantzi behar dituenik (*quicksilver, reef...* gaur egun).

Irakasleak zereginaren berri emango die ikasleei: "*Geure buruaren zainketarako eta garbitasunerako arauak egingo ditugu. Arauok osasuntsuago eta geure gorputzarekin gusturago sentitzen ere lagunduko digute".*

■ HELBURU NAGUSIAK

- Osasunaren kontzeptuaz gogoeta egitea, ikuskera osoagoa hartuz.
- Aztura osasungarriak gureganatzen laguntzea eta kaltegarriak baztertzea.
- Haurra gai bilakatzea bere burua zaindu eta osasun sistemaren kudeaketan esku har dezan.
- Osasunean norberaren garbitasunak duen garrantzia baloratzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Bere gorputzaren garbiketaz bera ardura dadila (bainu/dutxa).
- Hortz-haginak babesteko zainketa-arauak betetzea.
- Sentimen organoak garbitzeko ohiturak hartzea (begiak, belarriak...).
- Eguraldia eta jardueraren araberako janzkera egokia erabiltzen ikastea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan, 4ko taldeetan.

BALIABIDEAK: kartulina, idazteko eta marrazteko tresnak.

JARDUERAREN IRAUPENA: 50 minutu.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Zeregina azalduko zaie: *"Gure gorputzak baditu barrualdeko atalak eta kanpoaldea (etxe batek bezala, konparazio baterako). Auto batekin konparatuz gero ere, berdintsu: baditu barrualdea (motorra-eta) eta kanpoaldea (karrozeria).*

Baina autoa ondo ibil dadin nahitaezkoa da motorra zaintzea (erregaia behar du ibiltzeko, olio- eta ur-mailak begiratu behar dira, etab. eta, noizean behin, tailerrera eraman behar izaten dugu berrikusketa egin diezaioten. Zerbait gaizki dabilela sumatzen dugunean ere eraman egiten dugu konpontzera, luzaro irautea nahi izaten dugu eta). Bestalde, autoan gustura egon ahal izateko edo geure lagunak buelta bat ematera gonbidatzeko edota kanpo-erasoetatik babes gaitzan (euria, hotza, kolpeak...), karrozeria zaintzea ere oso garrantzitsua da. Jarduera honetan, bada, "geure-geurea" dugun karrozeriaz arduratuko gara eta motorraren kontuari geroago ekingo diogu".

Talde handian hau egitea nahi nuke:

a) Taula bat egitea eta han "higiene- eta norberaren garbitasun- arauak eta arroparen erabilera egokiak" azaltzea. Lana taldeka egingo da eta, ondoren, bateratu egingo dira iritziak azken taula bakar bat egiteko. Taula edo horma-irudi hau agerian jarriko da ikasgelan.

b) Idaztea zein litzatekeen egin beharreko ibilbidea gaixotuz gero edo zeuen "motorrari" berrikusketa egin beharko bazeniote. Adieraz ezazue zein zerbitzuk edo pertsonak diren, zeuen herri, hiri edo auzoan, zuek hartzeko arduradunak.

HIGIENE- ETA NORBERAREN GARBITASUN- ARAUAK

JARDUERA	URRATSAK (nola egin)	NOIZ (maiztasuna, zein unetan...)
Dutxa / bainua		
Adatsa zaindu		
Azazkalak zaindu		
Hortz-haginak garbitu		
Begiak / sudurra / belarriak		
Arropaz aldatu		
.....		

ARROPAREN ERABILERA EGOKIAK

JANZKERA	EGURALDIA	JARDUERA MOTA

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Arte Hezkuntza (Plastika eta Ikus Adierazpena) / Gorputz Hezkuntza / Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera.

2. JARDUERA:
ATSEDENA

Ekintza gizakiaren berezko adierazpena da eta ikasle garaian bereziki haurren bizitzaren ardatza. Baina edozein ekintzak, fisiko izan zein psikiko izan, atsedenaren beharra sortzen du, hau da, gizakiaren oreka fisiko eta psikikoa gorde beharra, oreka hori behar-beharrezkoa baita garapen osasuntsu eta egokia erdiesteko.

Umeek hainbat ekintza eta ariketa egiten dute egunean zehar eta, hortaz, atsedenerako eskubidea dute. Alabaina, atseden hartzeko era asko dago. Zeri esaten diogu, beraz, atsedena? Bada, egun osoan buruturiko ekintzek eragindako nekea eta ahuldadea konpentsatzeko erabiltzen dugun denborari esaten diogu atsedena, hots, "nekea arintzeko" jarduerak, besteak beste: loaldia, lasaialdia, aisialdian kirol edota bestelako zaletasun edo "hobby"etan aritzea, etab.

Atsedenerako behar dugun denbora errespetatzea garrantzitsua da oso. Hala ere, erne!, atsedenaldiak nekea arintzeko adina denbora behar du, baina –*"larra beti txarra"*– atsedenean denbora luzeegia emateak nagikeria ekar lezake.

Irakasleak zeregina azalduko du: *"Ikerketa txiki bat egingo dugu, ea zortzi urtetik hamabira bitarteko umeek nolako atseden ohiturak dituzten"*.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Eguneroko jardunean atsedenak duen garrantziaz jabetzea.
- Loaldiaz jakin beharrekoak eta funtsezko lo ohiturak bereganatzea.
- Aztura osasungarriak bereganatzen laguntzea eta kaltegarriak baztertzea.
- "Atseden" hartzeko aukera ugariaz gogoeta egitea (kirol jarduerak, erlaxatzekoak...), hartarako ohiturak hartuz joan dadin eta egokienak hauta ditzan.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Loari mesede eta kalte egiten dioten faktoreen artean bereiztea.
- Nekeari aurre egiteko era desberdinak ezagutzea.
- Aisialdiko jolas eta "hobby"etan zaletzea edo egiten dituenak sustatzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan, lauko taldeetan.

BALIABIDEAK: papera, idazteko eta marrazteko tresnak, liburu eta artikuluak.

JARDUERAREN IRAUPENA: baliabideak bildu ondoren, 50 minutuko 3 saio.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Honela azalduko zaie zeregina: *"Artikulu bat idatziko dugu atsedena eta ekintzari buruz. Artikulu hori ikastetxe osoan zehar banatuko da eta etxera ere eramango dugu etxekoek irakur dezaten. Horretarako, lehenengo eta behin, jakin egin behar dugu Euskal Herriko 8 urtetik 12ra bitarteko umeek nolako ohiturak dituzten".* Lana taldeka egingo da. Informazioa jasotzeko hainbat gauza egin daitezke: eskolako lagunei galdetu, espezialistak elkarrizketatu, liburutegira joan, etab. Landu beharreko arloak honako hauek dira:

1. LOA:

1.1. Noiz (lo egiteko ordurik egokienak, eguerdi osteko siestaren betekizun eta komenigarritasuna) eta zenbat lo egin (zenbat ordu gauez eta eguneko beste une batzuetan).

1.2. Logelak bete behar dituen baldintzak (altzariak –ohea, koltxoia, burukoa...–, zarata, argitasuna, etab.).

1.3. Norberaren atsedena hobetzeko baldintzak (ohera joan aurretik zer/zenbat jan, edan, zer egin...).

2. EKINTZA ERRITMOA:

2.1. Goizean jaikitzen direnetik oheratu arteko ekintza guztien zerrenda egin. Ekintzok bi sailetan banatu: adinerako egokiak eta desegokiak.

2.2. Aisialdian egiten dituzten ekintzen zerrenda (zaletasunak, denbora-pasa edo jolas ohikoenak). Zerrenda hau aurretiaz egina izan liteke 25. unitate didaktikoa –"Aisialdia ondo pasatzeko"– lehenago landuz gero. Oraindik landu ez bada, egiten denerako utz daiteke osagarri gisa.

3. NEKEA:

Zer den aztertu, zeintzuk diren bere eraginak eta nola aurre egin (zuen adineko umeek nekea arintzeko zer egiten duten eta beste era gomendagarri batzuk).

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Euskara eta Gaztelania / Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera / Gorputz Hezkuntza.

3. JARDUERA:

"BEHIN JOAN NINTZEN AZOKARA, EROSI NUEN..."

Haur orok du bere garapen fisiko, psikiko eta sozialerako egokia den bizitza-maila bat izateko eskubidea. Horixe izango dugu gaur hizpide. Eskubide hau zehaztekotan, elikadura aipatu behar da lehenik, hau da, janariak kantitate eta kalitate egokian behar ditu haurrak garatzeko; bestalde, osasun publikoaren programa on bat ere beharrezkoa da. Gorputza hazteko eta bizirik irauteko behar ditugun elikagaiak janarien bidez jasotzen ditugu; beraz, garrantzitsua da elikadurari buruzko ezagutza nahikoa izatea, jateko ohiturak zaintzea... Elikaduran, jakina, eragin handia dute maila sozioekonomikoak, kulturak, etxekoen artean ematen zaion garrantziak, gizarte aldaketek (emakumea lan-munduratzeak, publizitatearen indarrak...).

Irakasleak zereginaren berri emango die ikasleei: *"Zuen adineko umeen osasunerako aproposak diren gosari, bazkari eta afarien menuak egingo ditugu".*

■ HELBURU NAGUSIAK

- Elikatze-aztura egokiak bereganatzeko behar diren motibazio eta ezaguerak ematea.
- Aztura osasungarriak bereganatzen laguntzea eta kaltegarriak baztertzea.
- Gure kulturan sustrai sakonak dituzten eta, gainera, sarritan publizitateak bultzatzen dituen ohitura kaltegarriak alboratu eta errotik ateratzea.
- Haurrak bere garapen fisiko, psikiko eta sozialerako egokia den bizitza-maila bat izateko eskubideari garrantzia ematea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Elikagai nahiko eta egokiak edukitzea eta osasun fisiko onaren arteko lotura ikusaraztea.
- Haur asko eta askoren errealitatea gurea bezalakoa ez dela jakitea.
- Egunean zehar egiten diren jatorduen banaketaz eta digestioaz aztura osasungarriak bereganatzea (astiro jatea, poliki-poliki mamurtzea, mokadu txikiak...).

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan, launaka jarrita.

BALIABIDEAK: elikagaien gurpila, papera eta idazteko tresnak.

JARDUERAREN IRAUPENA: 50 minutu.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Jarduera azalduko zaie ikasleei: *"Elikagaien gurpila aurrean dugularik (aurretiaz elikagai-gurpil osoago bat lantzea komeniko litzateke*), gure *adineko umeentzako gosari, bazkari eta afarien menuak egingo ditugu. Jolas baten bidez egingo dugu (kantu ezagun hau ere erabil liteke): behin joan nintzen azokara, erosi*

nuen... Edozein ikasle has daiteke, zein janari erosi zuen esanez (edota kantatuz) eta, ondoren, beti ere menu egoki eta orekatua izan dadin saiatu behar dutela kontuan hartuz, beste talde bateko ikasle batek segituko du letra beretik hasten den beste jaki bat aipatuz (haur txikientzat baldintza zailegia balitz, kendu egin liteke). Adibidez: behin joan nintzen azokara, erosi nuen arraina... Bigarren taldeko batek: behin joan nintzen azokara, erosi nituen arrautzak... Hirugarren taldeko batek: behin joan nintzen azokara, erosi nuen arroza... Eta horrela baten batek huts egin arte. Huts bakoitzeko A-S-T-O-A hitzaren letra bat jasotzen du taldeak (jokoa luzatu nahi izanez gero "astakeria", "astakilo" edo "astabelarri" hitzak erabil litezke) eta hitza betetzen duen lehen taldeak aurretiaz zehaztutako bahia ordaindu beharko du".

Jokoa amaitu eta gero, eztabaidari ekingo zaio. Euskal Herriko beste auzo eta herri batzuetako umeen eta munduan zehar bizi diren beste ume askoren elikadura izango dute hizpide ikasleek. Honako hauek eztabaidarako galderak izan litezke:

- Zein elikagaik laguntzen digu gehien hazten?
- Zer gertatuko litzateke nahikoa jango ez bagenu?
- Bizkaian denok jaten al dugu berdin?
- Nola eskuratzen ditugu elikagaiak?
- Ugandako umeek, Kalkutakoek... joko hau egin ahal izango luketela uste duzu? Nola? Zer deritzozue horri? Zer egin daiteke/dezakegu haiei laguntzeko?

Jarduera honekin erlazionaturik dago "Ez dago eskubiderik!" izeneko 30. unitatean dagoen beste jarduera bat: *"Solidaritate(rik gabeko) askaria"*.

■ CURRICULUMAREN BESTE ARLOEKIKO LOTURAK

Euskara eta Gaztelania / Atzerriko Hizkuntzak / Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera.

OHARRA: irakasleak jarduera osagarriak burutzeko zenbait ideia aurki ditzake minbiziaren aurkako Espainiako AECC erakundeak argitaratu duen "Baztertu opila osasunaren bila!" izeneko materialean eta, "Ayúdales a llegar alto" izeneko sailean, hazkuntza eta garapenari buruzko unitate didaktikoan. Adibidez, elikagaien gurpila egiterakoan, gehitu egin litezke gure herriko gastronomian gehien erabiltzen direnak; edo inguruko azoka batera joan litezke ikasleak, eta han salgai dauden jakien zerrenda bat egin. Geroago, elikagaien gurpilean oinarriturik, horma-irudi bat diseinatu eta egingo dute ikasgelan. Horma-irudian azokan egin duten zerrendako jaki guztien marrazkiak, ontziak... jarriko dituzte. Horrekin batera beste horma-irudi batzuk ere presta ditzakete gosari, bazkari, askari eta afarirako proposamenekin.

Bibliografian ageri dira bi materialok.

■ CURRICULUMAREN BESTE ARLOEKIKO LOTURAK

Euskal Hizkuntza eta Gaztelania / Arte Hezkuntza.

ETXEKOENTZAKO

FITXA

Guraso agurgarriok:

Jakin badakigu osasunak berebiziko garrantzia duela geure seme edo alabaren garapenean eta, hortaz, zaindu beharra dagoela. Ume guzti-guztiek dute, halaber, behar dituzten osasun-laguntza eta zerbitzuak jasotzeko eskubidea. Hala ere, geure haurren osasuna zaintzea eta bermatzea, erakunde publikoen erantzukizuna ez eze, haren hezkuntzan eragile direnen erantzukizuna ere bada, hots, eskolarena eta familiarena. Horregatik eskolan lantzen ari gara gai hau, batetik, haurrak osasunaren oinarriak ezagut ditzan eta, bestetik, prebentzio lana egiten laguntzearren. Dena dela, gai horretan familiak eskolak baino zeregin garrantzitsuagoa dauka. Hori dela eta, zuen laguntza eskatzen dugu arlo hauen irakaskuntzan eta berauen inguruko ohiturak indartzerakoan: garbitasun, elikadura, ezbeharren prebentzioa..., etxebizitzaren egoera, etab.

Horretarako, zeuen seme edo alabarekin batera eta aste baten zehar, egun bakoitzean hartzen dituen elikagai guztien eta horien kopuruen erregistroa egin dezazuela iradokitzen dizuegu.

EGUNAK	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
Kantitatea / Jaki multzoa							
Gosaria							
Bazkaria							
Askaria							
Afaria							
Jatorduz kanpo							

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

UNITATEAREN BALORAZIOA

Ondotxo dakigu hedabideetako publizitateak (telebistako iragarkiek, ume eta gazteentzako telesailek, aldizkariek, etab.) izugarrizko eragina duela gizakion jokabidean. Oraingoan osasunarekin zerikusia duten jokabideak aztertuko ditugu bereziki: elikadura, ariketa fisikoa, atsedena, alkohola eta tabakoa, etab.

Hauxe duzu egin beharreko lana: aukera itzazu goiko gai horiek aipatzen dituzten iragarkiak (telebistako iragarkiak, irratikoak, prentsa idatzikoak, publizitate-hesiak...), lau gutxienez, eta eman ezazu zeure iritzia bakoitzari buruz: aztura onak ala txarrak bultzatzen dituztela uste duzu?

IRAGARKIA	OHITURA ONAK / TXARRAK
1.	
2.	
3.	
4.	

BURUTIK SANO OTE ZAUDE?

■ IDEIA NAGUSIA

Haurrak elkar ulertze eta maitasun giroan bizitzeko eskubidea du, horrek segurtasun material eta morala ekarriko baitio; giro horretan autoestimu eta konfiantza betean haziko da, eta horrela garapen oso eta zoriontsua erdiets lezake. Afektibitate-giro hori familiak eskaintzen dio batez ere, familia baita horretarako gunerik egokiena. Hala ere, familiarik ezean, kasuan kasuko ordezkoak bilatu beharko dira: botere publikoen erantzukizuna da familien eta umeen babes sozial eta ekonomikoa bermatzea.

Printzipio hori Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmenaren hainbat artikulutan biltzen da. 3. artikuluak, adibidez, hauxe dio: *"Estatu kideek hitz ematen dute umearen ongizaterako beharrezkoak diren babesa eta arreta bermatuko dituztela"*. 27. artikuluan aitortzen denez, haur guztiek dute beren garapen fisikoa, mentala, izpirituala, morala eta soziala bultzatuko duen bizi-maila izateko eskubidea. Edozein arrazoirengatik (arazo psikologikoak, tratu txar fisiko edo psikikoak...) haurraren garapena egokia ez balitz, estatu kideek beharrezko neurriak hartuko lituzkete haurrei arreta eta laguntza egokia eskaintzeko (osasun zerbitzuak, zentro berezituetan barneratu, etab.) eta beren osasun fisiko eta mentala babesteko eta suspertzeko (24., 25., 27. eta 39. artikuluak).

■ HELBURUAK

- Haurtzaroan buru-osasunak duen esanahiaz gogoeta egitea.
- Haurtzaroko oinarrizko beharrizan sozioafektiboak ezagutzea.
- Seme-alaben nortasunaren garapen orekatuan familiak duen garrantziaz ohartzea.
- Norbanakoaren osasuna eta gizartearena oro har defendatzeko eta sustatzeko ezaguerak, jarrerak eta azturak bereganatzea.
- Haurra gai egitea, bere ahalmenen arabera, bere burua zain dezan eta, arazo psikologiko edo emozionalak dituenean, laguntza eskatzen jakin dezan.

■ UNITATEAREN GARAPENA

Haurrak, bere nortasuna osoki eta harmoniaz garatzeko, familia barruan hazi behar du zoriontasun, maitasun eta elkar ulertze giroan. Haurrak babesteko eta beren ongizatea ziurtatzeko, beraien beharrizanei erantzun behar zaie. Ezinbestekoa da gaur egun umeen beharrizanez hitz egitea, zenbait kasutan arriskugarriak izan baitaitezke familiaren egituran eta guraso/seme-alaben arteko harremanetan gertatzen ari diren aldaketa sozialak.

Gizaki bakoitza bakarra eta desberdina da, baina era berean moldagarria. Hori horrela dela onarturik, era orekatuan garatzeko behar dituen zenbait baldintza eta beharrizan nabarmenduko ditugu. Bestalde, ez

dugu pentsatu behar haurra bere beharrizanak asetzeko hartzaile pasibo hutsa denik. Aitzitik, guztiz *eragile aktiboa* da berari dagozkion erabakietan eta gizartearekiko ekintzetan. Hortaz, bere eskakizunak, ahal delarik, txikitatik hartuko dira kontuan; parte harraraziko zaio berarengan eragin zuzena duten erabakietan, bai eta bere beharrizanak edo besteenak asetzearekin zerikusia dutenetan ere.

Honelakoak izaten dira bere beharrizanik behinenak: *fisiko-biologikoak* ("Nire osasuna garrantzitsua da" izeneko 7. gaian ikusi direnak: elikadura, garbitasuna, loa...), *kognitiboak* (sentimen-estimulazioa, ingurune fisiko eta soziala behatu eta ulertzea: ikus "Denok ikas dezakegu" 19. unitatea) eta gai honetan aztertuko ditugun beharrizan *emozional eta sozialak*.

■ BEHARRIZAN EMOZIONAL ETA SOZIALAK

1. *Segurtasun emozionala* dugu lehen mailakoa: gizaki orok du maitatua, onartua, lagundua eta babestua sentitzeko beharra. Beharrizan hori ase ezik baztertuak sentitzen gara, bertan behera utziak, beldurra, antsietatea eta ziurtasun eza sentitzen ditugu... Atxikimendua da beharrizan hori asetzen duen lotura. Atxikimendu figura bat –edo gehiago– edukitzea nahitaezko baldintza da haurtzaroan. Umeak garapen egokia lortuko badu, funtsezkoa du bere nortasun-sentimena eraikitzea, bere autoestimua sendotzea eta, desberdina izanik, onartua sentitzea (2., 3. eta 4. unitateetan landuak).
2. *Bere berdinekin, gizartearekin orobat, harremanak izateko* beharrizana. Giza talde bateko partaide sentitzeko beharrizana; bestela esanda, lagunak izatea, isolamendua ekiditeko. Zentzu horretan, erabat garrantzitsua da lagunarteko harremanak (ikus "Lagunak aukeratzen" 15. unitatea), taldeak eta lagun-elkarteak sustatzea ("Talde bateko partaide" 24. unitatean).
3. *Parte-hartze eta gero eta autonomia handiagoaren* beharra. Haien gaitasunen arabera, eurei dagozkien eta eragiten dieten egoera eta erabakietan parte hartzea; aldi berean, jarrera aldetik mugak ezarriko dizkiegu (zehatz eta argiak, zentzuzkoak, onargarriak –gorrotagarri ez direnak– eta egingarriak).
4. *Kontaktu sexualaren* beharra. Haien adierazpenak errespetatu (autoesplorazioa, etab.) eta galderei zuzenean eta zintzoki erantzutea.
5. *Balizko arriskuetatik babesteko* beharrizana: haien beldurrak entzutea eta mezu lasaigarriak ematea, bertan behera uzteko mehatxurik gabe eta txantaje emozionalik egin gabe.
6. *Jolasteko* beharrizana, jostatzeko, gozatzeko, ondo pasatzeko... bizitzak dituen alde gogorrak neutralizatuz; era berean, ikasketa sozialak ere egiten ditu... (alderdi hori luze eta zabal lantzen da "Aisialdia ondo pasatzeko" izeneko 25. unitatean).

■ ZER LANDU GAI HONEN INGURUAN?

Irakasleek

- Elkarbizitza sustatzeko asmoz, ikastetxetik kanpo irteerak egin (lagunarteko bazkaria, esate baterako, edo taldeko joko ez lehiakorrak antolatu...) eta ikastaldean giro lasai eta atsegina sortu.
- Ikasleekin gelako elkarbizitza-arauak "negoziatu". Arau gutxi, baina argiak eta betetzearen edo ez betetzearen ondorio proportzionalak dituztenak.
- Arauak aplikatzean koherente eta sistematikoa izan (aldartearen arabera aginduak aldatzen ibili gabe), ikasleek zeri atxiki jakin dezaten.
- Ikasleekiko harreman estuak, hurbilekoak eta irekiak sortu, betiere haienganako errespetu eta onarpenean oinarrituak.

- Ikasleen ahaleginei eta lorpen txikiei erreparatu eta ez azken emaitzari soilki.
- Zerbait zuzentzean edo negatiboa den zerbait nabarmentzeko orduan, jarreretan zentratutako hizkuntza operatiboa erabili, orokortu gabe eta etiketak erabili gabe.

Familiak

- Baldintzarik gabeko maitasuna adierazi (ahoz edo bestela).
- Arau koherente eta egingarriak ezarri; jarrerari ere mugak ezarri.
- Bere berdinekiko harremanak sustatu: umeen jaiak, jolasak parkean, besteen etxean egon.
- Beren lagunen familiekin batera jarduerak bultzatu.
- Semea edo alaba haurren talde edo erakundeetan sartzea erraztu.
- Txikitatik parte hartzen utzi –gaitasunaren arabera– berari zuzenean eta familia osoari dagozkien erabakietan (egoera azalduz, iritzia galdetuz...).
- Haien beldurrak entzun, ulertu eta erantzun: bertan behera abandonatuko ote dugun, neba-arreben arteko norgehiagoka, gaixotasuna, heriotza... barrerik egin gabe eta mezu lasaigarriak erabiliz.
- Ez erabili mehatxu eta txantaje emozionalak nagusiek nahi dutena egin dezaten.

1. JARDUERA:
"BAZEN BEHIN..."

Azken urteotan aurrerapauso handiak lortu dira norbanakoaren eskubide eta askatasunen arloan. Hauek izan daitezke behinenetarikoak:

- Aldakuntzak bikote-harremanetan: elkartzeko eta banantzeko eskubidea, pasioari balio handiagoa ematea, intimitate eta ongizatea elkarbizitzan, generoarekiko rolen aldaketak –emakumea bete-betean sartu da lan-munduan–, familia-planifikazioa, seme-alaba kopuru txikiagoa, etab.
- Zenbait balore sendotu dira, hala nola independentzia, askatasuna, norberaren promozioa... Horrek familia-sistemari eta guraso/seme-alaben arteko harremanei sakonki eragin die.

Idatz-zati honetan, beraz, aipatutako gizarte aldaketek ekar dezaketen arrisku bati ekingo diogu: *gurasoen gertutasun eza semeak edo alabak behar dituenean* (ez dute astirik izaten, "beren gauzak" egin behar izaten dituztelako eta burua "beste toki batean" dutelako). Seme-alabek behar duten unean gurasoak gertu ez egoteak baztertze sentimenduak eragin ditzake haiengan, ziurtasun eza, tristura, babesik eza... eta, azken batean, zorionik eza.

Irakasleak hau azalduko die ikasleei: *"Denok dugu maitatuak, entzunak eta babestuak sentitzeko beharrizana. Zenbaitetan ez da erraza izaten nahi genukeen laguntza eta ulerkortasuna aurkitzea; horrek tristatu egiten gaitu eta gaizki pasarazten digu"*.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Haurtzaroko beharrizan sozioafektibo behinenak ezagutzea.
- Semearen edo alabaren garapen orekatuan familiak duen garrantziaz ohartzea.
- Haurra gai egitea, gaitasunaren arabera, bere burua zain dezan eta arazo psikologiko edo emozionalak dituenean bere inguruko pertsona nagusi esanguratsuei laguntza eskatzen jakin dezan (aita, ama, beste senide batzuk, tutorea, medikua... atxikimendu-figurak diren aldetik).

■ HELBURU ZEHATZAK

- Haurren beharrizan sozioafektiboez hitz egitea.
- Haurraren inguruan dauden pertsona esanguratsuen arretak eta "arreta ezak" eragiten dituzten sentimenduak ezagutu eta adieraztea.
- "Arreta eza"-egoerei aurre egiteko erabil daitezkeen errekurtsoak denon artean aztertzea (nola, nori... laguntza eskatu).

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan, ikasleak zazpinaka edo zortzinaka jarriz.

BALIABIDEAK: kartulinak, papera eta idazteko eta margotzeko tresnak.

JARDUERAREN IRAUPENA: 40 minutuko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak jardueraren nondik norakoak azalduko dizkie ikasleei: *"Talde bakoitzak ipuin bat asma dezan nahi dut. Ipuinaren protagonista bere familian gustura ez dagoen eta, beraz, oso triste bizi den ume bat izango da. Ipuin guztien hasiera berdina izango da: "Bazen behin oso-oso triste zegoen ume bat...", eta zuetako bakoitzak esaldi bat gehitu beharko du, adibidez: "triste zegoen, egun batean oso kezkatuta etorri zelako etxera, zerbaitek kezkatzen zuen... baina etxean ez zegoen inor..."; beste batek beste esaldi bat gehituko du, eta horrela istorioa amaitu arte. Taldekide bat idazkari izango da eta esaten duzuena idatzi egingo du, baina asmatzen hasi aurretik, ipuin honen gai nagusiaren inguruan pixka bat pentsatzea komeni da. Amaitu eta gero, irakur ezazue berriro eta, nahi izanez gero, azken ukituak eman."* Hala nahi izanez gero, kartulina batean idatz daiteke, zenbait marrazkirekin, eta gelako horma batean erakutsi.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Euskara eta Gaztelania / Atzerriko Hizkuntzak / Arte Hezkuntza (Plastika eta Ikus Adierazpena) / Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera.

2. JARDUERA:
TXIMINOKUMEA

Haurraren ongizatea era desberdinetara ulertu izan da garaien arabera. Gaur egun, haurraren ongizatea diogunean, bere beharrizan bio-psiko-sozialak asetzea esan nahi izaten dugu eta, aldi berean, lotu egiten dugu haurrei ematen zaien tratu on eta tratu txar kontzeptuekin. Horrek zenbait ondorio ditu adingabekoen arreta eta babesaren esparruan. Adibidez, nola jokatu behar da haurren babesgabetasunaren aurrean? Nolako neurriak hartu behar ditugu babesgabetasun hori ekiditeko?

Esate baterako, zenbaitetan etxe barruan ere tratu txarrak eman dakizkieke haurrei gurasoek seme-alaben beharrizanei jaramon handirik egin ezean: entzun ez egitea edo bere gauzez ez arduratzea, maitasunik ez azaltzea ez hitzez ez bestela ere –laztanak, besarkadak...–, era oldarkorrean eta zakar hitz egitea (*"umeei ondo esan behar zaie"*), etab. Tratu txarrak eman dakizkieke, halaber, haien gaitasunei jaramon egin ezik, horrek bere garapena atzeratu eta eten baitezake (antsietatea, axolagabekeria, arazo emozionalak, disziplina arazoak...). Izan ere, haurrak familiarekiko harremanetan (aita/ama/zaindaria) ziurtasuna ekarriko dion atxikimendu figura bilatzen du eta ziurtasun horri esker miatu ahal izango du bere ingurua, elkarreraginerako konfiantza handiagoa izango du eta, horrela, ikaskuntza egoki eta gizartekoiagoa lortuko du. Atxikimendu figura hori ez duten haurrek ziurtasun eza sentituko dute eta autokontrol eskasagoa erakutsiko dute, baita bere berdinekiko eta helduekiko harremanak oztopatuko dituzten jarrera desegokiak ere (jarrera arazoak).

Irakasleak ikasleei azalduko die: "Gizakiok zoriontsu eta osasuntsu hazteko funtsezkoa da harreman ona izatea familiarekin, eskolara pozik joatea, lagunak egitea, beraiekin ondo pasatzea, etab."

■ HELBURU NAGUSIAK

- Haurtzaroan maitasunaren beharra aintzat hartzea.
- Semea edo alabaren nortasunaren garapen orekatuan senitarteak duen garrantziaz ohartzea.
- Tratu txar emozional kontzeptuaz eta bere ondorioez gogoeta egitea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Elikatzeko beharrizana eta maitasunaren beharrizana konparatzea eta pertsonaren ongizatean zer-nolako eragina duten aztertzea.
- Senitartean izandako lehen bizipenen garrantzia arrazoitzea.
- Norberaren sentimenduak azaltzea umea abandonatzea dela eta.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan, talde handian.

BALIABIDEAK: bideoa, bideo-zinta.

JARDUERAREN IRAUPENA: 40 minutuko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak jardueraren berri emango die ikasleei: *"Orain ikusiko dugun film honetako protagonista benetako amarik ez duen tximino txikitxo bat da. Ikusi ondoren galdera batzuei erantzuten saiatuko gara".*

Bideo jarriko da ("La aventura de crecer; Aprendiendo a amar" Experiencia de Harry Harlow en la Universidad de Wisconsin (ICE/HEZI Deustuko Unibertsitatea, AAVV Psikologia 004, 1997) eta eztabaidari ekingo zaio jarraian. Hauek izan daitezke galdera batzuk:

1. Zer gertatzen zaio tximinokumeari zuen ustez?
2. Zergatik nahiago du trapuzko ama eta ez alanbrezkoa?
3. Zer ematen dio batak eta zer besteak?
4. Tximinoa izan beharrean haurtxoa balitz, zein ama aukeratuko luke? Zergatik uste duzu hori?
5. Zer ikasi duzue filma ikusiz?
6. Tximinotxo horren antzeko kasurik ezagutzen al duzue zeuen inguruan?

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Euskara eta Gaztelania / Atzerritar Hizkuntzak / Arte Hezkuntza (Plastika eta Ikus Adierazpena) / Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera.

3. JARDUERA:
PSIKOLOGOAREN KONTSULTARA

Esan bezala, gizaki bakoitza bakarra eta desberdina da eta, era berean, moldagarria. Banakotasun eta moldagarritasun horiek onarturik ere, oker handia egiteko beldurrik gabe esan dezakegu denok ditugula beharrizan bertsuak eta beharrizan horiek asetzeak markatzen duela, hein handi batean, gure garapena eta heltze prozesua eta, hortaz, ongizate psikologikoa. Beharrizanak aipatzean bai *fisiko-biologikoak* (elikadura, osasun fisikoa, garbitasuna...), bai *kognitiboak* (sentimen-estimulazioa, ingurune fisiko eta soziala behatu eta ulertzea) baita beharrizan *emozional eta sozialak* ere (ziurtasun emozionala, maitasun eta laguntasun harremanak, partaide sentitzea, etab.).

Haurra elkar ulertze eta maitasun giroan hazten baldin bada, espero daiteke psikologikoki pertsona orekatua bihurtzea, autonomoa, segurua, gizartekoia, zoriontsua eta bere arazoei aurre egiteko gai. Maitasuna eta onarpen zintzoa, beraz, funtsezkoak dira haurraren osasun mentalerako eta, zentzu horretan, aditu guztiak bat datoz txikitako bizipenak osasun psikologikoaren zutabe nagusiak direla esaterakoan.

Alabaina, batzuetan zenbait kasuk harritu egiten gaituzte, aipatutako irizpide horretatik kanpo baitaude. Ume batzuek, babestu eta maitatu egiten dituen giroan bizi dira, bai familian, bai eskolan eta gizartean, eta, hala ere, era askotako arazo psikologikoak dituzte (jarrera-gorabeherak, garapen arazoak, hala nola, autismoa, antsietate- eta elikadura-arazoak, hiperzinesia, etab.).

Irakasleak honela azalduko die gaia ikasleei: *"Noizean behin jarrera arraro eta desegokiak dituzten umeak aurkitzen ditugu eta, horregatik, laguntza berezia behar dute"*.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Haurtzaroan buru-osasun arazoak badirela jakitea.
- Semearen edo alabaren nortasunaren garapen orekaturako senitarteak duen garrantziaz ohartzea.
- Pertsonen osasun psikologikoan familiak, eskolak eta estatuak duten erantzukizunaz gogoeta egitea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Haur baten arazo psikologikoen aurrean gizarteratzearen eragileek (familiak, irakasleek eta ikaskideek) nola lagun dezaketen eztabaidatzea.
- "Soluziobide" posibleak proposatzea "arazo psikologiko" bati.
- Buru-osasun arazoei erantzuten dieten zerbitzu publikoak ezagutzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan, ikasleak launaka jarrita.

BALIABIDEAK: kasuaren fotokopia.

JARDUERAREN IRAUPENA: 40 minutuko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak jarduera azalduko die ikasleei: *"10 urteko neskatila baten kasua irakurriko dugu. Ane du izena eta eskolan arazo asko ditu. Horrek, batzuetan, haserrarazi egiten ditu ikaskide eta irakasleak. Irakurria duzuenean, nahi nuke denon artean pentsa dezazuen nola lagundu".*

Lan-gidoia: Ane gaizki dago eta laguntza behar du.

- Non aurki dezake laguntza?
- Nork lagun diezaioke?
- Nola lagun diezaioke?
  - IKASTETXEAN: irakasleek, berak bere buruari, ikastetxeko kontsultoreak...
  - IKASTETXEZ KANPO: osasun zentroren bat (han nork egiten duen lan, zer egiten duten, etab.).
- Aipa itzazu arazo psikologikoak dituzten beste mutiko edo neskato batzuen kasuak.
- Eztabaida ezazue ea arazo psikologikoak dituen haur bat zentro berezietan barneratu behar den.

ANEREN KASUA: Ane 10 urteko neskatila bat da, Bilbo inguruko herri batean bizi diren senar-emazte gazte batzuen alaba. Iaz bere gurasoek ikastetxez aldatu zuten (etxetik kilometro batzuetara zegoen eta egun osoa ematen zuen han). Arazo asko zituen eta hurrago eduki nahiago zuten, arreta gehiago eskaini ahal izateko. Hala ere, bere egoerak hobera egin duen arren, garbi dago Anek oraindik arazo asko dituela. Hona hemen laburbilduta:

A. Ikastetxean: klase orduan, bere mahaitik altxatzen da etengabe eta irakasleari hurbiltzen zaio, beste batzuetan oihuka hasten da eta, itxuraz inolako arrazoirik gabe, haserretu egiten da. Atsedenaldietan ez da lagunekin jolasten: bazter batean geratzen da edo, bestela, bi, hiru eta lau urteko txikiekin jolasten da; bere adineko norbait saiatzen baldin bada berarekin jolasten, laster gogaitzen da edo haserretu, arauak errespetatzen ez dakielako; sarritan lagunak iraintzen ditu, eta batzuetan jo eta haginka -hozka- ere egiten die, etab. Horregatik bere ikaskideak oso haserre daude berarekin eta arbuiatu egiten dute. Ikasketetan oso atzeratuta dagoenez, eskolan "aspertu" egiten da.

B. Etxean: zerbait lortu nahi duenean kasketaldi eta amorraldiak erabiltzen ditu eta, bere gurasoek batere egokia ez dela dakiten arren, azkenean amore ematen dute isil dadin; horrezaz gain, asko kostatzen zaio bakarrik jatea, janztea, garbitzea... eta, hargatik, bere ahizpek laguntzen diote zeregin horietan.

*Bai etxean eta bai ikastetxean oso kezkatuta daude. Gurasoek, tutorearekin zenbait aldiz hitz eginik eta denen artean kasua ondo aztertu ondoren, psikologo edo psikiatra baten eskutan jartzea erabaki dut*e.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Euskara eta Gaztelania / Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera.

IDEIA OSAGARRIAK

Bere hazkuntza era garapenean zehar, nortasunaren eta gizarteratzearen eraketan garrantzi handikoak diren hainbat testuinguru eta eszenatokitatik igarotzen da haurra: familia, eskola, lagunak, etab. Haurraren garapen-adinaren arabera, eszenatoki bakoitzaren garrantzia eta esanahia desberdina izango da. Hala ere, haietariko bat, familia, lehenbizikoa eta nagusia da zalantzarik gabe.

ETXEKOENTZAKO FITXA

Guraso agurgarriok:

Jakitun gara denok zein garaitan suertatu zaigun bizitzea. Gaur eguneko gizartean etengabe ematen dira aldaketak, aldaketa azkarrak eta era guztietakoak, baita gure seme-alaben hezkuntzari dagokionez ere. Gure gizarte honetan seme-alaben zoriontasunari eta ongizateari ematen zaie lehentasuna haien garapena osasuntsua eta orekatua izan dadin. Izan ere, egia da eskuarki bizi-kalitatean hobera egin dugula eta jaiotzatasak, berriz, behera egin duela; beraz, pentsatzekoa da gaur egun errazagoa dela seme-alabei jaramon gehiago egitea eta arreta hobea eskaintzea.

Hala ere, horretan aurrerantz bagoaz ere, araurik eza ikus daiteke sarri, mugarik eza, eta horrek oso eragin negatiboa izaten du umearen garapenean. Honen bidez dei egin nahi dizuegu zuen seme-alabei egiazko kontrola egin diezaiezuen, betiere zentzuz eta neurriz, jakina (bakoitzaren beharrizanak, gaitasun eta ezaugarriak kontuan hartuz).

Umeak mugak non dituen jakin behar du, zeri lotu eta zer espero dezakeen jakiteko. Horrek segurtasuna ematen dio, badaki nondik nora dabilen, eta bere buruarekin gusturago sentitzen da. Horretarako iradokizun bat egingo dizuegu: ezarri haurrari jarrera-arau edo erregela batzuk (gutxi baina argiak) eta zehaztu arau bakoitza betetzeak edo ez betetzeak dituen ondorio positibo eta negatiboak (arau batzuk beraiekin batera eztabaida daitezke, ituna egin, haurraren adinaren arabera). Guztiz funtsezkoa da arauok egingarriak eta errealistak izatea eta zuek ere beti era berean eta ezarritako arauen arabera jokatzea. Horrek esan nahi du behin baino gehiagotan "EZ" esan behar izango duzuela edo ezarritako ondorioak aplikatu beharko dituzuela. Baina, KONTUZ!, ez dugu mutur batetik bestera joan behar: ez oso zabalak izan eta, gure aldartearen arabera, nahi duten guztia egiten utzi, ezta guztiz zurrun eta zorrotzak ere, semea edo alabarentzat ondorio negatiboak ekar ditzakeen exijentzia- eta tentsio-giroa sortuz. Zeuen seme-alabei jarrera-mugak ezartzea komeni da, baina ahaztu gabe irribarretxo batez eta umore onez arazo asko konpon daitezkeela.

Adibideak:

- 1. erregela: "Astegunetan gozokirik eta litxarreriarik ez erosi". ONDORIOAK: betez gero, asteburuan "x" gozoki erosi ahal izango ditu; bete ezean, ez du jango.
- 2. erregela. "Biharamunean eskolara joan behar badu, bederatzi eta erdietatik hamarretara bitartean oheratuko da, guk haserrerik egin gabe". ONDORIOAK: betetzen badu, ostiraletan telebista ikusi ahal izango du "hain" ordura arte edo kanpoan jolasten geratu ahal izango da beranduago arte –berak nahiago duena–.

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

UNITATEAREN BALORAZIOA

"Oporrak Euskal Herrian"

Uda guztietan irakurtzen dugu edo telebistan ikusten dugu (agian zuen inguruan halako kasuren bat ezagutzen duzue) zenbait euskal familiatan beste herrialde batzuetako haurrak hartzen dituztela –Saharakoak, Albaniakoak, Errusiarrak...– hilabete bat edo bi elkarrekin emateko. Bada, gogoeta egin dezagun horretaz. Bi alditan egingo dugu:

1. Haur horietaz hitz egingo duzue, ikastalde osoak, 10 minututan: haien bizimodua euren herrietan eta hemen.
2. Bakarka, bi zerrenda egingo dituzue: batean euren jatorrizko herrialdeetan dituzten eta euren zoriontasunerako beharrezkoak diren "gauzak" idatziko dituzue; bestean, euren ongizaterako garrantzitsuak diren "gauzak", hemen aurkitzen dituzten eta han ez dituztenak.

Beren herrialdeetako "gauzak"	Hemen aurkitzen dituzten "gauzak"

Azkenean horma-irudi bat egin dezakezue zeuen ondorioekin.

ERABAKIAK HARTZEN IKASTEA

■ IDEIA NAGUSIA

Bere erabakiak hartu ahal izateak bere buruaren jabe izaten laguntzen dio haurrari. Era berean, bizitzan zehar izan ditzakeen abusu eta eragin gaiztoei aurre egiten ere laguntzen dio. Bestalde, erabakiak hartzeko era egoki bat abian jartzeko ezinbestekoa da besteen eskubideak aintzat hartzea. Familiek, irakasleek, estatuek eta nazioarteko erakundeek haurren eskubideak eduki behar dituzte kontuan haiei eragin diezaiekeen edozein erabaki hartu aurretik.

■ HELBURUAK

- Nork bere kasa erabakiak hartzen ikastea.
- Erabakiak hartzean besteen eskubideekiko begirunea sustatzea.
- Taldean demokratikoki erabakiak hartzeko gaitasuna garatzea.
- Erabakiak hartzearen ondorioez gogoeta egitea.
- Erabakiak hartzerakoan nork bere eskubideak babesteko beharrari garrantzia ematea.

■ UNITATEAREN GARAPENA

Tamalez, egunero ikusten dugu senitartean, eskolan, estatu-arazoetan edo politikan haurrei dagozkien erabakiak hartzen dituztenek ez dituztela txikienen eskubideak errespetatzen, ez bizitzeko eskubidea, ez hezkuntza izatekoa, ez osasun- eta intimitate-eskubideak, ezta bere iritzia adieraztekoa ere... Haurraren bizitzan ondorio garrantzitsuak izan ditzakeen erabaki bat hartu behar denean, haurraren interes gorenak izan behar du lehentasuna, eta ez bestelako arrazoiak.

Erabakiak hartzerakoan eredu okerrari jarraitzen dioten umeek, agian, bere eskubideak edota inorenak babesten ez dituzten erabaki okerrak hartuko dituzte, hala nola, estupefazienteak kontsumitzea, bere osasuna ez zaintzea, beste etnia eta kultura batzuetako haurrak baztertzea, etab. Horregatik, guztiz funtsezkoa da ikasleek erabaki egokiak hartzen ikastea, eredu eta prozedura egokiei jarraituz eta sarritan landuz.

Erabakiak hartzeko prozesuak zenbait urrats desberdin ditu eta, prozedurak arrakasta izan dezan, urratsok era egokian eman behar dira. Erabakimena ez da jaiotzean eskuratzen dugun gaitasuna, ez da berezko dohaina, txikitatik trebatu behar den abilezia baizik. Haurrak berez erabaki ahal izanez gero, bere portaeraren jabe izango da eta zailagoa izango da haur hori beste pertsona batek erabiltzea.

Erabakiak hartzeko prozedurak honako urrats hauek ditu:

- Definitu. Zer erabaki behar dut?
- Informazioa bilatu. Erabaki aurretik zer jakin behar dut?
- Ditugun aukerak ezagutu. Zein beste aukera dut?
- Abantailak aztertu: aukera bakoitzak norberarentzat eta dagokion pertsonarentzat zein onura eta zein kalte ekar lezakeen neurtu. Nola sentituko naiz erabaki hori hartu eta gero? Nola sentituko dira besteak?
- Hautatzea. Zein da aukerarik onena?
- Ondorioaren balorazioa. Pozik al nago hartutako erabakiaren ondorioarekin?

Erabakiak hartzeko prozedura horrek erabakitzailearen eskubide eta interesak izaten ditu kontuan, baina eskatu ere eskatzen dio eragina jaso dezaketen pertsonen eskubideez eta ongizateaz gogoeta egitea. Prozedura honi jarraituz gero eta betiere zuhur jokatuta, aukerarik onena hartzeko probabilitate gehiago izango ditugu, erabakia hartzerakoan ditugun zirkunstantzia eta ezagutzak gorabehera. Alabaina, aipatutako urratsak bete arren, aukera okerra egin liteke eta hartzen den erabakiaren ondorioak negatiboak izan litezke.

Nork bere aukerak egitea funtsezkoa da, baina erabakiak taldean hartzen ikastea ere oso garrantzitsua da, haurrak bere bizitzan zehar horrela egin beharko baitu maiz. Urrats berberak eman behar dira erabakiak taldeka hartzeko, baina kasu honetan guztien parte-hartzea, guztien iritzi- eta adierazpen-eskubidea ziurtatu behar dira, denak gogobeteko dituen erabakia hartzeko adostasuna bilatzen saiatuz.

■ ZER LANDU GAI HONEN INGURUAN?

Irakasleek

- Haurren eskubideak aintzat hartu haiengan eragina izan dezaketen erabakiak hartzerakoan.
- Gogoan izan haurrek iritzi- eta pentsaera-askatasuna dutela.
- Posible den arloetan erabakiak euren kasa hartzea bultzatu.
- Ikasleak taldeka erabaki beharreko egoeretan jarri.

Familiak

- Haurren ordez erabakirik ez hartu.
- Gaitasun kritikoa sustatu.
- Azaldu umeei hartutako erabaki batzuk eta zergatik hartu diren.
- Umeei etxeko arduraren bat ezarri.

1. JARDUERA:
BIDEGABEKERIAK

Batzuetan nagusiok hartzen ditugun erabaki batzuek ondorio ikaragarriak izaten dituzte haurrentzat. Erabakiak hartzeko prozedura erabiltzerakoan, besteen eskubideak eta ongizatea hartu behar izaten ditugu kontuan, geure interesei lehentasuna eman gabe. Hala ere, erabakiak hartzeko prozesuaren urrats horri muzin egiten zaio sarri askotan. Horregatik, haurrei erakutsi egin behar zaie zein garrantzitsua den urrats hori gauzatzea, erabakiak hartzeko erabili behar duten prozeduran besteen eskubideei buruzko gogoeta egon dadin eta heldua denean ere horrela izan dadin.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Erabakiak hartzerakoan umeen eskubideak errespetatu beharraz gogoeta egitea.
- Hartutako erabakien ondorioek duten garrantzia aintzat hartzea.
- Pentsaera kritikoa sustatzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Erabakiak hartzeko prozedura ikastea.
- Bidezkoak eta bidegabeak diren erabakiak bereiztea.
- Erabakiak hartzerakoan prozedura-errakuntzak identifikatzea.
- Juduek pairatutako holokaustoaren berri izatea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: bideo tresna eta Roberto Benigni-ren ìLa vida es bellaî filma. Laurenfilms S.A.

JARDUERAREN IRAUPENA: 50 minutuko 3 saio.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak ìLa vida es bellaî filma erabiliko du Adolf Hitler-ek hartutako erabakiek haurrentzat zer-nolako eraginak izan zituen aztertzeko eta, oro har, nazismoari buruzko gogoeta eragiteko. Filma ikusi ondoren, ikasleen arteko solasaldia sorraraziko du ondoko galdera hauei erantzunez:

Nor zen Adolf Hitler?

Zein erabaki garrantzitsu hartu z(it)uen?

Zer-nolako eragina izan zuten erabaki horiek judutar umeengan?

Zer-nolako eragina izan zuten alemaniar umeengan?

Haur horien eskubideren bat urratu al zuten erabakiok? Zein(tzuk)?

Zein prozedura-errakuntza egin zen erabakiak hartzerakoan?

Ba al da gaur egun haurren eskubideak errespetatzen ez dituen antzeko egoerarik? Zein(tzuk)?

Hitler-i jarraitu zioten pertsonak beren erabakiak hartzeko gai al ziren? Beraien irizpidea zutela uste duzu?

Galderen bidez irakasleak erabakiak hartzeko prozedura azalduko du eta, bereziki, aukera bakoitzak zein ondorio ekar lezakeen aztertzeko dioen urratsa nabarmenduko du, baita erabakiak geure iritziaren arabera hartu beharra ere, agintarien aginduak itsu-itsuan bete gabe.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURA

Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera.

2. JARDUERA:

NIK NEUK ERABAKITZEN DUT

Pertsona guztiek jakin behar dute erabakiak berez hartzen. Hala ere, batzuetan besteek eraman gaitzaten uzten dugu, geure iritzi- eta adierazpen- askatasun eskubideari beldur izaten diogulako. Hartu behar dugun erabakiak geure eskubideak edota besteenak urra ditzakeenean, funtsezkoa da geure irizpidearen arabera jokatzea, inork gu erabiltzen utzi gabe. Zenbaitetan, ordea, horrek taldeari aurre egin behar izatea ekar lezake, baina, egoera azterturik, gure iritzia zuzena dela uste badugu, tinko mantendu eta aurrera jarraitu behar dugu. Hartu dugun erabakiak hasieran kaltetu egin lezake taldearekiko harremana, baina onuragarria izango zaigu gerora, bai geuri eta bai erabakiak eragin diezaiekeen pertsonei.

Irakasleak jarduera azalduko die ikasleei: ìOrri batzuk banatuko dizkizuet. Bakoitzak egoera bat ikusiko du bere orrian eta erabaki bat hartu beharko du. Irakur ezazue eta fitxako galderei erantzunî. Ondoren, orriak banatuko dira.

Zure ikasgelara Marokoko ikasle berri bat etorri da. Atsedenaldian zurekin jolastera hurbildu zaizu eta bere herrialdeko jolas bat erakutsi nahi dizu. Zure taldeko lagunek ez dute harekin jolastu nahi, desberdina omen delako eta zuen erara jolasten ez omen dakielako.

Jolastokian zaude. Lagun bat hurbildu eta zigarro bat eskaini dizu. Zure gurasoek erretzea kaltegarria dela esan dizute, baina zure laguna ekin eta ekin ari da eta erretzen ez baduzu kakati hutsa eta oilobusti bat zarela esan dizu.

Ikasle batek motxila utzi du jolastokian ahaztuta. Zure lagunek motxila arakatu eta kalkulagailu bat aurkitu dute. Kalkulagailua hartzea erabaki dute eta zeuri eskatu dizute etxean gorde dezazula. Hori egiten ez baduzu, taldetik bota egingo zaituzte.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Erabakitzerakoan norberaren eta inoren eskubideak kontuan izateari garrantzia ematea.
- Nork bere erabakiak menpekotasunik gabe hartzea.
- Kontzientzia- eta iritzi-askatasuna erabiltzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Erabaki bat hartzea eguneroko egoera batean.
- Erabaki bat hartzerakoan eragina duten faktoreak aztertzea.
- Erabakien ondorioak baloratzea.
- Norberaren iritziak eta besteenak alderatzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: idazteko tresnak.

JARDUERAREN IRAUPENA: 45 minutuko saio bat.

JARDUERA NOLA BURUTU

Hiru egoerak banatuko dira ikasleen artean. Ikasle bakoitzak 10 minutu izango ditu galderei bakarka erantzuteko:

Zer erabaki behar duzu?

Zein aukera d(it)uzu?

Zuk zer egingo zenuke?

Ondoren, arazo-egoerak banan-banan aurkeztu eta haur bakoitzak bere erabakia azalduko die ikaskideei.

Jarraian, honako galdera hauei erantzuteko eskatuko zaie ikasleei:

Zein onura eta zein kalte ekar dezake zuk hartutako erabakiak?

Zergatik hartu duzu erabaki hori?

Kontuan izan duzu zeure eskubideak eta besteenak errespetatzen dituen ala ez?

Hori guztia kontuan izanik, aldatuko al zenuke zeure erabakia?

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera / Tutoretza.

3. JARDUERA:
GERRA-PRESOAK

Zenbait aldiz taldean hartu behar izaten ditugu erabakiak. Hori gertatzen denean taldekide guztien pentsaera-askatasuna errespetatu behar da, bakoitzak bere iritzia inolako bazterketarik gabe adieraz dezan. Erabakiak hartzeko taldekako prozedurak banakako prozedurak dituen urrats berberak ditu, baina zail samar izan daiteke gauzatzen, pertsona gehiagoren iritzi eta interesak baitaude jokoan. Alta, proposamen gehiago ere badira eta horrek prozesua aberastu egiten du. Taldean hartutako erabakiak haurren eskubideak errespetatu behar ditu eta denak ase behar ditu.

I*rakasleak jarduera azalduko die ikasleei: "Pentsa ezazue 2150 urtean gaudela. Merkurio planetako biztanleen aurka gerra luze bat izan dugu baina, azkenean, lurtarrok menderatu egin ditugu inbaditzaileak. Borrokak amaitu eta gero, preso ditugu zenbait merkuriotar gure planetan. Egin itzazue taldeak eta erabaki ezazue zer egin. Gero bateratu egingo ditugu talde guztien erabakiak".*

■ HELBURU NAGUSIAK

- Erabakiak taldeka hartzen ikastea.
- Zigorrari buruz gogoeta egitea.
- Haurren eskubideak edozein egoeratan errespetatu beharra aintzat hartzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Erabakiak hartzeko prozeduraren urratsak aplikatzea.
- Erabakiak taldeka hartzea praktikan jartzea.
- Adierazpen askatasuna erabiltzea.
- Besteen iritziak errespetatzen ikastea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: idazteko tresnak.

JARDUERAREN IRAUPENA: 45 minutuko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak azaldu egingo du egitekoa. Ikasleek bosteko taldeak egingo dituzte eta 15 minutu izango dituzte erabaki bat hartzeko. Horren ostean, talde bakoitzak hartutako erabakiaz eztabaidatuko da denon artean.

Zaila izan al da erabaki bat hartzea?

Zein prozedura erabili duzue?

Denon iritziak entzun dira?

Zein erabaki hartu duzue?

Zergatik? Zein irizpideren arabera?

Hartutako erabakiak haurren eskubideak errespetatzen ditu?

Eskubideren bat urratzen baldin badu, esan zein.

Nolako ondorioak izango ditu hartutako erabakiak merkuriotarrengan?

Bidezkoa deritzozue hartutako erabakiari?

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Tutoretza / Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera.

ETXEKOENTZAKO FITXA

Guraso agurgarriok:

Azkenaldi honetan erabakimena lantzen ari gara ikasleekin, hau da, erabakiak hartzeko gaitasuna. Zuek ere hainbat erabaki hartu ohi dituzue egunero eta horietako batzuek ondorio zuzena izaten dute zeuen seme-alaben bizitzan. Haurrei eragiten dieten erabakiak hartzerakoan, gauza guztien aurretik beraien interes gorena eta ongizatea jarri behar ditugu eta ez bestelako interesik. Halaber, iritzia emateko eskubidea errespetatu behar dugu haientzat ondorioren bat izan dezaketen gauzetan, apurka-apurka gero eta erantzukizun handiagoa emanez.

Zuek ere zeuen seme edo alabari erabakimena garatzen lagun diezaiokezue proposatzen dizuegun jarduera hau eginez:

Pentsa ezazue ea zertan utz diezaiokezuen zeuen seme edo alabari erabakiak hartzen, eta adostu berarekin. Hortik aurrera bera izango da arlo horretako erabakien erantzule.

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

UNITATEAREN BALORAZIOA

1. Erabaki bat hartu aurretik hau egin behar dut:

   a) Denbora apur bat hartu zein aukera dudan pentsatzeko eta egokiena aukeratu.

   b) Ezer pentsatu gabe, lehenbailehen erabaki.

   c) Besteek ea zer egiten duten ikusi eta gauza bera egin.

2. Erabaki bat hartzeko zer da egokiena?

   a) Ea niri erabaki horrek zein ondorio ekar diezadakeen pentsatzea.

   b) Une horretako apetaren arabera aukeratzea.

   c) Ea niretzat eta besteentzat erabaki horrek zein ondorio ekar dezakeen pentsatzea.

3. Erabaki bat taldean hartu behar denean hauxe da onena:

   a) Azkarrenak erabaki dezala.

   b) Erabakia denon artean hartzea.

   c) Prestakuntzarik apalena dutenei ez utzi iritzirik ematen.

4. Erabaki bat hartzerakoan honi eman behar zaio lehentasuna:

   a) Nire interesentzat onuragarri izatea.

   b) Besteen eskubideak errespetatzea.

   c) Nire eta besteen eskubideak errespetatzea.

5. Helduek nigan eragin zuzena duen erabaki bat hartzekotan daudelarik, hauxe egin behar dut:

   a) Isilik egon eta esaten didatena egin.

   b) Nire iritzia inposatzen saiatu.

   c) Nire iritzi eta sentimenduak adierazi.

6. Erabakia hartzean okerrik eginez gero:

   a) Gaizki sentituko naiz eta ez dut sekula beste erabakirik hartuko.

   b) Aztertu egingo dut ea zertan huts egin dudan eta hurrengo baterako ikasiko dut.

   c) Ez dut ezer egingo.

Hona hemen erantzun zuzenak:

1.- a 2.- c 3.- b 4.- c 5.- c 6.- b

GATAZKAK ABERASTU EGITEN GAITU

■ IDEIA NAGUSIA

Gatazka pertsona guztion bizitzan dago. Gizakiok animalia sozialak gara eta, pentsaera-, kontzientzia- eta erlijio-askatasuna dugunez, interes eta balore desberdinak ditugu eta, beraz, logikoa da gatazkak sortzea. Gatazka izatea positiboa da berez, aniztasunetik sortzen baita. Jarrera ulerkorra izanez gero eta besteen eskubideak errespetatzen badira, gatazka oso irakasbide egoki eta hezigarria izan daiteke.

■ HELBURUAK

- Urruneko eta gertuko inguruetan diren gatazkak identifikatzea.
- Pentsaera eta erlijio askatasuna errespetatzen ikastea.
- Aniztasuna ontzat hartzea.
- Gatazkak indarkeriaren bidez konpontzearen desabantailak ezagutzea.
- Gatazken jatorriez gogoeta egitea.

■ UNITATEAREN GARAPENA

Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmenak pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasuna aldarrikatzen du bere 14. artikuluan. 30. artikuluan, berriz, gutxiengo etniko, erlijioso edo linguistiko bateko haurrak bere bizitza kulturala izateko, bere erlijioa praktikatzeko eta bere hizkuntza erabiltzeko eskubidea jasotzen du. Errealitatean, ordea, guztiz problematikoa izan ohi da eskubide horien erabilera eta arazoak sortzen dira gure inguruan eta nonahi.

Gatazka geure bizitzetan izaten dugu bidelagun, gizateriaren aniztasuna ageri-agerian baitago: bai kultura aldetik, bai erlijio, arraza, sexu eta abarretan ere desberdintasun handiak ditugu gure artean. Aniztasun horrek eraginda, desadostasunak sortzen dira gure artean hainbat arlotan. Gatazka baten aurrean izaten den jarrerak ematen dio gatazka horri bere izaera. Sarritan ez da konpontzeko modurik izaten, gatazkaren oinarrian desberdintasun kultural eta erlijiosoenganako jarrera intolerantea dagoelako eta pentsaera-, kontzientzia- eta erlijio-askatasuna errespetatzen ez delako. Beste batzuetan, berriz, jarrera negatiboa izaten da eta, arazoen konponbidea bilatu beharrean eta denak asetzen dituen adostasun bat lortzeko negoziatu beharrean, indarkeriari ekiten zaio.

Tamalez, sortzen diren liskarrei soluziobide baketsua ematen ez zaienean, tartean sartuta dauden haurrak izaten dira kaltetuenak. Indarkeriari ekiten zaionean, haurren eskubide asko urratzen dira, hala nola, bizitzeko eskubidea, familia bat izateko eskubidea, hezkuntza jasotzeko eskubidea, osasun eskubidea, pentsaera eta iritzi eskubidea, etab. Zenbaitetan, gainera, nahasi ere egiten dira umeak liskar armatuetan eta helduak bezala frontean borrokatzen dira.

Alabaina, eguneroko bizimoduan, kulturaz, erlijioz, arrazaz... bestelako arrazoiengatik sor liteke gatazka. Iritzi desberdina izateak edo helburu bat lortzeko lehiak beste pertsona batzuekiko gatazka sor lezakete. Maiz entzuten dugu liskarrak izaten direla aurkako futbol-taldeetako zaleen artean eta informatiboek ere gero eta sarriago adierazten digute gazte askok bere desadostasunak indarra erabiliaz konpontzeko joera izaten duela. Denok izan ditzakegu gatazka eta desadostasunak egunero. Pertsonen arteko gatazka sortzen denean, bakoitzak erreakzio desberdina izaten dugu.

Pertsona batzuk gatazkaren beldur dira eta arazoa dagoenean ezikusiarena egiten dute, inoren aurka ez jartzearren. Era horretara jokatuz ez da ezer konpontzen; aitzitik, arazoa gero eta handiagoa egiten da. Pertsonen arteko gatazkei aurre egin ezean, bestelako estrategiak erabiltzen dira ondoezari zeharkako irtenbide bat emateko. Horrela, besteekiko harremanak okerrera egiten du, ezikusiarena eginez saihestu nahi zena, hain zuzen ere.

Beste pertsona batzuek aurkako joera izaten dute eta, beren desadostasunei irtenbidea aurkitu nahian edo, iraindu egiten dute edota eraso fisikoaz baliatzen dira. Estrategia hau ez da oso eraginkorra izaten arazoak konpontzeko; hala ere, zenbait pertsonak, bestelako estrategiarik antzematen ez duelarik, behin eta berriz jotzen du bide horretara, emaitzak txarrak diren arren.

Arazo bat agertzen denean, arazoa badela onartu eta negoziazioaren bidez akordio batera iristen saiatzea da egokiena. Horrela eginez gero, errazago manten daitezke harreman onak besteekin eta norbera ere bere buruarekin gusturago sentitzen da.

Egunero ikusten dituzte gure haurrek gatazkei erantzun bortitza ematen dieten hainbat eta hainbat adibide. Hargatik, tolerantzia eta gatazkekiko jarrera positiboa landu behar ditugu etengabe. Arinagoak eta leunagoak diren gatazken aurrean jarrera egokia izaten ikasiz gero, jarrera hori orokortu ahal izango dute eta, hortaz, arazo latzagoak eta korapilatsuagoak direnei ere era egokian erantzun ahal izango diete. Ikasbide honetan lagungarri izango zaie pentsaera-, kontzientzia- eta erlijio-askatasunean oinarritutako hezkuntza.

■ ZER LANDU GAI HONEN INGURUAN

Irakasleek

- Ikasleen arteko gatazkak identifikatu eta, balego, bortizkeriaren bidez ebatz ez daitezen saiatu.
- Ikasleen gustu, ideia eta iritziekiko tolerantzia erakutsi.
- Eztabaidak bultzatu, ideia desberdinen alderaketa ekidin gabe.
- Adierazpen askatasuna errespetatu.

Familiak

- Eguneroko jokaeraren bidez arraza-, erlijio-, kultur... aniztasunarenganako errespetua erakutsi.
- Seme-alabekin munduan zehar diren gatazka eta liskarrei buruz hitz egin, albisteen iruzkinak egin, haurren bizimodurako gatazka horiek dituzten ondorio negatiboak nabarmenduz.
- Umeen iritzi, gustu eta balore desberdinekiko toleranteak izan.

1. JARDUERA:
KULTUR GATAZKAK

Sarritan kontzientzia eta erlijio askatasunaren aurkako jarrerek eta intolerantziak gatazkak sortzen dituzte eta tartean dauden haurrak izaten dira kaltetuenak. Gatazka hitza entzutean urrutiko gerretako irudiak datozkigu gogora, baina zoritxarrez gure artean ere baditugu liskar bortitzak. Egunero izaten dugu bereizketa kultural eta erlijiosoen berri, geure inguruan ditugun komunitateen bizitza aldarazten eta liskarrak sortzen dituztenak. Informazioa eta aniztasunaren errespetua ezinbestekoak dira gatazka horiek tarteko guztientzat positiboak izan daitezen eta inor bortizkeriara eraman ez dezaten.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Inguru hurbilean diren gatazkak identifikatzea.
- Gatazken konponbidean indarkeriaren erabilerak dakartzan ondorio negatiboak ezagutzea.
- Egunero-egunero gertatzen den arrazakeriaz gogoeta sustatzea.
- Beste herri eta kultura batzuk ezagutzeko jakin-mina piztea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Eguneroko bizimoduan ijitoen etniarekiko gertatzen den bereizketaz hausnartzea.
- Bereizketak haur ijitoengan dituen ondorioak ezagutzea.
- Inguruan ditugun arrazakeria eta bereizkeriaren adierazpideak zehaztea.
- Komunikazioak gatazkaren konponbidean duen garrantzia aintzat hartzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: idazteko tresnak.

JARDUERAREN IRAUPENA: 40 minutuko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak taldeak egingo ditu ikasleak bosnaka jarrita eta testu hau emango die:

"Gatazka piztu zen atzo Errototz herrian. Duela sei hilabete zenbait familia etorri zen udalak eraikitako etxebizitza sozial batzuetara. Ijitoak dira. Errototzeko biztanleak hasiera-hasieratik jarri ziren etnia horretako pertsonekin bizitzearen aurka. Orain dela egun batzuk errotoztar baten autoa ostu zuten eta zenbait lapurreta izan ziren etxe batzuetan. Lapurreta horiek ijitoek egin dituztela uste dute herritarrek. Geroztik hona, ijitoen umeei ez diete herriko ikastetxera joaten uzten eta seme-alabei ere galarazi egin diete haiekin jolastea. Atzo manifestazio bat egin zuten ijitoak herritik bota ditzaten eskatzeko eta burubero asaldatu batzuek erre egin zituzten haien etxebizitza sozialak".

Talde bakoitzak honako galdera hauei erantzungo die:

- Zein da gatazkaren jatorria?
- Zer egin dute herritarrek gatazka konpontzeko?
- Zein ondorio izan(go) ditu ijitoen seme-alabentzat?
- Konponbide horrek errespetatzen al ditu haur ijitoen eskubideak?
- Zein eskubide urratzen du errotoztarren jokaerak?
- Ezagutzen duzue arrazagatiko gatazkarik gure inguruan?

Horiei erantzun ondoren taldeen arteko bateratze saioari ekingo zaio.

Irakasleak ijitoen kulturari buruz hitz egingo die ikasleei, ijitoekiko estereotipoez, etab. gatazkak konpontzeko erarik egokiena –baita iraunkorrena ere- bakearen bidea dela nabarmenduz, hau da, hitz eginez eta pertsona guztien eskubideak errespetaturik.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURA

Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera.

2. JARDUERA:
AURKARIAK

Gatazkak, zenbaitetan, lehiak sortuak izaten dira helburu bat lortu beharrez. Sarritan ikusi ahal izaten ditugu kirol jarduerekin lotutako ekintza bortitzak, futbolarekin gehientsuenak. Kirol munduan ere adierazpen eta iritzi askatasuna landu behar dira eta aurkariarenganako errespetua nagusitu behar da, baina intolerantziak eta enpatia ezak sarritan jokabide oldarkor eta erasotzailea ekartzen dute. Norbaitekin gatazkaren bat izanez gero, haren ikuspuntutik aztertzeak, haren lekuan jartzeak alegia, lagundu egingo digu haren jarrera hobeto ulertzen, baita, aldi berean, geure esterotipoak aldatzen ere, eta horrek gatazkaren konponbidea errazten du erabat.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Enpatia sustatzea.
- Adierazpen askatasunarekiko errespetua bultzatzea.
- Kirol munduko bortizkeriaz gogoeta egitea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Kirol munduko aniztasuna ontzat jotzea.
- Kirol gatazkak era baketsuan konpontzearen abantailak ezagutzea.
- Frustrazioa jasaten ikastea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: kirol instalazioetan edota ikastetxeko jolastokian.

BALIABIDEAK: baloia.

JARDUERAREN IRAUPENA: 60 minutuko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak inkesta labur bat egingo du ikasleen artean ea haur bakoitzak zein talde duen gogokoen (futbol, saskibaloi... taldea) eta talde horren aurkari nagusiak zeintzuk diren jakiteko. Ondoren, bi talde eratuko ditu partidu bat jokatzeko. Talde bakoitza gogoko taldearen aurkaria izango da, hots, ume bakoitzak aurkako taldearen jokalari baten nortasuna hartuko du.

Partidua jokatu eta gero, irakasleak honako galdera hauek egingo dizkie:

Zer iruditu zaizue partidua?

Zeinek galdu du?

Zer moduz hartu du galdu izana?

Ikusten al duzue orain beste era batera aurkaria? Zer dakizue talde horretaz?

Badakizue kiroletan indarkeria eta gatazka bortitzak izaten direla?

Zer deritzezue?

Zer ikasi duzue jarduera honetan?

Zer irakats zeniezaiokete aurkako talde bateko zaleari zeuen gogoko taldeaz?

Ikas al daiteke ezer desberdintasunetatik?

Dibertigarria litzateke denok talde berekoak bagina?

Irakaslea, jarduera hau burutzen den bitartean, jarrera eta jokaera oldarkorrik izan ez dadin saiatuko da.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Gorputz Hezkuntza / Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera.

3. JARDUERA:
JAZZ MUSIKA

Aniztasuna gatazka askoren sorburu bada ere, jarrera zabal eta tolerantea izanez gero aberasgarria ere izan daiteke. Etnia, erlijio eta kultura desberdinen arteko ukipena, elkarbizitza, guztiz positiboa dela erakusten digu Historiak. Lurralde batzuetan arazoak ekarri dituen arren, beste batzuetan ondorio onak izan ditu. Estatu Batuetan, adibidez, beltzek bereizkeria izugarria jasan izan dute luzaroan eta, oraindik ere, arrazagatiko gatazka ugari daude herrialde hartan, noizean behin istiluak sortzen dituztenak. Hala eta guztiz ere, Estatu Batuetako musika motarik adierazgarrienetarikoa, jazz musika, hegoaldean sortu zen, beltz esklaboek lantzen zituzten kotoi-soroetan.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Balore eta interes desberdinak izatea ontzat jotzea.
- Beste kultura batzuekiko jakin-mina piztea.
- Arrazakeriaz gogoeta egitea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Jazz musikarekiko jakin-mina piztea.
- Afroamerikarrek musika munduari egindako ekarpenak ezagutzea.
- Adierazpen askatasuna ontzat jotzea.
- Estatu Batuetako esklabotasuna aztertzea.
- Azken urteotako historian sortu den musika-mugimendu baten jatorria ezagutzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: jazz musika eta magnetofonoa.

JARDUERAREN IRAUPENA: 40 minutuko 2 saio.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak jazz musika jarriko die ikasleei eta honelako galderak egingo ditu:

Ezagutzen duzue jazz musika?

Zein da bere jatorria? Zein herrialdetan sortu zen?

Zer adierazten dute musika obra horiek?

Jazzlari famaturik ezagutzen al duzue?

Noiz sortu zen musika mota hau?

Jakin al duzue Estatu Batuetan zurien eta afroamerikarren artean gatazkak direla?

Zer deritzezue?

Galdera horien bitartez irakasleak jazza Estatu Batuetako hegoaldean sortu zela adieraziko die ikasleei, hain zuzen ere kotoi-soroetan lanean ari ziren esklabo beltzen musikatik. Aniztasuna eta kultur trukearen alde positiboak nabarmenduko ditu, bereizkeria eta intolerantziak sortutako bortizkeria baztertuz.

Azkenean ikasleek jazz musikan erabiltzen diren musika tresnak marraztuko dituzte eta jazzlari ospetsuen izenak idatziko dituzte. Gero marrazkiak horman jarriko dituzte.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Arte Hezkuntza (Plastika eta Ikus Adierazpena / Musika) / Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera.

ETXEKOENTZAKO FITXA

Guraso agurgarriok:

Gure inguruan eta mundu osoan zehar egunero ikusten eta bizi izaten ditugu gatazkak, arrazoi desberdinek sortuak eta era desberdinean ageri zaizkigunak. Horixe da egun hauetan klasean aztertzen ari garen gaia: gatazkak. Egia da, besteen kontzientzia- eta pentsaera-askatasuna errespetatuko balira, gatazka asko ekidingo lirateke. Alabaina, logikoa da eguneroko bizitzan zenbait arrazoirengatik desadostasunak agertzea. Horrelakoetan inori erasorik, irainik eta txantajerik egin gabe irtenbidea aurkitzeak hobeto sentiarazten gaitu eta besteekiko harreman ona mantentzen laguntzen du.

Senitarteak itzelezko eragina izaten du haurren bizitzan; hori dela eta, proposatzen dizuegun ariketa hau egiten baduzue, lagundu egingo diozue zeuen seme edo alabari klasean ikasitakoa finkatzen.

Elkarrekin azter dezakezue ea zeintzuk izaten diren etxeko eztabaidak, tirabirak... Gogora ezazue noiz eta nola konpondu dituzuen gatazka horiek era baketsuan eta egizue gogoeta arazoari heltzeko modu horrek dituen abantailez.

Zergatik haserretu ginen?

Zer nahi zuen bakoitzak?

Nola sentitzen zen gutariko bakoitza?

Nola konpondu zen arazoa?

Denon interesak errespetatu al ziren?

Nola sentitu zen bakoitza horren ondoren?

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

UNITATEAREN BALORAZIOA

1. Iritzi desberdinak izatea:
   a) Kaltegarria da eta arazoak sortzen ditu.
   b) Onuragarria da, haiengandik asko ikas baitaiteke.
   c) Ekidin egin behar da; onena denok berdin pentsatzea da.

2. Beste pertsona batekin desadostasuna sortuz gero, onena hau da:
   a) Hitz egitea arazoari irtenbide bat bilatzeko.
   b) Denbora pasatzen uztea, arazoa berez konpon dadin.
   c) Edozer egitea nire iritzia inposatzeko.

3. Gerrak:
   a) ez die eragiten herrialde horietako haurrei.
   b) herrialde horietako haurren eskubideak urratzen ditu.
   c) beharrezkoak dira zenbait gatazka konpontzeko, ez baitago beste modurik.

4. Gure herrira datozen etorkinekin arazorik sor ez dadin:
   a) Beraiek moldatuko dira gure bizimodu eta erlijiora.
   b) Onena beraiek elkarrekin bizitzea, gurekin nahasi gabe.
   c) On litzateke gu geu haien ohiturak ezagutzen saiatuko bagina eta errespetatuko bagenitu.

5. Esaldi hauen artean aukera ezazu egia dioena:
   a) Beste ume batek nire laguna izan nahi badu, nik bezala pentsatu beharko du.
   b) Ez dit ardura nire lagunek desberdin pentsatzen badute; horrela gauza berriak ikasiko ditut.
   c) Ez da komeni atzerritar umeekin jolastea.

6. Beste kultura, etnia eta erlijio batzuekiko harremana:
   a) Iskanbilatsua izango da ezinbestean.
   b) Aberasgarria da, asko ikas baitaiteke beste etnia eta kulturetatik.
   c) Ezinezkoa da, kultura, etnia eta erlijio desberdinek ez baitute haien arteko harremanik.

Hauexek dira erantzun zuzenak:

1.- b 2.- a 3.- b 4.- c 5.- b 6.- b

HITZ EGINEZ KONPONDUKO GARA

■ IDEIA NAGUSIA

Pertsonarteko gatazkei irtenbide baketsua eman ahal izateko, pertsona guztien eskubideak errespetatu behar dira. Indarra erabili gabe zenbait liskar konpontzeak ezinezkoa badirudi ere, errealitateak besterik diosku: gatazkaren aurrean jarrera egokia hartuz eta negoziazio-estrategia egokiak erabiliz, elkarrizketa posible da eta alde guztiak aseko dituen adostasuna ere lor daitezke.

■ HELBURUAK

- Gatazkak era baketsuan konpontzeko estrategiak ikastea.
- Gatazken konponbidean taldeka parte hartzea.
- Negoziatuz konpondu diren zenbait gatazka historiko ezagutzea.
- Gerrak dakartzan ondorioak eta negoziazioak dakartzanak konparatzea.

■ UNITATEAREN GARAPENA

Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmenak honako eskubide hauek aldarrikatzen ditu, besteak beste: bizitzeko eskubidea, osasun eskubidea, aisialdi eta jolaserako eskubidea, hezkuntza jasotzeko eskubidea eta familia elkartuta izatekoa. Gatazka pizten denean, negoziazioa da eskubideok babesteko bide bakarra, gerra garaian haurrak izaten baitira kaltetuenak. Hala ere, haurrek egunero ikusi ahal izaten dute indarra eta erasoa erabiltzen direla gatazkei irtenbidea bilatzeko, eta horrek kalte larriak dakarzkie.

Batzuetan badirudi ezinezkoa dela negoziazioaren bidez zenbait arazo konpontzea, baina, historiari begiratuz gero, bake bideak gatazka askoren konponbide izan direla ikus dezakegu. Izan ere, historian zehar zenbait pertsona nabarmendu izan dira arazoak indarra erabili gabe konpondu nahi izateagatik. Suediar Akademiak Bakearen Nobel Saria ematen dio urtero pertsona bati, hainbat gatazkari irtenbide baketsuen bila egindako lanagatik.

Arazoak bake-bideak erabiliz konpondu ahal izateko lehen baldintza zera da: gatazkaren aurrean jarrera positiboa izatea eta negoziaziorako prest egotea. Gainera, gatazkaren konponbiderako estrategia egokia erabili beharko da, alde guztiak aseko dituen akordio bat *onartuko* bada.

Gatazka bat bake-bideez konpontzeko prozedura egokiak honako urrats hauek ditu:

1. Definizioa

Arazoari konponbidea bilatzen hasi aurretik, nahitaezkoa da ondo definituta edukitzea, zehatz-mehatz jakitea sortutako gatazka zein den, zeintzuk diren gatazkaren subjektuak, baita haien asmo eta sentimenduak ere.

2. Arazoa konpontzeko aukerak.

Behin arazoa zehaztuta izanez gero, aukera posibleak proposatu beharko dira. Urrats honetan sormenari emango zaio lehentasuna, proposamenen bideragarritasunaz eta egokitasunaz gehiegi arduratu gabe. Horrela, ideia-zaparrada deritzon teknikak aukera ugari bidera ditzake. Urrats honetan guztiz garrantzitsua da gatazkan nahasita dauden guztien adierazpen askatasuna errespetatzea.

3. Soluzioaren aukeraketa.

Proposamen guztiak baloratzeko ordua da, batetik, bideragarriak ez direnak baztertuz eta, bestetik, bideragarriek gatazkan nahasita daudenentzat izan ditzaketen ondorioak neurtuz. Analisi horren buruan aukera bakarra egin beharko da.

4. Erabakitakoa abian jartzea.

Soluziobidea aukeratuta dagoenean, gauzatu egin behar da. Hartarako, urrats guztiak planifikatu eta zehaztu egin behar dira, ustekaberik izan ez dadin.

Aldez aurretik jarrera egokia baldin badago eta negoziatzaile guztiek eztabaidan aukera berekin parte hartzen badute, handiak izango dira arrakasta probabilitateak, nahiz eta akordioa gauzatzean arazoak sortuko diren eta soluzio berriak eman beharko zaizkien.

Prozedura horrek nazioarteko gatazka handietan ez ezik, eguneroko arazoetan erabiltzeko ere balio du. Arazo bat sortzen denean, negoziatzeko jarrera ohitura bihur daiteke, baina txikitatik hasi behar da, gatazkarekiko jarrera positiboak landuz eta arazoak konpontzeko burugabekeria eta barne-grinak alde batera uzteko trebeziak eskainiz.

Bestalde, interesgarria da oinarrizko beste gaitasun batzuk ere trebatzea, hala nola, iritziak eta sentimenduak entzutea eta adieraztea, horrek negoziazioa erraztuko baitu desadostasuna sortzen denean.

■ ZER LANDU GAI HONEN INGURUAN?

Irakasleek

- Ikasgelan izan daitezkeen arazoak zehaztu eta ikasleei gatazkak konpontzeko prozedura aplikatzen lagundu.
- Konponbide baketsuen berri ematen duten albisteak nabarmendu.
- Ikasleei bihotz eman eta adoretu ikasgelan sortzen diren gatazkak elkarrizketaren bidez konpon ditzaten.
- Arrazagatik, kulturagatik... inguru hurbilean sortzen diren gatazkak hizpidetzat hartuz, ikasleekin kausak eta ondorioak aztertu.

Familiak

- Etxean sortzen diren arazoei negoziazioa aplikatu.
- Gatazkak konpontzeko era desegokien erabilera baztertu.
- Lagundu seme-alabei euren lagunekin edo anai-arrebekin dituzten desadostasunak elkarrizketaren bidez konpontzen.
- Senitartean komunikazioa sustatu, kide guztiei euren iritzi eta sentimenduak adierazten utziz.

1. JARDUERA:

BAKEZALE OSPETSUAK

Batzuetan badirudi ezinezkoa dela bake-bideak erabiliz zenbait arazo konpontzea, baina, historiari begiratuz gero, elkarrizketaren bidez eta giza eskubideak errespetatuz, helburu handiak lor daitezkeela ikus dezakegu. Izan ere, historian zehar zenbait pertsona nabarmendu izan dira bereziki gatazka latzei bake-bidezko irtenbidea eman nahi izateagatik. Mahatma Gandhi dugu, zalantzarik gabe, ezagunenetakoa. Gandhik erresistentzia pasiboari ekin zion Indian, indiar kolonoek jasaten zuten egoeraren aurka protestatzeko. Gaur egun ere munduko zenbait lekutan negoziazioak burutzen ari dira hainbat gatazkari irtenbidea aurkitu nahian. Negoziazioak denbora eta ahalegina eskatzen du eta, sarritan, nazioarteko bitartekaria ere bai, baina bide bakarra da denen eskubideak errespetatuz gatazkak konpontzeko.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Gatazkak konpontzeko estrategiak ezagutzea.
- Gatazkak indarra erabili gabe konpontzeak dituen abantailez gogoeta egitea.
- Gatazkak konpontzeko prozeduraren erabilera nazioarteko gatazka handietan egiaztatzea.
- Gatazkak bake-bideak erabiliz konpon daitezkeela jakitea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Negoziazioaren bidez konpondutako gatazkak ezagutzea.
- Nazioarteko gatazkak bake-bideez konpon daitezen zenbait pertsonak egin duen lana nabarmentzea.
- Bakearen Nobel Saria eta horren garrantzia ezagutzea.
- Bakearen Nobel Saria jaso duten zenbait pertsonaren biografia ikastea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: liburuak, egunkariak, kartulinak, errotuladoreak.

JARDUERAREN IRAUPENA: 35 minutuko 2 saio.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak liburuak eta beste material batzuk eroango ditu gelara, ikasleek zenbait bakezale ezaguni buruzko informazioa bila dezaten (irakurgaiak ere presta ditzake gatazkak era baketsuan konpontzeko trebetasun eta borondatea erakutsi duten zenbait pertsona ospetsuri buruz). Gero binaka jarriko ditu ikasleak eta bikote bakoitzari pertsonaia bati buruzko fitxa bat emango dio, 15 bat minututan bete dezaten. Bete eta gero, bikote bakoitzak bere ikaskideei hitz egingo die pertsonaiari buruz (20 minutu). Jarraian horma-irudi bat prestatuko dute pertsonaia negoziatzaileen izenekin, bakoitzak zein gatazkatan hartu zuen parte esanez (35 minutu). Horma-irudia ikasgela apaintzen izango dute aste osoan zehar ikusgarri.

Fitxak datu hauek eskatuko dizkie:

Non jaio zen?

Zergatik izan zen entzute handikoa?

Sariren bat jaso du?

Zein gatazkatan hartu zuen parte era baketsuan?

Konpondu al da dagoeneko?

Ezagutzen al duzue gaur egun gure herrian bake-bideak erabiliz gatazkaren bat konpontzeko ahaleginetan dabilen erakunde edo talderik? Zein(tzuk)?

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera / Gaztelania.

OHARRA: Jarduera hau burutzeko honako pertsonaia hauek aukera litezke:

Bakearen Nobel Sariak

1998 John Hume eta David Trimble (Ipar Irlandako bake prozesua)

1996 Carlos Felipe Ximenes Velo eta José Ramos Horta (EkialdekoTimor)

1994 Yasser Arafat, Simom Peres, Yitzhack Rabin (Ekialde hurbila)

1993 Nelson Mandela eta Fredrik Willem de Klerk (Hego Afrika)

1992 Rigoberta Menchú (Guatemala)

1991 Dalai Lama (Tibet)

2. JARDUERA:

PLANETARTEKO GATAZKA

Gatazkak konpontzeko prozedura erabiliz edozein arazori eman dakioke soluziobidea haurren eskubideak errespetaturik. Hori lortzeko, lehendabizi elkarrizketaren aldeko jarrera izan behar da eta besteei entzuteko prest egon. Gero, arazoa ahalik eta ondoen zehaztu beharko da, bururatzen zaizkigun soluziobide guztiak proposatu, aukera bakoitzak tarteko guztientzat izan ditzakeen ondorioak aztertu eta denak aseko dituen erabaki bat aukeratu. Askotan, prozedura hau gauzatzean zailtasunak izaten dira bidean, baina ez da horregatik adoregabetu behar; kementsu ekin behar zaio denen adostasuna duen akordio baten bila.

Irakasleak jarraibideak proposatuko dizkie ikasleei: *"Demagun Lurra gure planetaren superpopulazioak janari eta ur erreserba guztiak agortu dituela. Demagun antzeko zerbait gertatu zaiela Marte gure auzoko planetakoei ere. Orain dela gutxi jakiz betetako beste planeta bat aurkitu dugu, baina haiek ere ezagutzen dute eta, guk bezala, behar dute. Talde bi egingo dituzue: batzuk gure planetako biztanleak izango zarete eta besteak martetarrak. Adostasuna lortu behar duzue arazo honen aurrean, zeuen artean gerrarik piztu gabe, planeta bietako biztanleen eskubideak errespetatuz. Gero lortu duzuen akordioa adierazten duen itun bat idatziko duzue".*

■ HELBURU NAGUSIAK

- Talde-gatazka bat bake-bideez konpontzen ikastea.
- Gatazka bati irteera bilatzerakoan, denen eskubideak errespetatu beharrari garrantzia ematea.
- Sormena bultzatzea.
- Besteen iritziei zor zaien errespetua sustatzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Gatazkak konpontzeko prozeduraren urratsak ikastea.
- Negoziatzeko prozeduraren urratsak gauzatzea.
- Gatazkak konpontzeko prozedura taldeka erabiltzea.
- Prozedura gauzatzeak izaten dituen zailtasunak ezagutzea.
- Negoziazio-prozesuaren oztopoei soluzioak bilatzeko gogoa piztea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: idazteko tresnak.

JARDUERAREN IRAUPENA: 35 minutuko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak jardueraren berri emango du eta negoziazio-prozeduraren urratsak azalduko dizkie ikasleei. Eskema arbelean idatzirik egongo da haurrek agerian izan dezaten ariketa egiten duten artean. Gero talde bakoitzak 10 minutu izango ditu negoziazioa prestatzeko, zer lortu nahi duten, egoera horretan nola sentituko liratekeen, etab. zehaztuz. Geroago, 15 minutu izango dituzte bi taldeek negoziazio-prozeduraren urratsak aplikatzeko eta denak aseko dituen akordio batera iristeko. Azkenik, onartutako akordioa idatziko dute eta sinatu egingo dute.

Jarduera amaiturik, irakasleak jardueraren zenbait alderdiri buruz hitz egingo du ikasleekin:

Zer deritzozue jarduerari?

Zaila izan al da akordiora iristea?

Nola sentitu zarete?

Prozesuaren zein urrats iruditu zaizue zailena?

Sistema hau bizitza errealeko beste gatazka batzuetan erabil litekeela uste duzue?

Badu abantailarik arazoak era horretara konpontzeak?

Irakasleak jarduera gainbegiratuko du, denek parte hartuko dutela eta prozesuan zehar indarra erabiliko ez dela ziurtatuz.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Tutoretza / Arte Hezkuntza (Adierazpen Dramatikoa).

3. JARDUERA:
GERRAKO HAURRAK

Gatazka bat indarkeriaren bidetik abiatzen bada, ondorioak benetan larriak izaten dira. Gerra pizten denean, tartean diren haurren eskubide asko urratzen dira. Gehien urratzen diren eskubideak, eskuarki, bizitzeko eskubidea, osasun eskubidea, aisialdi eta jolaserako eskubidea, hezkuntza jasotzeko eskubidea eta familia elkartuta izatekoa izaten dira. Sarri askotan, gerraren eraginez, haur askok euren lurraldea utzi eta hizkuntza eta ohitura ezezagunak dituen herrialde batean egon behar izaten dute, senideengandik urrun. Batzuetan, arrazoiren batengatik egoera hori luzatu egiten da urte askotan zehar eta ez dira euren jatorrizko herrira itzultzen. Halaxe gertatu zitzaien espainiar gerra zibiletik ihesi joan ziren haurrei. Beraien bizipen hartatik zer ikasi asko atera dezakegu gerrak haurrentzat dituen ondorioez.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Gatazkak indarkeriaren bidez konpondu nahi izatearen ondorio latzak ezagutzea.
- Gerrak haurrengan duen eragin larria aztertzea.
- Gatazkak bake-bideak erabiliz konpontzearen abantailak nabarmentzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Espainiar gerra zibilean atzerriratutako haurren bizipenak ezagutzea.
- Gaur eguneko haurrek jaioterria utzi eta beste nonbaitera joan behar izan duten gatazkak izendatzea.
- Modu abstraktuan ikusi diren ondorioak gerra zehatz batean aztertzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: idazteko tresnak.

JARDUERAREN IRAUPENA: 60 minutuko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak Espainiako gerra zibilaren berri emango die ikasleei eta azaldu egingo du Euskal Herriko biztanleei nola eragin zien. Hitzordua jarriko da 37ko Gerrako Haurren Erakundeko partaideren batekin eta ordubetez mintzatuko zaie ikasleei euskal haurrentzat gerra zibilak izan zituen ondorioei buruz.

Aldez aurretik, ikasleek lan-fitxa bat izango dute non, bisitan zehar azalduko diren daturik behinenak nabarmentzeko, honako galdera hauek izango dituzten:

Nola eragin zien gerra zibilak euskal umeei?

Zein eskubide urratu zen gerrate garaian?

Zein herrialdek hartu zituen?

Nola sentitzen ziren atzerriratutako haurrak?

Noiz itzuli ziren Euskal Herrira?

Bisita amaitu ondoren, denen artean fitxako galderei erantzungo zaie. Beste galdera hauek ere egingo ditu irakasleak:

Ezagutzen al duzue gauza bera gertatzen den beste herrialderik?

Zein(tzuk)?

Nolako eragina du gerrak herrialde horretako haurrengan?

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURA

Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera.

ETXEKOENTZAKO FITXA

Guraso agurgarriok:

Egun hauetan zure semeak/alabak besteekiko desadostasun eta gatazkei irtenbide baketsua ematen ikasi du. Zuek ere honela lagun diezaiekezue ikasitakoa gauzatzen:

Zuen umeak bere neba-arrebekin edo lagunekin desadostasun edo gorabeheraren bat duenean, lagun iezaiozue arazoa konpontzen, indarra edo txantajea erabili gabe eta inor iraindu gabe. Hori lortzeko, bila ezazue beraiekin batera alderdi biak aseko dituen soluzio bat, honako prozedura hau erabiliz:

1. Zein da arazoa?
2. Zer egin dezakezue konpontzeko?
3. Zein konponbide iruditzen zaizue bioi egokiena?
4. Zein urrats eman behar duzue konponbidea gauzatzeko?

Zorion ezazue zeuen umea, ahaztu gabe, arazoa era horretara konpondu izanagatik, eta adoretu hurrengoan ere horrela egin dezan.

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

UNITATEAREN BALORAZIOA

Unitate hau behatuz baloratuko da. Ikastaldean bertan den arazo edo gatazkaren bati erreparatuko zaio (edota lehenago bizi izandako egoeraren bat ekarriko dugu gogora) eta negoziazio jarreran ipiniko ditugu ikasleak, ea prozedura ondo betetzen duten eta besteen eskubideak errespetatzen dituzten ikusteko.

ASERTIBOA NAIZ: ZURE ESKUBIDEAK ERRESPETATZEN DITUT ETA NEUREAK DEFENDATZEN

■ IDEIA NAGUSIA

Asertibitatea aipatzen denean, pertsonaren gaitasun bat adierazten da: nork bere iritziak, gurariak eta beharrizanak adierazteko eta norberaren eskubideak defendatzeko gaitasuna, betiere besteen eskubideak errespetaturik. Funtsezko tresna da, beraz, gizakiaren hezkuntzan eta, era berean, lantzen ari garen eskubideen aplikazio praktikoa. Asertibitatea bat dator Hitzarmenak jasotzen duen helburu batekin, pertsonak nortasun osoa garatu behar duela dioen helburuarekin, hain zuzen ere. Horrek bere baitan biltzen ditu *ni*-ari dagozkion hainbat trebetasun eta aldagai, hala nola, adierazmena, entzuten jakitea, autoestimua edo gatazken konponbidea.

■ HELBURUAK

- Estilo asertiboaren berezitasunak ezagutzea.
- Jokaera asertiboak, pasiboak eta oldarkorrak bereiztea.
- Jokaera asertiboak eguneroko bizimoduan erabil daitezen sustatzea.
- Jarrera asertiboa osatzen duten trebetasunak praktikatzea.

■ UNITATEAREN GARAPENA

Norberarekin gustura sentitzea dugu asertibitatearen giltzarri. Zentzu horretan, beraz, guztiz lotuta dago 2., 3. eta 4. gaietan landu dugun autoestimuarekin. Asertibitateak geure pentsamendu, gurari eta ekintzen erantzukizuna hartzea eskatzen du, inor epaitu edo erruduntzat jo barik. Asertiboa izateko, iritzi, gurari edo sentipen horiek zuzenean, begirunez, zintzotasunez eta enpatiaz adierazteko ere gai izan behar da.

Hitzarmenak haurraren hezkuntzan bultzatu behar den izpiritua aipatzen du 29. artikuluan: *"...giza eskubideenganako errespetua irakatsi eta herrien arteko bakea, tolerantzia eta adiskidetasuna bultzatuko dira"*. Alde horretatik, asertibitatea oso lagungarria izango zaigula ikusiko dugu jarraian.

Asertibitateak jarrera tolerantea sortzen du, beti kontuan izaten baititu bestearen sentimenduak, ideiak eta eskubideak. Pertsona helduak eta arduratsuak lortzea du helburu, norberaren eskubideen defentsa aktiboa ez ezik, erantzukizunak onartzea ere bultzatzen baitu. Pertsona asertiboa zintzoa da bere buruarekin eta, aldi berean, besteen sentimenduak errespetatzen ditu.

Asertibitatea bake-bidezko eta lankidetzazko konponbidea bilatzea da. Elkarrekintzan gatazka sortzen denean, soluzio asertiboa ez da izango gailentzea –pertsona oldarkorraren ohiko erantzuna– edo beste batzuek konpontzea –jarrera pasiboa–, baizik eta erantzukizuna hartzea, aukerak aktiboki bilatzea eta konpromiso batera iristea.

Asertibitatea ez da ona edo txarra izatez; bai onuragarriagoa, ordea. Normalean, uneko arazoa konpontzea lortzen du eta, hari esker, arazo gutxiago izango dira etorkizunean: gatazkaren sorburu asko ekiditen dira, egoera konponduz baitoa eta zintzotasunak, batetik, eta alde biak asetzen dituen soluzioak bilatzeak, bestetik, harremanak hobetzen ditu.

Pertsona asertiboaren ezaugarriak:

Keinu, imintzio eta ez-hitzezko mintzaira: egoerari dagokion gorputz-hizkuntza erabiltzen du, aurpegira zuzenean begiratzen dio solaskideari, bere aurpegiera lasaia izaten da eta mezuaren arabera aldatzen da, jarrera irmoa baina erlaxatua izaten du (hankak lurrean tinko eta gorputz-enborra artez, baina zurrundu gabe), laguntzeko eskuak erabiltzen ditu, ahots sendoz eta hizkera eztiaz mintzatzen da, ñabardura ironikorik gabe.

Argitasuna: benetan adierazi nahi duena adierazten du. Labur eta argia da. Horretarako lagungarria izaten da egoera prestatzea; zer esan ez ezik, nola, noiz eta zein egoera edo ingurutan esaten den ere jakin behar izaten da.

Lehen pertsonan mintzatu: beste pertsonekiko harremanak berdintasun mailan ezartzen ditu.

Setatsua eta enpatikoa izatea: baieztatzean, zerbait eskatzean edo errefusatzean behin eta berriz ekiten dio; horrek ez du eragozten bestearen jarrera eta ideiak ulertu behar izatea.

Akordio edo konpromiso batera iristeko lan egin: alde biak asetzea bilatzen du.

Jokaera asertiboaz gain, badira *beste forma batzuk* ere, asko erabiltzen direnak ondorioak negatiboagoak izan arren: jokaera oldarkorrak eta pasiboak dira. Horien ondorioak garapen pertsonal urria eta segurtasun eza izaten dira, baita bestelako arazo psikosomatikoak, depresioa, autoestimu eskasa, harreman arazoak, etab.

Jokaera oldarkorra duenak bere eskubideak, bere ideiak, gurariak... inposatzen ditu, beste pertsonen duintasuna eta errespetua zapalduz. Bere bizitza norgehiagoka gisa hartzen du, irabazi ala galdu, eta irabazi egin behar du nola edo hala. Indarraz edo manipulazioaz balia daiteke, erruduntasuna edo txantajea erabiliz.

Jokaera pasiboa duenak nekez adierazten ditu sentimenduak, bere iritziak, ez ditu bere eskubideak defendatzen. Baztertua izateko edo bestearen estimua galtzeko beldurrez dihardu. Horren arriskua zera da: adierazi ezaren poderioz, azkenean izan ere ez da. Horren ondorioz, ez du bere burua behar bezala estimatzen, eta ez da burujabe.

Denok erabiltzen ditugu jokaera oldarkor, pasibo eta asertiboak. Esan bezala, estilo asertibotik hurbilago dago Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmenak proposatzen duen pertsona-eredua, hots, pertsona lasaia, negoziatzailea, tolerantea, adiskidetsua eta autoestimu sendoa duena.

■ ZER LANDU GAI HONEN INGURUAN?

Irakasleek

- Autokontrola sustatu, ekintzara jo aurretik pentsatzera bultzatuz.
- Taldean egiteko jolasak eta ikasle guztien lana eskatzen duten jarduerak eragin.
- Iritzi eta sentimenduaren adierazpena suspertu.
- Pertsona bakoitzaren berezitasuna aintzat hartu eta ontzat jo besteen aurrean.

Familiak

- Asertibitate-eredu izan egoera guztietan geure seme-alabentzat.

1. JARDUERA:

ZAILTASUNEI AURRE EGIN

Egunero izaten dira pertsonaren eskubideei oztopoak eta zailtasunak jartzen dizkieten egoerak. Zailtasunak egoeraren beraren zirkunstantziak izan daitezke, tartean diren pertsonak, norberak irudikatzen dituen ondorio "tamalgarriak" edota egoerari irteera bat aurkitzeko eraginkortasun eza. Jarduera honetan ikasleen ikuspuntutik aztertuko dugu errealitate hori. Horrexegatik, hain zuzen, beraiei eskatuko diegu euren egoerak proposatzeko.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Estilo asertiboaren berezitasunak ezagutzea.
- Jokaera asertibo, pasibo eta oldarkorrak bereiztea.
- Geure arazoei erantzunez estilo asertiboa garatzen ikastea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Eguneroko zailtasunak ezagutzea.
- Beste ikasle batzuek euren gatazka-egoerei nolako irtenbidea ematen dieten ikustea.
- Antzezpenak asertibitatez balioestea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: Oharrak hartzeko orria eta idazteko tresnak.

JARDUERAREN IRAUPENA: 20 minutuko saioa, gutxienez, egoera bakoitzeko.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak jarduera aurkeztuko du: *"Sarritan, gutariko bakoitzak eskuratu nahi izaten ditugun gauzak edo egoera zailak izaten ditugu eta, zailtasunak nola gainditu ez dakigulako edo esango digutenaren beldur garelako, bertan behera uzten ditugu. Gaur horiexei ekingo diegu".*

Hasieran, konponbidea aurkitzeko zailtasunak dituen egoera bat pentsatzeko eskatuko zaio ikasleari. Egoera hori idatzi eta saskian sartuko dute papera. Ondoren, paper bat atera eta soluzio posibleei buruz hitz egingo da (hori aurreko bi unitateetan luze eta zabal landu izan da). Soluzio bakoitzaren iruzkina egitean, asertiboa, pasiboa ala oldarkorra den aztertuko da. Orduan, asertiboena aukeratu eta boluntario bat eskatuko da hura antzezteko.

Taldekideek arretaz jarraituko dute antzezpena. Eraginkorragoak izatearren, banandu egingo dugu behaketa-lana: talde batek hitzezko edukiari erreparatuko dio eta besteak ez-hitzezkoari. Azkenean, hartutako oharrak azalduko dira eta eztabaidatu ea zer egin duen ondo eta zer egin dezakeen hobeto soluziobidea burutzeko.

HOBETU BEHARREKOA

Hitzezko edukiak:

esan nahi duena esaten du .....

helburua lortzen du .....

ondo adierazten du .....

Aurrekoarekin lotutako ez-hitzezko komunikazioa:

begirada .....

aurpegiera .....

ahotsaren tonu eta bolumena .....

gorputz jarrera .....

distantzia .....

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Arte Hezkuntza (Adierazpen Dramatikoa) / Gorputz Hezkuntza / Euskara eta Gaztelania.

2. JARDUERA:

ZURE ESKUBIDEAK ETA NIREAK: A ZELAKO NAHASTE-BORRASTEA!

Zenbait aldiz, interes- eta eskubide-gatazka sortzen zaigu ingurukoekin. Halakoetan, pertsona asertiboa akordio batera iristen ahalegintzen da, alde biak onuraren bat atera ahal izan dezaten. Hala ere, bien helburuak ezin izaten dira beti neurri berean ase, baina ahaleginak egin daitezke denek nolabaiteko etekinen bat lortzeko. Jarduera honetan zenbait gatazka-egoera aurkeztuko dugu, tartean diren eskubideak zehaztu eta konpontzeko aukerak bilatu behar ditugu. Eskubide asertiboen zerrenda bat emango dugu, alde bien eskubideak balioesteko orduan eskueran izateko.

Eskubide asertiboen zerrenda (Vallés-enetik egokitua, 1994).

Eskubidea dut:

1. Batzuetan okertzeko.
2. Sentitzen dudana adierazteko.
3. Beste era batera pentsatzeko.
4. Bidegabea den kexa bat ez onartzeko.
5. Mesede bat eskatzeko.
6. Ezetz esateko, nire iritzia hori baldin bada.
7. Gauzak ez hain biribilak eta perfektuak egiteko.
8. Besteek kontuan izan nazaten.
9. Ikasteko.
10. Denen gustukoa ez izateko.
11. Azalpenak eskatzeko.
12. Errespetatua izateko.
13. .....

■ HELBURU NAGUSIAK

- Eskubideak eguneroko bizimoduan txertatzea.
- Beste pertsonek eskubideak dituztela aintzat hartzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Baloratzea eta bestearen lekuan jartzeko gai izatea.
- Norberaren eta inoren eskubideen artean bereiztea.
- Gatazkak konpontzeko, akordio bilaketa bultzatzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: gatazka-egoeren orria.

JARDUERAREN IRAUPENA: 15 minutuko saioak egoera bakoitzeko.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Zeregina honako hau izango da: taldeka, zenbait egoera gatazkatsu aztertuko dira eta zein eskubideri eragiten dieten zehaztuko. Behin hori eginez gero, alde biak aseko dituen konponbideak eskainiko dira.

Hauek dira egoerak:

"Amak supermerkatura laguntzeko eskatu dit; ni, berriz, lagunekin geratuta nago..."

Zein eskubide dago kolokan?

Zein soluziobide daukat?

Zein(tzu)ek asetzen ditu(zte) alde biak?

"Nire anaia/neba kexaz dabil beti-beti nire gustuko musika entzuten omen dugulako. Ezetz esaten diot, berak ere berea lortzen duela bizikleta banatu behar dugunean".

Zein eskubide dago kolokan?

Zein soluziobide daukat?

Zein(tzu)ek asetzen ditu(zte) alde biak?

"Nire lehengusinak bideokontsola bat dauka azken jokoekin eta ez dit utzi nahi, ez zaiolako gauzak uztea gustatzen".

Zein eskubide dago kolokan?

Zein soluziobide daukat?

Zein(tzu)ek asetzen ditu(zte) alde biak?

"Neskek ez dutela futbolean aritu behar esaten du aitak, min har dezaketela eta. Nik uste dut igandeetan futbol-zelaira eramateko goiz ez jaikitzearren esaten duela hori".

Zein eskubide dago kolokan?

Zein soluziobide daukat?

Zein(tzu)ek asetzen ditu(zte) alde biak?

"Gure ikasgelan ezetzik onartzen ez duen Angolako ikasle bat dago. Zerbait ukatzen diozunean, beltza delako amorrua diozula pentsatzen du".

Zein eskubide dago kolokan?

Zein soluziobide daukat?

Zein(tzu)ek asetzen ditu(zte) alde biak?

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Tutoretza / Euskara eta Gaztelania.

3. JARDUERA:

EZETZ BA!

Komunikazio asertiboa ez da soilki nahi dena ondo adieraztea. Hori ez ezik, nahi ez dugun hartan ere tinko mantentzea ere bada. Neure buruari nik neuk erabakitzeko daukadan eskubidea onartzea ere bada, ea nahi dudanentz edo axola zaidanentz, beste pertsona bati lagundu ala ez. Beste gauza batzuk ere esan nahi ditu asertibitateak, hala nola, beste pertsona batzuen gurarietan baino lehen neureetan pentsatzeko eskubidea, neure iritzi eta gurarien arabera pentsatzeko eta jarduteko eskubidea, horrek lekarkeen ondorioa aintzat hartuz.

Ezetz esaten jakiteak, edo zerbait ez egiteko eskatzen jakiteak, gure erantzuna eraginkorragoa egingo duten tresna asertiboak erabiltzea esan nahi du:

- Erabakiaren tinkotasuna gorputzez adieraztea, solaskideari zuzenean aurpegira begiratzea, aurpegiera serio jartzea, tentsiorik eta barretxorik egin gabe, erabakitasuna adierazten duen jarrera irmoa, zurruntasunik gabe.
- Ezezkoaren ziurtasuna ahotsez adieraztea, tonu sendo eta patxadatsuaz, bolumen egokiaz, garrasirik egin gabe eta lotsatu gabe.
- Mezuaren bidez ere eskakizuna edo ukazioa argi adieraztea, azalpen gehiegi ematen, gezurrik esaten edo aitzaki-maitzaki ibili gabe.
- Norberaren jarreraz ere hartutako erabakiaren berri ematea. Pertsona asertiboaren bertute bat tematia izatea da, bere erabakiari behin eta berriz ekiteko gai izatea, alegia. Hala ere, presioak handiegiak balira, komenigarri izan liteke atzera egitea eta elkarrizketa une egokiago baterako uztea.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Elkarrekintza mota desberdinei ezetz esateko eskubidea erabiltzea.
- Jokaera asertiboa bultzatzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Hitzezko eta ez-hitzezko jarrera asertiboak bereiztea.
- Pertsonen jokaera asertiboaren berezitasunak azaltzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: oharrak hartzeko erregistro-orria.

Egoera	Nola esan nuen	Ondorioak

JARDUERAREN IRAUPENA: 45 minutuko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Eginkizuna aurkeztuko da: erregistro orriaren bitartez, ikasgelan, jolastokian, etxean, parkean, dendan... ikasle bakoitzak ezezkoa eman duen egoera jasoko du. Goian aipatutakoaren arabera, ezezko asertibo batek izan behar dituen ezaugarriak azaldu eta, ondoren, modelatu egingo dira.

Jarraian, talde txikiak osatuko dira egindakoa berrikusteko, beraiek feedback egin dezaten, nola egin duten eta nola hobetu, beharrezkoa balitz.

Azkenean, talde handian bateratuko dira emaitzak, besteen egoeretatik ere ikasteko eta, egoera berezirik balego, nabarmentzeko.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Tutoretza / Euskara eta Gaztelania.

ETXEKOENTZAKO FITXA

Guraso agurgarriok:

Egun hauetan asertibitatea lantzen ari gara, hau da, geure ideiak, gurariak edo iritziak beste pertsona batzuen aurrean defendatzeko gaitasuna, *betiere* besteen jarrerak errespetaturik.

Asertiboa izatea pertsona zabala, tolerantea izaten ikasteko era bat da, norberaren ideia eta printzipioekin bat bizitzeko eta norberaren buruarekin pozik sentitzeko era bat, beste pertsonei hori inposatu beharrik gabe.

Hori zenbait trebetasunetan gauzatzen da. Hona hemen trebetasunok:

- Mugak ezartzen jakitea, EZETZ esaten jakitea, nahiz eta "errazena" baiezkoa ematea izan.
- Ardurak eta erantzukizunak hartzeko gai izatea.
- Lagun hurkoarenganako errespetua erakustea.
- Huts egin ahal izatea ondorioak onartuz.
- Beste pertsona baten jarreran aldaketak eskatu ahal izatea.
- Mesedeak eskatu ahal izatea, baiezkoa edo ezezkoa jaso dezakegula onartuz.
- Gauzak norberaren gustukoak direlako egin ahal izatea, arrazoi logiko zailak zertan argudiatu izan gabe.
- Iritzia edukitzea eta adieraztea.

Zeregintxo bat proposatzen dizuegu: emaiozue begiradatxo bat zeuen asertibitatearen termometroari semearekiko edo alabarekiko. Horretarako, emaiezue egiazko erantzuna, baietz edo ezetz jarriz, ondoko galderei:

Eskubideak	**BAI**	**EZ**

Harenganako errespetua erakusten dut

- Esaten duena entzunez.
- Desadostasuna adieraziz, bere iritzia gutxietsi edo mespretxatu gabe.
- Bere ikuspuntuak onartuz.

EZETZ esaten dudanean:

- Eutsi egiten diot "engainatzen" utzi gabe ("denei uzten diete niri izan ezik").
- Amore ematen dut ez eztabaidatzearren.
- Gehiegitan esaten dut ezetz.

Eskubideak	BAI	EZ

Bere errakuntzen aurrean:

- Haserretu eta neure senetik apur bat ateratzen naiz.
- Ez diet garrantzirik ematen eta estali egiten dizkiot.
- Bere kasa konpon ditzan uzten diot.

Laguntza eskatzen badit:

- Eman egiten diot.
- Azkenean bere lana neuk egiten dut.
- Nekatuegi egoten naiz eskaintzeko.

Gogoko ez ditudan gauzak:

- Jakinarazi egiten dizkiot argi eta garbi.
- Esan egiten ditut, baina berba larregi eginez eta sermoia botaz.
- Berari gauza bera egiten diot, ikas dezan.

Adorea ematen diot erabakiak berak har ditzan.

Arazo edo eztabaiden aurrean:

- Elkarrekin aztertzen ditugu.
- Gaiari buruz duen iritzia adierazten uzten diot.
- Neurea adierazten diot.
- Ea ados jar gaitezkeen aztertzen dugu.
- Neuk ezartzen dut zer egin behar den.

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

UNITATEAREN BALORAZIOA

Marka ezazu, biribil bat eginez, zure ustez egiazkoa den aukera.

1. Asertiboa izatea honako hau da:

   a) Eskubideak edukitzea.

   b) Nahi duzuna esatea eta egitea.

   c) Eskubideak edukitzea eta, aldi berean, inorenak errespetatzea.

2. Pertsona bat asertiboa denean:

   a) Huts egiteak ez du kezkatzen, arriskua onartzen baitu.

   b) Beti izaten du arrazoia.

   c) Kontuz handiz ibiltzen da; arriskuak ez ditu gogoko.

3. Pertsona oldarkorrak hau esango luke:

   a) "Ez ezazu hori egin, bestela muturreko bat hartuko duzu eta".

   b) "Bai, bai, egizu... ikusiko duzu zer gertatuko zaizun..."

   c) Erantzun biak dira oldarkorrak.

4. Pertsona pasiboak, hitz egitean:

   a) Barretxoak egingo lituzke zerbait serioa esan arren.

   b) Ez luke begietara begiratuko edo agian begiratu egingo luke pixkatxo batean eta berehala aldendu begirada.

   c) Biak dira erantzun pasiboak.

5. Pertsona asertiboak:

   a) Begietara begiratzen du, aurpegiera lasaia izaten du, jarrera irmoa, ahots tonu argi eta lasaia eta esan nahi duena argi eta zehatz esaten du.

   b) Setatsu eta tematia da, ekin egiten dio mezuari eta konpromisoa bilatzen du.

   c) Erantzun biak dira asertiboak.

Hauexek dira erantzun zuzenak:

1.- c 2.- a 3.- c 4.- c 5.- c

DENOK DUGU INTIMITATE-ESKUBIDEA

■ IDEIA NAGUSIA

Hitzarmenak 16. artikuluan dioenez, ume orok du eskubidea legez kontra edota nahierara bere bizitza pribatuan, bere familian, bere bizilekuan eta bere korrespondentzian beste inork muturrik sar ez dezan, baita bere izen onari eta ohoreari eraso ez diezaieten ere. Horrela, legeen babes osoa izango du eraso horien aurrean.

Beste pertsona batzuei gure iritzi eta sentimenduak adieraztea eta beraiekin geure eskarmentuak eta geure emozioak konpartitzea oso ohitura osasuntsua da, baina zenbaitetan mugak jartzen ere ikasi behar izaten da, geure bizitzaren esparru batzuk geuretzat bakarrik gorderik eta besteen intimitate-eskubidea

errespetaturik.

■ HELBURUAK

- Intimitate mota desberdinez gogoeta egitea.
- Kanpo-erasoen aurrean edo norbait gure kontuetan sartzen denean, jarrera asertiboak erakustea.
- Pertsonen arteko mugak era positiboan balioztatzea.
- Nork bere buruarentzat ere edozein pertsonari zor zaion begirunea eskatzen jakitea.
- Inor ez difamatzen eta inoren informazioa ez zabaltzen ikastea.
- Bizitza pribatuaren garrantziaz jabetzea.

■ UNITATEAREN GARAPENA

Intimitatea mamitasunari edo barne-bizitzari deritzo, hots, nork bere bizitza pribatua besteen interesetatik babesteko duen eskubideari. Halaber, definizioa laburra izan arren, intimitate hitzak pertsonaren bizitzari buruzko beste adiera batzuk ere baditu, hala nola, pertsona edo gizatalde batek bere-bereak dituen sentimen, aztura eta gogoetak, denak ere norberaren ezaugarri eta esperientzia fisiko eta psikikoak, familiari dagozkionak edota gizartearekikoak; intimitatea konpartitu nahi izatekotan ere, barne-bizipen horien berri nori eman nahi diogun aukeratzeko eskubidea dugu.

Haurrak beren intimitateari balioa ematen hasten direlarik, besteekin dituzten harremanetan mugak jartzen ikasten dutelarik hasten dira ulertzen eta ontzat hartzen besteek ere intimitate-eskubidea dutela. Jakina, denok gordetzen ditugu guretzat zenbait iritzi eta sentimendu, baina horrek ez du esan nahi zintzoak ez garenik; aitzitik, iritzi eta sentimendu horiek gure inguruan onartuak sentitzen garenean baino ez ditugu adierazten.

Esan dezagun, bide batez, gure kulturan intimitatea –bai intimitate fisikoa eta bai intimitate psikologikoa edo sentimenei dagokiena ere– emakumeari loturik egon dela; talde-sozializazioa, berriz, gizonen esparrua

izan da. Hala ere, hezitzaileok ikusi dugunaren arabera, ez da batere gomendagarria zenbait bizipeni –haietako asko alaitasun edo samin sentimenduekin oso lotuak– gizonezko edo emakumezkoen estereotipoak esleitzeko joera.

Garai desberdinetan, leku eta kultura desberdinetan, intimitatea –zentzu zabalean ulertuta– gizakiaren funtsezko osagai bat izan da, mundu guztiko alegia eta mitologietan ikus daitekeenez.

Unitate honetan, intimitatearen adiera-zabaltasuna gorabehera, eta kultura batetik bestera gaur egun dauden aldeak onarturik, bizitza pribatua edukitzeko eskubidea hiru aldetatik aztertuko da: intimitate fisikoa, pertsonaren intimitate psikologikoa eta, hirugarrenik, intimitatea arteetan islatzen den atsegin- edo oinaze-elementua den aldetik.

■ ZER LANDU GAI HONEN INGURUAN?

Irakasleek

- Ikaslearen dokumentazio-pribatutasuna bermatu.
- Familiarekiko komunikazioa ahalbidetuko duen sistema bat eratu, betiere intimitate-eskubidearen ikuspuntutik.
- IIP, IHP eta AJAn gai honen inguruan klaustroak hartu dituen erabakiak jaso.
- Ikasleen arteko harreman sozialak sustatzeko egitasmo sistematiko bat landu, betiere bakoitzaren intimitate-eskubidea errespetatuz.
- Intimitatea Arte-Hezkuntza eta Gizarte eta Ingurunearen Ezagueraren Curriculumarekin uztartu.

Familia

- Seme-alaben intimitate-eskubideaz gogoeta egin.
- Senide guztien arteko komunikazioa sustatu, baina mugak jartzeko daukaten eskubidea onartuz.
- Etxeko guztien korrespondentzia, telefono deiak eta interesak errespetatu.
- Gai honen inguruan garatzen diren egitasmo eta programetan irakasleekin batera lan egin.

1. JARDUERA:

ARATUSTE EZ DENEAN ERE MOZORROA

Intimitate-eskubidearen atal garrantzitsu bat da norberaren gorputz-pribatutasunari dagokiona: horri intimitate fisikoa deritzogu. Historian zehar intimitate fisikoa hain izan da garrantzitsua zenbait kulturatan, ezen gorputza ez eze aurpegia ere estali izan baita, oihalak, bizarrak edota mozorroak erabiliz.

Denok dakigu historian zehar pertsonen arteko errespetuak, lotsak eta horien errepresioak jasan duten bilakaera; hain zuzen ere, janzkerak aztertuko bagenitu argi eta garbi ikusiko genuke bilakaera hori. 60ko hamarkadan izandako sexu-iraultzatik hona, irekitasun handiagoa dago gai horren inguruan, baina ora-indik ere badira han-hor-hemenka garai bateko oihartzun eta aztarna fundamentalistak. Kasu baterako, nabarmenena Afganistangoa izan liteke, Kabuleko emakume eta neskatilen egoera jasangaitza. Bestalde, pertsonen intimitate fisikoaren kontrako eraso eta tratu txarrak ere gertatzen dira.

Aurreko unitateetan iritzi eta sentimenduen adierazpen librea eta jokaera asertiboa landu dira, biak ere funtsezko ikasgaiak norberaren intimitate fisikoari dagokion eskubidea defendatzerakoan. Unitate honetan, berriz, intimitate fisikoa landuko dugu eta, zehazkiago, eskubide horri buruzko kontzientzia.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Ikasleek intimitate fisikoa izateko eskubideaz kontzientzia hartzea.
- Ikasgelan komunikazio ireki eta zintzoa sustatzea.
- Afektibitatearen adierazpena baloratzea, baina intimitate fisikoa errespetatuz.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Jantzi desberdinek eskaintzen diguten babesa sentitzea.
- Intimitate fisikorako eskubidea sexu bietan berdin sustatzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: antzerki tailerreko ohiko baliabideak: arropa desberdinak, kolorezko oihalak, ileordeak eta era askotako oinetakoak, larruazalerako margoak...

EMAKUNDEk 1998ko martxoaren 8rako argitaraturiko horma-irudia: "Lore bat Kabuleko emakumeentzat".

Yakin Ertuk-en aipua (2000, 23. or.) azetatoan, erretroproiektagailua.

JARDUERAREN IRAUPENA: 60 minutuko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Jarduera hasteko, irakasleak "Lore bat Kabuleko emakumeentzat" izeneko horma-irudia aurkeztuko du. Ondoren, taldeka hitz egingo da giza-eskubideez eta Afganistango egoeraz, janzkera berezi horren arrazionaltasunaz edo giza-eskubideei egiten zaion eraso horren irrazionaltasunaz, eta arropak gaurko gizartean betetzen duen eginkizunaz (gai hau kontsumo eta kontsumismorantz desbidera liteke; irakasleak erabakiko du orduan gai horretan sakontzea eta intimitate fisikoaz geroago jarraitzea nahi duen edo kontsumismoaz beste egun batean aritu). Jarraian, Yakin Ertuk-en aipu hau proiektatuko du: *"Aurpegia estaltzen duen beloari buruz hitz egiten da, baina benetako beloa buru barruan dugu eta ez digu uzten berdintasuna ezartzeko nondik eta nola ekin diezaiokegun ikusten. (2000, 23. or.)"* Esaldi horretaz iruzkinak egingo dira ea zein ondorio ateratzen duten.

Horren ondoren, irakasleak aipatu egingo du janzkera-aldaketak gugan zein eragin mota izaten duen eta, ikasleek bizitutako zerbait aipatzearren, inauterietan sentitutakoari buruz galdetuko die. Jarraian, ikasleak taldeka jarriko dira eta talde bakoitzak antzezpen labur bat egingo du, horretarako antzerki-tailerreko material eta jantziak erabiliz.

Talde guztiek antzezlana prestaturik dutenean talde handiaren aurrean antzeztuko dute eta, ondoren, beste janzkera batzuek izandako eraldatzeaz hitz egingo da taldean. Taldekide bakoitzak bere esperientziaren berri emango du.

Erronda horren ondoren eta ikasleak dauden-daudenean, honako galdera hauek egingo zaizkie:

1. Gizonezkoek eta emakumezkoek gorputz atal berberak estaltzen al dituzte?
2. Zergatik?
3. Nahi ditugun gorputz atal guztiak erakuts ditzakegu? Nori?
4. Gorputz osoa estali behar al da norberaren intimitate fisikoa babesteko?
5. Zergatik altxatzen dituzte batzuetan mutilek nesken gonak edo neskek jaisten dituzte mutilen prakak?
6. Zer gertatzen da une horretan? Nola sentitzen da erasoa jasan duen pertsona?
7. Norena da gure gorputza? Nork uki edo laztan gaitzake?
8. Estal ditzakegu nahi ditugun gorputz atal guztiak?
9. Zer sentitu duzue antzezpenean zeuen aurpegia estali duzuenok?
10. Kanpotik nola ikusten dugu aurpegia estalita duena?
11. Jantzi al duzue inoiz betaurreko ilunik? Zer sentitzen dugu gurekin berbetan dagoen pertsonari begiak ikusten ez badizkiogu?

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Gorputz Hezkuntza / Gaztelania / Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera / Tutoretza.

2. JARDUERA:

NINIA

Intimitate-eskubideak pertsonaren bizitza pribatua errespetatzea esan nahi du, baita bere izen ona eta ohorea ere. Hedabideetan puri-purian dagoen gaia denez, guri zuzen-zuzenean ez dagokigula pentsa dezakegu, gu ez baikara hain famatuak eta sekretu handirik ere ez baitugu... Hala ere, intimitate apur bat izatea funtsezkoa da pertsonaren garapenerako. Gizakiaren garapen osorako bizitza soziala eta beste pertsonekiko komunikazioa ezinbestekoak diren bezala, behar-beharrezkoa da norberarena baino ez den esparru bat ere, nork bere barnerako gordetzen dituen eta beste inorekin konpartituko ez dituen bizipenak, alegia.

Honi buruz, Whitfield-ek (1999, 19. or.) zera dio: "Geure mugak eta oztopoak non ditugun jakitea oso baliagarria da gure harreman sozialetarako eta indarberritzeko. Izan ere, horren jakitun egotea erabakigarria da osasun oneko harremanak lortzeko, eta, batzuetan, behar bezala indarberritzeko. Mugak adieraziko digu, hain zuzen, harreman batean noraino irits gaitezkeen erosotasunez. Ni neu eta neure esparru fisiko eta psikologikoa non amaitzen den eta bestearena non hasten den esaten digu..." Beraz, mugak jartzeak norberaren *ni-a* eta *ni-a* osatzen duten arlo desberdinak aurkitzen lagunduko digu.

■ HELBURU NAGUSIAK

- "Intimitate psikologikoa" gaiaren sarrera egitea.
- Harremanetan diren muga eta eragozpenen jakitun izatea.
- Norberaren ezaugarri propioak eta aditzera ematen ez direnak ere badirela ontzat hartzea.
- Inoren isileko sekretuak errespetatzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Geure ezkutuko *ni-a*ren arlo desberdinetako zenbait ezaugarri identifikatzea.
- *Ni* irekiaren ezaugarriak elkarbanatzea.
- Beste kide esanguratsuek jakinarazi diguten isilekorik ez zabaldu.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: ohiko baliabide didaktikoak, begi handi bat duen horma-irudia (edota eskuzko diafragma duen argazki-kamera), ondorengo eskemaren kopia bana eta eskema horren azetatozko orri bat xehetasun eta adibidez hornitua, erretroproiektagailua.

JARDUERAREN IRAUPENA: 50 minutuko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Hasi aurretik, irakasleak *ni* sozial eta *ni* pertsonal edo barnekoaren arteko aldea azalduko du. *Ni* soziala irekia da, besteekin konpartitzen dena; *ni* pertsonala, berriz, barnerakoia, itxia eta ezkutukoa. Oso era adierazgarrian azal daiteke begiaren (edota argazki-kameraren) bidez:

"Begi baten irudia dugu hemen. Ikusten duzue erdi-erdian ninia, ezta? Bada, begi-ninia oso-oso berezia da, iluntasunean ireki egiten baita eta argitasuna dagoenean itxi (edo "argazki-kameraren diafragma itxi egin behar da argitasuna dagoenean eta ireki ilun dagoenean", eta erakutsi egingo zaie). Denok dakizue ni zer den, ezta? Bai, bai, ni neu. Jakina, ni hitz egiten duen pertsona da, eta zu entzuten duena. Eta, orduan, zer esango zenukete gutariko bakoitzak bi ni ditugula esango banizue? Bada, begira, badugu ni ireki bat: berak erakusten du gure irudia, gutaz ikusten dena, gure iritzi eta sentipenak maite ditugunekin banatzen laguntzen diguna, begi-ninia (edo diafragma) zabal-zabalik dagoenean bezala; ni itxia edo ezkutukoa, berriz, –ninia ixten denean bezala–, barruan dugu eta barne-sentimenduez hitz egiten du. Bigarren ni hau barnerakoia da, inori –ezta gehien maite ditudan pertsonei ere– esan nahi ez dizkiogun kontu horiek gordetzen dituena, eta senitartean edo oso hurbileko pertsonekin baino konpartitzen ez ditugun bizipenen jabe da".

NI IREKIA
NI BARNEKOIA

Irakasleak argibide gehiago edo gutxiago eman ditzake, edo era errazago batean azaldu, ikasleen ezaugarrien edo adinaren arabera. Azalpenaren ondoren, ikasle bakoitzak *ni* irekiari dagokion leihoa beteko du; *ni* barnekoiari dagozkion zenbait ezaugarri pentsatuko ditu, baina idatzi ez ditu idatziko, barne-munduari baitagozkio eta, hortaz, ez dugu inork jakiterik nahi.

Taldekide guztiek hori egindakoan, talde handian jarriko dira eta, ikasle bakoitza talde osoaren aurrean jarririk, bere eskeman idatzi dituen zenbait ohar edo iritziren berri emango die. Beste guztiek datu gehiago gehi dezakete eta horrek bere fitxan jaso dezake (prozesu horretan zehar iruzkin iraingarririk egin ez dadin saiatuko gara; hori gertatuko balitz, behar bezala erantzungo da, intimitate eta ohore pertsonalari egiten zaion erasoa den aldetik).

Jarduera hau adin honetako ikasleen gustukoa izan ohi da, eskuarki gozatu egiten baitu bere buruari buruz oneski mintzatzen den lagunari entzunez. Horrezaz gain, taldean konfiantza-giroa sortzen lagunduko du eta giro horretan samurragoa da horrelako galderak egitea:

- Inoiz sentitu duzu norbaitek zeure intimitate-ataka igaro egin duela?
- Zer ez duzu gura besteek egin dezaten, zure ustez iraindu egiten zaituelako?
- Gogora itzazu *ni* barnekoirako pentsatu dituzun ezaugarriak. Baikorrak ala ezkorrak dira?
- Gorde al daitezke hemen elementu baikorrak ?

- Ikastetxearen esparruan *ni* barnekoiaren zein ezaugarri egon liteke arriskuan?
- Etxean gaudenean, *ni* barnekoiaren zein ezaugarri egon liteke arriskuan?
- *Ni* barnekoiaren ezaugarriren baten berri ematen al diogu beste pertsonaren bati? Nori eta zein egoeratan?

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Tutoretza.

3. JARDUERA:
AMA!

Unitate honetan arte barnekoi edo intimista jardunbide desberdinetan lantzen saiatu nahi dugu. Hemen proposamen bat egiten da, baina hainbat aukera egon liteke horren ordez lantzeko, edo besteren bat erabil liteke osagarri gisa...

Unitate honen hasierako sarreran esan bezala, arte barnekoia geure barruko gogo-egoerak artistikoki adierazteko joera da. Intimitateak, orobat, lagundu egiten digu atsegin-sentipenez gozatzen eta oinaze- eta atsekabe-sentimenduak zintzoki eramaten.

Artelan gehienak, hortaz, egilearen barne-bizipenen fruitu dira, jatorriz intimitatean sortuak, intimitatean burutuak eta, azken batean, intimitate horren irudipenezko adierazpide bihurtuak. Intimitatean egindakoa geroago baino ez da ematen ezagutzera.

Edozein kulturatan ikus dezakegu arte-modalitate guztietan intimitatea adierazteko teknikak direla; agian, adin honetako ikasleek ez dituzte zenbait teknika ulertuko, baina, hala ere, intimitate-sentsazio horren adierazpide egokia musika izan daiteke. Musika sentimenduak adierazteko berebiziko hizkuntza dela esan ohi da. Oraingo honetan, berriz, musika eta hitzak batera datoz. Beste adierazpen artistiko batzuetarako errekurtso gehiago aurki daitezke interneteko bi helbide hauetan: www.artenet-cb/escobar.html, pintura figuratibo eta intimistari buruzkoa (adin honetako ikasleentzat egokia) eta www.fpa.es/premios/letras88a.htm Carmen Martín Gaiteren obrari buruzkoa. Azken horrek emakumeen arazoei arreta berezia eskaintzen dio eta mende honen erdialdeko errealismoa eta oraingo eleberri intimistaren artean dago (errealismo eta intimismoaren arteko erlazio hau gomendagarria izan liteke ikasleen ulermena sustatzeko).

■ HELBURU NAGUSIAK

- Intimitatea atsegin iturri den aldetik baloratzea.
- Intimitateak arte-ekoizpenean duen baliagarritasuna aintzat hartzea.
- Arte-adierazpenetako zenbait erreferentzia intimista ezagutzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Musikaren bidez adierazitako sentimenduak bizitzea.
- Bizitutako sentipenak aztertzea.
- Kantaren hitzei buruzko iruzkina egin eta testua aztertzea.
- Abestia eta norberaren esperientziak uztartzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: psikomotrizitate gelan, gimnasioan edo ikasleak etzanda eta lasai egoteko moduko edozein gelatan.

BALIABIDEAK: Kasetea eta abestiaren grabazioa. Erretroproiektagailua, kantaren hitzak eta partitura. Barne-sentimenduak adierazten dituzten bestelako grabazioak. Ikasleen begiak estaltzeko zapi bana.

JARDUERAREN IRAUPENA: 40 minutuko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Lehen-lehenik, talde handian arte intimistaren berezitasunaz hitz egingo da, kultura edo talde etniko desberdinetako adierazpenak aipatuz (pintura, literatura, antzerkia...).

Ondoren, ikasleak etzanda eta lasai daudelarik, begiak estaltzeko eskatuko zaie (jendartean norberaren intimitatea sustatzeko modua dateke hori); horrela daudelarik, entzungo duten musika sentitzeko eskatuko zaie. Abestia birritan entzun eta gero, tartetxo bat utziko da sentitu dutenaz pentsa dezaten. Artean begiak estalita izango dituzte, harik eta irakasleak kentzeko esan arte (ikastalde horretan itsurik balego, jarduera aproposa litzateke hark dituen beste sentimen-gaitasunak goraipatzeko).

Behin zapiak kenduz gero, taldera bilduko dira berriro eta bakoitzak zer sentitu duen eta nola bizi izan duen azalduko du.

Kontuz: *Azaldu nahi dutenek baino ez, besteen aurrean barne-sentipenak agertu nahi ez dutenik egon bailiteke.*

Txanda hau amaiturik, abestiaren hitzak eta partitura banatuko zaizkie eta ikasleek kantatu egingo dute, grabazioaren laguntzaz edo laguntzarik gabe. Hitzak jakinda, taldean aztertuko dira eta kanta horrek dituen elementu intimistei erreparatuko diete, bai doinuaren aldetik, bai hitzen aldetik ere.

Maitatua sobera nintzelarik haurra,	oso, gehiegi
ez nekien nik zer zen amaren beharra.	
Bortu batean orai naiz bakar-bakarra,	Mendi
Amaz ohroit-orduko heldu zaut nigarra!	datorkit
Hegañoak azkartzen sendituz geroztik,	Hegotxoak ... sentituz
baitoazi xoriak ohantze gozotik.	baitoaz. ... habia
Halaber joan ninduzun amaren altzotik.	nintzen
¡Ahantzia bainute herrian engoitik!	naute ... dagoeneko, honezkero
Hitzak: Oxobi	



Jarduera honekin loturik, Arte Ederretako museo batera ere egin liteke bisita, han arte klasikoa eta garaikidea aldi berean ikusi ahal izaten baita, bai aldian-aldian egiten diren erakusketak ere. Batzuk besteak baino intimistagoak izango dira baina, nolanahi ere, artistek beren intimitatean sortutako arte-lanez gozatzeko aukera izango dute.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Arte Hezkuntza (Musika) / Euskal Hizkuntza / Tutoretza.

ETXEKOENTZAKO FITXA

Guraso agurgarriok:

Azken egun hauetan intimitate-eskubideaz jardun gara zure seme edo alabaren ikasgelan. Nagusion intimitate-eskubidea ontzat hartzen dugu zalantza izpirik gabe, baina ahaztu egiten dugu maiz pertsona guztiek intimitate-esparru baten beharra dutela, baita umeek ere. Sarri askotan, gerta dakizkien ezbehar edo arriskuen berri edukitzearren, euren intimitatea urratzen dugu era askotara:

- Haien posta irakurtzen dugu.
- Haien motxila, tiradera edo kaxoia, armairua... arakatzen dugu.
- Egunean zehar nondik nora ibili den galdetzen diogu.
- Telefonoz egiten edo jasotzen dituen deiei arreta berezia jartzen diogu.
- Ez diegu uzten euren gelan edo bainugelan bakarrik egoten.
- Haien janzkeraz iruzkin kritikoak egiten ditugu.

Ikasgelan intimitatearen hiru esparru landu ditugu: intimitate fisikoa, intimitate psikologikoa eta intimitatearen adierazpen artistikoa.

Gai horretaz gehiago jakin nahi baduzue, zeuen seme edo alabari eska diezaiokezue egindako jardueren berri emateko. Horrela gelan ikasitakoa sendotuko dute eta, era berean, gai honen inguruko solasalditxo bat hasteko era egokia izan daiteke; agian, elkarrizketa edo ideia-trukaketa horren ondorio probetxugarria izan liteke, zuen seme edo alabaren intimitate-eskubidea nola hobeto errespetatu asmatuko bagenu.

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

UNITATEAREN BALORAZIOA

Banakako fitxa legez aurkeztuko zaie eta, beraz, taldekide bakoitzak bakarka beteko du bere fitxa.

IZENA: .....

- Unitate hau landu ondoren, intimitate-eskubideaz orain duzun iritzia adieraztea nahi nuke:

  .....

  .....

  .....

  .....

- Marka itzazu √ batez zertan ikusten duzun zure intimitate-eskubidea arriskuan:

  - Beste pertsona batzuek irakurtzen dute nire posta.
  - Etxean nire izenean datozen eskutitzak irakurtzen dituzte.
  - Ikasgelan nire ikaskideen motxila ireki eta nire gauzak arakatzen dituzte.
  - Inoiz edo behin gona altxatu edo prakak jaitsi egin dizkidate.
  - Etxean, nire gelan sartzen dira atean jo barik.
  - Nire etxekoak bainugelan sartzen dira dutxan nagoen bitartean.
  - Logelako edo bainugelako atea giltzaz ixten badut agiraka edo barre egiten didate.
  - Bakarrik nagoenean ea zer gertatzen zaidan galdetu eta galdetu ibiltzen zaizkit.
  - Sekreturen bat kontatu eta, isilean gorde beharrean, zertan jakin ez daukaten pertsonei esaten diete.
  - Bakarrik baldin banago eta hala egon nahi dudala esaten badut, besteek txarto deritzote.

- Nola jakinarazi nahi zenieke zeure etxeko eta lagunei, markatu dituzun puntu horietan, intimitate-eskubidea errespeta diezazuten?

Zeure intimitateari dagokion zerbait adierazi nahi izango zenidake niri? Kontuan hartu galdera honi ez diozula erantzun behar nahi ez baduzu eta, bestalde, zure barne-bizitza eta intimitatea dela jakinik, ez diodala beste inori esango.

DROGAK DIRELA ETA

■ IDEIA NAGUSIA

Estatuaren betebeharra da haurrak estupefazienteen erabilera ez zilegitik babestea. Zenbait lege onartu eta erabili egin behar direla esan nahi du horrek (Drogamenpekotasunaren Prebentziorako Lege Orokorra, egitasmo komunitarioak eta tokian tokikoak), baina batez ere Prebentziorako Programak diseinatu behar direla eskolaren esparruan; izan ere, drogaren kontsumoa dela eta, ikasleak bere osasunaren aldeko erabakiak hartu ahal izan ditzan baliabide egokiak behar baititu.

■ HELBURUAK

- Drogaren kontsumoa dela-eta, zenbait kontzeptu argitzea.
- Tabakoaren, alkoholaren eta beste droga batzuen eraginak eta arriskuak ezagutzea.
- Publizitatearen bidez tabakoaz eta alkoholaz zein informazio mota jasotzen dugun aztertzea.
- Drogaren kontsumoa dela-eta diren sineskera batzuei buruz gogoeta egitea.
- Taldearen presioak gure jokamoldean duen garrantzia aztertzea eta horri aurre egiteko estrategiak garatzea.

■ UNITATEAREN GARAPENA

Drogamenpekotasunari buruzko Lege Orokorrak haurrak babesteko ezartzen dituen neurriak (tabako eta alkohola 18 urtetik beherakoei saltzeko debekua, adin txikikoei zuzendutako publizitatearen debekua...) nahitaezkoak badira ere, ez dira aski. Gizarteak droga legalak (tabakoa eta alkohola) onartzen dituen artean, normalizatu egiten du kontsumoa eta, ondorioz, arazoaren konponbidea zailagoa bihurtzen da. Drogak, legezko zein legez kontrakoak, gure neska-mutilek -errazago edo zailago- kalean aurkituko dituzten substantziak dira, aisialdiarekin erlazioa duten leku eta denboretan batik bat (tabernetan, diskoteketan...) eta, hortaz, bizimodu jakin batekin lotuak. Zein litzateke, beraz, eskolaren eginkizuna arlo honetan? Batetik, eskolatik bizimodu osasuntsuak bultzatu behar dira, eta, bestetik, zenbait trebetasun, prozedura eta baliabide pertsonal eskaini behar zaizkio ikasleari egoera horri era egokian eta ziurtasunez aurre egiteko gai izan dadin.

Eskolaren esparruan drogamenpekotasunaren aurkako edozein prebentzio-programa proiektu osoago baten barruan kokatu behar da, Osasun Hezkuntza zehar-lerroan (curriculumari eta zentro osoari eragiten dio). Ikastetxeak bere irizpideak eta lehentasunak zehaztu behar ditu gai honen inguruan (bultzatu nahi diren jarrerak, baloreak eta azturak). Zehaztapen horri ekiteko, eskola-komunitateak eztabaidatu eta definitu egin beharko du beretzat zein prebentzio mota nahi duen, eta helburu batzuk finkatu beharko ditu, marko horretan garatuko baitira geroagoko eginkizun guztiak.

12 urte bete baino lehen kontsumo kasu gutxi gertatzen bada ere, prebentzio-programa guztietan adierazten da hezkuntzaren esku-hartzeak aplikazio sistematikoa izan behar duela eta eskolatze-urte guztietan. Interesgarria litzateke, hortaz, curriculum deritzon plangintza bana garatzea etapa bakoitzean. Haur Hezkuntzan eta Lehen

Hezkuntzako lehen kurtsoetan berariazkoak ez diren gaiei ekingo zaie prebentzioa lantzerakoan (autoestimua lantzea, gizarte-trebetasunak, higieneari buruzko aztura osasuntsuak, elikadura, atsedena, etab.) eta 4. mailatik aurrera bereziki –ikasleek eskatu ahala–, pitinka-pitinka, substantziei buruzko informazio zehatzagoa gehituz joango gara: maila horietan batik bat droga legalak hartuko ditugu aintzat, hots, alkohola eta tabakoa.

Beraz, aurreko unitateetan garapen pertsonalaren inguruan landu ditugun gaiak (autoestimua, asertibitatea, sentimenduen adierazmena, entzuteko trebetasunak, erabakimena, gatazken konponbidea, osasun azturak, aisialdiaren erabilera) drogamenpekotasunaren prebentzio egoki baterako oinarri dira. Ez dugu ahaztu behar parekoen taldeak berebiziko garrantzia hartzen duela, nerabezaro aurretik hasita, neska-mutilen bizimoduan eta, zenbaitetan, taldearen presioari eustea eragozpenik handiena bilakatzen dela, nahi ez diren kontsumoei aurre egiteko; ezinbestekoa da halakoetan norberaren baliabide guztiez baliatzea. Orobat, garrantzi handikoa da ikasleengan frustraziorako jasankortasun maila areagotzea (bere helburuak lortzeko borrokatzea, zailtasunei aurre egitea, etab.), izan ere, askotan, droga mundua arazoetatik ihes egiteko edo frustrazioak adierazteko gune izaten baita.

Eskolako partaide guztientzat diren prebentzio-neurri orokor horiez gain, gizabanakoari zuzendutako zenbait ekintzari ekin behar zaio. Lehen Hezkuntzako neskato eta mutikoen artean sumatzen dira jada jokaera problematikoen zenbait adierazle, eskuarki eskola-porrotarekin lotuak; gehienetan, gabezia sozioafektiboak dituzte atzean, familia-egoera arazotsuak, etab. Horrelako ikasleek etorkizunean jokaera antisozial edo gatazkatsua garatzeko arriskua dute, eta drogamenpekotasuna ere izan liteke tartean; beraz, funtsezkoa da ikastetxean arazo horiek detektatzeko adierazle argiak ezartzea, udalerriko gizarte zerbitzuekin eta familiekin batera, ikasle horiekiko esku-hartzea garaiz eta errazago gauza dadin.

Aisialdia da (25. unitatea) drogamenpekotasunaren prebentzioak duen beste alderdi garrantzitsu bat, testuinguru hori izaten baita gehienetan sustantzia horietara heltzeko lehen bidea. Ildo horretan, garrantzi handia du komunitatearen eginkizunak, udal politikagintzaren bidez gazteen elkarteak sustatzeko eta, eskaintza emankor eta anitza eginez, aisialdi prometan parte har dezaten bultzatzeko (24. unitatea).

(Unitate hau Lehen Hezkuntzako azken urtean lantzea gomendatzen dugu)

■ ZER LANDU GAI HONEN INGURUAN?

Irakasleek

- Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzarako, IHP, IIP eta AJAn islatuko den Osasun Hezkuntzarako Proiektu bat egin (prebentzio-curriculuma, esku hartzea arazoak direnean, elkarbizitzarako arauak, elkarren arteko harreman giroa, etab.).
- Eskola orduetan eta eskola orduez kanpo aisialdiaren gozamenerako bide emankorrak hasiko dituzten jarduerak antolatu.
- Komunitatearekin (gizarte zerbitzuak, aisialdi eskaintzak, etab.) eta familiekin batera lan egin (koherentzia jokabidean).
- Ikasleekin komunikazio bideak sortu, haien konfiantzazko pertsona bihurtu, euren arazoak kontatu eta zalantzak kontsultatu ahal izan diezazkiguten.

Familiak

- Etxean elkarrizketa eta komunikazioa sustatu.
- Bizimodu eta ohitura osasuntsuak irakatsi (garbitasuna, elikadura, atsedena, etab.).
- Bere aisialdiaz erabakiak hartzen lagundu.

1. JARDUERA:

ZER DAKIGU DROGEI BURUZ?

Informazioa, berez, ez da nahikoa drogazaletasunaren prebentzioa bermatzeko. Informazio hutsa baino gehiago behar da. Prozesu luzeagoa, konplexuagoa, eta osoagoa behar da trebetasunen garapenean eta jarrera-aldaketetan oinarritutako lana egin ahal izateko. Hala ere, nahikoa ez izanik ere, nahitaezkoa da.

Ikasleek drogez eta horien ondorioez informatuta egoteko eskubidea dute. Baina zehaztu egin behar dugu zein informazio mota emango diegun geure ikasleei. Lehenengo eta behin, euren ezagutza eta garapenaren araberako informazioa izan behar du, unean uneko kezkei erantzuten diena; horregatik, hobe da droga legaletara mugatzea –tabakoa eta alkohola, alegia–, adin honetan agian probatuak izango baititu edo laster batean probatu ahal izango baititu. Beste droga batzuen aipamenak (cannabis, sintesi-drogak, etab.), gure ikasleen artean kontsumorik ez badago behintzat, apurka-apurka egingo dira, beraiek eskatzen duten heinean.

Informazioa, bestalde, ez da beldurrean oinarritu behar, gure ikasleek ez baitute arriskuaren pertzepzio hori epe luzera. Etorkizuneko ondorioak oso latzak izanda ere, eraginkorragoa da drogaren berehalako ondorioez mintzatzea.

Irakasleak jardueraren berri emango die ikasleei: *"Zer dakizue drogei buruz? Zein droga mota ezagutzen duzue? Informazioa bilatuko dugu gai honen inguruan".*

■ HELBURU NAGUSIAK

- Drogamenpekotasunari lotutako kontzeptuak argitzea.
- Zenbait substantziaren berezitasun eta ondorioak ezagutzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Hiztegian informazioa bilatzea.
- Definizioak eta azalpen testuak sortzea.
- Ahozko azalpena lantzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: idazteko tresnak, hiztegiak eta zenbait substantziari buruzko informazio idatzia.

JARDUERAREN IRAUPENA: ordubeteko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak ikasleei ea drogei buruz zer dakiten eta zer jakin nahiko luketen galdetuko die saioaren lehen zatian, eta arbelean idatziko ditu argitu behar diren hitzak eta erantzun beharreko galderak.

Ideia-jasa horretan zehar droga bat zer den definituko da nola edo hala, iritzi pertsonalekin eta substantzia batzuen izenekin batera eta, beharbada, ikasleren baten edo bere ingurukoren baten kontsumoaren esperientziak. Aipatu ez badira, zenbait hitz gehitu beharko genituzke, hala nola, "mendetasuna", "erabilera", "gehiegikeria", "jasankortasuna"; garrantzi handikoa da *erabilera* eta *gehiegizko erabilera*ren artean bereiztea; garrantzitsua da, halaber, *mendetasuna*ren esanahiaz jabetzea eta, drogarenaz gain, beste mendetasun mota batzuk ere badirela ulertzea (ordenagailuarena, telebistarena, makinena, etab.).

Bigarren zatian, ikasgelan hiruzpalau talde egin eta lana banatuko zaie. Talde bat, hiztegiaren laguntzaz, hitz hauen esanahia argitzen saiatuko da: droga, mendetasun edo menpekotasun, erabilera, gehiegikeria, eta haiek proposatutako beste hitz batzuk.

Gainontzeko taldeek argibideak bilatuko dituzte aipatutako substantziez (substantziaren berezitasunak, eraginak, arriskuak, zuzenean dakarzkigun ondorioak eta bere ingurukoak). Substantziak taldeka bana daitezke: talde bat alkoholaz arduratuko litzateke, beste bat tabakoaz, hirugarren bat cannabis edo kalamuaz eta laugarren talde bat beste substantzia batzuez, haiek aipatuak izan badira. Horretarako, substantzia bakoitzari buruzko informazioa duten orriak emango dizkiegu (Bibliografia atalean aurki ditzakegu: "Información sobre las drogas" Discover-en edo "ABC de las drogodependencias para el profesorado" Aprende a vivir libre de drogas-en).

Saioaren hirugarren zatian talde bakoitzak jaso duen informazioa azalduko du eta, horrela, erantzuna emango die saioaren hasieran egindako galderei. Irakasleak bateratze saioa baliatuko du agertu diren zalantzak argitzeko edo zehazteko eta, bidenabar, gai honetaz ikasleak kezkatzen dituzten kontuez mintzatzeko.

Jardueraren xedea informatzea bada ere, hasierako ebaluazio gisa ere erabil daiteke: ikasleak non dauden eta nondik abiatu behar dugun drogamenpekotasunaren gaian.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Tutoretza / Gaztelania / Euskara.

2. JARDUERA:

ALKOHOLIK? EZ, ESKERRIK ASKO.

Alkohola gure gizartean gehien kontsumitzen den droga da. Tabakoarekiko baino tolerantzia zabalagoa du gizarteak alkoholarekiko, eta tolerantzia horrek, hain zuzen, eragotzi egiten du sortzen dituen arazoak gainditzea (alkoholismoa, horrekin lotutako gaixotasunak, trafiko istripuak, lanera ez agertzea, bortizkeria, etab.).

Normalean 11-12 urteko neska-mutilak oraindik alkohol kontsumitzaile ez badira ere, badira egoerak eta momentuak horretarako aukera eskaintzen dutenak. Herriko edo auzoko jaiak abagune berezia izaten da gauez irteten utz diezaieten, eta badakigu gaua eta jaia, gurean bereziki, ia beti alkoholaren eskutik etortzen direna.

Nerabe askorentzat alkoholdun edariak hartzea motibazio jakin batzuekin lotuta egoten da: nagusia izatea, ondo pasatzea, taldean onartuak izatea, etab. Garrantzitsua da oso gure ikasleek era horretako pentsaerei buruz eta horiek dakartzaten jarrerei buruz gogoeta egitea, desmitifikatu ahal izan ditzaten, taldearen presioa indargabetu eta beren benetako interesen arabera askeago jardun ahal izan daitezen.

Irakasleak jarduera aurkeztuko die ikasleei: "Udan jaietara joatea gustatzen al zaizue? Gauez irteten uzten al dizuete? Zer egiten duzue? Alkoholik edaten al da jaietan? Zergatik uste duzue halakoetan jendeak edaten duela? Beharrezkoa al da ondo pasatzeko? Ikus dezagun zer gertatu zitzaion Ikerri:

Iker, Rosa eta Kepa Lehen Hezkuntzako 6. mailan daude. Oporrak hartu berri dituzte eta gaur gauerako geratu dira, auzoko jaietan erromeria egongo dela eta asko gustatzen zaien musika-talde batek joko duela eta. Oso pozik daude, euren etxean 12ak arte geratzeko baimena eman baitiete. Erosi dituzte Coca Cola batzuk eta eszenatokirantz hurreratu dira. Taldeak itzelezko martxa dauka eta saltoka eta dantzan hasi dira; ederto baten pasatzen ari dira. Halako batean, Ikerrek hainbeste miresten duen anaia nagusia hurbildu zaie bi lagunekin. Kalimotxoa edaten ari dira eta tragoxka bat eskaini diete. Ikerrek, Rosak eta Kepak ezetz esan dute eta orduan trufaka eta haien lepotik barreka hasi dira, umemoko hutsak direla esanez, jaietan ondo pasatzeko kalimotxoa edan behar dela, etab.

Zer egingo zenukete zuek egoera horretan? Nola sentituko zinatekete? Zer egin ote zuten Ikerrek eta bere lagunek?"

■ HELBURU NAGUSIAK

- Alkoholaren inguruan dauden uste eta pentsaerez gogoeta egitea.
- Taldearen presioari eusteko jarrera lantzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Kasu bat aztertzea.
- *Role playing* bat egitea.
- Beste pertsonen lekuan jartzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: idazteko tresnak.

JARDUERAREN IRAUPENA: ordubeteko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Kasua irakurri eta gero, bosnaka edo seinaka jarriko dira hartaz hitz egiteko, pertsonaien jarrera eta jokabideak aztertu eta *role playing* bat prestatuko dute: zein izan den Iker, Rosa eta Keparen erreakzioa eta egoerari nolako irtenbidea eman dieten.

Talde bakoitzak bere antzezpena burutzen duen bitartean, gainontzeko ikasleak ikusle egongo dira, atentzioa ematen dien guztia apuntatzen.

Behin antzezpenak amaitutakoan, talde handian, galdera hauei ahalik eta ondoen erantzuten saiatuko dira:

- Nola sentitu da bakoitza bere paperean?
- Nolako amaiera eman dio talde bakoitzak? Zein(tzuk) izan lite(z)ke egokiena(k)?
- Antzeko egoera batean izan al gara inoiz? Nolako irtenbidea eman diogu?
- Zein puntutaraino kezkatzen gaitu besteek gutaz pentsatzen dutenak?
- Gure lagunek eskatzen digutena eginez gero, maiteago izango gaituztela uste duzue?
- Guretzat garrantzitsua den pertsona bati ezetz esatea asko kostatzen al zaigu?
- Zergatik uztartzen dira sarritan alkohola eta dibertimendua?
- Nagusiago sentitzen al gara alkoholdun edariak edanda?
- Zer egin dezakegu jaietan eta asteburuetan ondo pasatzeko?

Azkenik, talde modura ondorioak ateratzen saiatuko dira, etorkizunerako jarraibidetzat har baitaitezke.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Tutoretza / Gaztelania / Euskara.

3. JARDUERA:
TABAKOA AUZITAN

Gure ikasleek droga munduarekin izaten dituzten lehen harremanak, gehienetan, tabakoaren eskutik etortzen dira. 12 urteko hainbat neska-mutilek, noizean behin bada ere, tabakoa probatua dute. Egia da, hala ere, azken urteotan beheranzko joera antzematen hasi dela, bai helduen artean eta bai gazte eta nerabeen artean ere. Alkohola eta tabakoaren publizitateari buruzko legediak biztanleria osoa kontsumoaren arriskuetatik babestea du helburu, gazte jendea bereziki, baina badakigu ez dena beti betetzen; bete arren ere, publizitateak estrategia asko ditu bere produktuak saltzeko.

Gure neska-mutilek tabakoaren kontsumoan ez hastea edo ahalik eta beranduen hastea nahi dugu. Hartarako, adin honetatik has gaitezke horretaz guztiaz beraiekin berba eta gogoeta egiten.

Irakasleak jarduera azalduko die ikasleei: *"Aurreko jarduera batean tabakoaren eraginak aztertu ditugu eta osasunerako oso ondorio larriak dituela jakin dugu. Entzun duzue inoiz pertsona batzuek Tabacalera salatzen dutela tabakoaren arriskuez informatzen ez duelako? Uste duzue jendeak informazio nahikoa duela tabakoak osasunari egiten dizkion kalteez? Tabakoa erretzen duten pertsonak ezagutzen dituzu, seguru. Galdegin diezaiegun".*

■ HELBURU NAGUSIAK

- Tabakoa eta alkoholari buruzko publizitatea aztertzea.
- Mezu horiei buruzko gaitasun kritikoa garatzea.
- Tabakoa dela-eta jendeak dituen motibazioak ezagutzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Inkesta bat egitea.
- Mezu publizitarioak aztertzea.
- *Role playing* bat gauzatzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan eta kanpoan.

BALIABIDEAK: idazteko tresnak, publizitate-iragarkiak paper edo bideo euskarrian, inkestetan batutako datuak.

JARDUERAREN IRAUPENA: ordubeteko bi saio.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Honelako kasu batetik abiatuko gara: herritar batek Tabacalera auzitara eraman du, honek informazio urria ematen omen duelako bere produktuen arriskuez. Kasu horrek hizpidea ekar dezake tabakoaren kontsumoari

buruzko bi alde desberdin aztertzeko. Horretarako bi talde handi eratuko ditugu ikasleen artean eta talde bakoitzari zeregin desberdin bat emango diogu:

- Talde batek tabakoari buruzko iragarkiak, aldizkariak, etab. bilatuko ditu (alkoholari buruzkoren bat ere sar daiteke) eta eskolara ekarriko ditu publizitatearen mezuak aztertzeko: ea zein informazio ematen den arriskuez, nola eta non agertzen den, iragarkiko protagonistak nolakoak diren eta zein egoeratan dauden, zer iradokitzen digun, nolako irudiak diren, zer saltzen den tabakoaz gain, etab. Paketeren bat ere azter liteke: zein informazio dakarren, nolakoa den eta non agertzen den.
- Beste taldean, ikasle bakoitzak inkesta txiki bana egingo diete ezagutzen dituzten bi pertsonari, bata erretzaile bati eta bestea erretzaile ohi bati:
  - Erretzailea: Zenbat urterekin hasi zinen tabakoa erretzen? Noiz eta nola erre zenuen lehen zigarroa? Zergatik hasi zinen erretzen eta zergatik jarraitzen duzu? Badakizu zein arrisku daukan zeure osasunerako? Utzi nahi izan diozu inoiz erretzeari?
  - Erretzaile ohia: Noiz utzi zenion erretzeari? Zergatik? Ba al zenuen arriskuei buruzko informazio nahikorik? Zein estrategia erabili zenuen uzteko? Atzera ere erretzen hasiko al zinateke?

Talde bakoitzak berak jasotako datuez edo materialez ekingo dio lanari eta, emandako arauei jarraiki, ondorioak atera, idatzi eta ikasleen talde osoari azalduko dizkio, hiru arlo hauetan oinarrituz:

- Zergatik erretzen duen jendeak: motibazioak, azturak, etab.
- Nolakoa den tabakoari buruzko publizitatea (informazioa, batera heltzen zaizkigun bestelako mezuak, etab.).
- Tabakoa erretzeak dituen arriskuez ondo informaturik ba ote gaudenentz.

Gaia landu ondoren, ariketa osagarri gisa, proposa dakieke ikasleei Tabacalerari egiten zaion epaiaren antzezpena, non herritar batek salatu egiten duen arriskuez ematen duen informazio eskasagatik edo publizitate engainagarriagatik. Paperak bana litezke: salatzailea, fiskala, enpresa, abokatua, epailea eta, agian, herri-epaimahaia. Jarduera horrek prestaketa lana egiteko denbora eskatuko luke aurretik (argudioak, hizpideak, eszenaren garapena, etab.) eta, antzeztu ondoren, bakoitzak gai honetan duen erantzukizunari buruzko azterketa eta gogoeta: salatzaileak –nork bere osasunaren erantzule nagusia baita–, estatuak –biztanleriaren ongizatea bermatu behar baitu– eta enpresak –informazio eta publizitateaz indarrean dagoen legedia bete behar baitu–.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera / Gaztelania / Euskara.

ETXEKOENTZAKO FITXA

Guraso agurgarriok:

Eskolan drogen kontsumoaren prebentzioa lantzen ari gara. Zuen seme-alabak oso gazteak dira oraindik, baina inguruan dituzte tabakoa eta alkohola, horiek droga legalak baitira eta, beraz, gure gizartean onartuak. Baliteke etxekook ere neurrian kontsumitzea. Ez dugu egoera alarmistarik sortu nahi, baina, gure ustez, oso garrantzitsua da substantzia horiei buruz gogoeta egitea eta bizimodu osasuntsu baterako ohiturak garatzea, horrela etorkizunean nahi ez diren kontsumoak ekidin ahal izateko.

Eskolan antolatuko dugun jai batean txosna bat jarri nahi dugu eta eskabide bat egin diegu: etxean koktel osasuntsu bat asmatzeko –fruta-zukuez, freskagarri eta infusioez egina– gero eskolako txosnan zerbitzatzeko. Hartarako, zuen laguntza eskatzen dugu: asma ezazue haiekin batera, lagun iezaiezue erosten, nahastatzen, dastatzen, erabakitzen eta izena ematen. Zeuen familiako koktela izango da, eta geroago zeuen jai eta ospakizunetan ere gozatu ahal izango duzue. Bestalde, jai egunean eskolara etor zaitezten gonbidatzen zaituztegu, bere lagun eta ikaskideen koktelak ezagut eta dasta ditzazuen.

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

UNITATEAREN BALORAZIOA

Esaldi eta galdera erraz batzuen bidez egiaztatu ahal izango dugu ea ikasleak zenbait eduki argitu eta bereganatu dituenentz.

■ ERANTZUN EDO BETE ITZAZU:

Zer da droga?: .....

Tabakoa edo alkoholaren mendetasuna izateak zera esan nahi du:.....

.....

.....

Tabakoa zergatik da kaltegarria osasunerako?:.....

.....

.....

Alkohola zergatik da kaltegarria osasunerako?:.....

.....

.....

Idatz itzazu osasunerako onuragarriak diren bost gauza:

- .....
- .....
- .....
- .....
- .....

Batzuetan gure ustez osasunerako kaltegarria den zerbait egitera bultzatzen gaituzte. Gertatu zaizu zuri inoiz? Konta ezazu eta azaldu nola konpondu duzun egoera:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

LAGUNAK AUKERATZEN

■ IDEIA NAGUSIA

Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmenak elkartzeko eta batzarrak egiteko askatasuna aldarrikatzen du 15. artikuluan. Norberaren bizi-ingurunea osatzen duten taldeetako partaide izatea, pertsonaren hainbat beharrizan asetzeko era bat izateaz gain, eskubidea ere bada. Talde guztien artean –familia, auzoa, eliza, ikastetxea, ikasgela, etab.– lagun-taldea erreferente garrantzitsua da eta, aldi berean, jaso den zoriontasun eta bizi-poz mailaren adierazle egokia. Hargatik, lagunak aukeratzea, adiskidantza sortu eta mantentzea, funtsezko helburua da pertsona aske, solidario eta bere inguruarekiko eta hurkoekiko adeitsu eta errespetutsua den pertsonaren hezkuntzan.

■ HELBURUAK

- Adiskidetasunak norberaren bizitzan duen garrantzia zehaztea.
- Lagunak edukitzearen abantailez jabetzea.
- Adiskide batengan desiragarri diren ezaugarri pertsonalak ezagutzea.
- Adiskidetasuna garatzeko eta mantentzeko behar diren trebeziak lantzea.

■ UNITATEAREN GARAPENA

Elkartzea eta zenbait talderen bizitzan partaide izatea, eskubidea ez ezik, gizakiaren funtsezko ezaugarria da. Taldekoia eta gizartekoia izaki, gizakiak taldean bilatzen du bere beharrizanak betetze eta asetzea, ezin izango bailuke bakarka. Familiaren ondoren, lagun-taldea da haurrentzat harreman talderik ohikoena eta hurbilena.

Lagunek talde bateko partaide izatearen sentimendua eta onespen sentsazioa sustatzen dute eta haurrari taldearen baitan toki bat eta eginkizunak ematen dizkio. Hala, taldearen bitartez, kide izateko eta afektua sentitzeko beharrizanak asetzen dira; izan ere, lagunak edukitzeak hainbat afektu eta gizarte-errefortzu ekartzen baitio pertsonari. Lagunak dituzten haurrak gehiago aritzen dira jolasean, harreman hobeak dituzte, arreta gehiago jasotzen dute eta, azken batean, zoriontsuagoak dira.

Pertsona baten bizitzan taldea hazkuntza-elementua izatea lortzeko, honako trebetasun hauek erabili behar dira:

Ahozkoak ez diren oinarrizko trebetasunak. Begiratzen jakitea, egoerari dagokion aurpegiera jartzea, irribarre egitea, lortu nahi den helburuaren araberako bolumen eta tonua erabiltzea... horiek denak dira beharrezko elkarrekintzarako.

Adeitasuna. Adeitsu eta mazala izatea (eskerrak ematea edo gauzak mesedez eskatzea... bezalako portaerak) giro atsegina lortzeko asmoz sortu diren gizarteko arauak dira.

Harkorrak izatea. 5. unitatean ikusi genuen bezala, guztiz funtsezkoa da entzuten eta galderak egiten jakitea. Entzuteak pertsonari denbora eta arreta eskaintzea esan nahi du eta horregatik da, izan ere, gizarte-indartzaile eraginkorra. Entzuteak beste jarrera batzuk onartzea ere eskatzen du, beste pertsonaren lekuan jartzea, haren ikusmoldearekin ados egon ez arren. Harmena areagotzean, poza eta komunikatzeko gaitasuna areagotzen dira harremanaren barruan.

Adierazkorragoak izatea. 6. unitatean ikusi genuen bezala, iritziak ematen eta hartzen jakitea beste pertsonak hobeto ezagutzeko era bat da. Norberaren sentimendu positibo eta negatiboez mintzatzeak harremanaren maila sakonago eta sentikorragoan sartzen gaitu, emozioen mailan, alegia. Afektuak adieraztean, positiboak zein negatiboak, harremana hobetzen da aldeko giro lagungarri eta zintzoagoa sortuz. Ez dugu ahaztu behar, bestalde, gure iritziak adierazterakoan zehatzak izan behar dugula, hau da, esan beharrekoa argi eta garbi esango dugu, intoleranteak eta errespetugabeak diren interpretazio absolutuak saihestuz. Besteenganako afektuak eta aldeko balorazioak zuzenak eta zintzoak izango dira, bidezkoak eta pertsona bakoitzari egokituak. Azkenik, afektu negatiboak zehazki eta egokiro adierazteko gai izatea, haien sentimendu eragileak eta jarrerak azalduz, harreman baten alderdi biak agerrarazteko modu bat da –gustukoa eta gustukoa ez dena–.

Laguntza eskatzen, ematen edota ezetz esaten jakitea. Hirurak dira, izan ere, elkarren osagarri eta hirurek jasotzen dute dugun beharrizan bat: era askotako jarduerak egiterakoan beste pertsona batzuen beharra dugu. Laguntza eskatzen ikasi behar da, argi eta zehatz, laguntza horren garrantzia ikusaraziz, eskaera –eta ez exijentzia– adierazten duen tonu gozo eta mazalaz, beste pertsonak laguntzarik ez ematea ere ahalbidetzen duen tonua, alegia. Laguntza emateak eskaera entzun behar dela esan nahi du edo guk geuk aurrea hartzea beharrezko laguntza eskainiz eta gauzatuz. Ezezkoa ematea, berriz, geure eskubidea da –12. unitatean esan bezala– zerbait ezin dugula edo ez dugula egin nahi erabakitzen badugu.

Gizarte-ekimenei hasiera ematea. Hasierakoa, Inés Monjas-en arabera (1993), hots, elkarrizketa bat, joko bat edo beste jardueraren bat hasteko gai izatea; harremanetan hasteko eta elkarrekintza kopurua handitzeko era bat da.

Elkarlanean aritzea eta banatzea. Lehen aipatutako Inés Monjas-ek dioenez, elkarlanean aritzeak eta banatzeak beste trebezia batzuk erabiltzea eskatzen du, hala nola, jardueraren norabidea eta kontrola elkartrukatzea. Ikusi ditugun beste trebetasun batzuk ere jasotzen ditu: taldeko beste kide batzuk indartzea, laguntza eskatzea eta ematea. Halaber, beste objektu batzuk uzteko eta haiekin jolasteko gai izatea eskatzen du, baita arauak errespetatzea eta irabazten eta galtzen jakitea ere. Elkarlanean aritzeko eta banatzeko gaitasuna konplexuagoa da, trebetasun txikiagoak erabiltzea eskatzen baitu.

Trebetasunen aukera zabal hau garatzeak posible egiten du haurra edozein taldetan moldatzea eta horrela gauzatu egin dezake elkartzeko, batzarrak egiteko eta talde bateko partaide izateko eskubidea. Horrezaz gain, trebetasun horiek erabiltzea garapen pertsonalerako tresna eta gida ere bada, nortasuna indartzen baitu eta berdinekin edo helduekin nahi ez diren arazoak ekidin baititzake.

■ ZER LANDU GAI HONEN INGURUAN?

Irakasleek

- Jostailuak ekar ditzatela eskatu, jolasean trukatzeko.
- Banatzeko objektu edo leku komunen erabilera ezarri.
- Elkarlanerako teknikak erabili.
- Lan-taldez aldatu.
- Elkarri laguntza emanarazi.
- Beraien arteko ekintza pertsonal eta akademikoetan errefortzuaren erabilera bultzatu.

Familiak

- Objektuak eta jostailuak beste ume batzuekin edota neba-arrebekin elkartrukatzeko erraztasunak eman.
- Adeitasun eta gizabide arauak behin eta berriz gogoratu.
- Ereduaren bidez laguntza eskatzen irakatsi, baita eskatu baino lehen ematen ere.
- Beste haur batzuekin jolas ekimenak eta elkarrizketak sustatu eta indartu.
- Familiaz edo beste pertsona batzuez egiten dituzten balorazio positiboak aitortu.

1. JARDUERA:

LAGUNA, ADISKIDEA, ADISKIDETASUNA

Jarduera honen bidez adiskidetasunaren esanahiaz gogoeta egitea, bere garrantzia nabarmentzea eta hartaz sentsibilizatzea lortu nahi da. Horretarako, jolas antzeko jarduera batean oinarriturik, ahozko komunikazioa, idatzizkoa eta ikus-entzunezkoa erabiliko ditugu. Lehenago landu ditugun trebeziak ere erabiliko dira, hala nola, entzuten jakitea, galdetzen jakitea, informazioa aztertzea, laguntza eskatzea...

■ HELBURU NAGUSIAK

- Adiskidetasunaren garrantzia ezagutzea.
- Adiskidetasunaren oinarrizko trebetasunak lantzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Zereginaz beste pertsona batzuekin hitz egitea.
- Zeregina burutzeko laguntza eskatzea.
- Adiskidetasunarekin lotzen diren kontzeptuak aztertzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: oharrak hartzeko orria, kartulina eta idazteko tresnak.

HITZA	HEDABIDEA / IZENBURUA	MEZUA

JARDUERAREN IRAUPENA: 35 minutuko bi saio.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak zeregina aurkeztuko du: hedabide guztietako izenburu edo testuak aztertuko dituzte, bai telebistan, abestietan, iragarkietan, aldizkarietan, liburuetan, bideoetan, etab. eta gai nagusitzat adiskidetasuna dutenak jaso. Gero balioetsi egingo dute hartaz ematen duten mezua.

Orri bat emango zaio ikasle bakoitzari etxera eraman dezan. Bere ingurukoen artean –lagunak, ezagunak, senideak, etab.– galdetu eta orria beteko du.

Hori egindakoan, ikasgelan bosteko taldeak eginik, bateratu egingo dira denen zerrendak; gero, jasotako mezuekin ados daudenentz eztabaidatu eta, denen artean, horma-irudi bat egingo da. Adiskidetasunaren baitan garrantzitsutzat jotzen dituzten alderdi, kontzeptu, trebetasun eta gauzak islatuko dira horma-irudian.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Euskara eta Gaztelania / Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera / Arte Hezkuntza (Plastika eta Ikus Adierazpena / Musika).

2. JARDUERA:
ENE LAGUNAK

Lagunak edukitzeak zenbait trebetasun erabiltzea dakar berekin. Jarduera honen xedea trebetasun horietaz ohartzea besterik ez da, bere lagunek dituzten nolakotasun desiragarriak azalduz. Ondoko esaldiak osatzeko, zenbat-gura trebetasun aipa daiteke, taulan ageri diren gelaxkak betez. Zehazki, jarduera honetan entzuteko gaitasuna eta bestearen lekuan jartzeko trebeziak aipatzen dira, baiezko eta ezezko adierazmena, laguntza eta elkarlana, norberaren konpromisoekin kontsekuente izateko trebetasuna...

Ikaslearen esku dago trebetasun kopurua handitzea edo murriztea, bere taldearen ezaugarrien arabera.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Lagun batengan ezaugarri desiragarriak ezagutzea.
- Adiskidetasunean funtsezkoak diren trebetasunak lantzea, hala nola, sentimendu positiboen adierazmena.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Lagunekin sortutako harremanez gogoeta egitea.
- Lagunengan nolakotasun positiboak bereiztea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: orri fotokopiatua eta idazteko tresnak.

Nire laguna:	**Bere nolakotasunak:**
	-(e)an onena da.
	ez da ni bezalakoa, baina da.
-(r)i	gustatuko litzaioke.
	ez da (r)en beldur.
	-t(z)en laguntzen dit.
-(e)k	nire gustatzen zaiola esaten dit.
-(e)k	esaten duena bete egiten du.
	ez da lotsatzen -t(z)en hasterakoan.
	gaizki nagoenean.
-(e)k	errieta egiten dit, baldin eta ni(k)

JARDUERAREN IRAUPENA: 45 minutuko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Orria banatu eta berehala erantzuteko esango zaie. Ezkerraldean lagun baten edo gehiagoren izenak idatziko dituzte eta eskuinaldea bete. Pertsona baten edo batzuen izenak behin baino gehiagotan idatz daitezke, baina hobe litzateke pertsona gehiagorenak pentsatzea.

Orria betetakoan, batu egingo dira eta tutoreak ozenki irakurriko ditu ikaskideei esleitutako ezaugarriak, bakoitzak berari buruzkoa idatz dezan. Horren ondoren, elkarrizketa bati ekingo zaio bakoitzak adierazi ahal izan ditzan jasotakoari buruzko iritziak, bere adostasun edo desadostasuna, eskerronak, etab.

Autoreek, Gómez, Mir eta Serrats-ek (1990, 169. or.) bete gabeko esaldiek joera positiboa edo neutroa izatea eta negatiboak baztertzea proposatzen dute, baita esaldi ugari eta desberdinak ematea ahalik eta pertsona gehien hartzearren.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Gaztelania eta Euskara / Atzerriko Hizkuntzak.

3. JARDUERA:
JANTZIEN JOKOA

Lankidetza funtsezko trebetasuna da talde baten bizitzan. Elkarlanaren esanahia ematekotan, bitarteko bat dela esan beharko genuke, hots, denek elkarri laguntzea helburu bera lortu ahal izateko; beste era batera esanda, denek elkarrekin lan egin ezean ez da azken emaitza edo helburura iritsiko. Taldearen beharra, mendetasuna, denak elkarren premia izatea da, hain zuzen ere, lankidetzaren berezitasun nagusia. Taldelanak, normalean, lanaren prozesua eta kalitatea hobetzen ditu, baina are onuragarriagoa da helburua elkarlana bera baldin bada.

Jarduera honek, elkarlana aztertu eta bultzatzeaz gain, giroa lasaitzeko ere balio du. Jarduera lantzeko dagoen eragozpen bakarra tokiarena da, gelan leku nahikorik ez balego, beste gela handiago bat bilatu beharko bailitzateke.

■ HELBURU NAGUSIA

- Taldearen barruan lankidetza bultzatu.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Helburu bat lortzerakoan ordenaz parte hartzea.
- Arauak onartzeko eta jarraitzeko gai izatea.
- Ikaskideek helburu bat lortzekotan egindako lana baloratzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: gimnasioan edo gela handi batean.

BALIABIDEAK: kutxa edo saski handia.

JARDUERAREN IRAUPENA: 30 minutuko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Ikastaldea bi multzotan banatuko da eta errenkadan eseriko dira aretoaren bi muturretan. Talde bakoitzeko batek bere taldekide guztien jantzi bana jasoko du (jertsea, oinetako, mantala...) eta saskian utziko, arropa guztiak nahastatu arte.

Irakasleak seinalea eman bezain laster, bi ilaretako lehenengoak irtengo dira, saskian bilatuko dute euren jantzia, jantzi egingo dute eta ziztu bizian joango dira hurrengo taldekideari txanda ematera. Bigarren ikasleak gauza bera egingo du, hirugarrenari txanda emango dio eta horrela beste guztiek. Ibilbidea arinen osatzen duen taldeak irabaziko du.

Jarduera amaitutakoan, biribilean jarrita, jokoaren gorabeherez hitz egingo dute, zeinek izan duen jantzirik zailena, zeinek ahaztu duen oinetakoa ondo lotzea eta atzera saskira etorri behar izan duen, nor jaikitzen

zen arinago, zein abantaila izan duen taldean egin izanak, zer-nolako eragina duen denok elkarlanean aritzeak...

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Arte Hezkuntza (Adierazpen Dramatikoa) / Gorputz Hezkuntza.

ETXEKOENTZAKO FITXA

Guraso agurgarriok:

Azken egunotako eskoletan gizaki guztiok, adina kontuan hartu gabe, elkartzeko eta erakundeetan parte hartzeko dugun eskubidea lantzen ari gara. Taldea nahitaezko bitartekoa da zenbait helburu lortzeko. Hain zuzen ere, badira zeregin batzuk beste pertsona batzuen laguntzarik gabe ezin egin daitezkeenak. Halaber, zenbait lan eta jardueraren azken emaitza hobetu egiten da elkarlanaren bidez. Taldea, hortaz, iturburu paregabea da norberaren hazkuntzarako.

Bestalde, taldea dugu sarritan geure beharrizanak asetzeko topaleku. Horrela, talde bateko partaide izateak gure helburu bera duten pertsonekin bat egiten gaitu. Taldeari esker, denok dugun beharrizan bat asetzen da: nonbait edo zerbaiten partaide sentitzea, kide izatea, alegia; bestela esanda, "badut leku bat, banaiz nor neure ingurunean".

Helburuen arabera, talde mota desberdinak daude. Batzuek izaera erlijiosoa dute, beste batzuk aisialdi taldeak dira, lantaldeak, ikastaldeak, boluntario taldeak, kultur taldeak, etab. Lagun taldea izaten da, ordea, ia denok hurbilen bizi dugun gizaki multzoa. Lagunak, adiskideak, gorabehera eta arazo psikologiko askoren prebentziorako eragileak dira. Gizarte sostengu egokia duen pertsona ez da hain gaixobera izango eta, gaixotuko balitz ere, sendatzeko errekurtso gehiago ditu; hitz batean, zoriontsuagoa da.

Gaur zeregin erraza dakarkizugu: mintza zaitezte zeuen seme-alabekin gai horretaz. Seguru asko zuengana jo izan dute ezagutzen dituzuen taldeez galdezka, talde horiek zer egiten duten jakin nahian. Abaguneari probetxua atera eta konta iezaiozue talderen bateko partaide izan zareten edota oraindik ere bazareten, zergatik aukeratu zenuten, etorkizunean talderen batean parte hartu nahi zenuketen eta zergatik... Euren iritzia ere eskatu.

Hitz egizue zeuen lagunez eta bereez. Zein onura dakarren lagunak edukitzeak, zein ezaugarri eta nolakotasun diren garrantzitsuak lagun batengan eta nolakoak diren zeuen lagunak.

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

UNITATEAREN BALORAZIOA

Egizue argazki-album bat zeuen lagunen irudiez eta idatzi argazki bakoitzaren ondoan bere ezaugarri positiboak. Argazkirik ez badaukazue, marraztu.

FAMILIA GUZTIAK EZ DIRA NIREA BEZALAKOAK

■ IDEIA NAGUSIA

Familia bilakatuz doan gizarte-egitura da. Bilakaera hori dela eta, familia tradizionalaren kontzeptutik egitura heterogeneoago batera igaro da, non ohiko "familia gunea"rekin batera, gero eta sarriago ikus daitezkeen bestelako familia motak, hala nola, guraso bakarrekoak, pertsona bakarrekoak, adiskidetasunak edo interesak eragindako "elkargoak", haurrik gabeko bikoteak... Hauxe da, familia giroari gagozkiolarik, haurrak aurrez aurre topa dezakeen aukera sorta. Bestalde, badira tratu txar eta babesgabetasun kasuak ere. Horietarako, familia-babesa eta adopzioa soluziobide egokiak izan daitezke eta, eurak ere, beste familia egoera desberdin bat dira.

(Unitate hau eta hurrengoa, *"Etxean denok gara bat"*, elkarren osagarri dira)

■ HELBURUAK

- Norberarena ez bezalako familia-antolamendu ereduak errespetatzen irakastea.
- Zenbait pertsona bere jatorrizko herrialdetik ihes egitera behartzen duten arrazoiak ezagutzen laguntzea.
- Pertsona askorentzat bere herria eta bere senideak atzean utzita atzerrira joatea zer den hobeto konturatzea.
- Familia- eta gizarte-deserrotze arazoak dituzten ikasleak eskolaratzean gure ikasleek zer-nolako jarrerak erakusten dituzten azter ditzaten bultzatzea.
- Ikasle bakoitzak duen familia-giroaren alde positiboez ohartzen laguntzea.

■ UNITATEAREN GARAPENA

Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmena (1989) berretsi duten estatuek haurraren garapenerako oinarrizko beharrizanei erantzungo dietela hitzematen dute, adibidez, etxebizitza eta familia-giroan bizitzeko eskubideari (5., 10. eta 18. artikuluak). Hala ere, familia-giroak ez dira denak berdinak, bistan da, eta ume guzti-guztiek ere ezin dute familia bat izateko eskubidea baliatu.

Hasi aurretik, familiak azken garaiotan jasan duen bilakaera nabarmendu beharra dago. Bilakaera edo eraldaketa hori, hain zuzen ere, emakumea lan-munduan eta politika-zereginetan sartuz joan den heinean gertatu da. Patriarkaren familia-eredua zalantzan jarri da eta gizarteko hainbat esparrutan sexu bien aukera berdintasuna bermatzen duten lege aldaketak sortu dira; horren ondorioz, gizartearen bilakaera horretan emakumea ez da, dagoeneko, etxeko giroaren erantzule bakarra eta familia antolatzeko eredu berriak agertzen dira. Honako hauek ditugu nabarmenenak:

- Bikotea eta ondorengoa(k) dituen familia. Kasurik gehientsuenetan bikote heterosexualek osatutakoak izan ohi dira, baina badira intseminazio artifizialera jotzen duten homosexualak –lesbianak, kasu– edo –gizonezkoen kasuan– seme-alabak izateko ama ordeztua edo hartzailea erabiltzen dutenak ere.

- Guraso bakarreko familiak. Familiotan seme-alabak guraso bakar batekin bizi dira (banandu, alargun, ama edo aita ezkongabearekin).
- Ondorengorik gabeko familiak.
- Pertsona bakarreko familiak, hots, bakarrik bizi den pertsona batek osatuak.
- Lotura afektiboek edo interesak eragindako elkarbizitza-harremanak edo "elkargoak", familia kolektiboak adibidez.

Gizarte-aldaketa horren baitan, guraso biak lanean ari direlarik, erabakigarria izaten da aitaitak eta amamak, aitona-amonek, euren iloben garapen afektibo eta sozialean, baita baloreen transmisioan ere, duten papera. Hainbat kasutan beraiek betetzen dute gurasoen eginkizuna.

Etorkinen kasua dugu gorantz doan beste fenomeno berri bat (10. artikulua). Haien artean familia-egoera desberdinak izaten dira. Batzuetan bikote gazteak izaten dira, seme-alaba txikiak jatorrizko herrialdean euren gurasoekin edo neba-arrebekin utzi dituztenak, haiek ardura daitezen umeen hazkuntzaz herrialde berrian behin betiko kokatu ahal izan arte. Urteak joan eta urteak etorri, bikote horiek haur gehiago izaten dituzte herrialde berrian. Seme-alaba nagusiek, berriz, ez dituzte neba-arrebak ezagutzen, harik eta gurasoek lan egonkortasun apur bat lortu arte eta herrialde berrira, familiaren baitara, ekarri ahal izan arte. Egoera horrek familiaren desegituraketa handiagoa ekar dezake: seme-alaba nagusiak urtez urte etortzen dira –ez beti denak batera–, euren neba-arreba gazteagoak ezagutu ere ez dituzte egiten eta, beraz, pertsona arroztzat dauzkate eguneroko elkarbizitzan. Herrialde hartzailean jaiotako haurrek ez bezala, familia-deserrotze arazo handiagoak dituzte.

Normalean lan prestakuntzarik izaten ez duten etorkin horien ondoan, formazio-maila altuarekin datozenak ditugu (musikariak, zientzialariak, hizkuntzetan adituak...). Horiek ez dute aparteko familia-arazorik edo ekonomikorik jasaten; gehienez ere, herrialde hartzailearen hizkuntza, ohitura eta bizimodu berrietara egokitzetik datozkie zailtasunak.

Kontuan hartzeko beste kasu bat ere badugu: zenbait haur arriskuan edo babesgabetasunean daude eta, hortaz, ezin bizi daitezke guraso biologikoekin. Horientzat adopzioaren aukera dago (21. artikulua), hots, "familia-harreman berria, biologikoaren pareko edo berdina; hori dela eta, adoptatutako haurra eta guraso natural edo biologikoen arteko familia-loturak, pertsonalak eta juridikoak haustea ezartzen da eskuarki" ("UME ALAIA" adopzioaren laguntzarako erakundetik jasotako informazioa). Adopzioaz gain, familia-egituratik ahalik eta hurbilen dagoen bizitetxea eskaintzeko asmoz, hor daude familia-abegiaren figura eta abegi-etxeen aukera ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan zehazki, 21/1987 eta 1/1996 Lege Organikoen eta Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmenaren arabera, Foru Aldundietako Gizarte Zerbitzuen Sailek "Haur eta Gazte Programa" antolatu dute adingabekoak edozein tratu txarretatik babesteko asmoz. Are gehiago, programa horrek aldarrikatzen duenez, adingabekoak "familia-giroan hazteko eta garatzeko eskubidea dauka; gure erakundea iritzi berekoa da eta, beraz, haurraren eskubideak bermatu, jagon eta defendatzeko erantzukizuna daukagu, inolako salbuespen barik", betiere "lehentasuna bere familian mantentzeko edo hartara itzultzeko egiten diren jokabideei emanez". (http:// www.bizkaia.net).

■ ZER LANDU GAI HONEN INGURUAN?

Irakasleek

- Desberdinarenganako errespetu eta bizikidetasun jarrerak sustatu.

- Familia-egitura desberdinekiko eta adopzioa duten familiekiko jarrera positiboak erakutsi.
- Etorkinen seme-alabek izan dezaketen moldaera-arazoen aurrean erantzun egokiak eskaini (curriculumeko eduki esanguratsuak, elkarbizitzaren aldeko dinamikak...).
- Ohikoak ez diren familia-egoeretan bizi diren ikasleak (adopzioa, abegi edo babesa, guraso bakarreko familiak, etab.) pertsona arrunt eta maitatuak senti daitezen saiatu.

Familiak

- Gizarte lehiakor bateko bizimoduaz eta familiaren eginkizunaz gogoeta egin.
- Familia-egitura desberdinekiko eta adopzioa duten familiekiko jarrera positiboak erakutsi.
- Giza talde "gutxitu"ren bateko kide izanez gero, taldearen biziraupena suspertzekotan babeslekuetan isolatu barik, komunitatearen bizitzan gizarteratu.

1. JARDUERA:

NIRE FAMILIA ETA ZUREA EZ DIRA BERDINAK

Emakumea lan eta politika munduan sartu izanak ekarri dituen gizarte-aldaketek familia patriarkalaren eredua zalantzan jarri eta, aldi berean, egitura eta antolabide berriak iradokitzen dizkigute.

Are gehiago, ugalketa-tekniketan izan diren aurrerakuntzei esker, familiak zeukan ugalketa-xedea bera ere galduz doa eta emakumeak berez izan ditzake seme-alabak aita nor duten jakin beharrik gabe; gizonezkoek ere izan ditzakete, ama ordeztuen edo hartzaileen bitartez.

Horren ondorioz, hainbat haur hazten ari da tradiziozko antolabideetatik urrun dauden familia-ereduetan; hori dela eta, balore berriak bereganatzen ditu eta rol desberdinak garatzen.

Jarduera honen bidez familia-mota desberdinak aurkeztu nahi dira, ohitura eta tradizioetan oinarrituak ez ezik, baita gizaki autonomo eta garatu legez hartutako erabakietan bereziki oinarritzen direnak ere. Ikasleek familia-egitura desberdinez egiten duten irudikapena ezagutzea da helburua.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Gurea ez bezalako familia-eredu desberdinak errespetatzen ikastea.
- Gizarte-eraldaketak eta familia-egituretan gertatutako aldaketen arteko lotura bilatzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Familia antolatzeko egitura desberdinak definitzea.
- Horiek izatearen arrazoia ematea.
- Nork bere iritziak adieraztea eta besteena entzuten jakitea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: paper zuria, boligrafoak eta margoak.

JARDUERAREN IRAUPENA: ordubeteko saio bat.

JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak jarduera aurkeztuko die honako hau esanez: *"Zuek ezagutzen dituzuen familia-mota guztiak marraztuko dituzue. Lehen-lehenik zeuen familiaz gogoratu. Pentsa ezazue nolako egitura daukaten beste ikaskide batzuen familiek ere, zeuen auzokoek..."*.

Orriak banatuko ditugu eta ikasleei beraiek ezagutzen dituzten familia-motak marrazten saia daitezela eskatuko diegu.

Marrazkiaren azpian hauxe idatziko dute:

- Nor da familia horretako pertsona bakoitza?
- Maiz ikusten al da horrelako erakunde-motarik?
- Zergatik dira desberdinak bata eta bestea?
- Familia horretan bizitzea gustatuko litzaizuke?

30 bat minutu erabiliko ditugu jardueraren lehen zati hau egiteko. Gero, ikasle bakoitzak berak marraztu duen familia-motak azalduko ditu, zeintzuk diren bere ezaugarriak, zein berezitasun duten eta familia-eredu bakoitzak zer sentiarazten dion. Irakasleak ahaleginak egin behar ditu elkarbizitza aukera guztiak errespeta daitezen eta, orobat, familia-egitura guztiak isla daitezen; izan ere, oso erraza baita ikasleek familia-ereduren bat ez ezagutzea edo ahaztea, bere inguruan halakorik ez dagoelako edo, etxeko printzipio moralen aurka doazela eta, beldurrez, bere familian aipatu ez dutelako.

Amaitzeko, irakasleek *"Estación de Babilonia"* ipuina irakurtzeko gomenda diezaieke (Intermón-ek eta Bruño-k editaturiko *Pequeños Ciudadanos* bildumakoa, 1999), ipuin horretan familiaren barneko elkarbizitza-arazoak azaltzen baitira.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Euskara eta Gaztelania / Arte Hezkuntza (Plastika eta Ikus Adierazpena).

2. JARDUERA:
HAU BIZIMODUA!

Etorkin familiek seme-alaben garapen sozioafektiboa arriskuan jartzen duten egoera latzak bizi izaten dituzte sarritan. Familia horiek askotan bananduta bizi behar izaten dute, herrialde hartzailera apurka-apurka etortzen baitira. Baliabide ekonomikorik ez dutenez, hasiera batean bikotea edo bietako bat baino ez da joaten atzerrira, seme-alabak beraien osaba, izeko, aitona eta amonekin utzita.

Geroago, umeak etortzean, familia-desegituraketa eragile negatiboa izaten da eskolara moldatzerakoan; bigarren hizkuntza bat ikasteko zailtasuna gehitu behar zaio horri, are gehiago ama-hizkuntzan oraindik hizkuntz gaitasun osoa lortu ez badu. Bestalde, arazoak ere ez dira gutxi izaten ohitura eta balore desberdinak dituen herrialde berri batera egiterakoan.

Jarduera honetan herrialde behartsuren batetik etorri eta Euskal Herrian kokatzea erabaki duen familia bat gonbidatuko da ikastetxera. Bisita horren bidez, saiatu egingo gara erabaki horren arrazoiak ulertzen eta geure ikasleengan errespetu jarrerak sustatzen, antzeko egoeran dauden pertsonekiko elkarbizitza hobetzeko ekintzetan inplikatuz. Ikasgelan horrelako ikaslerik balego, kontu handiz helduko zaio gaiari edo, egokia irizten badiogu, aukera baliatu eta beraiek azal dezakete esperientzia hori, gainontzeko ikasleek arazoa hurbiletik senti dezaten eta aipatu jarrerak egoera erreal batean gauzatu ahal izan ditzaten.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Zenbait pertsona bere jatorrizko herrialdetik ihes egitera behartzen duten arrazoiak ezagutzen laguntzea.
- Pertsona askorentzat bere herria eta bere senideak atzean utzita atzerrira joatea zer den hobeto konturatzea.
- Familia- eta gizarte-deserrotze arazoak dituzten ikasleak eskolaratzean, gure ikasleek zer-nolako jarrerak erakusten dituzten azter ditzaten lortzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Etorkinek emandako informazioa entzutea eta jasotzea.
- Gaiari buruzko alderdi batzuez galdetzea.
- Gonbidatutako familiari etorri izana eskertzea.
- Zerbaitetan lagundu ahal izanez gero, prest gaudela adieraztea.
- Horrelako familientzat lagungarri izan litezkeen ekintza txiki jakin batzuk egiteko konpromisoa hartzea norberak.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ohiko ikasgelan eta batzar gelan.

BALIABIDEAK: papera eta boligrafoak.

JARDUERAREN IRAUPENA: ordubete eta 45 minutuko saio bakarra.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak honela aurkeztuko du jarduera: *"Gure ikastetxera etorkin familia bat gonbidatuko dugu. Familia horrek gure artera etortzea erabaki du euren seme-alabei etorkizun duinagoa eskaini ahal izateko. 60 bat minutu izango dituzue haiei entzuteko. Galdera sorta bat prestatuko dugu, horrela gure kezka eta jakinminen inguruan eratu ahal izan dezaten informazioa".*

Irakasleak animatu egingo ditu ikasleak etorkinei egin nahi lizkieketen galdera guztiak presta ditzaten. Ekarpen guztiak batu ondoren, ikasleek aipatu ez dituzten alderdi batzuk gehituko dira. Prestatutako galdekizuna familiari emango zaio aurretiaz.

Behin familiarekin hitzartutako eguna helduta, irakasleak aurkeztu egingo ditu eta eskertu egingo die etorri izana. Gonbidatuek euren azalpena amaitu eta gero, ikasleek egoki deritzeten galderak egiteko aukera izango dute.

Azalpenaren osteko egunean bateratze saioari ekingo zaio, eta honako alderdi hauetaz hitz egingo da:

- Zergatik erabaki zuten herrialdez aldatzea?
- Familia horretako zein geratu da jatorrizko herrian eta norekin?
- Zeintzuk bizi dira herrialde hartzailean?
- Sarritan mintzatzen dira telefonoz edo ikusten dute elkar gurasoek eta seme-alabek?
- Zein auzotan bizi dira? Hirigunetik hurbil? Gizarteratuta daude ala kanpoaldean kokatu dira?
- Nolako etxean bizi dira?
- Norekin dituzte harremanak herrialde hartzailean?
- Hizkuntza berria(k) ikastea kostatu zaie?
- Herrialde berrian bizi diren seme-alabak pozik daude ala herri-mina dute?
- Pozik al doaz eskolara? Nolako eskolan matrikulatu dira?
- Noiz espero dute falta diren senideekin elkartu ahal izatea?
- ...

Bateratze saioa amaiturik, ikasleei era honetako egoeren aurrean zein jarrera eta zein inplikazio-maila izan beharko luketen aztertzen lagundu behar zaie.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Euskara eta Gaztelania.

3. JARDUERA:
BAKARRIK EZ!

Adopzioa, *familia-abegia edo abegi-etxea* bere familia biologikoarekin ezin bizi diren umeentzako aukerak dira.

Haur bat *adoptatzeko* erabakia ez da batere erraza izaten eta hori egitera doazenek, euren familian kide berri bat izateak ekar ditzakeen eragozpen eta zalantzak direla eta, itzelezko ziurtasun eza sentitzen dute. (*"Nolako harrera egingo diote gure inguruan?", "esan behar ote diogu adoptatua dela?", "guraso biologikoak baino hobeak izango ote gara?"...*). Gainera, adopzioak prozesu luzea izaten du. Lehenik, adopzio ("*umeordetza*") bat nahi duten pertsonek Foru Aldundietako Gizarte Ekintza Sailera joan behar izaten dute, gizarte-laguntzaileekin hizketaldi bat izateko. Han hartu beharreko lehenengoetariko erabakia izaten da ea nolako adopzioa izango den, *barrukoa* ala *nazioartekoa.*

Abegi etxeak, berriz, *"bere familiaren baitan beharrizan material, afektibo eta hezkuntzakoak beteta ez dituzten haur eta nerabeei harrera osoa egiteko helburua duten ordezko etxeak"* dira (http://www.alava.net). Euskal Autonomia Erkidegoan, 60 abegi-etxe baino gehiago dira; horien helburua etxerik gabeko adingabeei laguntza psikologiko eta mantenua ematea da, adingabe horiek bai adimen aldetik eta bai gizarte mailan, eta maila afektiboan ere, garapen orekatua lor dezaten. Halaber, *familia-abegia* dugu adingabe horien beharrizanei erantzuteko beste era osagarri bat. Lege figura horren bidez adingabekoa familia baten bizitzan sartzen da erabat; adingabekoa hartzen duenak hura zaindu behar du, berekin eduki, jaten eman, hezi egin behar du eta prestakuntza osoa eman behar dio (http://www.bizkaia.net). Aukera horren barnean modalitate desberdinak daude:

- *Familia-abegi soila:* aldi baterako da, eta, hortaz, haurra bere familiarekin itzuliko da.
- *Familia-abegi iraunkorra:* ez da aurreikusten haurra jatorrizko familiarekin itzuliko denik.
- *Abegi irekia:* haurra familia hartzailearekin asteburu eta oporraldietan izango da. (http://www.comadrid.es)

Jarduera honek adopzioa dela-eta izan daitezkeen aurreiritziak zalantzan jartzea eta eztabaidatzea du helburu, eta, orobat, familiarik gabeko haurrei abegi-etxeetan eskaintzen zaizkien aukerak ezagutzea, horren bidez ondorio honetara iristeko: familiarik gabeko haurrak, bere gaitasunak era egokian garatu ahal izateko, besteok ditugun beharrizan bertsuak dituzten pertsonak dira.

Gai hau lantzerakoan, kontuan izan behar da ikasgelan egoera horretan dagoen ikaslerik badagoenentz.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Familia- eta gizarte-deserrotze arazoak dituzten ikasleen aurrean zer-nolako jarrerak erakusten dituzten azter ditzaten lortzea.
- Ikasle bakoitzak duen familia-giroaren alde positiboez ohartzen laguntzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Adopzioa, familia-abegia eta abegi-etxea kontzeptuak argitzea.
- Nork bere iritziak adieraztea eta beste ekarpen batzuk entzuten jakitea.

- Esker ona eta elkartasuna adieraztea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan, adingabekoen abegi-etxe batean eta adopzioaren aldeko erakunderen baten egoitzan.

BALIABIDEAK: papera eta boligrafoa.

JARDUERAREN IRAUPENA: ordubeteko saio bat ikasgelan eta bisitak egiteko behar den denbora.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Hasi aurretik irakasleak jarduera aurkeztuko du hau esanez: *"Adopzioa eta abegi-etxeei buruzko inkesta bat egingo dugu"*.

Hasteko, ikasleek bakarka erantzungo diete inkestako galderei. Ikasleek adopzioaz eta abegiaz zer dakiten konturatzea da horren helburua.

ADOPZIOA

- Zer dela-eta hartzen dute guraso batzuek haur bat semetzat edo alabatzat?
- Zergatik izan behar dute hizketaldi bat gizarte-laguntzaileekin? Zertaz uste duzu zuk mintzatzen direla?
- Zure ustez berdina al da haurtxo txiki bat edo zortzi urteko neskato edo mutikoa adoptatzea?
- Zure iritziz edozein adinekin da posible adopzioa, bai gurasoen adinari eta bai haurraren adinari dagokionez?
- Arazoak dituzten haurren adopzioa ohikoa dela uste duzu?
- Zer deritzozu adopzioari?

ABEGI-ETXEAK

- Abegi-etxerik ezagutzen duzu?
- Zein arazo izaten dute, zure iritziz, horrelako zentroetan egoten diren umeek?
- Zer moduz bizi direla uste duzu?
- ...

(Hogei bat minutuko tartea emango diegu erantzuteko)

Jarraian bateratze saioari ekingo diogu eta irakaslea ikasleen ekarpenak jasotzen saiatuko da.

Ariketa osagarri gisa bisita bat antola liteke Euskal Herriko[1] abegi-etxe batera edota adopzioaren alde lan egiten duen erakunderen baten egoitzara (Ume Alaia Bizkaian, Besarka Araban edo Haurralde Fundazioa Gipuzkoan, adibidez).

Bisitak egin eta gero, berriz ere ikasgelan, izan dituzten bizipen eta esperientziak aipatuko dira eta gai horietaz aurretiaz zeuzkaten ezagutzekin –inkestan batutako informazioekin– alderatuko dira.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Euskara eta Gaztelania / Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera.

ETXEKOENTZAKO FITXA

Guraso agurgarriok:

Zeuen seme edo alabarengan jakin-mina piztu duten gaiak beraiekin batera azter ditzazuen nahi dugu. Oso interesgarritzat jotzen dugu gurasook ere adopzioaz, abegi-etxeez edo baliabide ekonomiko urriak dituzten etorkinen familiak gizarteratzeari buruz gogoeta egitea eta aldeko jarrera erakustea, zeuen seme/alabari zuek duzuen informazioa emanez.

Prestatuta dugun jarduera baten berri ere eman nahi dizuegu: Euskal Herrira bizitzera etorri den etorkin familia bat etorriko da gure ikastetxera, beren esperientzia eta beren bizipenak kontatzera eta beraientzat zer den seme-alaba eta senide batzuk euren herrian utzi behar izana. Zeuek ere etor zaitezkete azalpen hau entzutera. Jakinaraziko dizuegu solasaldi hori zein egunetan eta zein ordutan izango den.

Bestalde, egokia balitz, bi irteera ere egingo genituzke. Bata abegi-etxe batera egingo genuke; bestea, berriz, adopzioan haur bat seme edo alabatzat hartu nahi duten pertsonei informazio eta laguntza ematen dien erakunde baten egoitzara. Eskertuko genizueke leku horietan zuen seme edo alabak izandako bizipenez interesa erakutsi eta beraiekin hitz egingo bazenute.

Azkenik, zeuen seme edo alabarekin batera *"Estación de Babilonia"* izeneko liburua (Intermón-ek eta Bruño-k editaturiko *Pequeños Ciudadanos* bildumakoa, 1999) irakurtzea gustatuko litzaiguke. Liburu hori irakurtzea gomendatu diegu ikastetxean, gaurko gizartean aurki daitekeen aniztasuna eta familia-mota desberdinak ezagutzen eta onartzen lagunduko diolakoan.

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

UNITATEAREN BALORAZIOA

Ikasleengan benetan errealitatea begiratzeko eta ulertzeko eran aldaketarik gertatu den ala ez neurtzea komeni da; ea errespetu eta tolerantzia jarrerak antzematen diren familia-egitura mota desberdinekiko eta deserrotze-arazoak dituzten etorkinek osatutako familiekiko; ea etxerik ere ez duten eta abegi-etxeetara jo behar izaten duten pertsonenganako jarrera positiboa den ala ez.

Norberaren familia ez bezalako beste egitura horiek zergatik sortzen diren galdetzean hasten da sentsibilizazioa; errealitatea ikustean, aztertzean, alda daiteke apurka-apurka pertsona horienganako jarrera.

Jarduerak lantzean, norabide horretan egiten diren aurrerapausoak honako hauek behatuz ebalua ditzakegu:

- Erreakziorik baduenentz (jakin-mina, sentikortasuna...) jarduerak egin bitartean.
- Familia-egoera desberdinak ezagutu nahi dituen ala ez.
- Jarrera adeitsu eta errespetuzkoa erakutsiz hitz egiten duen ala ez.
- Ea hausnarketarik egiten duen eta gonbidatutako edo bisitatutako pertsonekin ikuspuntuak alderatzen saiatzen den.
- Gertatzen diren gizarte-bereizketen zioak aurkitzen ahalegintzen den ala ez.
- Familiaren elkarbizitzan diren desberdintasunak azaltzeko arrazoiak emateko gai denentz.

1 Foru Aldundietan jaso dezakegu geure inguruko abegi-etxe edo harrera etxeei buruzko informazioa.

ETXEAN DENOK GARA BAT

■ IDEIA NAGUSIA

Seme-alaben garapenaren erantzukizuna gurasoek dute. Gaur egun, ordea, sarri askotan guraso biek etxetik kanpo egiten dute lan; hori dela eta, etxeko zereginak eta seme-alaben eta aitona-amonen ardura eta zainketa senide guztien betebeharrak dira. Familiak maitasun gune izan behar du eta, aldi berean, talde eraginkorra: etxeko denok elkar harturik maitasuna eta zereginak ardurakidetzaz banatu behar dituzte.

■ HELBURUAK

- Beste kide esanguratsuekiko harremanak sustatzea.
- Etxekoen arteko ardurakidetzari buruz gogoeta egitea.
- Famili eredu desberdinak ezagutzea eta honek familiaren bizimoduan izan ditzakeen eraginez jabetzea.
- Erabakiak hartzerakoan, emakume edo gizonezko izatearen aurreiritziek duten eragina ikertzea.
- Senide bakoitzarekiko jokabide desberdinak aztertzea.

■ UNITATEAREN GARAPENA

Familia haurrak hurbilen duen giza taldea da eta haren beharra du bai fisikoki eta bai emozionalki bere lehen urteetan. Han mamitzen dira bere lehen lotura afektiboak. Zentzu horretan, behin baino gehiagotan egiaztatu ahal izan da jatorrizko familiarengandik era traumatikoan banatutako umeek ondorio kognitibo-afektiboak nozitzen dituztela.

XVIII. mendetik hona familiak izan duen bilakaera aztertuko bagenu, hainbat aldaketaz ohartuko ginateke. XVIII. mende osoan zehar, baita oraindik berrogeita hamar urte ez dela ere, familiak hiru belaunalditako partaideek osatuak izaten ziren. Industriaren garapena eta hirietako bizimoduaren eraginez, familiaren osaketa bi belaunalditara mugatuz joan da. Egun, ohiko familiaren egitura bi gurasoek eta seme-alabek osatzen duten arren, badira guraso bakarreko familiak ere, haurrik gabeko bikoteak, elkarrekin bizi diren lagun taldeak edota bestelako elkarteak, adopzio kasuak eta lotura zuzenik gabeko bi belaunaldiren arteko elkarbizitza. Bilakaera horren ondorioak edozein ikastetxetako edozein gelatan agertzen zaizkigu eta horien aurrean zuhur eta kontuz jokatu behar izaten da.

Batzuetan gaiaren analisia eta aipamena bera ere saihestu egin izan da, ikaslearen sentiberatasuna ez mintzearren edota ikasle hori eta beste taldekideen arteko harremanetan izan dezakeen eraginagatik. Hala ere, gehienok egiaztatu ahal izan dugu azkenean kontu hauek jakin egiten direla eta behin informazioa beste ikasleengana helduz gero, irakasleak esku hartu beharra izaten duela, sarritan larrialdietako neurriak hartzeraino.

Bestalde, emakumea lan-munduan sartzeak ageri-agerian utzi du etxean orain arte egin izan dituen zereginen balioa, bereziki haurren eta pertsona nagusien ardura eta zainketa. Horren ondorio zuzena da, izan ere, etxeko zeregin hauek burutzeko hirugarren pertsona bat kontratatu behar izatea. Dena dela, Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmenak dioenez, gurasoak edota tutore legalak dira haurraren zainketa eta garapen osoaren erantzule. Estatuak, berriz, eskubide hori errespetatuko du eta haurra ez du bere gurasoengandik gogoz kontra banatuko, bere interes nagusiaren mesedetan ez bada behintzat.

Laburbilduz, familia da haurrak gertuen duen giza taldea, aldi berean maitasun gune eta heziketa gune: familiaren barruan sortzen diren lehen lotura afektiboek eskainiko dizkiote haurrari gizarteratzeko beharko dituen segurtasun eta autoestimurako bideak. Familiaren baitan ikasiko du bestea ezagutzen ere, baita zein den kide esanguratsua eta zein ez. Azkenik, familia dugu eredurik egokiena –hantxe baitira osagai afektibo guztiz sendoak– modelatze-ikaskuntzarako, kultur transmisiorako edota ikasteko motibazioa lortzeko oro har.

■ ZER LANDU GAI HONEN INGURUAN?

Irakasleek

- Barneraturik ditugun aurreiritziak aztertu (curriculum ezkutuaren berrikusketa).
- Geure geletako ikasleen familia errealitatea ezagutu.
- IHP, IIP eta AJA egokitu, klaustroan egindako hausnarketa sakonaren ondorioz beharrezkoa ikusiko balitz.
- Eredu demokratikoak eskaini, eta ez autoritarioak.
- Geure ikasleen familietako eredu desberdinak direla-eta sor daitezkeen arazoak behar bezala tratatu.

Familiak

- Semeak edo alabak garapen egokirako behar dituen maitasun eta zainketa izango dituela bermatu.
- Senideen artean komunikazio garbia bultzatu.
- Etxeko zereginetan elkarlanerako azturak sustatu.
- Etxeko eginkizunetan ardurakidetza ezarri.

1. JARDUERA:

MARRAZ DEZAGUN GEURE FAMILIA

Familia da gure jatorrizko gunea, gure sorburua. Familiaren baitan ematen ditugu geure bizitzaren lehen urteak eta, izan ere, familia giroan izaten ditugu geure egokitze-esperientziak bizitzeko lehen aukerak, baita lehen gatazkak ere zenbaitetan. Eskuarki lokarri sendoak izaten ditugu senitartekoekin. Lokarri hauetako batzuk sentipen positibo gisa bizi izaten ditugu; beste batzuk, berriz, agerian ez bada ere, ondoezaren motibo izan ohi dira.

Senitartekoekin izandako harreman onek eta haiekiko gatazkak konpontzeko moduek baldintzatu egiten dituzte, hein handi batean behintzat, aurrerago beste giza talde batzuekin izango ditugun harremanak. Jelosiak, anai-arreben arteko bekaizkeriak, autoestimu arazoak, agintariekiko menpekotasuna... sarri askotan geure jatorrizko familiarekiko harremanen aztarna izaten dira.

Haurrei balizko familia bat irudikatzeko edo marrazteko eskatzen zaienean, euren senideenganako hainbat sentipen islatzen dute egindako marrazkian (Corman, 1967). Islapen-test horien balio erlatiboa onartuta ere, haurrak egiten duen familiaren marrazkiak argibide baliotsuak eman diezazkioke irakasleari eta, argibideok errealitatearekin alderatu beharko diren arren, oso erabilgarriak izan daitezke erarik egokienean esku hartu ahal izateko.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Balizko familia bat irudikatuz gozatzea.
- Senideekiko jarrera desberdinak aztertzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Ikasleen familia errealitatea hobeki ezagutzen lagunduko digun ekintza bat burutzea.
- Besteen desberdintasunak onartzea.
- Desberdintasunak ezagutzeko bitartekorik egokiena, hots, komunikazioa sustatzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: Orri zuriak eta arkatza aurreneko jarduerarako. Aldizkariak, kolore eta tankera desberdinetako paperak, kolorezko oihalak, margoak eta kola.

JARDUERAREN IRAUPENA: 60 minutuko saio bat (15 minutu hasierako jarduerarako eta 40 minutu horma-irudirako).

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Ikasleei era honetara aurkeztuko zaie eginkizuna:

"Gaurkoan familiaz egingo dugu gogoeta. Guk geuk irudikatuko dugu familia hori. Lehenik pentsatu egingo dugu eta, ondoren, familia hori orri batean marraztea nahi nuke. Marrazkia egiteko arkatza besterik ez duzue erabiliko. Marrazki guzti-guztiak izango dira onak, zeuenak baitira; hori dela eta, ez dut nahi aldamenekoak egiten duen marrazkiari begiratzerik".

Ikasleak, marrazkiak amaitu ahala, hartarako zehaztu den tokian utziz joango dira. Irakasleak irudiok ontzat hartuko ditu eta denak batutakoan era honetako iruzkin orokorrak egingo ditu: "Familia batzuetan pertsona asko daude eta beste batzuetan gutxi», "Familia batzuetan anai-arreba gehiago dira beste batzuetan baino"... eta ikasleek ere euren ekarpenak egin ditzaten aukera emango die, ekarpen horiei esker ikasleen aurreiritzi eta aurretiko ezagupenen berri izan baitezake.

Lehen fase hau amaitu ondoren, ikasleak lauzpabosteko taldeetan elkartuta, familia bat adierazten duen collagezko horma-irudi bana egin dezaten proposatuko diegu. Taldekideek euren artean eztabaidatu eta erabaki beharko dute aurretiaz familia horretako senide kopurua, senide bakoitza horma-irudiko zein lekutan kokatuko den, zein jarrera duen, zertan diharduen, baita horma-irudiaren ezaugarri artistikoak ere (koloreak, tamainak, material motak...). Behin horma-irudiak amaituz gero, agerian jarriko dira eta beraien arteko desberdintasunez talde handian hitz egingo.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Tutoretza / Arte Hezkuntza (Plastika eta Ikus Adierazpena).

OHARRA: Irakasleek lehen fasean bakarka eginiko irudiak aztertuko ditu eta irudion berezitasunei erreparatuko die. Behaketa horretatik argibide ugari atera lezake eta, geroago, informazio hori guztia egilearekin berarekin edota bere familiakoekin egiazta lezake.

2. JARDUERA:

BIZI AL GAITEZKE FAMILIARIK GABE?

Gizakiok senitartean sortu eta hazten gara. Berdintsu izaten da animalien artean ere, nahiz eta jatorrizko familiarekiko haiek eta guk ditugun menpekotasun aldiak desberdinak izan.

Familia ereduak aldatu egiten dira senide kopuruaren eta euren arteko ahaidetasun motaren arabera. Desberdintasun horiek gorabehera, edozein giza talde legez, familiak hainbat eginkizun betetzen ditu eta gizakiok haren beharra dugu gutxienezko heldutasun maila erdietsi arte, bai harengandik banandu ahal izateko, baita geure familia-unitate propioa osatu ahal izateko ere. Izan ere, senitarteengandik banantze hori zenbait gatazka eta traumaren sorrera dateke pertsona batzuentzat.

Gaur egungo gizartean familia eredu desberdinak ageri zaizkigu eta maiz ikus daitezke egitura eta kopuru desberdinetako familiak, ondorengo zuzenak izan zein seme-alabatzat hartutako haurrak izan. Adopzioa, ordea, ez da atzo goizeko usadioa gure artean. Historian barna, depresio ekonomikoak izan direnetan, Euskal Herrian bereziki, sarri gertatzen izan dira adopzio kasuak, alde batetik, eta seme-alabak bertan behera abandonatzea, bestetik. Horrela, XVIII. mendearen hasieran ere baziren *kaxako ume* edo "*uriko*"-ei emandako laguntzari zegozkion gastu publikoen aipamen administratiboak. (Lange,1996)

Garai batean "adopzioa" gaia saihestu egiten zen, ikasgeletan ez ezik baita, sarri askotan, haurren bat seme edo alabatzat hartu duen familiaren barruan ere. Jarrera hori ulergarria da, baina kaltegarria izan daiteke haurrarentzat berarentzat eta senitartekoekin eta inguruko beste guztiekin dituen harremanetarako, nahiz eta denok harreman horiek normaltzeko beharraren aldeko omen garen, Mª Dolores Renau-k dioenez (1989, 9-25 orr.). Dena dela, aspaldion erruz ugaldu dira beste herrialde batzuetako haurren adopzio kasuak, beren aurpegiera eta eiteek argi asko adierazten baitigute jatorri nabaria. Halaber, hedabideen bitartez, jende ospetsuak eginiko adopzioen berri izaten dugu. Hau guztia onuragarria dateke gai hau ikasgelan eta etxekoen artean hizpide izan dadin.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Familia bateko partaide izatea ontzat jotzea.
- Familia eredu desberdinei buruz gogoeta egitea.
- Familia eredu desberdinetan hazi eta hezi diren pertsonen arteko desberdintasunak ezagutzea eta onartzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Gaiaren analisian ikasleek dituzten ezagupenetatik abiatzea.
- Adopzio jardueraren berri izan eta ontzat hartzea.
- Nork bere aurreiritziak naturaltasunez adieraztea.
- Familia aldetiko desberdintasunak direla-eta taldeko harremanetan izan litezkeen gatazkak konpontzea.

AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: azetatoak eta erretroproiektagailua, kolorezko arkatzak eta orri zuriak.

JARDUERAREN IRAUPENA: 40 minutu.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Jarduera hau aurkezteko ikasleei honako galdera hau egingo zaie: *bizi al gaitezke familiarik gabe?* Galdera horren erantzuna taldeka hausnartzen utziko zaie eta, ondoren, talde handian esango dira iritziak. Litekeena da ideia-trukatze horretan familia eredu desberdinen adibideak azaltzea edota familiarekiko zenbait menpekotasun arrazoi.

Behin bateratze-lan hori amaituz gero, ikasleak berriro taldeka bilduko dira eta galdera hauetaz hausnartuko dute:

Haur jaioberriak familiarik ez balu, bizi al liteke?

Zenbat urte behar ditu pertsona batek bere familiagandik banantzeko?

Animaliek badute familiarik? Luzaroan?

Nork maitatuko gintuzke familiarik ez bagenu?

Zer ikasten dugu familiarengandik?

Garrantzitsua al da maitatuak izatea? Zergatik?

Une egokia izan daiteke oraingoa adopzioa aipatzeko: zenbait familiak senide kopurua gehitu nahi izaten dute eta, dena delakoagatik, adopzioaren bidea hautatzen dute; bestalde, zenbait kasutan umeak jatorrizko familiengandik banandu behar izaten dira haurraren lehentasunezko interesak hala eskatzen baitu. Ikasleen heldutasun mailaren arabera, Euskal Herrian pobreziak eragin dituen ondorioei buruzko dokumentu historikoak aipa daitezke, baita ume abandonatuen kasuak eta hauek udal eta eliz erakundeetatik jasotako laguntzak, adopzioak... (Valverde,1994). Bestela, horren ordez, Euskal Herrian eta hirugarren munduan diren pobrezia edo familia-desegituraketa egoerei buruz hitz egin daiteke, telebistan grabatutako edota idatzizko dokumentazioaz baliatuz.

Jarduera horrek aditzera eman lezake ikasgelako pertsonaren baten edo batzuen familiak ez direla gurasoek eta seme-alabek soil-soilki osatuak. Hala izanez gero, hobe litzateke kasua aurretiaz estimatzea, gurasoekin berba egin, beharrezko balitz, eta desberdintasunen aldeko jarrera erakustea.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera.

3. JARDUERA:

GURE FAMILIAK TALDE BAT OSATZEN DU

Emakumearen lan-munduratzeak, kultur eta gizarte eredu desberdinen hurbiltasunak (edo badirela jakiteak) eta bizimodu modernoaren premiei moldatu beharrak etxeko lan eta eginkizunak denok elkar hartuta ardurakidetzaz egokitzera eta banatzera behartzen gaitu.

Ideia hori gizarteko edozein pertsonak onartzen omen duen arren, hain erroturik ditugun ohitura eta aurreiritziak ez dira arrazonamenduaren bidez erraz aldatzen. Hargatik, behar-beharrezkoa da pertsona guztiek elkarbizitzaren oinarritzat senideen arteko begirune eta lankidetza duten familia egoerak behatzea eta bizitzea.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Etxeko zereginetan ardurakidetzak duen balioa adieraztea.
- Arduraz gogoeta egitea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Gaiaren analisian ikasleek dituzten ezagupenetatik abiatzea.
- Gaiari buruzko aurretiko ezagupenak ebaluatzea.
- Nork bere aurreiritziak naturaltasunez adieraztea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: antzerki gelan edo gimnasioan.

BALIABIDEAK: zapiak, ileordeak, arropak eta mozorrotzeko bestelako materialak.

JARDUERAREN IRAUPENA: 40 minutu saio bakarra.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Lehenengo eta behin, azaldu egin behar zaie familia (komunitate) osoaren ongizatea erdietsiko bada, behar-beharrezkoak eta garrantzi handikoak direla etxeko lanak; zenbait ideia iradokiko dizkiegu (seme-alaba gaixoak zaintzea, afaria prestatzea, sukaldea garbitzea, jostailuak ordenatzea). Ikasleei hitza emango diegu euren iritziak azal ditzaten eta talde handian eginkizun zerrenda bat egin eta arbelean idatziko da. Eginkizun kopurua gelan dauden ikasleen bestekoa izango da gutxienez.

Ikasleak bi edo hiru taldetan banatuko dira (7tik 10 arteko taldeak) eta talde bakoitzean bakoitzak bete nahi duen rola aukeratuko du: aita, ama, amona, aitona, seme, alaba, osaba ezkongai, amaren aldetiko aitona... Ondoren, arbelean idatziriko eginkizun batzuk aukeratu eta hamar minutuko antzerki lan bat prestatzeko eskatuko zaie, bertan familia bat etxeko zereginetan agertuz. Entseguak egin eta gero, antzeztu egingo dute ikaskideen aurrean eta ikusitakoaz hitz egingo da, senide bakoitzaren jokabideari arreta berezia eskainiz.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Gorputz Hezkuntza / Arte Hezkuntza (Adierazpen Dramatikoa).

ETXEKOENTZAKO FITXA

Guraso agurgarriok:

Fitxa honetan edozein familiatan egin ohi diren eginkizunen zerrenda bat ageri da. Lagun iezaiozue zeuen semeari / alabari betetzen. Familia osoak esku hartzeko eskatzen dizuegu eta fitxa hau gaiari buruz gelan ikasitako baloreak indartzen lagunduko duen elkarrizketa baten abiapuntua izatea nahi genuke.

Zereginen zerrenda	**Nork egingo du?**	**Nola eskertu edo ordaindu? Edo, nola egin liteke?**	**Zer gertatuko litzateke berak ezin egin baleza?**
Ad.: Janaria erosi	Aitak (Tomasek) badituzte, asko poztuko gara	Gure gustuko gauzak erosten zer jan ez genuke izango. eta musu bat emango	Hozkailua hutsik legoke eta
Bazkaria prestatu			
Arreba/ahizpa txikiari oinez irakatsi			
Kristalak garbitu			
Aitona edo amonari medikuarenera lagundu			
Eskolako lanetan lagundu			
Hondakin eta zaborrak edukiontzietara eraman			
Oinetakoak garbitu			
Landareak ureztatu			
Etxean egin beharreko tarte-lantxoak: argindarra, iturriak...			
Irakasleekin hitz egin			
Beste batzuk			

Behin lana amaituz gero, betekizunak orekatzeko eraren bat edo beste pentsa dezakezue, senide guztiok elkar hartuta, bakoitzak ahal duen denboraren arabera, etxeko zereginen ardura har dezazuen.

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

UNITATEAREN BALORAZIOA

Etxean, zuk eta zure senideek lan-talde bat osatzen duzue. Esan zein lan eta zeregin dagozkizun zuri:

Idatz ditzagun orain lehengoaren gisako antzezlanak. Antzezlan hau zeuk idatziko duzu, bakarka. Gaia honako hau izango da: *Larunbata familia giroan*. Baina gogora ezazu hiru ekitaldi eta hiru eszenatoki beharko direla. Gainerako xehetasunak zuk zeuk aukeratu.



NON BIZI NAIZ?

■ IDEIA NAGUSIA

Haur orok du herritartasuna izateko eskubidea, hau da, herri bateko eta kultura bateko partaide sentitzekoa. Haurra bizi den lekuan bertan garatzen dira bere gaitasunak, adimen- eta motrizitate-gaitasunak, gaitasun komunikatiboak eta gizarteratzekoak, denak ere funtsezkoak bere nortasunaren garapenerako.

Hori dela eta, ingurumarian dituen gauzak ikusaraziz eta ulertaraziz lagundu behar diogu ikasleari bere ingurua ezagutzen. Ikasleek zentzua aurkitu behar diote hurbilen duten guneari, bertan bizi baitira eta horrela eraikitzen baitute euren nortasuna edo herritartasuna. Halaber, eremu zabalagoen berri ere eman behar zaie, herri-mailakoa (gertuko inguru txikia) eta mundu-mailakoa (orokorragoa) bereizi eta haien arteko erlazioa ulertu ahal izan dezaten.

■ HELBURUAK

- Bizi diren inguruneko seme-alabak direla jakin eta maita dezaten ahalegintzea, hori baita beren berezko habitat eta bizipen-gune.
- Inguru jakin batekoa izateak geure garapenean duen eraginaz jabetzen laguntzea.
- Aurrerapausoak egiten jarraitzea bizi diren inguruneko ohitura eta tradizioen aldeko balorazioan.
- Inguruarekiko bizikidetza eta begirune jarrerak sustatzea.
- Ikasleak bizi diren lekua ez bezalako beste inguru batzuez duten informazioa areagotzea.
- Beren gaitasunetan uste handiagoa izatea.
- Gizarte-integrazioan aurrera egitea.

■ UNITATEAREN GARAPENA

Hezkuntza sistemaren helburuetako bat da euren inguruan era eraginkorrean gizarteratzeko gai diren pertsonak prestatzea. Horrek esan nahi du eskolak ikasleen jakin-mina piztu behar duela euren habitat natural eta soziala ezagut dezaten. Bestalde, eskolak gizarteratzeko gaitasunen garapena ere sustatu behar du eta, horretarako, ikaslea bizi den inguruko egoera errealetan ikertzen, ulertzen eta sormena lantzen ahalbidetuko duten proposamen didaktikoak erabili behar ditu, betiere eremu zabalagoetako egoerekin alderatuz.

Horren ondorioz, ikasleak aldeko jarrerak garatuko ditu bere inguru natural eta sozialarekiko, eta harekin bat eginez joango da. Sentsibilizazio horrek bere herriko ohitura eta tradizioen begirune eta jarrera positiboa ekarriko dio eta inguruan dituen beste kultura batzuk ere onartu egingo ditu. Izan ere, Euskal Herria herri aberatsa da, kultur aniztasun handia baitu.

Kontua ez da, beraz, ikasleak diziplina-jakingai hutsak bereganatzea –horiek gizakiaren arabera alda bailitezke–, gaitasunak garatzea baizik, bai gizarteratzea erraztuko dioten gaitasunak eta bai errealitateari buruzko iritziak adierazteko eta bere komunitatean nola parte hartu nahi duen erabakitzeko autonomia emango diotenak. (Azken ideia hori *"Talde bateko partaide"* izeneko 24. unitatean lantzen da). Hargatik, trebetasun horiek lantzeko metodologiarik onena dateke ikasleak bizi-inguruko elementuen behaketa-analisietan eta ikerkuntza prozeduren erabileran bideratzea.

Jakina, gizarteratze lana ez da egun bateko zeregin zehatz bat, arian-arian eta denboran zehar lortzen dena baizik. Horregatik, ikastetxeak bere identitatea eta inguruarekiko esku-hartze soziala jaso behar ditu hezkuntza proiektuan. Horrek ez du esan nahi eskola momentuan momentuko bizitza kultural eta sozialaren igorle hutsa izango denik; aitzitik, eskolak partaidetza-erakunde irekia izan behar du, eta, zenbaitetan, baita kritikoa ere bere inguruarekiko.

■ ZER LANDU GAI HONEN INGURUAN?

Irakasleek

- Ikasleei bitartekoak eskaini, bizitoki duten ingurunea ulertu ahal izan dezaten: bisitak erakundeen egoitzetara, ibilaldiak, ikus-entzunezko baliabideak, antzinako gauzak, familia-oroigarriak...
- Errealitatea aztertzen eta interpretatzen lagundu.
- Zenbait jarrera (interesa, jakin-mina, beste egoera batzuei buruzko kezka, gozamena...) bultzatu, bere inguruan parte har dezan.
- Ikasgelan giro atsegin eta bizigarria sustatu.
- Kultura ezberdinen arteko errespetua bultzatu.

Familiak

- Seme-alabengan ingurunearekiko jakin-mina piztuko duten esperientziak ahalbidetu.
- Hiri edo udalerri baten datu bilketan lagundu.
- Kultura ezberdinak egotea balioetsi.
- Bizi den komunitatean parte hartu.

1. JARDUERA:
ZATOZ ETA IKUS

Inguruaren ezaguerak garapen pertsonala bultzatzen du ikaslearengan, inguru horretan moldatzen eta bere kabuz bizitzen laguntzen baitio. Hori oso baliagarria izango zaio geroago beste esparru zabalago batzuetan ere.

Inguruari buruzko irakas-ikasketa prozesuak ikasleek duten informazioan oinarrituko dira, ingurune natural eta sozialarekin duten elkarrekintzatik abiaturik. Horrela, errealitatea nola ulertzen duten eta hartaz zein interpretazio egiten duten ikusirik, beren aurretiko ideiak zeintzuk diren jakin ahal izango dugu eta baliabide gehiago eskaini ahal izango dizkiegu; era berean, informazio okerrik balu, horien zergatiak azter genitzake eta ezaguera zehatzagoa lortzen lagundu.

Ikasleengan ingurune ezberdinak ezagutzeko jakin-mina piztea da lehen jarduera honen helburua. Horretarako, Euskal Herriko herri edo hiri bateko berezitasun natural eta fisikoak azalduko ditugu.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Ikasleek eurak bizi diren inguruneko seme-alabak direla jakitea eta maitatzea, ingurune hori beren berezko habitat eta bizipen-gune gisa ulerturik.
- Norberarenak ez diren beste udalerri batzuez zerbait ikastea.
- Beste herri edo hiri batzuk ezagutzeko jakin-mina piztea.
- Orientatzeko eta aditzera emateko gai izatea.
- Nork bere gaitasunetan konfiantza handiagoa eskuratzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Ikaslea bizi den ingurune fisiko eta naturaleko edo Euskal Herriko beste herri edo hiri bateko berezitasunak azaltzea.
- Aukeratutako udalerriaren alderdirik esanguratsuenak nabarmentzea.
- Udalerri horren argibide-liburuxka bat diseinatzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: ikasle bakoitzak Euskal Herriko hiri edo herri baten argazkiak edo irudiak ekarri beharko ditu eta, ahal dela, planoa ere bai. Kolorezko orriak, errotuladoreak eta itsasgarria.

JARDUERAREN IRAUPENA: ordubeteko 2 saio ikasgelan eta aldez aurretik eginiko irteera edota gure udalerrian zehar eginiko ibilaldia.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Jarduera honetan beharrezkoa da gurasoen esku-hartzea, argibideak biltzeko eta aukeratutako tokia semealabekin batera bisitatzeko.

Lehen-lehenik, irakasleak hau esanez aurkeztuko du zeregina: *"Zuetariko bakoitzak Euskal Herriko hiri edo udalerri bat aukeratuko du eta, gero, haren argibide-liburuxka egingo dugu. Eginda dagoenean, beste autonomia erkidego batean bizi den ikasle talde bati bidaliko diogu liburuxka. Ikasleak 10 urtetik 14ra bitartekoak izango dira. Begira! Hona hemen liburuxka jasoko dutenen izenak eta helbideak! Zozketa bidez erabakiko dugu bakoitzari zein suertatzen zaizuen. Aurrera, bada!*

Zozketa egin ondoren, kolorezko bina orri banatuko ditugu ikasleen artean, lau orrialde beteko dituen liburuxka egiteko. Lehen orriaren orrialde batean hiriaren edo herriaren izena agertuko da, haren argazkiak eta egilearen izena. Beste aldean honelakoak aipatuko dira:

- Lekurik esanguratsuenak: eliza, udaletxea, kontzertu aretoa, alde zaharra, monumentuak, industri aldea...
- Zenbait erreferentzia: norberaren etxea eta lagunenak (gure ikasleen herria edo hiria baldin bada), parkea, plaza, iturria, zine-aretoa...
- Muga naturalak eta beste: errekak, ibaiak, mendiak, errepideak, inguruko udalerriak...

Lan hau idatzizko ekoizpena izango da.

Bigarren orriko lehen aldean jasotako informazioa eman behar du eta, hartarako erabiltzen diren ikurrak erabiliz, plano batean kokatu. Hori egin ahal izateko, ezinbestekoa da barneraturik beharko lituzketen zenbait kontzeptu erabiltzea, hala nola, hur, urrun, bertikal, horizontal, goi, behe, kanpo, barru, inguru, hemen, han... denak ere errealitatearen adierazpenarekin eta espazio-orientazioarekin lotuak.

Azken orrialdean ikasleak agur esango dio liburuxka jasoko duen pertsonari eta beste edozein informazio bidaltzeko prest dagoela adieraziko dio. Jardueraren bigarren zati horrek ordu erdi pasatxo iraun dezake.

Azkenik, 30 bat minutu erabiliko dira ikasle bakoitzak lagunen aurrean bere aukeraren zergatiak eta prozesuaren nondik norakoak azal ditzan. Horretarako puntu hauei erreparatuko die:

- Datuak nola batu diren, zein baliabide erabili duen.
- Jasotako datuak nola adierazi diren planoan.
- Egindako ekoizpenaz pozik dagoenentz.

Argibide-liburuxkok ikasgelan izango dira astebetez ikusgai. Epe hori bukatutakoan, dagokionari bidaliko zaio posta bidez.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Euskara eta Gaztelania / Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera / Arte Hezkuntza (Plastika eta Ikus Adierazpena).

2. JARDUERA:

KANTA DEZAGUN DENOK!

Ingurune jakin batekoa izateak pertsona kokatzen den lekuaren berezitasunak ezagutzea eskatzen du, bere bizitza eta bizi-kalitatea baldintzatzen dituen ingurua ondo ezagutzea, alegia. Eszenatoki horretan hazten eta garatzen da gizakia inguruarekin elkarrekintzan.

Halaber, ingurune horretan bertan hasten da haurra musikarekin harremanetan. Hortxe jasotzen du musikaren kultura, herri bakoitzean berea, errepertorio eta ezaugarri edo estilo bereziekin eta musika-tresna bereziekin.

Hori guztia kontuan izanik, jarduera honetan geure ingurunearen alderako atxikimendua sustatu nahi dugu herri-kanta baten bitartez. Orobat, beste kultura batzuetako ikasleei ere haien kanten bidez euren herriarenganako sentimenduak adierazteko aukera eman nahi diegu.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Ikasleak bizi diren inguruneko seme-alabak direla jakitea eta maitatzea.
- Inguruarekiko bizikidetza eta begirune jarrerak sustatzea.
- Euskal Herriko eta beste herri batzuetako musika estimatzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Abestiaren hitzez gogoeta egitea.
- Abestia kantatzea.
- Mugimenduen batasun eta harmonia lortzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: kantaren partitura.

JARDUERAREN IRAUPENA: 45 minutuko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Lehenengo eta behin, irakasleak jarduera aurkeztuko du honela esanez: *"Euskal kanta ezagun bat kantatuko dugu: 'Ikusi mendizaleak' du izena. Ikasitakoan, biribilketa erritmoan mugitzen saiatuko gara. Bestalde, zuetariko baten batek bere gurasoen herriko kantaren bat ekarri nahi balu, kanta horren hitzetan zer gordetzen den ulertzen eta kantatzen saiatuko ginateke".*

Kantaren hitzak aurkeztuz hasiko gara. Ikasleei hitz horien esanahia interpretatzeko eskatuko diegu eta, kantak Euskal Herriko ezaugarri fisikoak aipatzen dituenez gero, irakasleak lurraldearen deskribapena lantzeko erabil dezake. Horrezaz gain, bestelako gogoetak ere gehi litezke, hala nola, naturaren ondasunen arrazoizko

erabilera edo ingurua osatzen duten elementu guztien arteko oreka mantentzearen garrantzia... (Zeregin horrek 20 edo 25 minutu iraun dezake).

Ondoren, kantatzen hasiko gara (20 bat minutuz) honako hauek kontuan hartuz:

- Arnasketa eta ebakera kontrolatu (adibidez, arnasa hartzean hitzak erditik eten gabe kantatu eta zuzen ahoskatu).
- Ahots naturala eta afinatua erabiliz kantatu, hots, garrasirik egin gabe, ahotsa behartu gabe eta tonu egokian ondo entzun dadin saiatuz.
- Ñabardurak egin, hau da, testuak dioenaren arabera, ozenago edo apalago kantatu.

Amaitzeko, abesten duten bitartean, eskutik hartuta ikasgelan barrena ***biribilketa*[1] bat egiten utziko diegu.**

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Arte Hezkuntza (Musika) / Gorputz Hezkuntza / Euskara eta Gaztelania.

Ikusi mendizaleak
Ikusi mendizaleak
Baso eta zelaiak,
Mendi tontor gainera
Igo behar dugu.

Ez nekeak, ez da bide txarra;
Gora, gora, neska-mutilak, a,a,a,
Gu euskaldunak gara,
Euskal Herrikoak birritan

Hemen mendi tontorrean,
Euskal lurren artean,
Begiak zabaldurik,
Bihotza erretan.

Hain ederra, hain polita da ta;
Gora, gora Euskal Herria, a, a, a,
Gu euskaldunak gara,
Euskal Herrikoak birritan

(*"Oskorri & The pub ibiltaria"* BBK fundazioa, 1996, 49-51. orr.).

[1] *Biribilketa* erritmoaren adierazpena hiru hauetako edozein izan daiteke:



3. JARDUERA:
BAZKALTZERA!

Herri baten identitate-zeinuak ezagutzeko, haren ezaugarriak aztertu behar dira, haren historia, hizkuntza, ohiturak, baloreak, gizarte-egiturak... Informazio horren bilaketak norberaren eta ingurunearen aldeko jarrerekin bateratsu joan behar du eta, aldi berean, bat etorri behar du desberdinari zor zaion begirunearekin.

Hartarako, jarduera honetan aintzat hartuko dira ikasgelan diren kultura desberdinak eta, ikastaldea osatzen dutenen gizataldeei adierazpidea emanez, ikasle guztiak euren jatorriaz harro sentitzea bultzatuko da. Hain zuzen ere, ikasleak (baita familiak ere) animatuko ditugu beren jatorriko plater tipikoa egin dezaten.

Lehen esan bezala, jarduera honek bi xede ditu: batetik, norberaren eta norberaren jatorriaren aldeko balorazioa sustatzea, eta, bestetik, kultur aniztasunarekiko errespetua. Horrez gain, jarduera honek bizikidetza, lankidetza eta ardurakidetza bultzatzen ditu.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Ikasleak bizi diren inguruneko ohitura eta tradizioei buruz balorazio ona egitea.
- Gurea ez bezalako kultur testuinguruez zerbait ikastea.
- Norberaren zereginetan ekimena eta erantzukizuna garatzea.
- Ikaskideak errespetatzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Errezeta bat egitea.
- Ikasleen edo haien senitartekoren baten herriko plater tipikoak egitea.
- Talde-jardueretan esku hartzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan, ikaslearen etxean, ikastetxeko sukalde eta jantokian.

BALIABIDEAK: papera, arkatza eta menua prestatzeko beharrezko osagaiak.

JARDUERAREN IRAUPENA: Ordubeteko saio bat eta arratsaldea.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak honela emango du jardueraren berri: *"Bazkari 'interkultural' bat egingo dugu. Geu izango gara sukaldari eta geu bazkaltiar. Beraz, egin behar dugun lehen gauza menua da. Denok aukeratu ahal izan dezagun eta bazkariaz goza dezagun, menuan plater desberdin asko egotea komeni da. Gure menua kulturartekoa izatea nahi dugunez, toki ezberdinetako plater tipikoen zerrenda egin behar dugu; gainera, ikastetxeko sukaldean prestatu beharko dugunez, hemen egin daitekeen zerbait pentsatuko dugu".*

Ikasleak, talde handian, menua osatuko duten plateren zerrenda egiten saiatuko dira. Plater horiek tipikoak izango dira zenbait herrialdetan, are hobeto ikasleen senitartekoen herrikoak baldin badira. Horietaz hitz egin eta gero, irakasleak ikasleen ekarriak jasoko ditu, arbelean idatzi eta, prestatu ahal izateko benetako aukerak neurturik, menua zehazten lagunduko die. Bestalde, lan taldeak egingo dira bakoitzak aukeratutako plater bat gertatzeko. Antolaketa-zeregin horiek guztiek ordu erdi inguru iraun dezakete.

Ikasleek etxean informazioa eskatuko dute aukeratutako platera gertatzeko moduaz eta errezeta bat idatziko dute, osagaiek pertsona gehiagorentzat izan behar dutela kontuan izanik.

Berriz ere ikasgelan, ordu erdi batez edo, bildutako errezetak elkarrekin alderatu eta platerak prestatzeko behar diren gauza guztiez hitz egingo da:

- Zein osagai behar dira?
- Zein neurri?
- Zein tresna dira beharrezko?
- Zein izen emango diogu plater horri?

(Erosketak egin eta gero)

Hautatutako eguna iritsita, talde txikiak eginez, errezetan agintzen diren urratsak jarraituko dituzte ikasleek. Bizkitartean, irakasleak adi ibiliko dira elkarren aipamena egitean izenak erabil ditzaten, elkarri lagun diezaioten eta platera prestatzeko beharrezko ordena errespeta dezaten.

Jakiak prestatu ondoren, ikasgelan bazkalduko dute eta ikastetxeko beste ikasle batzuei jakiok ezagutzeko eta dastatzeko aukera eskainiko zaie.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Euskara eta Gaztelania / Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera.

ETXEKOENTZAKO FITXA

Guraso agurgarriok:

1. jarduera lantzeko, zuen semeak/alabak herri edo hiri bat aukeratu behar izan du. Hartarako, beharrezkoa da informazio bilketa egitea eta, beraz, zuengana jotzen dugu laguntza eman diezaiozuen. Horren bitartez, inguruarekiko harreman zuzena izango du eta, era berean, uztartu ahal izango ditu bereganatutako ezaguerak eta izandako bizipenak. Ekarpen horiek zentzua izan dezaten, ongi planifikaturik egotea komeni da. Hori dela eta, zuek hiri edo udalerri horretako gidari izatea proposatzen dizuegu. Aldez aurretik pentsa ezazue honako alderdi hauetaz:

- Zer esango diozue ingurune horretaz?
- Zer erakutsiko diozue?
- Zein baliabide eramango duzue: planoak, argazki-kamera, idatzizko informazioa...?
- Zenbat denbora duzue?

Etxeratutakoan, interesgarria litzateke haiekin hitz egitea, ea zer izan den gehien gustatu zaizuena, zergatik... Oso garrantzitsua da inguruarekiko jarrera positiboa erakustea eta egingo duzuen irteeraz jakin-mina piztea.

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

UNITATEAREN BALORAZIOA

Balorazioa egiteko, Ikastetxearen Urteko Planean adostutako eta jasotako irteera bat erabiliko dugu, horrela errazago uztartzen baitira bereganatutako ezagutzak eta inguruarekiko harremanaren bidez lortutako bizipenak. Helburua ez da, beraz, ikasleak kontzeptu-ezagutzak bereganatu dituen ala ez egiaztatzea –inguruaren muga fisiko eta naturalak zeintzuk diren edo leku-izenak buruz ikasi dituen, adibidez–, baizik eta, batik bat, prozedura- eta jarrera-edukiak bereganatuz, jarrerak eta trebetasunak garatzea.

Ikasleak *bere ingurunearen ikertzaile* izan behar duela erreferentziatzat hartuta, irteera egunean eta ondoko saioetan datuak elkarrekin alderatu bitartean, honako irizpide hauei begiratuko diegu:

- Egin behar den lanaren aurrean jarrera positiboa azaltzen du.
- Beharrezko informazioa lortzeko jakin-mina adierazten du.
- Talde jardueretan parte hartzen du.
- Taldeak bere egiten dituen zereginen erantzukizuna hartzen du.
- Gaiari buruzko iritzi desberdinak biltzen ditu.
- Datuak elkarrekin alderatu eta emaitzak aztertu egiten ditu.
- Emaitzak eztabaidatzen ditu eta haien sintesia egiten du.
- Ingurumen-arazoez sentsibilizaturik dago.

DENOK IKAS DEZAKEGU

■ IDEIA NAGUSIA

Hezkuntzarako eskubidea izateak ikasleak aniztasunean hezi behar ditugula esan nahi du, aniztasun hori honela ulerturik: "pertsona guztien arteko hartu-emana maila berean jartzen duten prozesu demokratikoak elkarrekin eraikitzeko moduan bizitzea, betiere gizakiaren duintasuna eta elkartasuna sustatuz" (Imbernón, 1999, 67. or.). Hezkuntza testuinguruaren barruan, pentsatu egin beharko dugu irakas-ikasketa prozesuek zein eta nolako aukerak eskaintzen dizkioten ikasle bakoitzari eskolan eta ikasgelan. Horrela, ezberdintasunengatiko bazterketak gutxituko dira, ikasgeletan dugun aniztasuna onartuz eta, ondorioz, irakasteko estrategia anitzak erabiliz; izan ere, gauza jakina da pertsona bakoitza dakienetik eta bere egoera pertsonaletik abiatzen dela ikasketa prozesuan eta, ikusten ari garenez, azkenean ez ditugu denok aukera berdinak geure gaitasunak garatzeko.

■ HELBURUAK

- Motrizitate-gaitasunak, kognitiboak, komunikatiboak eta gizarteratzekoak garatzen laguntzea.
- Nork bere jokaera-irizpideak gara ditzan saiatzea.
- Egin beharreko zereginetan era autonomoan lan eragitea.
- Ikaskideen onarpena eta balioespena sustatzea.
- Proposatutako zereginetan denok elkar hartuta parte hartzera animatzea.

■ UNITATEAREN GARAPENA

2000ko apirilaren 26tik 28ra bitartean Hezkuntzari buruzko Munduko Foroa burutu zen Senegaleko hiriburuan, Dakar-en, eta han berretsi egin zen denentzako hezkuntzaren aldeko konpromisoa (http://www.unicef.org/spanish). Alabaina, aztertu beharra dago ea eskubide horrek mesederik egiten ote duen askotariko ikasleek euren gaitasunak garatu ahal izan ditzaten benetan garatzeko aukerak dituztelako ala, ikasgeletan den aniztasuna ukatuz, egoera homogeneizatuago baten alde egiten ez ote duen, izatez ezberdinak direnak berdintzat harturik.

Itxuraz ikasle guztiek ikasteko aukera berdinak dituztela esan daiteke, denei baliabide berberak eskaintzen baitzaizkie; hala ere, ikasle guztiek ez dituzte era berean eta neurri berean erabiltzen, pertsona bakoitza desberdina baita ikasteko erritmo eta gaitasunei dagokienez eta portaerari dagokienez, desberdina kulturaren aldetik, jatorriaren aldetik... Ondorioz, itxurazko berdintasun hau, aniztasunean, trataera desberdina bihurtzen da.

Ikasteko estrategia sorta zabala eskaintzeko premia nagusiarekin batera, nahitaezkoa da eskolak "normaltasun osoz [ulertzea] desberdintasuna denona eta gutariko bakoitzaren ondarea dela, aberastasun horretan dugun konfiantzari esker ezberdintasunak eragiten dizkigun kezkak desager daitezen" (Maristany, 1997, 46. or.). Ez da aski, beraz, irakasleek aukera metodologiko desberdinak aurkeztea, haiek justifikatzen

dituen erreferente argirik ez badago. Ildo horri jarraituz, proposamen pedagogiko horien atzean nolako hezkuntza-xedeak gordetzen diren zehaztu behar da: zein motatako ikasleak lortu nahi ditugun (zer izatea nahi dugun), zer jakitea nahi dugun (kontzeptu-edukiak) eta zer egiten jakitea nahi dugun. Ezinbestekoa da hezkuntza-proposamenak eta xedeak batera joatea –zer eta zertarako, alegia–. Horrela ez balitz, heziketa lan guztia aktibismo hutsa bihurtuko litzateke.

Erabat garrantzitsua da, hortaz, errealitate ezberdinekiko begirune eta onarpena eta giza-justiziarekin eta elkartasunarekin lotutako balore demokratikoen sustapena hartzea erreferente edo hezkuntza-xedetzat. Ideia horretatik abiatuta, eta ez homogeneitatetik, eskain dakizkieke aukera aniztasuna eta gaitasunak garatzeko baliabideak, bai zailtasunak dituzten ikasleei eta bai egoera hobean daudenei ere.

Interesgarria litzateke aukera eta baliabide aniztasun hau prozesuaren ikuspuntutik aztertzea, beste ikasleekiko elkarrekintzatik, alegia, eta ez azken emaitzatik.

Hitz gutxitan, aniztasuna onartu egin behar da, pluraltasunak dakarren aberastasunaz sinetsita eta banakotasuna aintzat hartuta.

■ ZER LANDU GAI HONEN INGURUAN?

Irakasleek

- Hezkuntza Proiektuan bultzatu nahi den eskola-mota zehaztea.
- Irakas-ikasketa prozesuek ikasgela-eskola testuinguruetan ikasleen aniztasunari eskaintzen dizkioten aukerez gogoeta egitea.
- Aukera-desberdintasuna gutxitu, ikasketarako zenbait bitarteko erabiliz.
- Ikasleen erantzukizuna bultzatu.
- Desberdina izateko eskubidea errespetatu.
- Begirune eta bizikidetza jarrerak indartu.
- Antolakuntza-egiturak aniztasunagatik sortutako beharrizanei egokitu.

Familiak

- Eskolarekin lankidetza-harremanak eduki.
- Gurasoen eskolak antolatutako jardueretan parte hartu.

1. JARDUERA:

NEURE AGENDA EGITEN

Burutzen ari diren eskola-ibilbidearekiko erantzukizuna eta konpromisoa bultzatu behar dira ikasleengan. Ahaleginak eta feed-back positiboak adorea emango diete kementsu jarraitzeko eta, ikasi ahal duela-eta, zorioneko sentitzeko.

Ikasleek egin dituzten ahaleginengatik goraipamenak jasotzen dituzten bitartean, hobetu beharreko alderdiak ere erakutsi behar zaizkie, horiek gainditzeko arau eta estrategiak eskainiz. Eskolak, beraz, testuinguru egokiak proposatu behar ditu zenbait arlotan landu beharreko jarrerak burutu ahal izateko, hala nola, hausnarketa, erabakimena, norberaren erantzukizunez jabetzea...

Erantzukizuna sustatzeko eta haurra independenteago izatea lortzeko, jarduera honetan eskola-agenda bat egitea proposatzen da, ikasleak bere eskolako zereginak jaso ditzan.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Erantzukizun kontzeptuaren eraikuntzan era egokian aurrera egitea.
- Egin beharreko zereginetan era autonomoan lan egitea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Agenda diseinatzea.
- Irakas-ikasketa prozesuak planifikatzea.
- Eskolako zereginak burutzea.
- Gomendio eta iradokizunak ontzat hartzea edota, bestela, aukerak proposatzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: koadernoa, boligrafo eta margoak.

JARDUERAREN IRAUPENA: ordubeteko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak jarduera aurkeztuko du honela esanez: *"Zeuen eskola-agenda diseinatuko duzue. Agenda horrek zuen heziketa-prozesua gidatuko du, bertan jasoko baitira irakasleak egindako ohar eta gomendioak; aldi berean, zeuen eskolako zereginen plangintza egiten lagunduko dizue"*.

Irakasleak eskola-agenda horrek izan behar dituen sailak aipatuko ditu:

- Koadernoaren azalean "Nire eskola-agenda" edo antzeko izenburu bat idatziko dute.

- Lehen orrialdean eskola-agendaren eginkizunak zehaztuko dituzte: "Zertarako balio dit?".
- Hurrengo orrialdean honako datu hauek idatziko dituzte:
  - Ikaslea
  - Helbidea
  - Ikastaldea
  - Telefonoa
- Hurrengoan euren eskola-egutegia jarriko dute.
- Beste orrialde batean asteko ordutegia agertuko da. Hori ondo jakin behar da eskolan ondo ibil dadin.
- Bi orri gordeko dira hileko, eskolako zereginak egunero-egunero idazteko.
- Gero orri bat utziko da ebaluazioen jarraipena hiruhilabeteka egiteko (jarraitu den prozesua, iradokizunak...).
- Azkenean beste orrialde batzuk egon daitezke, ikaskideen izenak, helbideak eta telefono zenbakiak idazteko.

Aipatu puntuak kontuan harturik diseinatuko dute beren agenda ikasleek. Gero, ikasturtean zehar, agenda aldian-aldian aipatuz, irakasleek gogoratu egingo diete egiteke dauden lanak idatzi behar dituztela; eskatu ere eskatuko die gurasoei zuzendutako iradokizun guztiak jasotzeko, baita ere data esanguratsuak, etab. Senitartekoak ere nahas daitezke agendaren jarraipenean.

Ikasleengan erantzukizunaren balorea eta jarrera-azturak sortzeko tresna den aldetik, balioetsi behar da agendaren erabilgarritasuna.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Euskara eta Gaztelania / Arte Hezkuntza (Plastika eta Ikus Adierazpena).

2. JARDUERA:

NI ANGOLAKOA NAIZ; ZU, BERRIZ, EUSKAL HERRIKOA; ZU...

Gizabanako orok hezteko eta pertsona legez garapen osoa emango dien hezkuntza jasotzeko eskubidea duela kontuan harturik, metodologia egokiak eskaini behar dira prozedurazko trebetasun eta bitartekoak bultzatzeko eta eduki kognitiboak eta jarrera-estrategiak bereganatzeko.

Ideia horretan oinarrituta, zenbait baloreren garapena lortzeko egoerak eskainiko dira. Horrela bada, irakas-ikasketa prozesuan, lantzeko edukia eta lehen mailako helburua izango da elkartasuna, tolerantzia, erantzukizuna eta edozein motatako desberdintasunak errespetatzea (fisikoak, sexuaren edo jatorriaren araberakoak...).

Egoera horiek gorpuztu ahal izateko, nahitaezkoa da edukiak hainbat jakintza-arloren artean osatzea eta ikasleen ahalmenetan uste osoa izatea, haien gaitasunak garatzen saiatuz goazen bitartean.

Jarduera honetan ikasleek lehendik dituzten ezaguera eta eskarmentuetatik abiatzen saiatuko gara, aberastu egingo dituzten egoerak gehitzeko eta elkarrekin bizi ahal izateko.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Nork bere ezagutza eta esperientziak balioestea.
- Gaitasun kognitiboak, komunikatiboak eta gizarteratzekoak garatzea.
- Gainontzeko ikaskideak ezagutzea eta estimatzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Zenbait esperientzia ikaskideekin batera bizitzea.
- Egoera bat irudikatzeko eta itxurak egiteko gai izatea.
- Nork bere sentimenduak adieraztea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan eta eskolako jantokian.

BALIABIDEAK: papera, boligrafoak eta "Mundu maitea" (Save The Children-ek eta UNICEFek argitaratutako materiala).

JARDUERAREN IRAUPENA: 3 ordu eta 45 minutu.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak jarduera aurkeztuko du honela esanez: *"Munduko zenbait herrialdetako haurrak garela irudikatuko dugu. Horretarako, gure adineko haur bat leku haietan nola bizi den jakin ez ezik, sentitu ere sentituko dugu zein gogorra den herrialde behartsu menperatu batekoa izatea eta behar-beharrezkoak diren gauzak*

(janaria, jantziak, botikak, liburuak, koadernoak, eskolak...) falta izatea, horiek ezinbesteko elementuak baitira hezkuntzarako eskubidea erabili ahal izateko eta duintasunez bizitzeko".

Hasieran, lau lan talde antola ditzatela proposatuko diegu ikasleei, eta talde bakoitzari herrialde bat esleituko zaio: Estatu Batuak, Euskal Herria, Angola eta India, adibidez. Talde bakoitzeko ikasleek herrialde horri buruz dakiten guztia azalduko dute eta, gero, argitaratutako materialak alderatu edo/eta gehituko ditu (oso baliagarriak izan litezke, gure ustez, UNICEFek eta Save the Children-ek argitaratu duten *"Mundu maitea"* izeneko liburuxkak).

Bai ikerketarako eta bai geroagoko agerpenerako, arreta arlo zehatz batzuetan jartzeko esango zaie, hala nola, osasunean, hezkuntzan, janzkeran, elikaduran...

Kontsulta-lana egin ondoren (45 minutu erabiliko dira horretarako), egun bat aukeratuko da talde bakoitzari suertatu zaion lekuko haur baten bizimodua ahalik eta zehatzen islatzeko: herrialdeko arropa tipikoa jantziko dute, normalean jaten dutena jango dute...

Aldez aurretik sukaldeko langileekin hitz egin behar da egun horretan aukeratutako lau herrialde horietako jakiak presta ditzaten –kasuren batean katilu txiki bat arroz ere ez–. Talde bakoitzak bere herriko jakiak jango ditu, ez besterik.

Bazkaldu eta gero, taldeek lau kulturetako haurren bizimodua nolakoa den azaltzen eta antzezten emango dute arratsaldeko saio osoa.

Gurasoak ere jarduera honen berri izatea komeni da, ontzat har dezaten, arropa eta oinetakoak bila dezaten eta, herrialde behartsuak ordezkatu dituzten haurren kasuan, egun horretako askariak ugariagoa izan beharko duela kontuan har dezaten.

Arratsaldeko saioaren azken 20 minutuetan izan duten bizipenaz eta nabaritu dituzten sentimenduez mintzatuko dira. Adibidez, "angolarrek" edo "indiarrek" zer sentitu duten gainontzeko ikasleak jaki eder, gozo eta ugari jaten ikusiz, eurek janari xume bat aurrean edukita; ea zer sentitu duten, eurak ortozik izan direlarik, bere ikasgelako beste haur batzuk galdezka entzunez jantziak edo oinetakoak marka horretakoak edo hartakoak ote ziren; edo marrazten, irakurtzen... ikusi dituztenean, eta eurek hartarako materialik izan ez dutenean...

Horiek denak azaldu ondoren, interesgarria litzateke ulertaraztea guk suerte ona izan dugula munduko aberastasunaren banaketan, izan ere, gure gizartean ongizate-maila handia baitugu. Horrexegatik, hain zuzen, besteen arazoen aurrean solidario izan eta elkartasunez jokatu beharra daukagu.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Euskara eta Gaztelania / Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera.

3. JARDUERA:

HONA HEMEN NIRE ITUNA!

Ikasleak bere buruaz duen irudia oso garrantzitsua da ikasteko motibazioa izan dezaten. Bera "tentela" dela esaten duenak barneraturik izango du ikasteko eta hobetzeko nahiari kalte egiten dion autokontzeptu negatiboa.

Egoera horren aurrean hezkuntzaren ekimenak lehen-lehenik norberaren buruarenganako errespetua eta norberaren gaitasunekiko konfiantza sustatu behar ditu. *Itunaren pedagogiak* ideia horri ekiten dio, itun baten bidez pertsona heldu batek eskainitako konfiantza bermatzen baitu.

Itunaren pedagogia horren metodologiak honako hauek ditu oinarri:

- Elkarren arteko adostasuna.
- Ikaslearen onespena, hura den bezalakoa delarik.
- Itunak babesten duen ikasketaren osagai guztien negoziaketa.
- Ituna betetzeko elkarrekiko konpromisoa. (PRZESMYCKI, 2000).

Jarduera honetan arazo, beharrizan edo errealitatea izan daitekeen egoera batetik abiatzen gara. Ikasleak, bere egoera aztertu eta gero, bere itun-xedea idatzi beharko du. Hori bere zailtasun eta eragozpenak konpontzeko estrategia egokia izan daiteke; izan ere, bere inplikazio maila handiagoa izango da, lanaren xedeak irakaslearekin batera zehaztu baititu.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Autonomian eta erantzukizunean aurrera egitea.
- Nork bere jokaera-irizpideak garatzea.
- Proposatutako zereginetan denok elkar hartuta parte hartzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Nork bere eginbideak zehaztea.
- Nork bere iritzi eta gustuak adieraztea.
- Gainontzeko ikaskideekin harreman onak izatea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: orria eta boligrafoa.

JARDUERAREN IRAUPENA: 45 minutuko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Hasieran irakasleak jarduera aurkeztuko du honela esanez: *"Hasierako egoera aztertu ondoren, itun baten xedea emango duzue. Adibidez, denok dakigunez, aspaldi honetan ezbehar asko gertatzen da munduan. Ez duzue uste zerbait egin behar genukeela? Zer egin genezake?* (demagun ikasleek ipuin bat idaztea proposatzen dutela). *Beraz, horrelako egoerak islatzen dituen ipuin bat idatziko dugu; nahi baduzue baiezkoa edo ezezkoa emateko eskubidea daukazue".*

Ikasleak itun-xedea zehazten ahaleginduko dira honelako galderei erantzunez: Zer lortu nahi dut orain? Zein arlo landu nahi dut? Zeri ekingo diot?... Gero orri batean idatziko dituzte erantzunak.

Irakaslearekin batera zehaztu egingo dira ikasketaren eginbideak. Ipuinaren kasuan honako hauek izan litezke:

- Informazioa jasoko dut nire inguruan gertatzen ari diren arazoez: gerrak, indarkeria, arrazakeria, egoera penagarrian lanean ari diren umeak...
- Gai sorta zabal horretatik gehien interesatzen zaidana/zaizkidanak aukeratuko d(it)ut.
- Eskema bat egingo dut.
- Ipuinari hasiera emateko, hartarako diren formulak erabiliko ditut.
- Gaia garatuko dut, azaldutako ideien arteko koherentzia kontuan izanik.
- Ipuinaren amaiera pentsatuko dut.
- Testuari jarraikortasuna emateko behar diren lokailu eta testu-antolatzaileak erabiliko ditut.
- Berriro irakurriko dut ipuina, haren edukiari eta formari erreparatzearren: egiturak, aditz-denborak...
- Berriz ere irakurriko dut, ortografi akatsak zuzentzeko.
- Hurrengo idazlan batzuetan hobetuko dudala hitzematen dut.

Itunaren ebaluazioa negoziatu egin behar da. Horretarako kontuan hartu beharrekoak: nork ebaluatuko du? nola? noiz?

Ikaslearen autoebaluazioa jarduera egin ahala edota egin ondoren egin liteke. Horretarako itunaren puntuak erabil litezke gida modura.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Euskara eta Gaztelania.

ETXEKOENTZAKO FITXA

Guraso agurgarriok:

Gure iritziz, beharrezkoa da familiak, eskolarekin batera, umeen hezkuntza-prozesuaren ardura hartzea. Hori dela eta, oso garrantzitsua da zuen laguntza.

Guraso eta irakasleen arteko elkarrizketa funtsezkoa da koordinazio egokia lortuko bada. Horregatik, zenbait orientabide eman nahi dizkizuegu eraginkorragoa izan dadin.

Komenigarria da elkarrizketa egin aurretik galdekizun labur bat idaztea, jakin nahi duzuen guztia itauntzeko. Adibidez, puntu hauei ekin diezaiekezue:

- Semearen/alabaren jarrera ikaskuntzarekiko.
- Bere emaitzak.
- Ikastaldearekiko dituen gizarte-jarrerak.
- Onarpen maila bere ikaskideen artean.
- Irakaslearekin duen harremana.
- Irakasleek zer egiten duten ikaslearekin dituzten arazo zehatz batzuetan, zein erantzun mota ematen zaion.
- Semeak/alabak erakusten duen sentiberatasuna zenbait arazoren aurrean: arrazakeria, sexuagatiko bereizketa, ezintasun fisikoren bat duten neska-mutilenganako jarrera...

Garrantzi handikoa da elkarrizketa saiorako markatu diren helburuei ekitea eta zuentzat larriak, labaingarriak edota mingarriak izan litezkeen egoera eta gai batzuk ez saihestea, jokoan baita zuen semeak edo alabak pertsona legez duen etorkizuna.

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

UNITATEAREN BALORAZIOA

Elkarlana aberasgarria izan dadin bai taldearentzat eta bai taldekideentzat ere, beharrezkoa da, lan egin ahala ebaluatzeko, honako irizpideok gogoan izatea:

- Ikaslea bere gaitasunak garatuz doan ala ez. Aldi berean, aztertu egin behar dugu ea bere ikaskideekin parte hartzeko aukerarik eskaintzen diogun ala ez, eta gure aldetik helduen orientabidea jasotzen ari den ala ez.
- Irakas-ikasketa prozesuetan nahasten den eta parte hartzen duenentz. Zentzu horretan, garrantzitsua da irakasleek bitarteko ugari eskaintzea, ikasle guzti-guztien parte-hartzea ahalbidetzeko.
- Irakasleak eskaintzen dizkion lankidetza-egoeretan bere adimen- eta afektibitate-gaitasunak garatuz doan ala ez.
- Banan-banako arretaren bidez aurrera egiten duen ala ez. Irakasleek banan-banakako irakaskuntza ahalbidetu behar du neska edo mutil batzuen ezberdintasun negatiboak nabarmendu gabe.
- Ea denentzako zeregin eta helburu bihur litekeen ekimenik aurkezten duen.
- Bere bizipenak ugaltzeko eta esperientzia berriak beste batzuekin batera bizitzeko, ikasgelako eta ikasgelaz kanpoko lankidetza-egoeretan parte hartzen duen ala ez.

ESKOLAKO LAGUNAK: DENOK BERDINAK, DENOK DESBERDINAK

■ IDEIA NAGUSIA

Gaur egun, arazoak edo ezintasunak dituzten haurrak eskola arruntetara joaten dira eta horixe da, hain zuzen ere, hezkuntza-politikak bultzatzen duena. Oraindik urte asko ez dela ere, halako ikasleak ikastetxe berezietara joan ohi ziren; gaur egungo gizartearen eskakizunak, berriz, integrazioaren aldekoak dira.

Irakasleria egoera berri baten aurrean dago. Hortaz, gai honen inguruan gogoeta egitea komeni da, ezintasun fisiko edo mentalak dituzten ikasleen integrazioaren gaiari behar bezala heltzeko.

■ HELBURUAK

- Lankidetza giroan lan egitea.
- Beste pertsonen adimen-desberdintasunak zein fisikoak onartzea.
- Funtsezko gaitasun fisikoak jarduera ez lehiakorren bidez garatzea.
- Lehiaketa edo erkaketa ardaztzat ez duten joko eta egoera gozatsuak bizitzea.
- Besteen laguntza estimatzea.

■ UNITATEAREN GARAPENA

Hitzarmenak 23. xedapenaren hasiera-hasieran dioenez, haur ezinduak bere duintasuna bermatuko duen bizimodu egoki eta betea edukitzeko eskubidea du, betiere berez baliatzeko gai izaten eta gizartean parte hartzen lagunduko dioten baldintzetan. Haur elbarriari edo adimen-ezintasunen bat duenari bere inguru eta bizilekutik gertuen dagoen gizarte-zerbitzuan eskainiko zaio behar duen laguntza.

Pertsona guztiak gara desberdinak eta denok jasaten ditugu geure ezintasun, ezgaitasun edo gabezietatik datozkigun ondorioak. Gizakiok geure ingurugiroan moldatzen saiatzen gara ditugun errekurtsoez baliatuz, bai ezintasun fisikoak dituztenak, bai ez dituztenak ere. Bizitzan zehar gizakion % 60k jasaten dugu gaixotasun, ezintasun edo eragozpenen bat (dela haustura, dela bihotzeko gaitz edo diabetea...). Zenbaitetan, ikusten ez diren gaixotasunek, bihotzeko gaitzek kasu, agerian dauden hainbat ezintasun fisikok baino eragozpen handiagoak ekar ditzakete.

Gorputza hainbeste miresten duen eta perfekzioaren eredu hain estua duen gizarte honetan, gehienok ez ditugu betetzen hedabideetan saltzen zaizkigun jarraibideak. Hori horrela izanik, ez dira erraz ulertzen gizartearen zati horren eskolaratze osoarekiko azaltzen diren aurreiritzi eta mesfidantzak. Ohi den legez, ezjakintasuna da arbuio horren oinarrian duguna.

Badira, ordea, zenbait saiakera non Hezkuntza Fisikoa izan den, hain zuzen ere, haur elbarriak eta adimen-ezintasuna dutenak integratzeko prozesuaren giltzarri.

Gaur egun, Hezkuntza Fisikoaren arloan, ikasleen garapen osoa erdietsi nahi duten helburuak ezartzen dira. Arlo honetako helburu orokorrak honako hauek dira: norberaren gorputza onartzea eta haren jabe sentitzea, mugikortasuna edo motrizitate-gaitasuna lantzea, norberaren ezaguera eta aztura osasungarriak sortu eta garatzea, elkarrekin lan egitea eta arauak eta desberdintasunak onartzea. Motrizitatea berez da helburu, eta hainbat aldetatik lantzen da, hala nola, pertzepzio, mugikortasun, komunikazio, afektibitate, adierazkortasun edo ezagutzaren bidez.

■ ZER LANDU GAI HONEN INGURUAN?

Irakasleek

- Pertsonen arteko desberdintasunak, berdin irakasleen artekoak eta ikasleen artekoak, ontzat jo.
- HSAOL / LOGSEren edukiak ezagutu.
- Hezkuntza Fisikoa arloaren helburuak, edukiak, metodologia eta ebaluazioa berrikusi.
- Ikastetxean erabiltzen diren baliabideak eta tokiak berriz aztertu.
- Ezinduenganako aurreiritziez gogoeta egin.
- Integrazioaren esparruan berrikuntza-saioak burutu dituzten ikastetxeetako esperientzien berri izan.

Familiak

- Bideak jarri haurraren eskolaratzea eta gizarteratzea ahalik eta hurbilen izan dadin.
- Utzi seme-alabei erabakitzen zer egin nahi duten, eta laguntza eman eskatzen dutenean.
- Seme-alaba ezinduen autoestimua, autonomia eta harreman-gaitasuna sustatu.

Unitate honetan, osagarri gisa, "El Hogar de los Pequeñosolos" izeneko ipuina erabil liteke, "Pequeños Ciudadanos" bildumako seigarrena. Intermón, Bruño argitaletxea, 1999.

1. JARDUERA:
NORMALA!

Jarduera honetan pertsonen arteko desberdintasunaren normaltasunaz gogoeta egiten saiatuko gara. Zentzu linguistikoan, ez estatistikoan, oso zaila da zer den normala eta zer ez den zehaztea. Helduentzat hori zaila baldin bada, are zailagoa haurrentzat.

"Normalena desberdina izatea dela" ulertu eta ontzat hartuz gero, errazagoa izango da ageriko ezintasunak dituztenak onartzea, laguntzea eta haiekin ulerkorra izatea.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Pertsonen arteko desberdintasunez gogoeta egitea.
- Ikasleen sormena sustatzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- "Normal" hitzaren zentzua aztertzea.
- "Norberaren "eznormaltasuna" aintzat hartzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: erretroproiektagailua eta ohiko tresnak: orriak, arkatzak, margoak...

JARDUERAREN IRAUPENA: 40 minutuko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak W. Bienek-en olerki hau erakutsiko du erretroproiektagailuaren bidez:

Normala!
Maider handiegia da,
Ane txikiegia.
Dani lodiegi dago,
Imanol argalegi.
Laura itxiegia da,
Jon irekiegia.
Marta lirainegi dago,
Nora itsusiegi.
Txema azkarregia da,
Xabier ergelegia.
Leire zaharregi dago,
Idoia gazteegi.
Denok zerbaitetik dugu gehiegi,
denok zerbaitetik dugu gutxiegi;
guztiok baikara,
aldez edo moldez,
eznormalak.
Ba ote da inor hemen,
guztiz normala denik?
Guztiz normala denik,
ez da inor hemen.
Hori baita normala!
(Euskarara egokitua)

Ikasleek, talde handian jarrita, olerkia irakurtzeari ekingo diote. Ozenki irakurriko dute, bakoitzak lerro bat, adibidez, eta lerro bakoitzaren ondoren isilune bat eginez.

Behin irakurketa amaitu ondoren, oraindik talde handian, olerkiaz hitz egingo eta iruzkina egingo da. Jarraian bakoitzak esaldi hau amaituko du:

Ni . . . . . -egia naiz.

Txanda hau amaiturik, lauko taldeak egiteko esango zaie ikasleei eta talde bakoitzean horren antzeko olerki bat egin dezatela, hau da, pertsonen arteko desberdintasunak nabarmenduz.

Talde bakoitzak azetato batean idatziko du bere olerkia, talde handiaren aurrean proiektatu ahal izan dadin. Talde bakoitzak deklamatu egingo du bere olerkia eta, gero, denen artean iruzkina egingo dute.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Euskal Hizkuntza / Gaztelania / Atzerriko Hizkuntzak.

2. JARDUERA:

ITSUMUSTUKA

Desberdintasunaz ohartzea erraz samarra izan daiteke agerian baldin badago; begi-bistakoa ez denean, berriz, ez da hain erraza izaten; zailena, ordea, desberdintasun hori ontzat hartzea izaten da. Maiz, gure antzekoak ez diren pertsonak arrarotzat jotzen ditugu eta, ezjakinean, desberdintzat jotzen ditugun guztiei ihes egiten saiatzen gara. Zenbait ezintasun fisiko ageri-agerian daude eta, Yankura-k eta Dryden-ek (2000, 198. or.) diotenez, Sweetland-ek frogatua du pertsona hauen aurrean bi eratako jarrera nagusitu direla gure gizartean: batzuen ustez, elbarri edo ezinduen bizimodua hondamendi hutsa da; beste batzuek, ordea, ezinduek inolako arazorik ez dutela deritzote.

Iritzi bitzuok dira zentzugabe eta kaltegarri nola-halako ezintasuna dutenen pertsonentzat. Integrazioari buruzko legedian era askotako ezintasunak biltzen dira eta kasu bakoitzean diagnostiko berezia behar da – pertsona horrek zein aukera eta zein eragozpen duen– eta, diagnostiko horretatik abiaturik, ikaslearen gaitasunen araberako curriculumaren egokitzapena egin.

Alabaina, hezkuntzak duen erronka ezinduen adimen-garapena ez ezik, garapen osoa ere bada: garapen sozial eta afektiboa, adimen- eta motrizitate-garapena... Hartarako, behar-beharrezkoa da ikastetxeko irakasle eta ikasle guztien esku-hartzea. Halaber, ikastetxean ezindu bat edo gehiago izateak aniztasuna egunerokotasunean bizitzeko aukera emango die ikasleei.

Unitate honen bidez ezintasunen bat duten pertsonek eta ez dutenek elkar hartuta lan egin dezaten saiatuko gara, denok helburu berbera izan dezagun eta desberdintasuna askotan onuragarria izaten dela kontura gaitezen.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Begi-bistako ezintasunen bat duten eta ez duten ikasleen artean egoera gozatsuak bizitzea.
- Taldea osatzen duen pertsona bakoitzaren gaitasunak ontzat hartzea, ezindua izan edo izan ez.
- Laguntza eskatzen eta ematen ikastea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Taldean lan eginez ondo pasatzea.
- Ezintasunen bat duen taldekidea onartzea.
- Poztasuna sentitzea gaitasun desberdinak dituzten pertsonak dituen talde bateko partaide izateagatik.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ahal dela, leku zabal batean: gimnasioa edo jolastokia toki egokiak izan litezke.

BALIABIDEAK: zapiak (ikasleen erdiek begiak estali ahal izan ditzaten adina zapi), zenbait oztopo ibilbidea antolatzeko eta oztopo berezi bat ezinduak bere trebezia erakutsi ahal izan dezan.

JARDUERAREN IRAUPENA: ibilbidearen zailtasunaren araberakoa eta ikasleek elkarri ematen dioten konfiantzaren araberakoa. 30 bat minutukoa izan liteke.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Jarduera hau ikusmen arazoez ohartzeko prestatu da bereziki. Beste ezintasunek, hortaz, egokitzapen bereziak beharko dituzte.

Ikasleak binaka jarriko dira eta irakasleak honako hau esango die: *"Hona hemen denok egingo dugun ibilbidea. Binaka igaro beharko duzue, baina bikote bakoitzeko batek ezin izango du ikusi. Begiak estaltzeko ekarri ditudan zapi hauek erabiliko ditugu. Ohar gaitezen nola, ikusten ez dugularik, itsumustuka ibiliz, ikusiz sentitzen ez ditugun gauzak senti ditzakegun. Gaurkoan horrelako gauzak senti ditzazuen nahi dut"*.

Ibilbideko oztoporen bat igarotzeko laguntza beharrezkoa izatea litzateke onena (banku baten gainetik ibili, marra baten gainetik ibili, horma-barretara igo eta zeharkatu), ariketa hauetan itsumustuka dabilenak arreta osoa jarri eta laguntza eskatuko baitio ikusi egiten duen lagunari. Biek sentituko dute elkarren laguntzaren beharra –batak laguntza jaso beharra eta besteak eman beharra– eta ezinbestekoa izango da biontzat elkar ukitzea.

Ibilbidea honelakoa izango da:

- 1. Eskubaloi zelaiko marra gainetik 7 metro ibili.
- 2. Koltxonetan itzulipurdia egin.
- 3. Uztai barrutik igaro.
- 4. 4 kiloko "baloi sendagarria" 5 metrotan zehar garraiatu eta saski batean utzi.
- 5. Hankaz baloia jo.
- 6. "Suediar banku" baten gainetik ibili.
- 7. Helmuga zeharkatu harekin oztopatu gabe.

Ibilbideak egokitu egin daitezke landutako trebezien arabera eta nolabaiteko ezintasuna duten eta ezintasunik ez duten ikasleei moldatu.

Jarduera amaitu ondoren, ikasleak biribilean jesarri eta bizi izan dituzten sentsazioak adieraziko dizkiote elkarri. Taldean itsurik balego, aukera paregabea litzateke besteentzat ere, berak sentitu ohi dituen sentsazioez hitz egin bailezake, baita bere ingurura moldatzeko erabiltzen dituen amarruez...

CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURA

Gorputz Hezkuntza.

3. JARDUERA:

DANTZARA, PLAZARA, DANTZARA...

Motrizitate arazoak dituzten pertsonak gai izaten dira curriculuma osatzen duten jakintzagai gehienetako programei ekiteko, ez baitute jarduera kognitiboetarako adimen-gabeziarik izaten. Hala ere, zenbait irakasleren aldetik eragozpenak adierazten dira maiz Hezkuntza Fisikoko programan diren edukiak garatzerakoan. Askotan elbarri edota nolabaiteko ezintasun fisikoa dutenen ordutegia aldatu egiten da Hezkuntza Fisikoko saioen ordez lan kognitiboak egin ditzan. Aukera hau denentzat erosoa izaten da, jakina, baina erabat diskriminatzailea da eta ikaskuntza pobretzea dakar. Hezkuntza Fisikoko saioak atsegin eta alaitasun handiz bizi izaten dituzte adin honetako ikasleek, eskuarki oso mugikorrak izaten baitira. Haurrek gorputz eta mugimenduen bidez komunikatu beharra izaten dute eta eguneroko bizitzan diren traba, arazo eta eragozpenak joko sinbolikoaren bidez jasotzen dituzte. Zentzu horretan, motrizitate-arazoak dituzten ikasleen integrazioa kirolen bidez lortzeko saiakerak egin dira zenbait ikastetxetan.

Integrazio lanetarako ezin dezakegu lehiaketa-kirolik erabili, noski, elkarlana baizik; alegia, taldekide bakoitzak bere gaitasun eta trebetasunen arabera ekingo dio jarduerari.

Adierazpen askea, dantza librea eta antzerako ekintzak izaten dira gizabanakoaren gaitasunen garapenari laguntzeko jarduerarik egokienak. Monika Heinrichs dantzariak dioenez (1998, 15. or.), "dantza librean geure burua onartzen saiatzen gara, pertsona legez eta norberaren desberdintasun guztiak aintzat hartuz. Nor bere gaitasunetan oinarrituz –ez bere ezintasunetan– hurbiltzen gara dantzara. Norberaren gorputza aintzat hartuz, bizi-pozez eta aukera betean bizi behar da; mugimenduaz gozatzea da garrantzitsuena, dantzaren alaitasuna".

■ HELBURU NAGUSIAK

- Ikasleen sormena sustatzea.
- Bakoitzaren gaitasun eta trebeziak aintzat hartzea.
- Elkarlana bizitzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Gorputz mugimenduen bitartez sentipenak adieraztea.
- Gorputz adierazpenaz gozatzea.
- Komunikazio dramatikoa barneratzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: jolastokian edo gimnasia aretoan.

BALIABIDEAK: gurpil-aulki bat edo bi, zenbait ikasle ibil daitezen. Irrati-kasetea, musika-zintak (ahal izanez gero, ikasleek proposaturikoak), antzezpenean zehar erabil litezkeen zenbait tresna: uztaiak, sokak, konoak, pilota handi eta txikiak, kolorezko zintak, mazoak...

JARDUERAREN IRAUPENA: 50 minutuko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Baldin ikasleek antzezpen librea egiten eta gurpil-aulkian ibiltzen badakite edota motrizitate-arazoak dituen pertsona bat ondoan izateko ohitura badute, nahikoa da esatea launaka edo bosnaka jar daitezela eta saioaren azken 20 minutuetan egingo duten dantza bat presta dezatela. Ikasleek musika eta erabili nahi dituzten materialak aukeratuko dituzte, eta bakoitzak egin ditzakeen mugimenduak lantzeari ekingo diote. Irakaslea talderik talde ibiliko da lehen fase honetan, iradokizunak eginez, mugimendu batzuk zuzenduz, berriak asmatuz edo baliabide berriak proposatuz. Prestaketa eta entseguaren ondoren, talde bakoitzak bere dantza agertuko du. Bitartean, gainerako lagunek obra ikusiko dute eta azkenean txalotu egingo dute.

Ikasleak ohituta ez badaude, pausoka-pausoka joan behar da, harik eta ohitura hauek bereganatu arte:

1. Taldeko ikasle guztiek esperimentatuko dute zer den Hezkuntza Fisikoko klasean baztertuta geratzea.
2. Ikasle guztiek probatuko dute gurpil-aulkia eta hartan mugituz gozatuko (horretarako denbora gehixeago beharko da).
3. Banan-banan (aulkian edo aulki gabe) mugimendu adierazkorrak egingo dituzte.
4. Bikoteka (biak gurpil-aulkian edota bata bai eta bestea ez), batak mugimendua proposatu eta besteak kopiatu egingo du.
5. Talde txikian (denok aulkian, edota bi aulkian eta bi aulki gabe) antzezpen laburra egingo dute.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURA

Gorputz Hezkuntza.

ETXEKOENTZAKO

FITXA

Guraso agurgarriok:

Aste honetan zehar pertsonen arteko desberdintasunen balioa lantzen aritu gara ikasgelan. Pertsona guztiok gara desberdinak eta desberdintasun horiei esker, hain zuzen, bizitza erabat anitza da eta gizarte-harremanak aberatsagoak eta ugariagoak. Gizakiok desberdinak garenez, batzuek egin dezakete besteek ezin dutena eta, horrela, elkarri laguntzeko aukera dugu eta denok elkar hartuta helburu bakarra lor dezakegu.

Aurkezten dizuegun fitxa honetan, idatz itzazue familia osatzen duten pertsonen izenak ezkerreko zutabean. Beste bietan, berriz, idatz itzazue pertsona bakoitzaren ezaugarri bereizgarriak eta ezaugarri horiek zein onura dakarkioten senitarteari.

SENIDEAK	EZAUGARRIAK	ZEIN ONURA DAKARKIO SENITARTEARI?
Ad.: Amama Mari	On-ona da. Ipuin eta istorio asko dakizki eta beti izaten du astia besteentzat.	Triste gaudenean, beragana jotzen dugu senide guztiok, kontsolamendu bila.

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

UNITATEAREN BALORAZIOA

Ikasleek galdera honi erantzungo diote:

Zer deritzozu gurpil-aulkian egindako dantzari?

a. Dibertigarria baina zaila.

b. Ezin daiteke egin.

c. Ez da aulkirik gabe egiten den dantza bezalakoa, baina oso polita.

Zergatik? .....

.....

.....

Jarraian, ondoko galdera honen iruzkina egingo da, eta solasaldian agertutako erantzun eta ondorioak idatziz jasoko dira:

"Zer behar da normala izateko?"

.....

.....

.....

.....

.....

NESKA NAIZEN HAU ETA MUTIL ZAREN HORI EZBERDINAK GARA ETA ELKAR ESTIMATZEN DUGU

■ IDEIA NAGUSIA

Eskolak ikasleen *garapen osoa* bultzatu behar du eta, beraz, euren nortasun propioa eraikitzen lagundu behar die; hori ez du, ordea, *sexu aldetiko ezberdintasunak* baldintzatu behar. Garapen hori lortzeko, neska eta mutilen arteko harremana sustatu behar da, betiere erne ibiliz ezberdintasuna bereizketa bihur ez dadin. Era berean, hezkuntza-komunitatea osatzen duten pertsona guztiek bat etorri behar dute ikusmolde horretan; horretarako, ikasle, familia eta langile irakasle eta ez irakasleen arteko loturei ekin behar zaie.

■ HELBURUAK

- Neska eta mutilen arteko aukera-berdintasunean aurrera egitea, geure ikasleengan begirune-jarrerak sustatuz eta sexua edo bestelako ezein arrazoirengatik bereizketarik egin gabe, ez bere buruarekiko ezta besteekiko ere.
- Ikasleak, neskak eta mutilak, euren jokamoldeak eta besteenak aztertzeko gai izan daitezen saiatzea, hori baita bidea familian, eskolan eta gizartean berdintasun-jarrerak garatzeko.
- Ikaslea sexuaren aldetiko desberdintasunez ohar dadin lortzea, esku hartuz eta eskola-komunitatearen alderdi batzuk zainduz, hala nola, jolastokia, jolasak, ahozko zein idatzizko komunikazio ekintzetan erabiltzen den hizkuntza...

■ UNITATEAREN GARAPENA

Sozializazio prozesuan zehar –famili giroan eta eskolako harremanetan, adibidez– joaten da garatuz *sexu-genero sistema*ren ulerkuntza. Gure gizarte eraikuntzak, ordea, *genero ezberdintasun* bilakatzen ditu sexua dela-eta diren ezberdintasun biologikoak. Kontzeptu horrek mugak ezartzen dizkio pertsonaren osabetezko garapenari, izan ere, neskei eta mutilei rol eta aukera desberdinak esleitzen baitzaizkio. Neskengandik samurtasuna espero izaten da, arduratsua, otzana eta esanekoa izatea, zereginetan gorputz eta arima aritzea... Mutilengan, aldiz, lehiakortasuna eta antzerako jarrerak bultzatzen dira, ekimena, oldarkortasuna...

Egoera horrek ondorio argia dakar: emakumeek *etxearen esparrua eta maila pribatua*rekin zerikusia duten gaitasunak garatzen dituzte batik bat –batzuetan soilki- eta gizonezkoek *maila publikoa*rekin erlazionatutakoak; beraz, batzuk eta besteak gizartean eginkizun desberdinak betetzeko prestatzen dira. Rol horiek, ordea, bereizketa dakarte, gure gizartearen balore-hierarkian arlo publikoari dagozkion zereginak begirune handiagoz ikusten baitira etxeari dagozkionak baino, eta, hortaz, hobetsi egiten da gizonezkoekin erlazionatzen dena.

Eskolak, esan bezala, funtsezko eginkizuna du *genero-estereotipo*en transmisioan. Gizonezkoen eredua hobesten segi dezake kultura androzentrikoaren mezu, eduki eta jarrerak zabalduz, edo, bestela, beste balore eta jarrera batzuk bultza ditzake, gaur egungo gizartearen kezka eta sentsibilizazioei jarraiki. Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak, Hezkuntza Berrikuntzarako Zuzendaritzaren bidez eta *"Bizikidetzarako oinarrizko baloreetan heztea"* programaren barruan, euskal gizartearen sentsibilizazio hau jasotzen du honako hau esanez:

"...balore horiek irakas-ikasketa prozesuaren helburu eta eduki gisa landu behar ditugu. [...] printzipio hauetatik abiatuta hezi behar dugu: giza eskubideak, justizia, genero, [...] direla-eta sortutako edozein diskriminaziori aurre egiteko borroka, estereotipoen gaitzespena…" (Eusko Jaurlaritza, 2000, 27. or.).

Benetako berdintasuna erdiesteko, mutilengan emakumezkoen kulturaren ezaugarri positiboak eta neskengan gizonezkoen kulturarenak berreskuratzeko jarrera, gaitasun eta baloreak sustatu behar dira eskolan. Era horretara, bi ereduen –gizonezkoena eta emakumezkoena– arteko dikotomia gaindituz, hierarkiarik gabeko ereduak onartuko dira.

Aldi berean, ezinbestekoa da irakasleek euren irakasbide eta irakas-jarduera oro har aztertzea. Izan ere, itxuraz berdintasuna dagoen arren, eskola-bizitzan oraindik dirauen sexismoa detektatu beharra dago, proiektuak egiterakoan *hezkidetza*ren ikuspuntutik egin ahal izan daitezen. Prozesu horrek pentsamoldeetan ez ezik, jarreretan ere aldaketa ekarriko du.

Halaber, behar-beharrezkoa da familia ere prozesu horretan sartzea, genero-estereotipoen transmisioan funtsezko eginkizuna betetzen baitu. Familia eta eskolaren arteko elkarrekintzak lagundu egingo du ikasleek *ardurakidetza* gara dezaten, arlo publikoan nahiz pribatuan.

■ ZER LANDU GAI HONEN INGURUAN?

Irakasleek

- Norberaren irakas-jardueraz gogoeta egin, bakoitzak jarrera sexistak noiz eta nola islatzen dituen hauen bidez nabarmenduz:
  - Neskei eta mutilei egindako balorazioak (*"Mutilak astakilo hutsak dira, neskak baino basatiagoak. Hauek, ordea, arduratsuagoak izaten dira"* adibidez).
  - Ikasle taldeak egiteko erabiltzen diren irizpideak.
  - Hizkuntzaren erabilera ikasgelan (maskulinoa erabiltzea –"gizona" esatea "gizaki"ari gagozkiola, adibidez– edo bikoteak –neska-mutilak, seme-alabak, lehengusu-lehengusinak...– ez erabiltzea).
- Denentzat diren tokien erabilera aztertu.
- Testuliburuak eta curriculum-baliabideak berrikusi.
- Ikastetxetik igortzen den dokumentazioa eta itsasten diren horma-irudiak ikusi.
- Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan klaustroak adostutako irizpide guztiak jaso.

(Horietariko ekintza batzuk langile ez-irakasleek ere egin ditzakete).

Familiak

- Ikastetxeak aurkezten dituen hezkidetza proiektuez interesa erakutsi eta haiek gauzatzerakoan lagundu.
- Eskolarekiko harremanetan aitak eta amak dituzten zereginez gogoeta egin.
- Enpresa handiek zenbait ospakizunetarako (Gabonetarako, adibidez) antolatzen dituzten kanpainen aurrean kritiko azaldu, jostailu eta liburu askoren mezu sexista eta belikoa aztertuz.

1. JARDUERA:
NEURE BURUARI BEGIRA

Ikasle garaian pertsonaren hainbat alderdi garatzen dira ikasturte guztietan zehar; bakoitza "bizitza-proiektu" bat eratuz joaten da, berak izan nahi, ahal eta behar duenaren ideia egiten hasten da. Nabarmentzekoa iruditzen zaigu, alde horretatik, neskek sentimenduen adierazpenarekin eta komunikazioarekin erlazionaturiko gaitasunak garatzen dituztela batik bat; mutilek, berriz, jarrera lehiakor eta oldarkorragoak garatzen dituzte bereziki.

Alabaina, bai neskek eta bai mutilek arlo pertsonalean eta familia- eta gizarte-mailan erabakiak *autokontzeptu* eta *autoestimu*aren ikuspuntutik hartu ahal izan ditzaten, prozesua ikaslearen garapen egokian oinarritu beharra dago, hau da, pertsonak bere osotasunean eta libreki garatu behar du, gizarte-estereotipoek baldintzatu gabe.

Jarduera honen xedea mutikoek eta neskatoek sozializazio prozesuan barneratu dituzten baloreak azaleratzen eta zehazten laguntzea da, azken batean pertsona ezberdinen bizimodu eta izaerekiko harremanen bidez osatzen baitira gure izaera eta gure ametsak. Nork bere nortasuna aurkitu behar du, bai bere buruaz duen irudikapenaren bidez, baita bere gustu eta zaletasunen bitartez ere.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Ikasleen autoezagutza eta autoestimua indartzea.
- Ikasleei beren irudipen eta fantasiak azaleratzen laguntzea.
- Ikasleak etorkizunerako dituen itxaropenetan bere buruaz duen irudikapenaren garrantzia nabarmentzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Ikasleen ezaugarri fisikoak, psikologikoak, sozialak... zehaztea.
- Gustuak, interesak, sentimenduak, ametsak... definitzea.
- Pertsona bakoitzaren alde positiboak tinkatzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: ikasle bakoitzak bere argazkirik berriena ekarriko du. Orriak, boligrafoa edo bi koloretako lapitzak eta itsasgarria. Horma-irudi bat orriak eta argazkiak itsasteko.

JARDUERAREN IRAUPENA: ordubeteko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Hasi aurretik, irakasleak honela aurkeztuko du zeregina: *"'Nor da...?' jokoan jolastuko gara. Horretarako, ekarri dituzuen argazki berri guztiak pilo batean jarriko ditugu eta, beste pilo batean, zeuen burua deskribatuz*

–ezaugarri fisikoak, zeuen ikaskideekin zer-nolako harremanak dituzuen eta abar aipatuz– idazten dituzuen orriak. Nik deskribapen bat irakurtzen dudanean, nor den asmatu beharko duzue".

Hasieran, 10 minutuko tartea emango diegu ikasleei orri batean honako galdera hauen erantzunak idatz ditzaten:

- Nolakoa naiz?
- Nolakoa sentitzen naiz?
- Zer-nolako harremana daukat neure ikaskideekin?
- Nolakoa izan nahi nuke?
- Zer izan nahi dut nagusia izatean?

Galdera horiek erantzun eta gero, irakasleak azaldu egingo die ikasleei pertsona guztiok ditugula geure izaeraz harro egoteko moduko arrazoiak, gustuko ditugun alderdi batzuk... baina, hain gustuko ez ditugun gauzak ere izaten ditugula. Azalpen labur horren ondoren, orrian idatzi dituzten alde positiboak beste kolore batez azpimarratzeko eskatuko diegu ikasleei.

Behin galderak erantzun eta alde positiboak nabarmendurik, hartarako prestatutako kutxa batean utziko dituzte orriak.

Segidan, irakasleak ikasle bakoitzaren ezaugarriak irakurriko ditu. Hasieran, azpimarratutakoak baino ez ditu irakurriko –alde positiboak sendotzea baita helburu– eta edozein neskato edo mutikok igarri ahal izango du nor den. Behin igarriz gero, asmatu duenak argazkia jarriko du horma-irudian eta haren azpian bere ezaugarriak. Alde negatiboak ez lirateke aipatuko pertsona identifikatzeko behar-beharrezkoa ez balitz (jardueraren zati honek saioaren erdia iraun lezake, gutxi gorabehera).

Bukatzeko, irakasleak jasotako datuez gogoeta egingo du, neska-mutilak jabe daitezen zein garrantzitsua den *bakoitzak bere burua nola ikusten duen* kontuan izatea eta ikuskera horrek errealitateaz dugun ikuskeran eragina duela, baita geure itxaropenetan ere (adibidez, neska edo mutil izateak zerikusirik ba ote duen kirolekin edo lanbideekin azter liteke). Abiapunturik egokiena da, zalantzarik gabe, ikasle bakoitza zer den aintzat hartzea eta bere horretan sendotzea eta tinkatzea, bere gaitasunetan konfiantza har dezan; horrela, bere autoestimuari ere mesede egingo diogu. Aldi berean, komeni da beharrezko laguntzak ematea, bere buruaren irudi zuzen eta librea egin ahal izan dezan eta sexuari lotutako estereotipoetatik aldendua, horiek garapen desberdina sustatzen baitute neska eta mutilen artean.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Euskara eta Gaztelania / Atzerriko Hizkuntzak.

2. JARDUERA:
ZURETZAT NAHI NUKE

Gure artean badira hainbat aurreiritzi gizonezkoenak edo emakumezkoenak omen diren ezaugarriez: hain zuzen ere, haietan oinarritzen da gizartea sexu bakoitzarentzat sineskerak edo *genero-rolak* definituz joateko.

Kultur antolamendu horrek mugak ezartzen dizkio edozein pertsonari –gizon zein emakume– bere gaitasunak garatu ahal izateko. Gabezia horiek orekatzeko, nahitaezkoa da, batetik, norberaren buruaren onespena indartzea (1. jarduera) eta, bestetik, beste pertsonarena, betiere haren ezberdintasunak onartuz (2. jarduera hau).

Jarduera honen xedea beste pertsona bere osotasunean onartzea da, bizikidetza giroan eta sexu batekoa edo bestekoa delako ezarritako klitxeak alde batera utzita. Proposamenaren funtsa honako hau da: ikasle bakoitzak etxean duen opari bat aukeratuko du bere ikasgelako kide bati eskaintzeko eta isilpean gordeko. Nork nori emango dion oparia zozketa bidez erabakiko da.

Prestatu bitartean, irakasleak zenbait irizpide emango dizkie ikasleei, hauek ikuspegi sexistetatik at egin ahal izan dezaten opariaren aukera.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Ikasleek hartutako erabakiak genero-estereotipoek baldintza ez ditzaten eta irizpideak pertsonalagoak izan daitezen laguntzea.
- Norbanakoaren ezberdintasunen onespena sustatzea.
- Ikasleei euren ideiak azaltzen eta besteen iritziak entzuten ikas dezaten laguntzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Ikaskideen gustuez, interesez, sentimenduez, ametsez... interesatzea.
- Beste pertsonaren alde positiboak sendotzea.
- Hartutako erabakiaren zergatia azaltzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: isilpeko oparia, ikasgelako ikasleen izenak idatzita dituzten paper zatiak.

JARDUERAREN IRAUPENA: ordubete, bi saiotan banatua.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak honela aurkeztuko du egitekoa: *"Gabonak oso hurbil ditugunez, Olentzerok edo/eta Erregeek ekarriko dizkizueten opariez gain, beste opari bat ere jasoko duzue gelako ikaskide baten eskutik. Hartarako,*

denok ekarri beharko dugu opari bat norbaitentzat, baina oparia ez duzue erosi behar. Etxean dituzuen jostailuen artean aukeratuko duzue".

Irakasleak ikasleen izenak izango ditu paper zati banatan idatzita. Bakoitzak paper bat hartu eta isilpean gordeko du suertatu zaion izena.

Oparia aukeratzen laguntzeko asmoz, objektu posibleen zerrenda bat esateko eskatuko diegu ikasleei eta arbelean idatziz joango gara. Jarraian, galdetuko diegu ea zein opari den mutilentzat eta zein neskentzat. Hori egin eta gero, beren iritziak aztertzen saiatuko gara eta lagunduko diegu ulertzen mutila edo neska izateagatik ez dutela zertan gauza batzuk gogoko izan. Esate baterako, egunen batean mutil asko aita izango dira eta, beraz, normala da panpinekin jolasean aritzea; neska batzuek, berriz, arkitektura edo ingeniaritza ikasiko dute beharbada eta eraikuntza-jolasekin josta daitezke.

Jardueraren zati hori egin ondoren, oparia aukeratzerakoan kontuan izan beharreko zenbait puntu azalduko ditu irakasleak:

- Oparitzat ematen duzuen jostailua *pertsona* batentzat da. Berdin dio neska edo mutila izan.
- Errepara iezaiezue suertatu zaizuen pertsonaren gustuei, zein gauza egitea gustatzen zaion eta zein duen gogokoen (adibidez, irakurtzea gustuko badu, ipuinak aukera ditzakezue; oso mugikorra baldin bada, mugimendua eskatzen duen zerbait...).
- Kontuan har ezazue ea gogokoago duen etxean ala kanpoan jolastea.

(Lan hau 30 bat minututan egin daiteke).

Ikasleek astebeteko epea izango dute pentsatzeko ea bere jostailuen artean zein izan litekeen bere ikaskideari gehien gustatzen zaiona.

Gabonetako opor aurreko azken egunean banatuko dira opariak. Ireki eta gero, ikasleak talde handian bilduta, honetaz hitz egingo da:

-Oparia ematen duen pertsonak:

-Zergatik aukeratu du?

- Oparia jasotzen duenak:

-Esan beza gustuko duen ala ez duen eta zergatik.

Ikasleek euren erabakien arrazoiak ematen dituzten bitartean, irakasleak goraipatu egingo ditu askatasunez eginiko aukerak, lehentasuna ematen dietenak izaera eta ezaugarri psikologikoak oinarritzat dituzten irizpideei, edota hazkuntzaren beharrizanetan oinarritutakoei, eta ez sexuagatiko irizpide baztertzaileei.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Euskara eta Gaztelania.

3. JARDUERA:
DENONTZAT DAGO LEKUA

Jolastokia ikasle guztientzako lekua da. Hala ere, lekuaren banaketa, neska eta mutilen kokapena, ez da oso bidezkoa izaten. "Mutilen jokoak" izaten dira nagusi eta horiexek hartzen dute lekurik gehien: baloi-jokoek, borroka-jokoek... Neskek, ordea, jarrera pasiboa izan ohi dute: mutilen jolasei begira edo, bestela, haiek libre uzten dizkieten txokoetan egoten dira (haiek futbolean aritzeko traba egiten ez duten lekuetan, alegia).

Tarte horretan islatzen dituzte ikasleek ikasitako eredu edo estereotipoak; hau da, neskatoak euren seme-alabatxoak zaintzen dituzten "amatxo" izatera jolasten direnean, edo erizainak... eta mutikoek telesail batzuetako pertsonaia indartsuak –gehienetan oso jarrera larderiatsua erakusten dutenak– izan nahi dutenean.

Horren aurrean eskolak esku hartu behar du eta "bere hezkuntza eta curriculum proiektuak eta bere antolamendu eta funtzionamendurako arautegia generoaren ikuspegitik" prestatu (Emakunde, 1999, 85. or.). Jarduera honek jolastokiaren leku-banaketa aldatzea proposatzen du, errealitate horren aurrean irakasleengan sentsibilizazioa eta jarrera aldaketak lortzeko eta ikasleak horretaz ohar daitezen.

Jarduera honek ikasleak bideratu nahi ditu jolastokiaren erabilera eta antolamenduaren proposamen desberdina egin dezaten.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Jolastokiaren banaketa bidezkoagoa diseinatzea.
- Jolastokiko guneen erabilera genero-estereotipoek baldintza ez dezaten laguntzea.
- Ikasleengan pertsonarteko harremanak sustatzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Jolasteko tokien erabilerarako egutegi-proposamen bat egitea.
- Taldean lan egitea.
- Nork bere proposamena defendatzen ikastea eta besteen ekarriak jasotzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: kartulinak, errotuladoreak eta zenbait material.

JARDUERAREN IRAUPENA: ordubeteko saio bat.

(Ikastetxeko talde guztiekin ere egin liteke jarduera hau; orduan, ondorioek antolamendu orokorrean izango lukete eragina. Jakina, horrela eginez gero, ordubete baino gehiago beharko litzateke).

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Lehen-lehenik, irakasleak jarduera aurkeztuko du honela esanez: *"Jolastokiko guneak banatzeko proposamen bat prestatuko dugu. Egin dezagun kontu beste ikasle guztiei eta irakasleei aurkeztu behar diegula jolastokiaren erabilerarako arauak aldatzeko"*.

Ikasleek ordu erdi bat emango dute gutxi gorabehera talde handian eztabaidatzen eta irakasleak egindako galderei erantzuten. Jardueraren xedea, izan ere, jolasteko lekuen erabilera baztertzailea egiten denentz gogoeta egiten laguntzea da:

- Nolako jolasak egiten dira?
- Nortzuek hartzen dute parte sarriago?
- Nolako objektu edo jostailuak erabiltzen dira jolastorduan?
- Jolastokiaren zein proportzio-zati erabiltzen dute neskek? Zein mutilek?
- ...

Erantzunak eman eta gero, irakaslea ikasleen ekarpenak jasotzen, itxura ematen eta arbelean idazten saiatuko da, ikastaldearen proposamena gauzatzeko asmoz. Ez dugu ahaztu behar helburua proposamen ez-sexistak egitea dela.

Horren ondoren, ikasleak bi taldetan banatuko ditugu honako zeregin hauek egiteko:

- Talde batek proposamenaren puntu nagusiak bilduko ditu kartulina eta material desberdinak erabiliz. Esaldi horiek publizitate-kanpaina bateko sloganak bezalakoak eta jolastokiaren berrantolaketaren arrazoiak lirateke.
- Beste taldeak jolastokiaren erabileraren asteko egutegia egingo du, lehen zatian aztertutako eta adostutako irizpideak kontuan hartuz.

Jarduera hau burutzeko beste aukera bat

Jolastordua ordu berean duten ikastetxeko talde guztiekin edo gehienekin eginez gero, jarraipena eman dakioke jarduerari. Adibidez, slogan eta egutegiak jar daitezke astebetez ikastetxearen sarreran, ikasle eta irakasle guztiek ezagut ditzaten. Horrela egingo balitz, bi ikaslek egon behar lukete egun bakoitzean azalpenak eman ahal izateko.

Astea amaitu ondoren, eztabaida bat antolatuko litzateke; bertan, irakasleren batzuekin batera, talde bakoitzeko ordezkari batek hartuko luke parte. Eztabaida horren helburua proposamenak aurkeztu eta ikastetxe osoaren akordio bat lortzea litzateke.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Euskara eta Gaztelania / Arte Hezkuntza (Plastika eta Ikus Adierazpena).

ETXEKOENTZAKO FITXA

Guraso agurgarriok:

Azken egun hauetan zuen seme-alabekin ikasgelan erabili dugun mintzagaia izan da sexu aldetiko ezberdintasunak ez lukeela beren garapen pertsonalean inolako bereizketarik ez aukera-desberdintasunik ekarri behar. Zuek ere, aita eta ama zareten aldetik, zeuen seme edo alabaren garapenean funtsezko eginkizuna betetzen duzuela kontuan harturik, oso garrantzitsua iruditzen zaigu genero-estereotipoen transmisioari buruzko jarrerak aztertzea, horrek eragin handia baitu bere nortasunaren egituraketan.

Horretarako, eskolaren esparruarekin lotutako zenbait galdera proposatzen dizkizuegu, hausnarketa sakonagoa egiten lagunduko dizuetelakoan. Hauetaz hitz egin dezakezue, besteak beste:

- Zuetariko zein joaten da irakaslearekin hitz egitera...
  - zeuen seme edo alabaren aurrerabideaz hitz egiteko bakarkako bilerak direnean?
  - guraso guztientzako diren mailakako batzarrak direnean?
  - gatazkaren bat sortzen denean edo zerbait argitu nahi denean?
- Biok joatekotan, zeinek egiten du berba batzarretan? Zertaz hitz egiten du normalean aitak? Eta amak?
- Berdin jokatzen duzue semeari dagokionean eta alabari dagokionean?
- Nork laguntzen dio etxean eskolako lanak egiten?

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

Iradokizuna: Ikastetxearen dinamikak onartuko balu, interesgarria litzateke familia guztiekin batzar bat antolatzea hausnarketaren emaitzez hitz egiteko.

UNITATEAREN BALORAZIOA

Interesgarria litzateke zenbait behaketa-arau ezartzea, bi sexuen arteko berdintasunean zenbaterainoko aurrerapenak egiten diren zehaztuko duten adierazleak aztertzeko. Adibidez:

- Bere sexuaren arabera zein aukera izan behar duen zehazteko gai da.
- Badaki, jakin, zenbaitetan bereizketa egiten dena neska edo mutila izateagatik.
- Sexu-bereizketak dakartzan eragozpenez jabetzen da.
- Harreman berdintsuak izaten ditu neskekin eta mutilekin, pertsona bakoitza nolakoa den.
- Gai da gogoeta egiteko eta bere gizarte harremanetan aldaketak proposatzeko (ikasgelan, jolastokian, etxean...).
- Bera aritzen ez den jolasetan ere saiatzeko interesa erakusten du.
- Bere hizkeran genero femeninoa ere kontuan izaten du.
- Neska-mutilen artean gertatzen diren hitzezko erasoez ("*marimutil*", "*maritxu*"...) ohartzen da eta ekidin egiten ditu.

BATZUETAN EZ GAITUZTE ONDO TRATATZEN

■ IDEIA NAGUSIA

19, 34 eta 35. artikuluetan tratu txarrak ematen diren egoerak, haurrenganako abusuak eta haien aurkako babes-neurriak biltzen dituzten eskubideez dihardu Hitzarmenak. Gai horri heltzerakoan, tratu txarra eta gatazka kontzeptuak bereizi behar ditugu eta haien arteko aldea nabarmendu, berdinen arteko tratu txarren ikuspegitik batik bat, horrela 9tik 12 urtera bitarteko ikasleek hobeto ulertuko baitute; izan ere, ikasleen arteko indarkeriak ondorio ezin kaltegarriagoak baitakartza eskola-komunitate osoarentzat.

■ HELBURUAK

- Eraso mota guztiez gogoeta egitea.
- Erasoak edozein motatakoak direlarik ere, haien aurrean jarrera asertiboak hartzea.
- Nork bere burua pertsona legez onartzea.
- Pertsona orori zor zaion begirunea norberarentzat ere exijitzea.
- Tratu txarraren berri eman ahal izateko baldintza egokiak sortzea.

■ UNITATEAREN GARAPENA

Batzuetan, zenbait gertaerak edo ikasle batzuen eraso-jarrerek eta indarkeriazko jokaerek aztoratu egiten dute eskolako elkarbizitza. Horietako batzuk irakasleek ikusi egiten dituzte, baina beste asko irakasleak ez daudelarik gertatu ohi dira eta eskolako giroari, eskuarki, oso era negatiboan eragiten diote: adin bereko edo desberdineko ikasleen arteko harremanei, erasoa nozitu duenaren eta erasotzailearen garapen pertsonalari, ikasle eta irakasleen arteko harremanei eta ikastetxeko jarduera guztiei oro har. Hargatik, arazo hori igartzea eta garaiz esku hartzea, albait arinen moztea alegia, funtsezkoa izan daiteke erasoa jaso dutenen onerako eta eskola barruko elkarbizitzarako.

Berdinen arteko tratu txar mota bat hitzezko bortxakeria dugu, hala nola, irainak, isekak, ezizenak, gezurrezko esamesa eta zurrumurruen zabalkundea, zenbait akats edo ezaugarri fisiko barregarri uztea... Beste era bateko tratu txarra dugu, bestalde, indarkeria fisikoari dagozkion jarrerak, hots, erasoak, borrokak, kolpeak, inor labanaz edo arma zuriz beldur-ikaraz jartzea, etab. Ildo berean, zenbait aldiz sexu-jazarpen edota erasoak gertatu ohi dira, beste batzuetan fisikoki hain indartsuak ez direnenganako bereizkeria kasuak... Azkenik, tratu txar psikologikoak ez ditugu ahaztu behar, haietan eraso fisikorik ez badago ere, isolamendu egoerak sor baitaitezke, bazterketak, beldurrak, etab.

Edonola ere, berdinen arteko liskar naturala eta tratu txar egoerak bereizi behar ditugu. *"Gatazkak aberastu egiten gaitu"* izenburua duen 10. unitatean ikusi dugun bezala, gatazka gizaki guztien bizitzan dago eta,

izan ere, onuragarria da, aniztasun eta aberastasuna dakar eta, irtenbide egokia aurkituz gero, gizabanakoaren garapenari mesede egiten dio. Tratu txarra, aldiz, eraso-jokamolde bat da, berariazko jarrera oldarkorra, apropos egina eta, zenbaitetan, asteak, hilabeteak edota urteak irauten duena.

Berdinen arteko tratu txarrak nagusikeriak sortuak dira, ahulagotzat jotzen den pertsona menderatzeko, eta defendatzeko modurik ez duena ikaraz beldurrarazteko. Tratu txarrek eragindako egoeretan ezinezkoa izaten da giza garapen egokia, ez erasotzailearentzat, ezta erasoa jasaten duenarentzat ere. Hori dela eta, erabat garrantzitsua da horrelako jarrerak aurreikustea, lehenbailehen moztea eta jokaera horiei aurre egiteko neurriak hartzea.

Egoera sozial nagusia eskola dugu eta, horregatik hain zuzen ere, eskola giroan landuko ditugu inon baino hobeto gatazkak eta gatazkon konponbide zuzen eta baketsuak, baita tratu txarrak aurreikusteko eta errotik kentzeko estrategiak ere.

■ ZER LANDU GAI HONEN INGURUAN?

Irakasleek

- Informazioa jaso, bibliografia kontsultatu eta gaiaren inguruan gogoeta egin.
- Idatzi IHPn, IIPn eta AJAn klaustroa gai honetaz zein ondoriotara iritsi den.
- Tratu txarren bat ematen denerako prebentzioa, trataera eta esku-hartzea sustatzeko plangintza sistematiko bat prestatu.
- Ikastetxeko curriculumaren beste jakintzagaietan islatuko den hezkidetza-programa egin.
- Ikasgelatik bertatik heldu gaiari, tutoretza orduetan eta beste curriculum-arloetan.

Familiak

- Senide guztien arteko komunikazioa sustatu.
- Honelako kasuen aurrean erantzun eraginkorrak ematen ikasi.
- Gai honen inguruan garatzen diren egitasmo eta programetan irakasleekin batera lan egin.
- Nola jokatu ez dakigun egoeren aurrean, profesionalen laguntza eskatu.
- Tratu txarra jasan duen seme edo alabari erabateko laguntza eta babesa eskaini.

1. JARDUERA:
GURE ARTEAN

Gure ikasleek bizitzaren zati handi bat ikastetxean ematen dute; eskola giroan era askotako harreman sozial eta pertsonalak sortu ohi dira, onak eta txarrak, hurrengo urteetarako erabakigarriak izan daitezkeenak, bai emozionalki, bai afektiboki ere.

Ikasle gehienek eskolako ikastalde batekin identifikatzen dute bere burua, ia beti estreinako urtean bere taldea izan zenarekin. Urteak joan eta urteak etorri, ikasgela horretan taldekideen artean lotura afektibo eta sozial garrantzitsuak sortzen dira. Bestalde, talde horretara ondorengo urteetan etorritako ikasleak edota, arrazoi batengatik edo besteagatik, talde horretan orduren bat baino ematen ez dutenak ere kontuan hartu beharko dira. Lotura horien diagnostikoak datuak emango dizkigu, bai talde-kohesioari buruzkoak, bai talde horretako ikasle bakoitzaren egoerari buruzkoak.

Ikasgela barruko harremanak suspertuz –horri bakarrik ez zaio ekin behar, baina–, taldearekiko edo taldekide batzuekiko atxikimendu-sentimendua sustatuko da, baita ere elkarren arteko komunikazioa, konfiantza eta segurtasuna. Gainera, Ortegak dioenez (1994, 20. or.), biktimen adierazpenen arabera, eraso eta larderia gehienak ikasgelan gertatzen dira, geroago jolastokian eta, neurri apalagoan, pasabide eta gainerako lekuetan. Beraz, badirudi gai hau ikastaldearekin lantzeak onura baino ez duela ekarriko eta mesede handia egin dezakeela gertakarien kopurua jaisteko.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Ikasgelan komunikazio ireki eta zintzoa sustatzea.
- Taldean giro lagungarria sortzea.
- Eguneroko bizimoduan laguntasun-harremanek duten garrantzia aintzat hartzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Ikasgela barruko harremanen diagnostikoa egitea.
- Ikasleen arteko harreman positiboen aipamen zehatza egitea.
- Oinarrizko abiapuntu-marra finkatzea, geroagoko ekintzetako emaitzak ebaluatu ahal izateko.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: soziograma egiteko erabiliko den galdekizunaren kopia bana.

JARDUERAREN IRAUPENA: 20 minutuko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Galdekizunaren eredua aurkeztuz eta ikasleen artean kopiak banatuz emango zaio hasiera jarduera honi. Jarraian, taldearen motibazioa pizteko eta galderak ahalik eta zintzoenak izan daitezen, jarduera honen helburuak azalduko dira.

Zeregin honen xedea ezaguturik, galderak irakurtzeari ekingo zaio, denek uler dezaten galdera bakoitzari nola erantzun behar zaion.

Ondoren ikus dezakegun eredu honetan Arruga i Valeri-ren ereduari jarraikitzen zaio (1983, 64-67 orr.). Badira hauteskunde antzeko galderak -aukerak eta arbuioak- eta badira besteen aukera-arbuioen pertzepzioaz egindako galderak ere, horien bidez matrize soziometriko osoa egin baitaiteke.

IZEN-ABIZENAK.....

ADINA.....URTE. DATA..... IKASTALDEA

1. Idatz itzazu zure urtebetetze eguna zeurekin ospatzea nahi duzun ikaskideen izenak. Nahi dituzun beste idatz ditzakezu, baina ordenan, gehien nahi duzunetik hasita.

2. Idatz ezazu orain beste zerrenda bat, baina oraingoan jar itzazu zeure egunean ospakizun-lagun nahi ez dituzunen izenak. Hasi gutxien gustatuko litzaizkizukeenekin.

3. Zure ustez, nork aukeratu zaitu zu? Idatzi izenak.

4. Zure ustez, nork idatzi du ez lukeela zurekin ospatu nahi? Idatzi izenak.

Nolanahi ere, irakasleak erabakiko du, galderak kenduz edo murriztuz, galdekizun laburragoa jarri ala ez. Halaber, erantzunak interpretatzeko lagungarria izan daiteke aipatutako autorea (bere obraren aipamen osoagoa bibliografian duzu). Datuen interpretazio eta adierazpena egin ondoren, taldean diren harreman positiboen mapa burutu ahal izango dugu eta ikasleei informazio hori erakutsiko zaio, lotura positiboei dagokiona, alegia. Irakasleak datuen konstelazio osoa jakin beharko du, hartara isolamendu kasuei edo ikasle batzuenganako arbuio edo baztertze kasuei neurri egokiak hartuz aurre egin ahal izan diezaien.

CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Gaztelania / Euskara / Tutoretza.

2. JARDUERA:
EMAN DEZAGUN...

Ikasgelak berezko egitura du: ikasleak bere mahaia izaten du, fitxategian lekutxo bat, ikaskide lagunak inguruan, etab. Haurrak ezaguna du ingurunea eta irakaslea bertan izaten da ia denbora guztian. Hala eta guztiz ere, gimnasioa edo Hezkuntza Fisikoa ematen den aretoa toki zabalagoa izaten da eta ikasleak ez du leku finkorik, ez jarrera jakinik; gainera, han burutzen diren jarduerak elkar ukitze (ez beti oldarkorrak) eta liskar askoren sorburu izaten dira. Hori dela eta, Hezkuntza Fisikoko ordua oso leku eta egoera egokia izan daiteke ikasleak behatzeko.

Jarduera honetan ikasleek eraso eta liskar egoerak bizi izango dituzte, rol desberdinak antzeztuz eta elkar ukitzea beharrezkoa den jardueren bidez.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Gatazka eta tratu txarren artean dagoen aldea aurkeztea.
- Tratu txar egoera batera eraman dezaketen zenbait zirkunstantzia identifikatzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Gatazka egoeren aurrean har litezkeen jarrera ereduak erakustea.
- Jardueretan bizi izandako sentimenduak berbaz adieraztea.
- Balizko tratu txarren egoeretan erabili beharreko estrategiak ikasi.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: gimnasioan edo jolastokian.

BALIABIDEAK: gimnasioko ohiko baliabide didaktikoak.

JARDUERAREN IRAUPENA: 60 minutuko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Hasieran irakasleak lauko edo bosteko taldeak egiteko esango die ikasleei, ikasle kopuruaren arabera. Jarraian, talde bakoitzari honetariko egoera bana azalduko zaio:

a. Zuok biok palatan jokatzera zoazte eta zuok biok eurekin jokatu nahi duzue, baina ez dizuete uzten. Zuetariko bat haserretu egin da eta jokoa izorratzera sartu da; ez die uzten beste biei jokatzen eta borrokan hasi zarete. Bestea bazter batean geratu da eta minutu batez zer egin pentsatzen ari da.

b. Zuok bostok lan bat egin duzue Natura eta Gizarte Ingurunearen Ezaguera jakintzagairako eta Aneren taldekoek lana hartu eta lehenengo orrialdea zikindu dute. Pentsa ezazue minutu batez zer egin eta gero antzeztu taldearen aurrean arazoari nolako konponbidea emango diozuen.

c. Zuok laurok jolastu egin nahi duzue, baina bik futbolean aritu nahi duzue eta beste biek soka saltoan.

Bananduz gero, ezin izango zarete ezertan jolastu. Eztabaida ezazue taldekideen aurrean erabaki bat hartu aurretik.

d. Zuek haserretu egin zarete jolasaldian; zuk zangotraba egin diozu eta zu erori egin zara. Orduan zure lagunak "lerdo eta buruhandi" deitu dio. Horren ondoren jolastu gabe egon zarete, baina orain saskibaloi partida bat jokatu nahi duzue eta ez dakizue nola konpondu arazoa. Taldearen aurrean, saia zaitezte arazoa konpontzen.

Talde bakoitzak berari dagokion eginkizuna beteko du eta, antzezten duen bitartean, gainerako ikaskideek ikusi egingo dute antzezpena. Jarraian, taldekide guztiak ikusitakoaz mintzatuko dira.

Gatazkarik sortu da? Izan al da tratu txarrik edo abusurik?

Norbaiti burla edo isekarik egin al zaio?

Inork bultzatu edo jo du beste pertsona bat?

Nolako erantzuna eman zaio?

Zein soluziobide izango zen egokiena egoera bakoitzean?

Nola sentitu da zuetariko bakoitza bere rolean?

Balio al du ezertarako erantzun aurretik gertatutakoaz minutu batez pentsatzeak?

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Hezkuntza Fisikoa / Tutoretza.

3. JARDUERA:
EIDERREN SEKRETUA

Jarduera honetan ikastetxeko neska-mutil nagusiek neskatila gazteago bati emandako tratu txarrak aurkezten zaizkigu. Batzuetan tratu txarrak jasan dituztenek inori ez diote horren berri ematen, ez diete ez eskolako inori, ezta beren senideei ere, sentimendurik adierazten. Hori dela eta, sarritan zaila izaten da egoerari berehalako soluziobidea ematea eta kalteak konpontzea. Komeni da, beraz, ikasleek egoera horien berri izatea eta, antzeko gorabeheraren bat izatekotan, zer egin jakitea.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Inoren sentimenduak era bikarioan norberaren bizipen bihurtzea.
- Pertsona esanguratsuei tratu txarren berri ematen ikastea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Berdinen arteko tratu txarrak ezagutzea.
- Halako egoera batean eman beharreko pausoak jakitea.
- Talde baten aurrean sentipenak adieraztea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: erretroproiektagailua, Eiderren istorioa azetatoan idatzia, egoera horren aurrean har daitezkeen jarrerak idatzirik dituen beste azetato edo gardenki bat, errotuladoreak eta hutsik dauden gardenkiak idazteko. Ikasleek Power Point erabiltzen jakinez gero eta gelan ordenagailua(k) edota kanoia izanez gero, azetato eta erretroproiektagailuaren ordez erabil litezke.

JARDUERAREN IRAUPENA: 40 minutuko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Hasieratik esango diegu ikasleei kontatuko zaien istorioa taldeko edozein ikasleri gerta lekiokeela eta, beraz, arreta handiz entzun eta irakur dezaten nahi dugula, ondoren pentsatu egingo baitugu Eider nola sentitu zen eta halakoetan zer egin beharko litzatekeen.

Eiderren istorioa proiektatuko da eta ozen eta argi irakurriko da (ondo deklamatzen duen batek grabatutakoa ere entzun liteke).

Lauko taldeetan bananduko dira ikasleak eta talde bakoitzak azetato bat hartuko du, bertan idatz dezaten zein pauso eman behar lituzkeen Eiderrek egoera hori jasan ondoren.

Talde guztiek euren proposamenak idatzirik dituztenean, erretroproiektagailu bidez aurkeztuko dituzte eta talde bakoitzak besteen aurrean argudiatuko ditu bere iradokizunak.

Eiderren sekretua

Eider 11 urteko neskatilatxo bat da. Oso alai eta osasuntsua da eta eskolara etortzea oso gogoko du, asko ikasten duelako eta bere lagunekin jostatzen delako. Hala ere, hilabete batzuetatik hona triste antzean dabil, ia ez du jaten eta etxean geratu nahi izaten du.

Azken hilabete hauetan neska-mutil nagusi batzuek iraindu egiten dute, "Tapoia" esaten diote eta barre egiten diote jolastokian edo kalean bakarrik aurkitzen duten bakoitzean. Lehengo ostiraleko jolasaldian, adibidez, Eider bere lagunen zain zegoen eta neska-mutil nagusi batzuk hurbildu zitzaizkion eta handik kentzeko esan zioten, enbarazuan zegoela eta. Eiderrek ez zuen ulertu, berak ez baitzion inori traba egiten, baina neska eta mutil haiek, ohi bezala, "tapoia" esaten hasi zitzaizkion, lodia zela, itsusia, ergela eta gogoratu ere egiten ez dituen hainbat gauza esan zizkioten; gainera, halako batean bultza ere egin zioten eta lurrera erori zen. Azkenean, zerbait kontatzen bazuen, eskolatik irtetean harrapatuko zutela esan zioten.

Eider oso gaizki sentitzen zen. Eskolara arineketan joateko eta lagunei kontatzeko gogo bizia zuen, baina lotsa zen. Agian lagunek ere nagusi haiek bezala iraintzen hasiko ote ziren? Beldur-ikaraz zegoen. Gainera, nagusiek jakinez gero, oraindik txarragoa izan zitekeen, mehatxu hori egin baitzioten. Orain ez daki zer egin eta beldurtuta dago.

Sekretua gordetzen segitu behar ote du Eiderrek? Zer egin beharko luke?

Zer egingo zenukete zuek Eiderren kasuan bazeundete? Zer egin beharko litzateke halakoetan?

■ JARRAIBIDEAK:

- Biktimarekiko enpatia bilatu.
- Erasotzaileen eta biktimaren jarrerak aztertu.
- Jarrera oldarkorraren jatorriaz gogoeta egin.
- Tratu txarraren berri eman lagunei, irakasleei eta gurasoei.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Tutoretza / Gaztelania / Euskara.

GURASOENTZAKO

FITXA

Guraso agurgarriok:

Azkenaldi honetan ikasleen arteko tratu txarrei buruzko unitatea landu dugu. Ikastetxean irainak, isekak, eraso fisikoak edo lapurretak sufritu dituen ikaslea sarritan ez da gai izaten egoera horri aurre egiteko eta irakasleek, senideek eta lagunek entzun eta uler dezaten behar izaten du.

Familian eskain dakiokeen lehen laguntza elkarrizketa zintzoa da. Zuen seme edo alaba eskola giroko gertakariak kontatzera ohituta baldin badago, gauza atseginak eta mingarriak normalean kontatzen baditu, tratu txarrik jasanez gero ere, seguru asko, esan egingo lizueke.

Elkarrizketaren bidez berehala jakingo zenukete arazo horien berri eta, zuen laguntzaz, irakasleok saia gintezke areagotu ez daitezen. Hargatik eskatzen dizuegu horrelako gertakariren baten berri izan bezain laster gurekin harremanetan jar zaiteztela.

Bestalde, komenigarria da zuen seme edo alabaren lagunak ezagutzea. Horrela garbiago ikusiko dituzue eskolako giroaz egiten dizkizuen egoeren deskribapenak eta, behar denean, haien familiakoekin komunikatu ahal izango zarete.

Zuen seme edo alaba triste eta haserre antzean dabilela ikusten baduzue, gutxi jaten duela edo eskolara joateko aitzaki-maitzaki dabilela sumatzen baldin baduzue, ahalegin zaitezte berarekin hitz egiten eta ondoezaren arrazoia zein den jakiten. Bere sentimenduak argi eta garbi, lotsarik gabe eta lagunduko diozuelako uste osoan adierazten baditu, egina dago soluzioaren lehen pausoa.

Zuen laguntzaz saiatu egingo gara ikastetxeko elkarbizitza atsegingarri egiten.

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

UNITATEAREN BALORAZIOA

1. Galdekizun soziometrikoaren interpretazioak lagundu egingo dio irakasleari gelako ikasleen artean une honetan dagoen lotura afektibo eta sozialak bertatik bertara ezagutzen. Hurrengo bi jarduerak burutzea ez da aski izango, seguruenik, taldeko harremanei buruzko hobekuntzarik ikusi ahal izateko. Horretarako beharrezkoa izaten da xede horrekin zuzen-zuzenean eskuhartzea, ez unitate didaktiko bat garatzen den denboran eguneroko jardunean baizik. Zentzu horretan, programa honetako *Ikasgelan familia bat osatzen dugu* izeneko unitatean, hemen talde-kohesioaren alde hasitako bideari ekiten zaio.
2. Ikasleek egin beharreko balorazioari dagokionez, honako fitxa hau betez eta erantzunen bateratze saio baten bidez egin liteke:

IZENA: .....

Idatz ezazu zuk zeuk noiz edo noiz bizi izan duzun tratu txar edo erasoren bat. Azaldu nola egin zenion aurre egoera horri eta adieraz ezazu ea orain berdin egingo zenukeen ala ez.

IKASGELAN FAMILIA BAT OSATZEN DUGU

■ IDEIA NAGUSIA

Ikasle kopuru jakin batek, hau da, pertsona talde batek osatua da ikastetxeko edozein ikasgela. Baina zenbait neska-mutil ikasgela batean elkartzea ez da nahikoa talde kohesionatua eta solidarioa eratzeko; horretarako, beharrezkoa da taldearen gaineko esku-hartzeari ekitea, kideen artean gerta daitezkeen afektibitate eta gizarte loturak, sendoak, positiboak eta seguruak izan daitezen. Unitate honen helburua taldeko kohesioa lantzea izango da, Hitzarmenaren 19, 34 eta 35. artikuluetan aipatzen diren tratu txarrak ekiditeko.

■ HELBURUAK

- Ikastaldearen kohesioa sustatzea.
- Ikastaldean komunikazioaren alde ekitea, erasoak eragozteko baliabide gisa.
- Konfiantzazko loturak garatzea ikasleriaren eta irakasleriaren artean.
- Berdinen artean eta irakasleen eta ikasleen artean, ikasgelan erakutsi ohi ditugun jarrerak berraztertzea.

■ UNITATEAREN GARAPENA

Eskolan, ikasgela bakoitzaren barruan edota hezkuntza maila bereko edo ezberdineko gelen artean, afektibitate eta gizarte harremanei buruzko alderdiak ez lantzea dugu ikastetxearen esparruan gertatzen diren mesfidantza, bidegabekeria, abusu eta tratu txar askoren zergatia, neurri batean behintzat.

Gure ikasleen garapen pertsonalean eta indibidualean dihardugu lanean hezkuntza-egitarau ezberdinetan oinarrituta, baina, zenbaitetan, ez diegu erreparatzen beraien gizarte eta afektibitate beharrizanei, eta, maila intelektualera edo eginkizunenera mugatzen garelarik, ez diogu etekinik ateratzen ikastetxeak eta ikastaldearen konfigurazioak gizarte-harremanak lantzeko eta kideen arteko afektibitate-loturak sustatzeko eskaintzen diguten inguru egokiari.

Ortegak gauzatu zuen azterlanetik (1994, 16. or.) atera daitekeenez, galdegin zien ikasleetatik %86k ikastetxean duten aisialdiez oso gozatzen direla baieztatu zuten (jolas orduak, irakaslerik gabeko tarteak, irteera eta sarrerak...), %10ek hala-moduz pasatzen omen dute eta %4k gaizki pasatzen dutela baieztatu zuten. Adiskiderik duten galdetzean, %96k kideen artean lagunak dituztela adierazi zuten eta %4k besterik ez du adierazten ikastetxean adiskiderik ez duela. Datu horiei esker, eskolako taldean gizarte- eta afektibitate-harremanen alde berariaz neurririk hartu ezean ere, harreman horiek berez gertatzen direla berrets dezakegu. Beraz, baliteke emaitza hobeak lortzea taldeetako harremanak eta kohesioa hobetzeko esku-hartze berariazkoa erabilita, harremanen eratze berezko hutsetik abiatuta baino, betiere ikasle orok bere adiskideak hautatzeko daukan eskubidea errespetatuz.

Ortegaren azterlan berean (1994, 18-20. orr.), bidegabekeriak eta tratu txarrak usuen jazotzen direneko lekuak ikasgela eta jolastokia direla aipatzen da. Bidegabekerion eta tratu txarron izaerari dagokionez, berriz, maiztasun handienetik txikienera abiatuta, irainak, ezizenak, lapurretak, mehatxuak eta zurrumurruak aurki ditzakegu. Kalte fisikoak eta gizarte isolamendua eskalaren tokirik baxuenetan daude kokatuta.

Material honetako anitz unitatek Hitzarmenaren eskubideak eskola-eremuaren ikuspegitik landu dituzte, gizarte eta adierazpen trebetasunak garatuz, gatazken elkarrizketa bidezko irtenbideak landuz, gizabanakoaren eskubideei buruzko banakako eta gizarte kontzientzia sustatuz. Baina familiari unitate berezi bat eskaini zaion era berean, komenigarria izan liteke, ikasleen kolektibo osoaren baitan eta, zehatzago, ikastaldean, afektibitate eta gizarte harremanak sustatzeko eta garatzeko unitate oso bat ere eskaintzea. Unitate horrek, berdinen arteko tratu txarren prebentzioari buruzko Batzuetan ez gaituzte ondo tratatzen unitatean hasiera emandako lana osatuko luke. Ildo horri jarraituz, oso baliagarria izan daiteke unitate horretan gauzatutako soziogramaren emaitzak berraztertzea, izan ere, aipatu emaitzak baliagarri gerta baitakizkiguke, esku-hartze berariazkoari heldu aurretik, talde barruko harremanen egungo egoeraren berri izateko oinarrizko lerro gisa, eta unitate hau garatutakoan, galdekizuna banatu ahal izango zaie atzera ere, eta aldaketarik izan ote denentz begiratu.

■ ZER LANDU GAI HONEN INGURUAN?

Irakasleek

- Ikastetxearen Ikasketa Proiektuan (IIPn) islatuta geratuko den egitasmo sistematikoa garatu tutoretza lanetarako.
- Afektibitate eta gizarte harremanak sustatu ikastaldearen barruan.
- Balore positiboak ikasgelako ikasle guztiei transmititu.
- Ikasgelen arteko elkartrukerako ekintzak antolatu.
- Adin ezberdinetako ikasleen arteko harremanak sustatuko dituzten diziplinarteko egitasmoak landu.

Familia

- Seme-alabekiko komunikazioa sustatu.
- Haien gizarte- eta afektibitate-harremanen gaineko interesa hartu.
- Ikasleen arteko gizarte eta afektibitate harremanak hobetzera zuzenduta dauden eskola eta eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartu.
- Irakasleekin komunikazio sistematikoa izan.
- Irakasleei seme-alabek azaltzen dituzten arazoen edo kezken berri eman.

1. JARDUERA:

EZAUGARRI POSITIBOAK DAUZKAGU

Ikastaldea "talde berezia" dugu arrazoi ezberdinak direla eta: han ikastetxearen antolakuntza-beharrak eraginda egoten gara eta ez norberak aukeratuta; helburuak eta egitura (ordutegia, gaiak, helburuak) ere zehaztuta datozela esan dezakegu. Inposaketa horiek gorabehera, talde bateko ikasleek esperientzia komun ugari bizi izaten dute eskola-egunean zehar. Ikasgelako giroa taldekideen arteko konfiantzazkoa eta onarpenezkoa denean, harremanak askoz ere atseginagoak izaten dira eta ikasleak gehiago gozatzen dira zeregin intelektual edo egituratuak eginez.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Taldean komunikaziorako giro positiboa sortzea.
- Kideen arteko ezberdintasunak ontzat jotzea.
- Ikasleei taldeko kide diren pertsona guztien ezaugarri positiboen kontzientzia harraraztea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Norberaren eta ikasgelako gainontzeko pertsonen ezaugarri positiboak adieraztea.
- Taldearen aitzinean taldekideen ezaugarri positiboak ahoz adieraztea.
- Beste lagunen zenbait berezitasun ezagutzea.
- Inoren ezaugarriak goraipatuz gozatzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: 1) Etxean, argazkiak, aldizkariak, ebakiak, eta abar hartzeko eskatuko zaio ikasle bakoitzari bezperan. 2) Lau kartulina, artaziak, errotuladoreak eta ikasgelako gainontzeko tresnak.

JARDUERAREN IRAUPENA: 50 minutuko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU:

Irakasleak, saioari ekin aurretik, eskerrak emango dizkie ikasleei etxean argazkiak, ebakiak eta abar hartzeaz gogoratu direlako. Ondoren, 4tik 6ra bitarteko taldeetan banatuko du taldea. Talde txiki bakoitzak kartulina bat izango du, eta han, argazkiak, ebakiak eta marrazkiak erabiliz, taldea osatzen duten 4 edo 6 pertsonen ezaugarri positiboak irudikatuko ditu. Kartulinan jarri aurretik, elkarren artean komentatu eta balioetsi beharko dituzte, pertsona guztiek hamaikatxo ezaugarri positibo dituztela ahantzi gabe. Pertsona bakoitzeko, gutxienez hiru ezaugarri irudikatuko dituzte kartulinan.

Talde bakoitzean, kide guztien ezaugarri positiboen irudikapen grafikoez hitz egingo dute, balioetsi eta landu ere egingo dituzte eta, talde osoak lanaren hasierako zati hau bukatutakoan, talde handia osatuko da.

Une horretan talde txiki bakoitzak bere kartulina klase osoari erakutsi eta bateratze-saioari ekingo zaio. Kartulina guztietako irudikapenak komentatutakoan, elkarrizketa informala hasiko dute honelako alderdiak landuz: lana nola garatu den, atsegina ala gozakaitza izan den, lehen ezezaguna zitzaien ezaugarririk kausitu dutenentz, eta abar.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Arte Hezkuntza (Plastika eta Ikus Adierazpena) / Euskara eta Gaztelania / Tutoretza.

2. JARDUERA:
IDOIA LAGUNA DUT

Batzuetan orduak eta orduak eman ditzakegu pertsonez inguratuta, baina, hala ere, pertsona horien ezaugarriei, berezitasunei, zaletasunei, gustuei, arazoei eta abarri buruzko gauza handirik jakin gabe. Jarduera honen bidez ikasgelako taldea osatzen duten neskato eta mutikoen elkar ezagutza eta onarpena sustatzen saiatuko gara.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Taldean dauden pertsonenganako interesa hartzea.
- Ikaskideenganako jarrera positiboak azaltzea.
- Pertsonen arteko komunikazioaren alde egitea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Beste pertsonak eman dezakeen informazioaren aurrean interesa erakustea.
- Ikasleen arteko elkar aditzea sustatzea.
- Ikaskideen sentimenduei eta ezaugarriei buruz hitz eginez gozatzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: galdekizunaren ale bana, boligrafoak, lapitzak eta abar.

JARDUERAREN IRAUPENA: ordubeteko saioa.

■ JARDUERA NOLA BURUTU:

Lehenengo eta behin, irakasleak ondoren datorren galdekizuna erakutsiko du eta, ikasle guztiek ulertze aldera, galderak irakurriko dituzte.

Zure izena hauxe da:.....

- Nolakoa zara?
- Nolakoa izatea gustatuko litzaizuke?
- Zerekin dibertitzen zara?
- Baduzu kezkarik edo arazorik?
- Konta iezadazu talde honekin bizi izandako esperientzia onen bat.
- Konta iezadazu talde honekin bizi izan duzun eta gustatu ez zaizun gertaeraren bat.

Ondoren, ikasleak binaka jarriko dira eta kide bakoitzak beste lagunari egingo dizkio galderak, eta hark ematen dizkion erantzunak idatziko. Ikasle guztiek beren galdekizuna betetzen dutenean, binan-binan jarriko dira taldearen aurrean, eta bikotearen kide bakoitzak azpimarratzeko modukoak deritzen ezaugarrien berri emango die gainontzeko taldekideei.

Garrantzitsua da aurkezpen guztien hasieran bikotea osatzen duen beste pertsonarenganako adiskidetasuna nabarmen azaltzea. Horretarako, irakasleak aurkezpenetarako hasierako esaldia iradoki dezake: Idoia (Carlos, Peio, Ana...) laguna dut. Idoia...

Behin iruzkinak bukatuta, ekintzaren balorazioari ekingo zaio, ondo sentitu garen, zerk lotsatu gaituen gehien, zer gustatu zaigun gehien eta abar azalduz.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Euskara eta Gaztelania / Tutoretza.

3. JARDUERA:
MUSIKAK BATU EGITEN GAITU

Arlo askotan balio handia duen hezkuntza-estrategia da jolasa. Olgeta-egoeretan esperimenta daitezkeen harremanak eguneroko bizitzaren beste egoera batzuetara estrapola daitezke. Jolasaren bidez landu nahi dugun helburua taldearen kohesioarena denean, lehiarekin loturiko jokoak alde batera utzi behar dira eta, haien ordez, ikasleei beren gaitasunez esperimentatzen eta gozatzen lagunduko dieten jolasak erabili, pertsonaren eta taldearen baieztapena sustatzen dutenak. Izan ere, jolasa bera gatazkak konpontzeko bide bat izan daiteke.

Ekintza honetan kooperazio jolaserako adibide bakarra azaltzen da, baina bibliografiak aipatzen dituen argitalpenetan hainbat eta hainbat daude. Jolas horietako zenbaitetan jarduteko minutu bakar batzuk baino ez dira behar; hortaz, edozein eskola-saioren hasieran edo bukaeran erabil daitezke.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Ikasgelako elkarbizitza suspertzea.
- Ikasleen artean afektibitate lotura positiboak sorraraztea.
- Talde bateko kidea izatea ontzat jotzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Onarpen giroa finkatzea.
- Gorputz Hezkuntzako saio bat garailerik gabeko jolas baten bidez hastea.
- Ikasleen artean, erasorik gabeko gorputz ukipena sustatzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: gimnasioan.

BALIABIDEAK: irrati-kasetea eta edozein musika-grabazio.

JARDUERAREN IRAUPENA: 10 minutu saioaren hasieran.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Hasteko, irakasleak, gimnasioan ahalik eta toki gehien betetzeko eskatuko die ikasleei. Horretarako, ikasleak korrika ibiliko dira areto guztian zehar. Musika eteten denean, ikasle bakoitzak, gutxienez, beste pertsona bat besarkatu behar du. Garrantzizkoa da inor bikoterik edo talderik gabe ez geratzea. Ondoren, berriro hasiko da musika jotzen eta ikasleek berriro ere korrika jardungo dute aretoan. Musika bigarrenez isiltzen denean, ikasle bakoitzak lehenagokoa baino talde handiago bat besarkatuko du. Honela jarraituko du aurrera jolasak, ikasle guztiek elkar besarkatu arte.

CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURA

Gorputz Hezkuntza.

ETXEKOENTZAKO FITXA

Guraso agurgarriok:

Zuen semearen edo alabaren ikasgelan klaseko pertsona guztien arteko harreman onak lantzen aritu gara. Harreman on horiek lortzeko eta taldeko giroa segurua eta atsegina izan dadin, funtsezkoak dira konfiantza, komunikazioa eta kide guztien arteko kontaktua. Zenbaitetan, helduok eskolako lanen garrantziaz jarduten dugu behin eta berriro, gure semeen eta alaben portaeraren alderdi negatiboak nabarmenduz, eta hori zuzenketarako bidea delakoan egin ohi dugu. Hala ere, pertsonaren ezaugarri positiboak azpimarratuko dituen errefortzua baliabide egokiagoa izan ohi da hori lortzeko.

Horretarako ekintza batzuk garatu ditugu eta haietariko bat, Ezaugarri positiboak dauzkagu izenekoa hain zuzen, etxean egitera gonbidatu nahi zaituztegu. Proposatzen dizuegun ekintza hau senitartekoengan aurki ditzakegun ezaugarriak aintzat hartzean eta ahoz adieraztean datza, senide guztienak aipatzen direla ziurtatzeko arreta eginez.

Zeuen semeak edo alabak ekintzaren gaineko xehetasun gehiago eman ahal izango dizkizue. Ekintzaz goza zaitezten eta, aldi berean, zuen arteko konfiantzaren eta harremanen aldeko gerta dadin espero dugu.

UNITATEAREN BALORAZIOA

Unitate hau eta helburu bera duten beste jarduera osagarri batzuk burututakoan, *Batzuetan ez gaituzte ondo tratatzen* unitatearen lehenengo jarduerako soziograma lantzeko erabili den galdekizuna egin liteke berriz ere, ondoren, erantzunak aztertzeko, eta taldeko giroa eta kohesioa hobetu eta sustatzeko eskuhartzearen ondoren gertatu diren aldaketak erkatzeko.

TALDE BATEKO PARTAIDE

■ IDEIA NAGUSIA

Umeen Eskubideen Hitzarmenean aipatzen den beste eskubide bat zera da: talde edo elkarte bateko kide izatearena. Taldeak garapen pertsonalaren alde jokatzen du eta, aldi berean, gizakiaren inguruarekiko partaidetza eta konpromisoa ahalbidetzen duen elementua da; alde horretatik, garrantzi handia du taldeak eta horixe izango da, hain zuzen ere, unitate honetan garatuko dugun ideia.

■ HELBURUAK

- Taldeak norbera aberasteko eta gizarteratzeko daukan garrantziaz jabetzea.
- Taldeen ezaugarriak eta funtzionamendua ezagutzea.
- Inguru hurbileneko taldeen edo elkarteen eskaintza ezagutzea.
- Taldearen funtzionamendu onerako oinarrizko diren balioak garatzea: lankidetza, partaidetza, ardurakidetza, eta abar.

■ UNITATEAREN GARAPENA

Taldearen honako definizioa emanez hasiko gara: "haien artean helmuga komuna lortzera zuzenduta dagoen elkarreragin bizia daukaten gizabanakoen multzoa, kide guztientzat baliagarri diren arauak eratortzen dituen balio sisteman partaide direlarik" (Batzuek, Nafarroako Gobernua, 1995, 256. or.).

Sozializaziorako eta taldeak eratzeko funtsezko unea nerabezaroan kokatuta egon arren (13-14 urtetik aurrera), Lehen Mailako irakaskuntzaren azken urtean, pertsona bakoitzaren garapen-unearen arabera, nerabezaroaren aurreko etapan gaudela esan liteke (11-12 urte); orduan hasten dira garrantzi handiagoa hartzen beste neska eta mutilekiko adiskidetasun harremanak, hortik gutxira ohiko koadrila bihurtuko direnak.

Bestalde, gure ikasleak sozializatuta daude jada beste talde batzuetan; familiaren taldean, jakina, eta eskolako taldean. Azken hau, zenbaitetan, zabaldu egiten da eskola-orduz kanpoko ekintzen bidez (kirolak, kultur eta jolas-ekintzak, eta abar) eta ikasbide paregabea da gure neska-mutilentzat haien parekoen eta parekoekiko geroagoko harremanaren esanahia ikasteko.

Komunitate arloko elkarteetan edo taldeetan parte hartzea beste urrats bat izango da sozializaziorako bide horretan. Udalerri batzuetako gazteentzako politikagintzek gazteen elkarteak bultzatzeko joera erakusten dute, aisialdirako aukera berriei ekinez bereziki, herritar gazteak komunitatera egiteko eta beraien beharrizanei erantzuna eman nahian.

Baina, zergatik da hain garrantzitsua taldeetako edo elkarteetako kide izatea? Printzipioz, gizakiok, beste batzuk lagun hartuta errealizatzen gara pertsona gisa. Horrela, taldeak lagundu egiten gaitu geure garapenean; beste pertsonekiko trukean komunikatzen ikasten dugu, onartuak sentitzen gara, beste

pertsonen balioa aurkitzen dugu, aurre egiten diegu gatazkei, erabakiak hartzen ditugu, eta abar. Elkarreragin horretan, gainera, geure buruaz asko jakitera ere iristen gara (autoezagutza).

Beste alde batetik, haien inguruaren errealitatean, pertsonen parte-hartzea eta inplikazioa zuzentzeko funtsezko bidea da taldea. Hiritarren parte-hartzea, kirol, kultur, gizarte edo politika izaerako elkarteen edo taldeen bidez artikulatzen da ia beti, hiritarrak, horrela, komunitatera egin eta bertako partaide eraginkor senti baitaitezke, bai baliabideen erabilerari dagokionez, eta bai beraien arazoak konpontzeari dagokionez ere (iritzia, partaidetza erabakiak hartzean, lankidetza, eta abar). Gizarte demokratikoek ezaugarririk baldin badute, partaidetza-izaera dute ezaugarri nagusi.

Horregatik guztiagatik, garrantzizkoa da gure ikasleak taldeetan partaide izatera bultza ditzagun eta taldeon baitan, pertsonen arteko harreman onak finkatzeko prestatzeaz gain, kideen arteko elkarren mendekotasun normalaren eta norberaren nortasuna mantentzearen arteko oreka gordetzeko ere gerta ditzagun. Komenigarria da, hortaz, beraiekin batera azter dezagun zein den beraien partaidetza-maila talde-jardueretan, baita nolakoa den ibili ohi direneko taldeen funtzionamendua eta ikasleena eurena ere; beharrezkoa izanez gero, jazo litezkeen arriskuez ere jardungo dugu, hala nola, erabateko mendekotasunean eta norberaren nortasunaren deuseztapenean oinarri duten harremanak sorrarazten dituzten zenbait taldez –sekta erakoez, kasu–.

Ez dugu, gainera, ahaztu behar, formalak ez diren testuinguruak direla, bai hezkuntza arloan eta bai aisialdikoan, familiaren testuinguruekin batera, gure neska-mutilen nortasuna osatuko duten jarrerak eta baloreak ikasten eta garatzen direneko gune nagusiak. Horregatik, gure ikasleak antolatuta dagoen aisialdi motaren batean edo gizarte izaera duten elkarteetan partaide diren heinean, beraien garapenerako balore positiboak ziurtatzen arituko gara.

■ ZER LANDU GAI HONEN INGURUAN?

Irakasleek

- Ikastaldea sustatu eskolako partaidetza-gune gisa, ikastaldeen ordezkarien bilerak eta eskolak horretarako antolatuta dauzkan beste bide batzuk erabiliz.
- Ikastaldearen nortasuna sendotu, talde dinamiken, gizarte-trebetasunak sendotzeko tekniken eta abarren bidez taldearen giroa eta kohesioa landuz.
- Ikastaldean, kide guztien artean adostutako funtzionamendu eta elkarbizitza-arauak jarri.
- Astero edo aldian-aldian, gelako batzarra erabili ikasleen eztabaidarako eta partaidetzarako gune gisa.
- Ikasleei dauden eskaintzen berri eman eta parte hartzen animatu, eskolako edo komunitateko taldeetan edo elkarteetan integra daitezen.

Familiak

- Hurbilen duten inguruan integratzen lagun diezaieketen eskola edo komunitate ekintzetan parte har dezaten lagundu.
- Beste neska-mutil batzuekiko harremanetan jarriko dituzten eta garapenean positiboak gertatuko zaizkien baloreak sustatzen dituzten eskolako, auzoko edo udalerriko taldeetan edo elkarteetan parte har dezaten animatu.
- Familiaren baitan, erabakietan, arazoen konponketan eta abarretan, kide guztien partaidetza sustatu.

1. JARDUERA:
GURE TALDEA

Familiaz gain, ikastaldea, bereziki, eta eskolako komunitatea, oro har, izan ohi dira umeek zuzenean eta era eraginkorrean parte hartzen duteneko lehendabiziko gizarte-taldea.

Horrela, bada, eskolako taldea, Haur Hezkuntzatik aurrera aldaketa handirik gabe irauten duena, sozializazio, harreman eta partaidetza esparru interesgarria dugu, gure ikasleekin talde bateko kide izatearen esperientzia lantzeko aproposa. Bertan taldearen definizioa ematen diguten ezaugarri guztiak betetzen dira (norberaren helburuak, betebehar edo jarduera komunak, rol ezberdinak, funtzionamendurako arauak) eta taldean berezkoak izan ohi diren elkarreraginak agertzen zaizkigu. Esperientziak irakatsita dakigunez, giro lasaiaz, solidarioaz gozatzen diren ondo kohesionatutako eskola-taldeak dauden bitartean, aurki daitezke dinamika negatiboetan eta problematikoetan sartzen direnak ere, taldearen barruan pertsona baztertuak, elkarren aurka ari diren azpitaldeak, partaidetza-maila baxua eta abar dituztenak.

Jarduera hau gure taldearen ezaugarrietan eta funtzionamenduan pixka bat sakontzeko erabiliko dugu eta, ondo baldin badabil, funtzionamendua indartzeko; arazoak antzematen baditugu, berriz, funtzionamendua hobetzen saiatuko gara. Ikasturte hasieran egin litekeen jarduera dugu hau, ahal izanez gero, behin taldeko kide berriak hartzeko jarduerak egindakoan. Aldez aurretik, eta hasierako ebaluaketa gisa, test soziometrikoa pasa liteke (Arruga i Valeri, 1983), taldearen egoera eta bertan dauden gizarte-sareak zeintzuk diren jakin ahal izateko.

Hezitzaileak honela aurkeztuko die jarduera ikasleei: "*Gizakiok harremanak behar ditugu bizi ahal izateko, eta horregatik osatzen ditugu taldeak. Familia, jaiotzen garenetik parte garen taldea da. Zer beste taldetan hartzen dugu parte?*" Ikasleak ibili ohi direneko taldeak esaten has daitezen da kontua, hasi hurbilenetik eta beraien maila ezberdinetan jarriz: familia, lagunartea, ikastaldea, eskola, auzoko, komunitateko eta abarreko taldeak...

■ HELBURU NAGUSIAK

- Talde baten kide izatearen garrantziaz jabetzea.
- Ikastaldearen ezaugarriak eta funtzionamendua ezagutzea.
- Taldearen elkarbizitza eta funtzionamendua hobetzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Taldearen baitan gure portaera gure jarrerak zeintzuk diren gaitzat hartuta, eztabaida garatzea.
- Eztabaidarako jartzen diren arauak errespetatzea.
- Erabakiak hartzea eta gure ikastalderako elkarbizitza-jarraibideak ezartzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: idazteko tresnak.

JARDUERAREN IRAUPENA: ordubeteko saio bat edo bi.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Behin gaiaren sarrera eginda, ikasgelako ikasleek osatzen duten taldea izango da jardueraren muina. Gure taldearen funtzionamendua aztertzean eta beraren dinamika hobetzeko helburu eta arau komunak eta adostuak finkatzean datza gakoa. Horretarako, hausnarketarako eta ikasleekin eztabaidatzeko lagungarri gerta daitezkeen jarraibide batzuk dakartzagu:

- Nola banatzen dira eginbeharrak taldearen barruan? Ardura edo erantzukizun banakakoak edo partekatuak al daude (ordezkariak, elkarbizitzarako batzordea, batzorde bitartekaria, eta abar)? Komenigarria litzateke orain ez dagoen baten bat sortzea? Denek hartzen dute parte taldean eta zereginak bereganatzen?
- Nolakoak dira ikaskuntzarekiko, ikaskideekiko, irakaslearekiko jarrerak ikasgelan? Jarrera positiboak, jarrera negatiboak eta hobetzeko proposamenak bil daitezke.
- Analisi horretatik abiatuta, ikasgelaren barruko funtzionamendua eta elkarbizitza arautzeko ahaleginak egingo ditugu. Dagoeneko eztabaidatu eta adostutako araurik izanez gero, haiek berraztertzeari ekin dakioke, eraginkorrak direnentz, betetzen dituztenentz, eta abar egiaztatzeko. Horrelako araurik izan ezean, berriz, ikasleek, irakaslearekin batera, beraien araudi partekatua diseinatzea izango litzateke kontua:
  - Ikasleen eta irakasleen betebeharrak
  - Ikasleen eta irakasleen eskubideak.
  - Zer egin gatazkaren bat gertatuz gero?
  - Nolako irtenbideak azaltzen ditugu?...
  - ...
- Nolakoa da beraien partaidetza hezkuntza-komunitatean? Badute behar beste ordezkaritza eta partaidetza-biderik? Badarabiltzate dituzten bideak? Zer ekarpen egin diezaiekete hezkuntza-komunitatea osatzen duten gainontzeko pertsonei?

Taldea ikasgelako batzarrean elkartuta, kontu horietako zenbait azalduko dira, eztabaida gisa (horretarako, Eta zuk zer deritzozu? izeneko 26. unitatearen 3. jardueran adierazten diren jarraibideen arabera jardun daiteke), irakasleak, ikastaldearen ordezkari den pertsonaren laguntzaz, moderatzaile lanak egiten dituela. Komenigarria litzateke, halaber, taldeak hartzen dituen erabakiak idatziz bilduko lituzkeen idazkaria izendatzea. Bai hobekuntzarako proposamenek -taldearen epe jakin baterako helburu bihurtuko direnak-, bai adosten diren arauek ere, agerian egon beharko lukete ikusgai, ikasleek beti gogoan izan ditzaten eta aldian-aldian berrikuskapena egin ahal izateko. Hartzen diren erabakietako baten batek eskolako beste estamentu edo egitura batzuk ukitzen baditu, dagokionari iradokizunak helarazteko era antolatuko da.

Ikasturtean zehar, jarrai daiteke ikastaldean giro eta funtzionamendu egokiak lortzera bideratuko diren jolas eta dinamikak lantzen. Bibliografian ageri diren *La alternativa del juego I y II* edo *Tutoría con adolescentes* bezalako liburuetan hainbat eta hainbat iradokizun aurki daitezke.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Tutoretza.

2. JARDUERA:

PARTE HARTZEA DA GARRANTZITSUENA

Komunitateak eskaintzen duena da taldeetan eta elkarteetan parte hartzeko bide nagusietako bat. Inguru hurbilean (auzoa, herria) herritar gazteen beharrizanei erantzunak ematen eta gazteok komunitateko bizimoduan inplika daitezen saiatzen diren zenbait talde aritzen dira. Aurrerago adierazi dugun bezala, udal batzuetako gaztediarentzako politikagintza gazteen elkarteak sendotzearen, aisialdirako heziketaren sustapenaren eta komunitateko solidaritate eta garapenaren inguruan aritu da. Horren guztiaren erakusgarri dira sortu diren gune ezberdinak (hiri-zentroen aretoak, gazte-lekuak, gazteentzako argibide-bulegoak, kirol-azpiegitura), izaera ezberdineko aisialdirako taldeak (kultura, artea, kirola, jolasa), egoera latzagoan bizi diren bizilagunez arduratzen diren gizarte izaeradun elkarteak edota udal kudeaketarako partaidetza organoak (Gaztedi Kontseiluak, Udaleko Eskola Kontseilua), eta abar.

Eskaintza horren zati bat gure ikasle hauek (nerabeak edo gazteak) baino nagusiagoak diren neska-mutilei zuzendua izan arren, garrantzizkoa da gure ikasleek herrian edo auzoan dauzkaten bitartekoen berri izatea eta haietan parte hartzea, beren inguruarekiko konpromisoa hartzeko era garrantzitsutzat har dezaten, hasi udalak antolatzen dituen zenbait jardueratara joatetik, taldeetako edo elkarteetako partaidetzatik igaro eta udal kudeaketarako organoetako ordezkaritzaraino heltzeko.

Hezitzaileak honela azalduko die jarduera ikasleei: *"Zuetariko baten bat, zeuen komunitatean martxan dauden aisialdiko edo bestelako talderen bateko kide da? Ezaguna zaizue zuen herrian/auzoan dagoen talde eta elkarteen eskaintza? Izaten al duzue udalak antolatzen dituen ekintzen berririk? Joaten zarete? Ondo etorriko litzaiguke horri guztiari buruzko informazioa biltzea. Horregatik, geure komunitatearen Bitartekoen Gida egingo dugu".*

■ HELBURU NAGUSIAK

- Ikasleen komunitatean, biztanlerik gazteenentzat dauden taldeak, ekintzak eta guneak ezagutzea.
- Komunitatearen eskaintzan parte hartzearen garrantziaz jabetzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Komunitatearen eskaintzari buruzko informazioa biltzea.
- Bitartekoen Gida egitea.
- Gainontzeko ikaskideei eta familiari Gida ezagutaraztea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan eta udaletxean.

BALIABIDEAK: datuak biltzeko koadroa, idazteko eta marrazkiak egiteko tresnak, ebakitako argazkiak edo marrazkiak.

JARDUERAREN IRAUPENA: ordubeteko saio bi.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Gorago aipatu diren gaiak komentatutakoan, zuzenean ekingo zaio Gida egiteari. Aldez aurretik, hiruzpalau boluntariok osatzen duen talde batek udaletxera abiatu beharko du, Kultur Sailekoekin harremanetan jartzeko. Gai horien arduradunarekin duten batzarrean, udalerriak gazte jendeari egiten dien eskaintzari buruzko informazioa jaso beharko dute. Horretarako, aurretiaz eta ikasgelan prestaturiko galdera batzuk izan ditzakete eskuartean. Tankera honetako koadro batera bil daitezke datuak:

TALDEAK EDO ELKARTEAK	HELBIDEA ETA TELEFONOA	GAUZATZEN DITUZTEN LAGUNTZA-JARDUERAK EDO ZEREGINAK	LANKIDE IZATEKO BETEKIZUNAK	BILERA EGUNAK
Kirol taldeak				
Kultur edo Arte taldeak				
Gizarte izaeradun taldeak, GKE				
Aisialdirako taldeak				
Gazteen elkarteak				
Gaztedi-Kontseilua				

JARDUERETARAKO LOKALAK ETA GUNEAK			
BILERETARAKO	KIROLETARAKO	KULTUR ARLOKOAK	AISIALDIRAKO

Informazioa biltzen denean, ikasleak taldeka jarriko dira (3 edo 4 pertsona talde bakoitzean). Talde bakoitzak bere Bitarteko Gida egingo du eta, horretarako, lehenengo eta behin, zenbait erabaki hartu beharko dute: zelako formatua izango duen, zein diseinu aplikatuko dioten, zenbat orrialdeko gida izango den, irudirik erantsiko dioten ala ez, eta abar. Gida bukatuta dagoenean, talde bakoitzak besteei erakutsi eta nola gauzatu duen azalduko die.

Jarraian, gidara bilduta dagoen komunitate-eskaintza zein den komentatuko da ikasgelan, ikasleek, zer jardueratan edo taldetan har lezaketen parte ikusi ahal dezaten. Halaber, interesgarria da talderen edo jardueraren bateko kide diren ikasleek gainontzeko ikaskideei beren esperientzia kontatzea.

Azkenik, talde handian jarrita erabakiko da nola ezagutaraziko zaien Gida beste ikaskideei, eta estrategia bat diseinatuko da horretarako: nortzuek hartuko duten lan horren ardura, zein talderi egingo zaion Gidaren aurkezpena, zenbat denbora behar den, nolako aurkezpena egingo duten, eta abar. Gainera, talde bakoitzak lanaren fotokopiak egingo ditu, denek etxera eraman eta familiarekin komentatu ahal izateko (etxekoentzako fitxa).

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera / Gaztelania eta Euskara / Arte Hezkuntza (Plastika eta Ikus Adierazpena).

3. JARDUERA:

ZERTAN IZAN GAITEZKE LANKIDE?

Baliteke auzoan edo udalerrian dauden elkarteen artean gizarte izaeradun erakunde solidarioren bat aurkitzea, udal-esparrukoa dena, edo nazio edo nazioarte mailako GKEren baten mendekoa. Mota horretako erakundeak oso estu lotzen dira azken urteotan indar handiz hazi den boluntarioen gertakariarekin.

Pertsona hauen jardun-esparruak era askotakoak dira, bete behar dituzten beharrizanak bezala –osasuna, hezkuntza, garapenerako lankidetza, ekologia, gizarte urgazpena, kirola eta abar–. Gaur egun gure gizartean diharduten boluntarioen erdiak baino gehiago emakumezkoak dira eta, adinari dagokionez, nagusiki 18tik 35 urtera bitartekoak diren arren, zeregin hauetan ari diren 18 urtetik beherako neska-mutilen portzentajea altua da. Izatez, Boluntarioen lanari buruzko Legean ez zen ezarri zeregin horiek betetzeko gutxieneko adinik, eta gauzatu beharreko ekintzak, arriskurik ez dakarten bitartean, burutu ditzakete gurasoen baimena duten adingabeek.

Ikastetxeetan ere badago eskolaz kanpoko ekintzen eta ekintza osagarrien antolaketa eta gauzatze zereginetan lankide den hezkuntza-boluntarioaren figura (16 urtetik aurrera). Orobat, udalerriko aisialdirako taldeetako asko pertsona boluntarioek antolatuak eta zuzenduak dira.

Interesgarria da gure ikasleek pertsona horien berri izatea, bai betetzen dituzten zereginak balora ditzaten, bai, gaur egun edo etorkizun hurbil batean, horrelako eginkizunetan parte hartzeko aukeraz gogoeta egin dezaten.

Hezitzaileak honela azalduko die jarduera ikasleei: *"Zuetariko batzuek parte hartzen duzue auzoko edo herriko taldeetan. Bazenekiten haietan lanean diharduten monitore gehienak boluntario gisa ari direla? Konturatzen zarete pertsona horien jarrera zuentzat onuragarria dela, atsegin dituzuen eta gozagarri gertatzen zaizkizuen jarduerak gauza ditzazuen ahalbidetzen duelako? Ikusi dugun bezala, beste era bateko elkarteak ere badaude, bai zuen inguruan, bai beste herri batzuetan egoera latzagoan bizi direnei laguntzeko diren elkarteak hain zuzen, eta horietan ere pertsona boluntarioek dihardute lanean. Zer deritzozue lan mota honi? Gustatuko litzaizueke hobeto ezagutzea? Eta lan horietan aritzea?"*

■ HELBURU NAGUSIAK

- Boluntarioen lanaren berri izatea.
- Pertsona horiek egiten duten beharra baloratzea.
- Ikasleengan eginbehar horiek betetzeko interesa piztea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Elkarrizketa bat egitea.
- Ahozko adierazpena lantzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: idazteko tresnak.

GIZA BALIABIDEAK: boluntario gisa lanean diharduen pertsona bat.

JARDUERAREN IRAUPENA: ordubete eta erdiko saio bat, hiru ordu laurdeneko bi saiotan banatuta.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Lehendabiziko saioan, eta gaiaren sarrera galderen bidez gauzatutakoan, boluntario gisa ari den pertsona bat bere lana zertan datzan azaltzera etortzeko aukera proposatuko die irakasleak ikasleei. Hobe litzateke herrian egoitza duen GKE baten edo gizarte-gaiez arduratzen den udal erakunderen baten kide izango balitz, horrela, bidenabar, auzoko edo herriko arazoen berri izan baitezakete ikasleek.

Pertsona horri galdetu nahi genizkiokeen gauzei buruzko ideia-jasa eginda, arbelean idatz daitezke ideiok, galdekizun itxurako bat osatu ahal izateko.

Ondoren, hurrengo saioa telebista saio modura antolatuko da. Ikasgelako kide batek, boluntarioa bera, elkarrizketagile arituko da, eta gainontzeko ikaskideek ikusleena egingo dute. Elkarrizketa egindakoan ikusleek ere parte har dezakete beste itaun batzuen bidez edo gure gonbidatuaren hitzek erator ditzaketen iradokizunen bidez. Bideo-ekipoa badaukagu, grabazioa ere egin genezake, ostean saioaren analisia egiteko (elkarrizketagilearen ahozko azalpena, ikusleen portaera, eta abar). Halaber, beste gela batzuetan erabil litekeen bitartekoa ere izan daiteke.

Jarduerari luzapen praktikoa eman nahi izanez gero, eskolan jairen edo ospakizunen baten kariaz antola litekeen jardueraren baten antolakuntza eta garapen lanetan ume txikiagoekin parte hartzea proposa lekieke ikasleei.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera / Gaztelania eta Euskara.

ETXEKOENTZAKO FITXA

Guraso agurgarriok:

Egunotan, talde baten kide izatearen garrantzia ari gara lantzen klasean, hasi familiaren esparruan eta komunitatearen esparruraino. Zeuek ere, etxean, familiaren elkarbizitza lantzen duzuenez, ikasgelan eskolako elkarbizitza nolakoa den eta, gehien bat, gure komunitatean parte hartzeko ditugun aukerak izan dira gure hausnarketaren gune nagusia. Lan honen ondorioz, udalerrian dauden jarduera, talde eta elkarte nagusiak biltzen dituen Gida egiteaz gain, boluntarioen lana ezagutu dute zuen seme-alabek.

Gure xedea, betiko moduan, zuekiko harremanak izanik, Gida etxera eraman eta familiarekin kontsulta dezatela proposatu diegu ikasleei; horrela, sakonago ezagutu nahi lituzketen edo partaide izan nahiko luketen taldeak edo elkarteak aukeratu ahal izango dituzte, honako alde hauei erreparatuta:

- Zein da elkarte horren helburua?
- Zer-nolako pertsonekin egiten du lan? Nolako pertsonei laguntzen die?
- Zeintzuk dira beraren jarduera nagusiak?
- Ba al da bertako partaide izateko gutxieneko adinik?
- Zeintzuk dira elkarte horretan partaide edo lankide izateko bideak?

On litzateke aukeratzen lagunduko bazeniete zeuek ere arlo honetan izan dezakezuen eskarmentua erabiliz, bai gaztetan talderen edo elkarteren batean partaide izan zaretelako, bai gaur egun erakunderen batekin lan egiten duzuelako.

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

UNITATEAREN BALORAZIOA

Unitate honetan ebaluaketa egiteko erarik egokiena ikasleek talde barruan, bai talde txikian bai talde handian, erakusten dituzten jarreren eta portaeren behaketa dela iruditzen zaigu. Zeregin honetan lagungarri gerta dakizkizuekeen zenbait jarraibide emango dizuegu:

BEHAKETA EGITEKO ALDERDIAK	IKASLEA:
Partaidetza-maila:	
Inplikazio-maila taldearen zereginean	
Arduren bereganatzea taldearen barruan	
Laguntzarako eta lankidetzarako jarrerak gainontzeko taldekideekin	
Gainontzeko taldekideen iritziekiko eta lanarekiko begirune-jarrerak	
Gainontzeko taldekideekiko komunikazio-trebetasunak	
Beste pertsona eta talde batzuk ezagutzeko interesa	
Buruzagitza-gaitasuna	
Autonomia-maila	
Adosteko eta negoziatzeko gaitasuna	

AISIALDIA ONDO PASATZEKO

■ IDEIA NAGUSIA

Hitzarmenaren 31. artikuluak dioenaren arabera, umeek atsedenerako, aisialdirako eta jolas jardueretarako eskubidea dute, kultur eta jolas bizitzan partaide izateko. Gure gaur egungo gizartean, kontraesan bat azaltzen zaigu sarri: batetik, haurren estresa, eta, bestetik, aisialdirako dagoen eskaintza ugaria. Ikasleak ere bi baldintza horien pean gertatzen dira zenbaitetan. Gai honi gagozkiolarik, 32. artikulura bilduta dago haurtxoek ustiaketa ekonomikoaren aurka edo beraren hezkuntza eta garapenerako kaltegarria izan daitekeen bestelako edozein jardueratik babestua izateko eskubidea eta 3. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, biztanleriaren multzo honi dagokionez hartzen diren neurri guztietarako, umearen interes gorenak izango du lehentasuna.

■ HELBURUAK

- Aisialdiaren balioaz gogoeta egitea.
- Eguneroko hezkuntza-jarduerek inposatzen duten erritmotik irtenda, gorputz eta buru-atsedena hartzea.
- Kontsumo joeren aurrean, jarrerak aisialdirantz aldaraztea.
- Norberaren burua eta besteak onartzea.
- Aisialdi tarteetan, guretzat pertsona esanguratsuak direnen laguntasunaz gozatzea.

■ UNITATEAREN GARAPENA

Antzina-antzinatik, aisialdia balio terapeutiko frogatua eta onartua duen pribilejioa da. Aisialdiari esker, eskola-egunean edo lanaldian zehar metatuz goazen tentsioetatik aska gaitezke, zereginen aginduek, batetik, eta beste pertsona batzuekiko harremanek, bestetik, sorrarazten dizkiguten tentsioetatik, hain zuzen ere.

Pertsona bati, aisialdiak honako hauek guztiak egiteko aukera ematen dio: atseden hartu, jolas-jardueren bidez berarentzat esanguratsu direnekiko harremanak izan, pertsona horien laguntasunaz gozatu, eskola-egunak edo lanaldiak ahuldutako organismoaren defentsak berreskuratu, jazotako gertaeren gainean hausnarketa egin edo etorkizunekoak buruz prestatu, eta zenbait jarduerari denbora eskaintzeko aukera, hala nola, azken emaitzan barik, beroriek garatzeko prozeduran balioa duten jarduerei. Aisialdiko zenbait jarduerak gauzatu bitartean dute balioa, hots, jardute hutsagatik jardun ohi dugu, umeen jolasean egiten den bezalaxe.

Lehian oinarrituta dagoen gizarte batean, eskola hainbat diziplinaren bitartez saiatzen da ikasleak tolerantziarako eta beren buruaren eta besteen onarpenerako hezten, nor bere bertuteekin eta akatsekin. Hala ere, eta hezkuntza arloko ahaleginak gorabehera, ezin ekidin ditzakegu masa-komunikabideen bitartez

edo gure ikasleak murgilduta daudeneko dinamika ezberdinen bidez helarazten dizkiguten mezuak. Ondorioz, edozein ikasleren eskola eguna, sarritan, etengabeko ahalegina eta tentsioa eskatzen dizkioten zereginen eskariz beteta egoten da. Horri, gainera, ikasgelako kideekiko harremanak gehitu behar zaizkio, eta harreman horiek batzuetan behar bezalakoak badira ere, ez da beti horrela gertatzen, eta halakoetan harremanetarako zailtasunak erantsi behar dizkiogu eguneroko tentsio-zamari.

Adierazitakoaz gain, eskola-egunaren ondoren, ikasleetako batzuek eskola-orduz kanpoko ekintzetan hartzen dute parte. Ikusi ahal izan denez, ikasleen %75 gutxi gorabehera (tokiaren arabera) eskola-orduz kanpoko ekintzaren batean jarduten dira: ekintzotako batzuk ikastetxeak berak antolatuak izaten dira, eta beste batzuk, berriz, erakunde publikoek edo pribatuek. Toki batzuetan, batez beste, ikasleek egunean hiru ordu ematen dute eskola-orduz kanpoko ekintzetan. Ikastetxean kontuan hartzeko moduko elementua izan daiteke hau, izan ere, jarduera batzuk, epe ertainean edo luzean ikasle batzuen gaitasun maila igoarazten duten diziplinak aplikatuz egiten baitira; beste alde batetik, hezkuntza-sistemak denboraren luzapen hori baliatu lezake gizabanakoaren garapen osoa sustatzen duten jarduerak proposatzeko.

Kontuan hartzeko moduko beste faktore bat haurren estresarena dugu. Askotan aipatu izan da zenbait umek pairatzen duten sindrome hori. Ikasle batzuek zein jardueratan hartu nahi duten parte aukera dezakete, baina batzuetan eskola-orduz kanpoko ekintzetan izan ohi duten partaidetza familiaren eskakizunek erabakita dator –guraso biek lan egiten dutelako edo seme-alaben zainketarako eta arretarako astirik ez dutelako– eta ez ikasleek eurek hautatuta. Faktore hau ikasgelan azter liteke eskolaren ikuspuntutik egoki gerta litezkeen gomendioak egin ahal izateko, horrela aisialdiaren banaketa onuragarriaren alde jokatuz. Aldi berean, aisialdiko jardueren izaera aztertu beharko litzateke, ea haietako partaide izatea, sexua edozein dela ere, ikasle guztiei irekita dagoen ala mugatuta dagoen eta sexista den; ea parekoen arteko lankidetza ala lehia sustatzen duen. Ezaugarri horietatik baitatorkie ikasleei tarte libreetan bereganatzen duten ikaskuntza.

■ ZER LANDU GAI HONEN INGURUAN?

Irakasleek

- Ikasleekin batera, parte hartzen duteneko eskola-orduz kanpoko ekintzen diagnostikoa egin.
- Ikastetxea osorik hartuta, eskola-orduz kanpoko ekintzetan ari diren ikasleen portzentajeen analisia egin eta bidezko iriztzitako aldaketak proposatu (curriculumari dagozkionak, edo familiei informazioa ematekoak).
- Sexua dela-eta inolako trabarik izan gabe, eskola-orduz kanpoko ekintza debaldekoei buruzko egitasmoa garatu, hala nahi duten ikasle guztiek parte hartu ahal izateko.
- Lehiaren ordez, lankidetza eta gozamena sustatzen duten jarduerak proposatu.

Familiak

- Gure aisialdiaren zati bat seme-alabekiko jolasei eta aisiari eskaini.
- Elkarren laguntasunean eta aisian ematen diren denbora tarteak ontzat jo.
- Familiako kide guztien gozamenerako gerta daitezkeen jolas-jarduerak proposatu.
- Familiatik, eskola-egunari lan gehiago erantsi beharrean, adiskideen laguntasunaz gozatzeko eta beren atsedenerako balio izango dieten eskola-orduz kanpoko ekintzak sustatu.
- Ikasleei aukeratzen utzi beren aisialdian zein jardueratan hartu nahi duten parte.
- Aisialdiaren bitartez kultura eta arteekiko interesa sustatu.

1. JARDUERA:

ESKOLA EGUNA BUKATUTAKOAN...

Gure ikasleen zati garrantzitsu batek eskola-orduz kanpoko ekintzetan parte hartzen du. Ekintzotako batzuk jolastekoak dira eta beste zenbait, berriz, hezigarri hutsak. Ikasle horietako batzuek ez dute, zentzu hertsian, tarte librerik, ordu edo minutu horiek eguneroko martxak eskatzen duen atsedenean emateko, eta hori funtsezkoa da pertsonaren osabetezko garapenerako, gorputz-, emozio- eta ezagutza-garapenerako hain zuzen.

Gure ikasleek gauzatzen dituzten ekintzei buruzko datuak eskuartean edukiz gero, irakasleok ikasle bakoitzak parte hartzen dueneko ekintzen diagnostikoa egin dezakegu eta, aldi berean, zenbait ikaslek erakuts dezaketen ondoezaren edo estresaren eragileak izan daitezkeen zergatiak antzeman ditzakegu.

Irakasleak zeregina azalduko die ikasleei: *"Hona hemen bikoteka betetzea nahi dudan inkesta bat. Zuetariko batek egingo du lehendabizi elkarrizketa eta gero bestea izango da galderak egingo dituena"*.

Ikasleek, binaka jarrita, datuak batuko dituzte, ondoren beraien analisia egiteko.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Beste pertsona batzuekiko enpatia eta komunikazioa sustatzea.
- Eskola-orduz kanpoko ekintzen gaineko hausnarketa egitea.
- Aisialdia baloratzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Bikotekidearen erantzunekiko interesa erakustea.
- Inguruan ditugun pertsonei entzutea.
- Aisialdirako egon daitezkeen beste jardueren berri izatea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: prestatutako elkarrizketa eta ikasleentzako kopia bana. Koloretako kartulinak horma-irudiak egiteko eta koloretako errotuladoreak edo lapitzak, egin litezkeen marrazkietarako... Jarduera ingelesez garatzera: ingeles-hiztegiak, orriak eta lapitzak.

JARDUERAREN IRAUPENA: 45 minutuko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU:

Irakasleak ikasleei jarduera azaldutakoan, binaka jarriko dira. Bikote bakoitzari honako elkarrizketa honen bi kopia emango zaizkio, eta 10 minutu erabiliko dituzte erantzunak emateko.

NIRE TARTE LIBREETAN...

Izena .....

1. Zer jardueratan hartzen duzu parte klaseak behin amaitutakoan, eta zelako maiztasun?

JARDUERAK	*EGUNAK/ORDUAK*
1.	
2.	
3.	
4.	
5.	

2. Zein da gehien atsegin duzuna? Zergatik? .....

.....

3. Horietako zenbatetan dibertitzen zara?.....

.....

4. Tarte libreetan zer gustatzen zaizu familiarekin egitea? .....

.....

5. Egunero atseden hartzeko astia daukazula uste duzu?.....

.....

6. Atseden hartzeko, zer egitea gustatzen zaizu?.....

.....

Elkarrizketaren orriak beteko dituzte bikoteka eta elkarren artean hitz egingo dute egiten dituzten eskola-orduz kanpoko ekintzei buruz. Bien bitartean, irakasleak ondoko horma-irudiaren eskema osatuko du:

KIROLAK	MUSIKA
CURRICULUMAREN ARLOKOAK	BESTE BATZUK
FAMILIAREKIN	GEHIEN ATSEGIN DUDANA

Ikasleek, binaka, jarduera horietan parte hartzen duen pertsonaren izena idatziko du. Ikaskide guztiek bikotekidea aritzen deneko jarduerak idatzitakoan, talde handian komentatuko dute eskola-orduz kanpoko ekintzen banaketa. Portzentajeak kalkula daitezke, eta ondorioak eta gomendioak atera. Bakoitzaren elkarrizketak batu egingo dira, haietan biltzen baita irakasleari diagnostiko zehatza egiteko lagungarri gerta dakiokeen informazio ugari.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Atzerriko Hizkuntzak / Gaztelania eta Euskara / Matematika.

2. JARDUERA:

ZER BEHAR DUT ONDO PASATZEKO?

Gaur egun ohikoa da umeek makina bat jostailu eta bestelako materialak (irrati-kaseteak, telebistak, bideoak, ordenagailuak, bideojokoak...) edukitzea, eta horiek erabiltzen dituzte aisialdian. Jarduera horietako askok haurraren bakardadea sustatzen dute eta batzuetan hezigarriak izan daitezkeen arren, horien helburua beti ez da atsedena erraztea. Aldi berean, material mota horrek ikasleen artean dauden ezberdintasun ekonomikoak azalarazten ditu.

Jarduera honen bidez, material edo jostailu sofistikaturik eskatzen ez duten tradiziozko jolasak balioztatzen eta taldeko jolasaz gozatzen saiatuko gara.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Etxe gehienetan izaten dugun jostailu-ugaritasuna identifikatzea.
- Jostailuen kontsumo irrazionalaren aurreko jarrera aldatzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Material urria eskatzen duten talde-jokoetan parte hartzea.
- Astebetean zehar gauzatuko den ekintza-saila programatzea.
- Tradiziozko jolasei buruzko informazioa bilatzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: ohiko material didaktikoak eta artelazkizko taula edo asteroko egitarauak ikusteko moduan jar daitezkeen tokia.

JARDUERAREN IRAUPENA: 50 minutuko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak, lehen-lehenik, jostailuek mendearen hasieratik gaur egunera arte izan duten bilakaerari buruzko adierazpen xumea egingo du, kontsumitzaileentzat beti onuragarria ez den jostailuen sofistikazio-maila gero eta altuagoa ere aipatuz. (Gaur egun dauden Jostailuen Museoetara jo eta argazkiak eta agiriak eskatuz eskura daiteke informazioa: Azpeitia, Ibi (Valentzian), Figueres (Katalunian), eta abar).

Irakasleak ikasleei jarduera azalduko die: *"Biribilean jarriko gara (talde handia) eta gutariko bakoitzak azalduko du, batetik, dibertitzeko zer-nolako jostailuak erabiltzen dituen eta, bestetik, zer zaion dibertigarri, baina inolako jostailu edo material-beharrizanik gabe".*

Irakasleak ikasleen ekarpenak idatziko ditu ondoko taula honetan, ekarpen guztien balorazio positiboari arreta emanez:

ERABILTZEN DITUGUN JOSTAILUAK	JOSTAILURIK GABEKO JOLASAK

Ekarpen guztiak idatziz jasotakoan, taularen edukiaz mintza daiteke eta, beharrezkoa gertatuko balitz, *Jostailurik gabeko jolas*ei dagokien zutabean jolas gehiago jar litezke (trukeme delakoa, ezkutaketa, marroak, zapiaren jolasa, pepeak eta pepak izenekoa, esku-jolasak, hitz-jokoak...).

Zutabe horretan behar besteko aukera daukagunean, lauzpabost pertsonaz osatutako taldeetan jarririk, astebeteko jolasorduetarako egitasmoa egiteko eskatuko zaie ikasleei: *"Orain launaka edo bosnaka jar zaitezten nahi dut eta datorren asteko jolasorduetarako egitasmoa egin dezazuen. Ondoren, jolas horietan jardungo zarete eta behin proba amaituta, azken zutabea beteko dugu"*. Zeregina samurragoa gerta dakien, ondoko eskema hau daukan orria eman diezaiekegu:

	OHIKO JOLASAK	PROGRAMATUTAKO JOLASAK	GEHIAGO ALA GUTXIAGO DIBERTITZEN NAIZ? ZERGATIK?
ASTELEHENA			
ASTEARTEA			
ASTEAZKENA			
OSTEGUNA			
OSTIRALA			

Lehenengo talde txikian eta ostean handian egingo den azken zutabeko erantzunen analisiari esker, ondorioak ateratzeko modua izango dugu, eta une horretan bertan eztabaidatu eta negoziatu ahal izango diren egoerak eta jarrerak azalduko dira.

IRADOKIZUNA: Jarduera horrekin batera, tradiziozko jolasei edo kirolei buruzko erakusketaren bat edo jostailuen museorako bisitaldi bat antola liteke. Aldi berean, *Neska naizen hau eta mutil zaren hori ezberdinak gara* izeneko unitatearen aurretik edo ostean egin liteke, unitate hartan jolasean jarduteko darabilten tokia aztertzera bideratutako jarduera bat proposatzen baita.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera / Heziketa Fisikoa / Gaztelania eta Euskara / Tutoretza.

3. JARDUERA:
JOSTAILUEN BAZARRA

Pertsona guztiok gozatzen gara geure tarte libreez, jolas-jardueraren bat gauzatzea ahalbidetzen diguten materialez, edo halakorik gabe. Batzuetan, material horien abantailez eta mugez jabetzen gara; beste batzuetan, ordea, jolas hutsera mugatzen gara, berekin daramatzan inplikazioetan edo sustatzen dituen estereotipoetan pentsatzeke. Ildo horretan, badakigu zenbait jostailu sexista direna, horiekin jolasean aritzeak emakumezkoei edo gizonezkoei egotzi ohi zaizkien rolak birsortzeko balio duen neurrian. Aldi berean, dendetan aurki ditzakegun jostailuetako asko belikoak dira, bai benetako armen gisakoak direlako, bai erabiltzen dituenarentzat arrisku fisikoa ekar dezaketelako, edota gerra egoerak irudikatzeko balio dutelako.

Jarduera honetan zenbait jostailuk dakartzaten onuren eta mugen analisiari ekingo zaio.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Zenbait jostailuren abantailak eta desabantailak aztertzea.
- Ikasleen gaitasun kritikoa sustatzea.
- Pertsonaren garapen osoa sustatzen duten jostailuez gogoeta egitea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Pertsonen zaletasunen arteko aldeak errespetatzea.
- Pertsona talde baten aurrean norberaren ideiak adieraztea.
- Ez sexistak eta ez belikoak ez diren jostailuekiko jarrera positiboen alde egitea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: gimnasioan edo taldeei mugitzen utziko dien ikasgela handi batean.

BALIABIDEAK: bost jostailu ezberdin (baloia, metraileta, panpina, yo-yoa eta zapia). Ikasleei, jostailuak beraiek etxetik ekar ditzaten ere eska dakieke, baina ezberdintasunak eta erkaketak baztertze aldera, nahiago izan dugu irakasleek eramatea klasera, izan ere, jostailuetako batzuk desegokitzat jotzen badira, horiek ekarri dituen ikaslearentzat egoera desatsegina gerta baitaiteke.

JARDUERAREN IRAUPENA: 40 minutuko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Lehenengo eta behin, jarduera azalduko zaie ikasleei, honen antzeko zerbait iradokiz:

"Gaur, jostailuen bazar bihurraraziko dugu geure ikasgela. Hona hemen ekarri ditugun bost jostailuak. Zuetariko bakoitza gehien atsegin duen jostailuaren atzean kokatzea gustatuko litzaidake, gero, jostailu hori erabilita jostatuko baikara".

(Baliteke jostailu batzuen atzean pertsona asko jartzea eta beste batzuen atzean, aldiz, inor ere ez. Halakoetan, irakaslearen esku geratzen da, taldekideen kopurua orekatzearren, beste jostailu gehigarri batzuk eransteko ala inor gabe geratu diren jostailuak pertsona batzuei emateko erabakia).

Taldekako banaketaren ostean, aukeratu duten jostailuaz 10 bat minutuz goza daitezen utziko zaie ikasleei, hartara jartzeko eta jostailuak dauzkan abantailak eta mugak esperimentatzeko nahikoa.

Ondoren, eta ikasleek talde horiexetan dirautelarik, ondorengo koadroa bateko dute:

GURE JOSTAILUA HONAKOA DA: .....

ONURAK:	MUGAK:
.....	
.....	
.....	
.....	
.....	
.....	
.....	
.....	
.....	
.....	
.....	
.....	
.....	
.....	
.....	

Talde guztiek beren lana amaitzen dutenean, talde handian azalduko dira jostailu bakoitzari buruzko iritziak. Irakasleek ere egoki deritzeten komentarioak erants ditzakete.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Heziketa Fisikoa / Gaztelania eta Euskara.

ETXEKOENTZAKO FITXA

Guraso agurgarriok:

Egunotan aisialdiari, eskola-orduz kanpoko ekintzei eta jostailuei buruzko gaia landu dugu. Zuen semeak/alabak eskola-orduz kanpoko ekintzetan parte hartzen du eta hainbat jostailu dauka etxean. Gai honi dagokionez, honakoak lortu nahi genituzke, eta eman ahal diguzuen laguntza estimatuko genuke:

a. Semeari/alabari azaltzea zuen ustez zergatik gomendatzen duten hura matrikulatuta dagoen eskola-orduz kanpoko ekintzetan parte hartzea.
b. Gaztetan erabiltzen zenituzten jostailuen eta jolaserako zituzten abantailak eta mugak deskribatzea.

Astitsu bazabiltzate, utz iezaiozue semeari/alabari ikasgelan -ikaskideekin batera- atera dituen ondorioak azaltzen.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu eskolako zeregin honi eskaintzen dizkiozuen arreta eta denborarengatik, izan ere, zuen seme-alabek familiak eskolako zereginak ontzat jotzen dituela igartzen dutenean, beraiek ere gehiago identifikatzen baitira eta gogotsuago ibiltzen baitira eskolarekiko zerikusia duen guztian.

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

UNITATEAREN BALORAZIOA

Ikasleek unitate honi atera dioten etekina zenbaterainokoa izan den jakin ahal izateko, ondoren azaltzen den zeregina azal daiteke:

Taldekide bakoitzari bi jolas-jarduera hauek aldera ditzala eskatuko zaio: pala partida bat hondartzan edo frontoian familiarekin, eta bideo-kontsolako joko bat.

Erantzunak jasotakoan, gaiari buruz lortu duten heldutasun maila neur daiteke. Ondoren, senide bakoitzaren aisialdiari buruzko hausnarketa egin dezakete, familiarentzat egiten den proposamenean puntu zehatz honi buruzko testua ere aurki baitaiteke.

1. Konpara itzazu bi jarduera hauek: pala partida hondartzan edo frontoian familiarekin eta bideo-kontsolako jokoa.

ANTZEKOTASUNAK.:

.....

.....

EZBERDINTASUNAK:

.....

.....

Zein dut nahiago? Zergatik?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

2. Deskriba ezazu zeure senideen aisialdia:

ZUREA:

.....

.....

AMARENA:

.....

.....

AITARENA:

.....

.....

BESTEENA:

.....

.....

.....

INFORMAZIOZ INGURATURIK

■ IDEIA NAGUSIA

Umeek, beste edozein pertsonak bezalaxe, zentzu batean edo beste batean, eragiten dieten gauza guztiei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea daukate. Eta informazioa emateko, beren iritziak, kexak edo arazoak arlo ezberdinetan aditzera emateko eskubidea ere badaukate, hasi egunekoenetatik (familia, ikastetxea, lagun taldea...) eta ofizialenetara (udalerria, hedabideak, etab). Baina eskubide hori erabili ahal izateko, beharrezkoa zaie informazioa era egokian eta aberasgarrian hartzen eta ematen utziko dieten komunikazio-prozedurak ezagutzea eta maneiatzea.

■ HELBURUAK

- Informatuta egoteak daukan garrantziaz jabetzea.
- Iritziak eta norberaren ideiak aditzera ematera bultzatzea.
- Komunikabideen eta publizitatearen aurreko kritika-gaitasuna garatzea.
- Ahozko testuen eta testu idatzien ekoizpen-prozedurak hobetzea.
- Ikus-entzunezko eta informatikaren bidezko komunikabideekin ohitzea eta haiek izan dezaketen adierazpen-potentzialari etekina ateratzea.

■ UNITATEAREN GARAPENA

Gaur egungo gizartea informazioaren gizartea dugu. McLuhan-ek aipatzen zuen "herrixka globala" errealitate bihurtu zaigu dagoeneko. Informazioaren autopista deritzenek zorabiatzeko moduko abiadan garamatzate albiste batetik beste batera, herri batetik beste batera, ezbeharrik latzenetik azalkeriarik handienera. Horrela ikusita, esan liteke inork ez digula ukatzen gauzen berri izateko daukagun eskubidea. Hala ere, azken hamarkada hauetan komunikabideen aurrerapena handia izan bada ere, badago zer esanik heltzen zaigun informazioaz eta informazio hori heltzeko moduaz.

Irratitik edo telebistatik bidaltzen diguten albiste zaparrada jasanda, gogaituta zenbaitetan, ez gara prozesatzeko gai izaten; sareak (Internet), bere aldetik, hainbesteko informazio-anabasara biltzen gaitu, ezen batzuetan ekidinezina baita nabigazioa hondoratze bihurtzea. Edonola ere, norabidea hedabideek eurek eta interes ekonomikoek markatuta dago.

Helduoi hori gertatzen bazaigu, are larriagoa da haurren kasuan. Beraz, kontuan izanik komunikabideak direla, familiarekin eta eskolarekin batera, gure ikasleengan influentzia duten eragile nagusietako bat, gizarte-baloreen transmisiorako biderik funtsezkoenetakoa izanik, garrantzi handikoa da beraien bidez jasotzen duten informazioa bereizten irakats diezaiegun.

Zalantzarik gabe, telebista da mezu kopururik handiena helarazten dien bitartekoa eta, ondorioz, eragingarriena. Beharrezkoa da, gure ikasleekin batera, ikusten dituzten saioen analisia egitea eta askatasun maila egoki batez informatuta egoten utziko dien kritikarako gaitasuna garatzea beraiengan, ahal den neurrian bitartekoen manipulazioa saihestuz.

Aparteko atala eskaini beharko genioke publizitateari, ezarrita dauden baloreak iraunarazteko baliabiderik indartsuena baita eta erabateko eragina baitu gure kontsumoaren, aisialdiaren, bizimoduaren eta abarren kudeaketan. Gure ikasleek telebistan ikusten duten munduak (kontuan izanda nolako saioak ikusten dituzten), neurri handi batean, ez du zerikusi handirik errealitatearekin, eta are gutxiago zenbait herritako errealitatearekin; arazorik larriena kilotxo batzuk soberan izatea edo modan dauden markako praka batzuk lortzea izan ohi duten nerabeen eta gazteen bizitzaren idealizazioaren fruitua izaten da, besterik gabe. Ikasleek, bada, errealitatearen ikuspegi partzialari egin behar diote aurre; gure zeregina, berriz, bizitzan benetan garrantzitsu diren beste egoera eta arazo batzuen ezagutzaren bidez konpentsatzea da, baita didaktikoagoak eta informazio handiagokoak diren beste era bateko saioetara edo komunikabideetara (prentsara, besteak beste) jotzeko gogoa sustatzea ere.

Baina, gaur egun bizi dugun egoeran, ezin dugu aipatu gabe utzi gorantz ari den komunikabide berri bat: Interneti buruz ari gara, noski. Gero eta neurri handiagoan, gure ikasleei hamaikatxo aukera eskaintzen dizkien tresna da, eskura dutena gainera, eta informazioari dagokion arloan ez ezik –errealitatearen pertzepzioan izan dezakeen eraginarekin–, baita iritziak azaltzeari dagokionean ere. Bitarteko horren izaera elkarreragileari esker, gure ikasleek parte har dezakete eztabaidetan, foroetan edo erreferendumetan (esaterako, UNICEFen, gazteek beren iritzia ematen dute "Umeen Eskubide"ei buruz: http://www.unicef.org/voy/es/meeting/rig/righome.html). Behar-beharrezkoa da, beraz, gure ikasleei sarean zehar nabigatzen irakastea: informazio interesgarria nola bilatu, topaleku edo eztabaida-foro horietan nola parte hartu, beste herri batzuetako neskato eta mutikoekin nola konektatu, iritziak adierazteko web orriak nola sortu, eta abar; azken batean, sareak, era positiboan eta ez manipulazio-eragile eta alienatzaile gisa, eskaintzen dituen aukera guztiak nola erabil daitezkeen.

Beste alde batetik, esan dugun bezala, informazioa hartzea bezain garrantzitsua baldin bada informazio hori igortzea, mezuak analizatzen eta ulertzen ikastea bezain garrantzitsua izango da mezuok sortzen ikastea. Hain zuzen ere, askotan gure neska-mutilek ez dute beren iritzi-eskubidea erabiltzen, hala jarduteko beharrezkoak zaizkien trebetasunak ez dauzkatelako. Horregatik, testuen sorkuntza-lana funtsezkoa da trebetasun horiek garatzeko, hitzezko hizkuntzari eta grafikoari dagokienez ez ezik, baita ere ikus-entzunezko lengoaia (argazkilaritza, bideoa) edo informatikoa (posta elektronikoaren erabilera, web orrien sorrera...) erabiltzeari dagokionez. Gainera, iritzia ematea erantzukizuna ere badelako ideiari ekin behar diogu, geure iritziak adieraztean bizi garen errealitatean inplikatzen garen neurrian. Zentzu horretan, oso interesgarriak izaten dira UNICEFek bultzatu ohi duen Umeen aldeko Irrati eta Telebistaren Munduko Eguna bezalako esperientziak (azkena 1999ko abenduaren 12an izan zen). Egun horretan, mundu osoan zehar 2.000tik gora irrati eta telebista-estaziok ematen diete hitza umeei, iritzia emateko duten eskubidea Umeen Eskubideei buruz hitz eginez erabil dezaten; neskato-mutikoak gizarte-aldaketen sustatzaile. (UNICEF: http://www.unicef.org/spanish/icdb/).

Azken batean, ez du eskubidea nahi duenak erabiltzen, ahal duenak baizik. Eta hori da gure zeregina: geure ikasleak beren eskubideak erabiltzeko gaitzea. Hizkuntza arloa, prozedurei dagokienez, eta Inguruaren Ezaguerarena, edukiei dagokienez, gako izango dira lan honetan.

■ ZER LANDU GAI HONEN INGURUAN?

Irakasleek

- Testuak ulertu eta lantzeko prozedura guztiak erabili, gure ikasleen komunikazio-gaitasuna handitzeko komunikabide eta eremu ezberdinetan.

- Ikasgelako material gisa komunikabideetako mezuak erabili arlo ezberdinetan, ikasleekin batera aztertzeko eta haien eragina indargabetzeko.
- Ikastetxean egunkariak edo aldizkariak, irrati edo telebista saioak, web orriak, eta abar egitea, hau da, gure ikasleak inguruko informazioa biltzera eta iritziak adieraztera bideratuko dituen guztia egitea proposatu.
- Ikasleak gonbidatu GKEek, komunikabideek edo beste erakunde batzuek hainbat gairi buruz proposatzen dituzten erreferendum edo iritzia emateko topalekuetan parte har dezaten.
- Ikasleei ikastetxean eragiten dieten gauza guztien gaineko iritzia eskatu. Erne ibili, neska-mutilek ikastetxean eragiten dieten gauzei buruzko informazioa dutelako sentsazioa izan dezaten eta beren iritziak adieraz ditzaten, ikasleen partaidetzarako eta ordezkapenerako egiturak sustatuz. Ikasleen iradokizunetarako gutunontzia.

Familiak

- Telebistan ikusiko dituzten saio-motak aukeratu eta denbora kontrolatu etxean.
- Telebistako zenbait saio edo publizitateko iragarki beraiekin ikusi eta komentatu, haien edukia zentzu kritikoz analizatzeko.
- Prentsa edo haien adinerako egokiak, planteamenduetan suspergarriak eta irekiak gerta daitezkeen aldizkariak irakurtzeko interesa sustatu.
- Etxean, neska-mutilei, pertsona, familia edota gizarte-mailan kezkagarri gertatzen zaizkien gaiei buruzko elkarrizketa sortu.

1. JARDUERA:
TELEBISTARA KATEATUTA

Gure ikasleek sarrien ikusi ohi duten komunikabidea telebista izanik, interes handia du horri buruz gogoeta egiteak. Gehienetan ez dute albiste-saiorik ikusten, baizik eta telesailak, umeentzako edo gazteentzako saioak, lehiaketak eta abar, hori guztia publizitatez apaindua, jakina. Telebistak, munduari lotuta eta informatuta gaudelako sentsazioa ematen digun arren, sentsazio engainagarria izan daiteke. Hori dela eta, beraiekin batera ikuskatu behar dira saioon edukiak, helarazten dizkiguten mezu-motak, sustatzen diren baloreak, erakusten duten errealitate modua eta ostentzen dutena.

Gure betebeharra da hartzen duten informazioa era kontzienteagoan eta kritikoagoan irakurtzeko baliabideak ematea, bai eta normalean hartzen ez duten bestelako informazioak eskuratzeko jakin-mina eta ardura beraiengan sorraraztea ere.

Irakasleak jarduera azalduko die ikasleei: *"Inkesta xume bat egingo dugu ikasgelan honakoei buruz: zenbat denbora ematen dugun telebista ikusten, zelako saioak ikusten ditugun gehien bat eta zergatik, zenbaterainoko informazioa daukagun munduan gertatzen denaz, eta abar. Astebetean erreparatu egingo diegu puntu hauei: zenbat denbora ematen dugun telebista ikusten eta nolako saioak ikusten ditugun. Saio horiek nolakoak diren ere aztertuko dugu. Horretarako, datuak biltzeko koadroa eta azkenean egingo den bateratze-saioan oinarri gisa balioko digun galdekizun labur bat erabiliko ditugu"*.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Telebistaren bidez jasotzen dituzten edukien gaineko hausnarketa egitea.
- Informatuta egotea zer den jabetzea.
- Kritikarako eta analisirako gaitasuna garatzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Telebistako saio eta iragarki jakin batzuk analizatzea, telebistak helarazten digun errealitatea eta inguruan ikus dezakeguna alderatuz.
- Publizitateak haien bizitzan daukan eragina ulertzea.
- Telebista dela-eta dauzkaten ohiturez jabetzea.
- Normalean ikusten ez dituzten saio-mota batzuekiko interesa hartzea.

■ ALDEZ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: datuak biltzeko koadroa eta galdekizuna, arbela.

JARDUERAREN IRAUPENA: ordu eta erdi.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Talde handian, saio baten ordu laurdena emango dugu hurrengo astean gauzatuko den lana azaltzen. Jardueraren helburua argituko zaie eta lanabesak zeintzuk izango diren jakinaraziko: ondorengo koadroan, astebetean zenbat orduz ikusten duten telebista (egunean-egunean) eta zer saio ikusten duten jaso beharko dute. Astea bukatutakoan, galdekizuna ere bete beharko dute, osagarria izaki, lagungarri gertatuko baitzaie ikusi ohi dituzten saioen eta publizitatearen edukietan sakonago aritzeko.

TELEBISTA ETA BIOK							
Asteko egunak	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
Zenbat orduz?							
Zein saio?							

GALDEKIZUNA

- Astean zenbat ordu ematen duzu telebista ikusten?
- Nolako saioak ikusten dituzu gehien bat?
- Zeintzuk dituzu gustukoen? Zergatik?
- Protagonistek zure antza daukate? Beraien bizimodua zurea bezalakoa da?
- Zu bezalako neska-mutilen arazoak erakusten dituztela uste duzu?
- Telebistaren bidez jakiten duzu munduan zer gertatzen den?
- Albiste-saioak ikusten dituzu?
- Publizitate-iragarkiak ikusten dituzu ala zapping egiten duzu?
- Zein(tzuk) d(ir)a gehien atsegin d(it)uzun iragarkia(k)? Zergatik?
- Zein produkturen iragarki da/dira?
- Nortzuk eta nolakoak dira protagonistak?
- Nolakoa da agertzen diren tokia?
- Nolakoak dira koloreak eta irudiak? Eta musika?

Astebete igarotakoan, gutxi gorabehera, berriro ekingo zaio klaseko lanari, saioa bi zatitan banatuta:

- Lehendabiziko ordu erdian, eta arbelean beraien koadroaren modukoa eginda, ikasleen datuak batuko dira. Arbeleko koadro honek beste bi sarrera izango ditu (ikasgelakoen saiorik eta iragarkirik gogokoenak). Ziur asko, gehienak bat etorriko dira gauza askotan, eta horri esker, telebista dela-eta, gure neska-mutilen kontsumoaren eta zaletasunen ikuspegi orokorra izango dugu.

- Ondoren, galdekizunaren itaunei emandako erantzunak baliatuz, beste ordu erdi bat emango dugu telebistaren bidez hartzen dituzten mezu- eta balore-motei buruzko hausnarketan, zergatik nahiago dituzten saio/iragarki batzuk beste batzuk baino, ea saio horiek ematen duten benetan eragiten dieten gauzei buruzko informaziorik, zein den munduari buruz jasotzen duten egiazko informazio maila , eta abar.

Horrekin guztiarekin zera lortu nahi da: telesailek eta iragarkiek helarazten diguten munduaren, beraien munduaren eta arazo larriak pairatzen dituzten beste ume batzuen errealitatearen arteko kontrasteaz ohar daitezen.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera / Euskara eta Gaztelania / Tutoretza.

2. JARDUERA:

ZER KONTATZEN DIGUTE EGUNKARIEK?

Telebista, eta gaur egun baita Internet ere, munduan zehar gertatzen denari buruzko informaziorik berehalakoena eta zirraragarriena helarazten digun bitartekoa da, baina albisteen transmisioan gertatzen den zeihartasuna ez ezik, gaur egungo arazoak sakon aztertzen dituzten saio serioen falta ere nabari dezakegu gehienetan. Informazioaren arloan, hala ere, gaur egun prentsa da, seguruenik, albiste eta iritzien gaineko atalen bidez –erabat objektiboa den komunikabiderik ez dagoela jakinik– sakontasunik eta kontrasterik handienak eskaintzen dizkiguna. Kontuan izanik gure ikasle gehienek ez dutela asko garatu irakurtzeko ohitura, eta are gutxiago prentsari dagokionez, bigarren jarduera hau egunkariaren inguruan planteatuko dugu. Daukaten adinarekin oraindik egunkariaren eduki guztiak bereganatzea zail gertatzen zaiela dakigun arren, bitarteko hori baliatzen erakusten saiatuko gara eta beraiengan prentsa irakurtzeko kezka eta "informazioa eskuartean" izateko gogoa sorrarazteko ahalegina ere egingo dugu.

Klase saio baten bukaeran, irakasleak handik bi edo hiru egunera egingo den jardueraren berri emango die ikasleei: "*Zuenean erosten al da egunkaririk? Prentsa irakurtzeko ohiturarik badaukazue? Zenbat egunkari ezagutzen duzue? Egun pare batez, zuek bezalako neska-mutilez dihardutelako edo interesatzen zaigun gai orokorren bati buruzkoak direlako, interesatzen zaizkizuen albisteak hautatuko ditugu egunkarian. Lan hori egindakoan, ikasgelan irakurriko ditugu, komentatu eta, azkenean, gu geu ere, kazetari bihurtuko gara*".

■ HELBURU NAGUSIAK

- Ikasleak prentsa irakurtzeko ohitura hartuz joatea.
- Kazetaritza-generoetara eta arlo horretako hizkuntzara hurreratzea.
- Munduan zehar jazotzen diren gauzengatiko jakin-mina sustatzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Berri bat zer den, zenbat zati dituen... aztertzea.
- Prentsako zenbait albisteren edukia aztertzea, haurren arazoei buruz diharduena batik bat.
- Gaurkotasuna daukan gairen bati buruzko berria lantzea.
- Talde-lana sustatzea taldeko adostasuna lortzeko saioa eginez.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: egunkarietako albisteak, orriak, koloretako kartulina handiak, itsasgarria, errotuladoreak...

JARDUERAREN IRAUPENA: ordubeteko 2 saio.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Talde handian, irakasleak, ikasle bakoitzari eskatuko dio prentsan hautatu dituen berrietatik bat gutxienez irakurtzeko, eta zergatik aukeratu duen ere esan dezala. Denon artean hitz egingo da berriaren garrantziaz. Berri gehienak txarrak izango direla pentsatzekoa denez gero, komenigarria litzateke albiste onen bat ere nabarmentzea.

Ikasle guztiek beren berria irakurritakoan, analisiaren bigarren zatira iragango gara. Horretarako, gako gertatuko diren zenbait punturi erreparatuko diogu:

- Formari dagokionez:
  - Egunkariaren atal ezberdinak.
  - Testu mota ezberdinak (berriak, artikuluak, kronikak, iragarkiak...).
  - Informazioaren eta iritziaren arteko desberdintasunak (objektibotasuna /subjektibotasuna).
  - Zer den berri bat, zein zati dituen, zein galderari erantzuten dien, zeintzuk diren berriaren ezaugarri grafikoak.
- Edukiari dagokionez:
  - Ea prentsan gu bezalako neska-mutilei buruzko albiste asko ageri den.
  - Zer-nolako gauzak kontatzen dituzten.
  - Beste herri batzuetako haurrez diharduten.
  - Zein arazo daukaten.
  - Gertaera horiek nolabaiteko eraginik ba ote duten gugan.

Hurrengo saioan, irakasleak eguneko egunkarian ageri den gertaera garrantzitsuren bat hautatuko du, klasean ikasleekin komentatzeko. Ondoren, aurreko saioko analisian eta adibideetan oinarriturik , launaka jarrita eta ordu laurdenean, gertaera horri buruzko albistea lantzeko eskatuko die. Hurrengo ordu laurdenean taldeek egiten dituzten berriak eta gertaera berari buruz eguneko bizpahiru egunkaritan argitaratutakoak alderatuko dira, albiste bera era askotara eta objektibotasun maila ezberdinez konta daitekeela egiaztatzeko.

Azken ordu erdian, berriz, lehengo talde berberetan, egunkarian aukeratutako berriez -tartean beraiek sortutakoa ere erabiliz– horma-egunkari xume bat gauzatuko dute ikastetxeko korridoreetan jartzeko, eskola-kideengan ere informazioari eusteko interesa pizteko xedeaz. Horregatik, ahaleginak egin beharko dituzte ikusmenerako atsegina izan dadin eta "erreklamo" gisa funtzionatuko duen izenburua izan dezan.

CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURA

Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera / Euskara eta Gaztelania / Arte Hezkuntza (Plastika eta Ikus Adierazpena).

3. JARDUERA:

ETA ZUK ZER DERITZOZU...?

Informazio-eskubidearen txanponaren beste aldea, berriz, iritzi-eskubidea dugu. Hala ere, hezkuntzaren ikuspuntutik eta ikasleen adina kontuan hartuta, eskubidea bera soilik azpimarratu gabe, erantzukizunari ere ekitea interesatzen zaigu. Iritzia ematea, bizi garen munduarekiko nolabaiteko konpromisoa hartzea da; azken batean, zerbaiten alde egitea da norberaren iritzia ematea. Hala bada, ikasleekin landu beharreko zerbaiten aurrean gaude; iritziak adieraztea eta besteenak errespetatzea zeinen garrantzitsua den ohartarazi behar diegu, denek ere eskubide hori erabiliko badute.

Ikasleei une horretan interesgarri gertatzen zaien arazoren batetik abiatuko gara, nolabaiteko eztabaida sor dadin. Ikastetxearekin edo herriarekin lotuta dagoen zerbait izan daiteke, edo eremu zabalago batera jota, nazio edota mundu mailako gairen bat. Hur daukagunetik abiatuz gero, beraientzat esanguratsuagoa izango da, eta hori abantaila izaten da, baina, bestalde, komeni da leihoak irekitzea mundura begira dezaten, urrun jazotzen denak gugan eragin duen bezala, guk geuk egiten dugunak ere urruti bizi direnengan eragina duela ohar daitezen.

Irakasleak jarduera azalduko die ikasleei: *"Ikastetxean, kalean, prentsan, **X** gatazkari buruz hainbeste hitz egiten denez, gai horretaz jardungo gara. Arazo hori dela-eta planteamendu komun batera iristea izango da gure helburua. Behin adostasuna lortuta, eskutitz edo idatzi bat egingo dugu, eta bertan, talde legez daukagun iritzia islatuko dugu, dagokionari helaraziko diogu (ikastetxearen zuzendariari, alkateari, egunkariaren zuzendariari, edo, behar izanez gero, Arartekoari)".*

■ HELBURU NAGUSIAK

- Ikasleek euren iritziak eta ideia propioak adieraztea.
- Iritzia ematea errealitatearekiko konpromisoa hartzeko modu bat dela ohartaraztea.
- Gainontzekoen iritziak errespetatzen ikastea.
- Euren ideiak argudiatzen ikastea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Idatzizko eta ahozko argudio-testuak gauzatzea.
- Taldean eztabaidatzen ikastea, gainontzekoen parte-hartzeak errespetatuz.
- Ikaskideen arteko adostasuna lortzeko bideak sustatzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: idazteko tresnak, arbela.

JARDUERAREN IRAUPENA: ordubeteko bi saio.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Klasean, une horretan ikasleak kezkatzen dituen eta eztabaidarako bidea eman dezakeen gai bat aterako da (euren ingurukoa zein urrunekoa izan daiteke). Jarduera gauzatzeko, zenbait urrats eman beharko ditugu:

Lehenengo eta behin, bost minututan, gai horri buruz duten iritzia paper batean idazteko eskatuko zaie, baita zergatik pentsatzen duten horrela arrazoitzeko lauzpabost motibo ere. Launaka jarrita, hamabost minututan, bakoitzak zer idatzi duen jakinaraziko diote elkarri, eta ideia komunak batzen saiatuko dira.

Behin gaia talde txikian landu samar egonda gero, talde handian azalduko dira iritziak (ordu erdi eta berrogeita bost minutu bitartean), eztabaidari bidea emanez.

Hasi baino lehen, errespetatu beharreko arau batzuk jarriko dira, ahalik eta argien:

- Moderatzailea izendatuko dute.
- Talde bakoitzak bere eleduna aukeratuko du, eta horrexek azalduko ditu taldearen ondorioak; gainontzekoek ere parte har dezakete, bozeramaileak behar bezala ordezkatzen ez dituela uste badute.
- Taldeek parte hartzeko lehendabiziko txanda bana izango dute eta, gero, hitz egin nahi duen orok txanda eskatuko du.
- Azaltzen diren argudioak arbelean idatziko dituen idazkaria izango da, puntu komunetara iristen saiatu beharko duena. Talde gisa iritzi adostu batera heltzea da asmoa.
- "Kanpoko behatzailea" izendatuko dute, zeregin hau duela: taldeari saioa bere ustez nola garatu den adieraztea, batez ere jarrerei dagokienez.

Jarduteko arau horiek orri batean idatz daitezke eta ikasgelako taulan jarri, eztabaidak, batzarrak eta abar egiten dituztenetan beti gogoan izateko.

Talde gisa iritzi bat adostea lortutakoan, ondorengo saio batean (ordubete edo hiru ordu laurden), berriro ere launaka jarrita (aurrekoan egindako talde berberak osatuko dira hurrengo horretan ere), idazki edo eskutitz bat idatziko dute (bidezkoa irizten zaiona) kasu bakoitzean dagokionari helarazteko, baina betiere taldearen iritzia gelatik kanpora iristeko asmoarekin. Era horretako idatzi batek izan beharreko ezaugarriak gogoraraziko zaizkie eta kontrol-zerrenda bat ere idatz daiteke arbelean, horrelako testuak egitean aintzat hartu behar diren alderdiak jasoz. Azkenik, taldeen eskutitzak irakurriko dira eta talde osoaren iritzia ondoen batzen duen gutuna aukeratuko dute, beharrezkoak diren aldakuntzak egin ondoren igortzeko.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera / Euskara eta Gaztelania.

ETXEKOENTZAKO FITXA

Guraso agurgarriok:

Eskolan informazioa edukitzeko eta iritziak adierazteko eskubidea eta interesa ari gara lantzen zuen semealabekin. Horretarako beharrezkoa da umeengan inguruan gertatzen denaren berri izateko ardura piztea, bai ikasgelan eta bai senitartekoen artean, eta gertaeren joeran partaide eta eragile izateko interesa sustatzea, iritziak emanez, jarrera jakin batzuk hartuz edota errealitatean era zuzenean jokatuz.

Horrekin guztiarekin lotuta, komunikabideak (telebista, prentsa, Internet...) aztertzen ari gara, jasotzen dituzten mezuen aurrean kritikarako gaitasuna garatzeko eta informazioak bereizten jakiteko. Batzuetan saio jakin batzuei erreparatzeko eskatuko diegu edota prentsan aurkitzen dituzten albisteak eskolara eramateko. Zeregin horretan zuen semearen/alabaren lankide izan zaiteztela eskatzen dizuegu eta, ahal duzuen neurrian, ondorengo puntuetan laguntza eman diezaiozuela:

- Ikusten dituen telebista saioez mintzatu berarekin.
- Komunikabideen bidez heltzen zaizkigun balore motak aztertu.
- Interesatzen zaizkion telebistako edo prentsako berrietan partaide bihurtu.
- Prentsa irakurri eta albistegiak ikus ditzan animatu, betiere beraren adinerako egokiak badira.
- Internet erabiltzen lagundu (etxean badaukazue), denbora emateko tresna baino zerbait gehiago dela erakutsiz, hau da, ikasteko tresna moduan.
- Haurrengan eragina duten gizarte-arazoei buruz hitz egin etxean.
- Hartu beti kontuan beraren iritziak.

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

UNITATEAREN BALORAZIOA

Unitate honen ebaluaketa egiteko, 4 edo 5 ikaslek osatutako taldeetan jarrita, eskola-aldizkari xumea gauzatuko dute (DIN A3 erditik tolestuta). Aldizkari edo kazeta horretan, informazio eta iritzi testuak landuko dituzte, eta hiru ekintzetan egin duten lana jasoko. Kazetak lau orri izango ditu, eta honela banatuko dira:

- Aurreneko orriak aldizkariaren berririk garrantzitsuenak laburbilduko ditu tituluen bidez. Hor azalduko da taldeak argitalpenari eman dion izena ere.
- Umeei buruzko berriei eskainitako orrialdea. Orrialde horretan prentsan aukeraturikoen arteko batzuk eta ikasgelan gauzatu dutena itsats ditzakete.
- Hirugarren jarduerako eztabaidaren gaiari eskainitako orrialdea. Egin duten idatzia edo eskutitza ere jar dezakete hor.
- Azken orrialdea, eskolako bizimoduari eskainia. Orrialde horretara Ikasleen albisteak, iritziak eta iradokizunak (iradokizun-ontzia) ekar ditzakete.

Argazkiak edota marrazkiak ere erants diezazkiokete aldizkariari eta, ahal duten neurrian, egunkari batek duen maketazio eta tipografi mota erabili beharko dute. Ikasleak ordenagailua erabiltzen trebeak badira, lanabes gisa erabili ahal izango dute, bai diseinurako eta bai informazio iturri moduan ere (Internet).

GURE PLANETA ZAINTZEN

■ IDEIA NAGUSIA

Herri aberatsen teknologi eta industri garapenaren ondorio diren kontsumo-irizpideek miseriatik urrun dagoen bizimodua bermatzen dute, baina planetaren baliabideen ustiapen gehiegizkoaren eta neurririk gabearen bidez; horrela, inguru naturalaren desoreka ekologikoa areagotu egiten da.

Naturak eskaintzen dizkigun baliabideen erabilera ezegoki horren eraginez, mundua, zatien batuketa hutsa izan beharrean, erlazioan dagoen osotasun bat delako kontzepzioa bultzatzen duten ekimenak agertu dira; horien arabera, toki batean egiten den edozein esku-hartzek oro har izango ditu ondorioak.

■ HELBURUAK

- Ekosistemaren bizi-oreka, neurri handi batean, gizakion jardueraren mende dagoela ulertzen laguntzea.
- Ingurumena dela-eta arretaz ez bagabiltza, geure buruarekin eta inguruko lagunekin ere hala arituko garela ohartaraztea.
- Jarrera kritikoa sustatzea banakako eta taldeko ikerketaren bidez.
- Planetaren eskubideak defendatzeko sentsibilizazioa eta ardura hartzeko gogoa sorraraztea.
- Gizakion eta ingurumenaren ongizatearen aldeko ekimenetan parte hartzera animatzea.

■ UNITATEAREN GARAPENA

Gizakia eten gabeko elkarreraginean ari da inguruarekin, eta bere ekonomi eta gizarte beharrizanen araberako aldakuntzak sortzen ditu bertan. Giza jarduera horrek, zientzi eta teknologi iraultzak eta industri gizarteen garapenak abiada emanda, era basatian eta neurririk gabean dihardu naturaren baliabideak ustiatzen, naturan, konponezinak izango diren eta Lurrean bizi diren eta biziko diren izakiei eragingo dieten kalteak sorraraziz. Jefe Seattlek idatzi zuen bezala (Greig Sue eta beste batzuetan, 1991, 13. or.):

> "Lurrari gerta dakiokeena, lurraren seme-alabei gerta dakieke. Gizakiek lurrean tu eginez gero, beren buruari egiten diote tu. Badakigu lurra gizakiarena ez dena, gizakia baita lurrarena. Dena dago lotuta, odol bidezko lokarriek familia lotzen duten bezala. Lurrari gerta dakiokeena, lurraren seme-alabei gerta dakieke. Bizitzaren sarea ez zuen gizakiak ehundu, sare horren hari bat besterik ez baita. Sare horri egiten diona, bere buruari egingo dio".

Gizarte hiritarren garapena gauzatu aurretik, gizakiek natura baliatzen zuten, handik elikagaiak, energia sortzeko gaiak eta abar atereaz, eta bertan behera botatzen zuten gauza bakarra ekologi orekarentzat kaltegarri ez ziren sustantzia edo elementuak ziren. Horrela, gizakiak naturari erabat moldaturik zeuden, eta naturarekin zeukaten harremana guztiz orekatua zen.

Industria- eta kontsumo-gizarteen kontrolik gabeko gorakadaren ondorioz, teknologiaren hazkunde txit azkarraren eta demografi hazkundearen eraginez, "zabortegi" erraldoia ari da bilakatzen natur ingurunea, bertan metatzen baitira baliabideen ustiapen neurrigabeak eratortzen dituen hondakin guztiak. Ekologian gertatzen ari den orekarik ezaren ondorioz, hainbat fenomeno azaldu dira dagoeneko: uholde bortitzak, planetaren tenperaturaren igoera edota giza osasunarekin loturiko arazoak, hala nola, alergiak, diagnostikatzen zailak diren zenbait gaixotasun... gizakiak "lurra", "airea" eta "ura" elementuei egindako erasoen isla.

Ingurumenari egiten dizkiogun kalte latz horien ondorioak tokian tokikoak nahiz izaera zabalagokoak izan daitezke. Tokiko ondorioei dagokienez, gehienetan hirietako aglomerazioetako bizimoduarekin izaten dute zerikusia, han aurkitzen baitira nagusiki linea elektriko handiak, osasunarentzat kaltegarri diren gaiez eraikitako etxebizitzak, petrolioaren erabilpenak ekoiztutako anhidrido karbonikoa, eremu elektromagnetikoak, zabor multzo izugarriak...

Maila orokorrago batean, oihan-galtzeak ari gara gauzatzen egurra eta nekazaritzarako edo bazkatzeko lur gehiago lortzearren; horrek eragin zuzena dauka aspaldi honetan lurra astintzen duten klima-aldaketak sor daitezen, giroaren hozberoaren eta hezetasunaren arteko oreka aldatu egiten baita lurrak babesik gabe geratzean. Animalia eta landare anitzen desagerpena ere badakar oihanak galtzeak, bizitokirik gabe geratzen baitira ustiapen horrek derrigortuta. Halaber, herri aberatsetako kontsumo-arauen arabera egin den gehiegizko eta behar ez bezalako ehizak zenbait espezie desagerrarazi ditu. Ingurugiroaren hondamenaren beste adibide bat kutsadurak sorrarazitako ozono-geruzaren ahultzea izango litzateke.

Laburbilduz, esan dezakegu gizakia Lurraren jabe bihurtu dela, sarri askotan naturaren legeekin batu ezinak diren helburuak erdiesteko. Gehienetan, ekonomiaren eta gizartearen interesen araberakoak izaten dira gizakion jarduerak, eta ez dute aintzat hartzen inguruan sorraraz ditzaketen kalte konponezinak. Kontua ez da inguruaren gaineko eraginik ez izatea, gure esku-hartzeak izan ditzakeen ondorioei neurria hartzea baizik.

■ ZER LANDU GAI HONEN INGURUAN?

Irakasleek

- Ingurugiroa dela-eta norberaren jokaeraren gaineko sentsibilizazioa eta erantzukizuna hartu.
- Ikasleei planetan sorrarazitako ekologi orekarik ezaren berri eman.
- Ikastetxeetan ingurumen-hezkuntza sustatzeko konpromisoa hartu, hezkuntza prozeduretara erantsiz.

Familiak

- Norberaren jardueraren eta ingurugiroaren hondamendiaren arteko loturaz jabetu.
- Kontsumitzaile gisa, ingurumena babesteko jarrerak bultzatu.
- Tokiko birziklapen proiektuak exijitu eta haietan parte hartu.
- Ingurumenarekin lotutako gaietan, lankidetza-harremana izan eskolarekin.
- Gurasoen eskolan antolatzen diren jardueretan parte hartu.

1. JARDUERA:

BADA ZABORRIK HEMEN!

Sortzen diren zabor gehienak bilduki edo ontzi mota ezberdinak eta elikagaiak izaten dira. Ontziok beirazkoak direnean, berriro erabiltzea gomendatzen da, birziklapenaren kostua handia da eta. Paperaren kasuan, berriz, erabiltzen dugunaren %50 soilik birziklatuz gero, oihanetako milaka metro koadro salbatuko lirateke.

Zaborren poltsa ixten dugunean eta batuko duten tokian uzten dugunean, ez gara ohartzen gure hondakinek maila globalago batean hartzen duten esanahiaz. Gurea izugarri biderkatzen da, kontuan izanik zenbat familiak, zenbat herrik, zenbat naziok egiten duten guk egiten dugun gauza bera. Biharamun goizean, magia bailitzan, desagertu egin da zaborra. Pertsona batek leku berean lagako balu botatzen duen guztia, ezinezkoa gertatuko litzaioke aitortzea metaturiko zabor hura guztia berak sortua denik eta, askotan, ez garela arreta handiz aritzen onartzea.

Erantzukizuna sustatzeko eta norbera gehiago inplika dadin lortzeko, hondakinei buruzko *"Arduratu zaitez"* dokumentala ikustea proposatzen da jarduera honetarako. Bizkaiko Foru Aldundian eska daiteke.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Ingurumena dela-eta arretaz ez bagabiltza, geure buruarekin eta inguruko lagunekin ere hala arituko garela ohartzea.
- Izakien bizitzarako ezinbestekoa izaki, lurrak duen garrantziaz ohartzea.
- Ekosistemaren bizi-oreka, neurri handi batean, gizakion jardueraren mende dagoela ulertzea.
- Gizakion eta ingurumenaren ongizatearen aldeko ekimenetan parte hartzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- "Birziklatu" eta "berrerabili" kontzeptuak ulertzea.
- Ondorioak ateratzea eta irtenbideak proposatzea.
- Norberaren ekarpenak gainontzekoentzat ere garrantzitsuak direla onartzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: bideoa, *"Arduratu zaitez"* izeneko zinta, orriak eta boligrafoak.

JARDUERAREN IRAUPENA: ordubeteko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak jarduera azalduko die ikasleei: *"Sorrarazten ditugun zaborrak direla-eta, Bizkaiko Foru Aldundiak egin duen dokumentala ikusiko duzue. Garrantzi handikoa da hondakin sortzaile agertuko diren pertsonen*

tokian jartzen saiatzea, den-denok baikara haien modukoak. Dokumentala ikusi ondoren, hausnarketa egiten eta ondorioak ateratzen saiatuko gara."

Behin dokumentala ikusita, ikasleek bereganatu dutena azaldu egingo dute. Irakasleak hausnarketarako laguntza eman diezaieke, hauen antzeko galderak proposatuz:

- Zein paperezko produktu erabiltzen duzu (mukizapiak, mahai-zapia, ezpain-zapia, koadernoak, liburuak...)?
- Berrerabili egiten duzu papera?
- Birziklatzeko dagokion edukiontzian uzten al duzu?
- Berrerabili egiten duzu beira (botilak, poteak...)?
- Birziklatzeko dagokion edukiontzian uzten al duzu?
- Zer egiten duzu ontziekin (plastikozko botilak, latak, tetra-brikak...)?
- Etxekoekin erosketak egitera zoazenean, nolako ontziak erosten dituzue normalean (plastikoa, kartoia, beira...)?
- Zer egiten duzu nahi ez dituzun jakiekin?
- Zer egiten duzu erabiltzen ez dituzun oihalekin eta arropekin?

Alderdi horietaz mintzatu ondoren, komenigarria litzateke irakasleek ingurumenak gizakiaren eta gizateriaren garapenean daukan garrantzia adieraztea, bai eta natur inguruarekiko harmoniatsuagoak diren bizierak sortu beharra nabarmentzea ere, ikasleei ondoren datozen alderdiak direla-eta aholku emanez:

- Benetan behar diren produktuak besterik ez erostearen egokitasuna.
- Objektuen berrerabilpena, ahal den guztietan.
- Birzikla daitezkeen produktuak erostea.
- Ahal den neurrian, plastikoak ekiditea, osagaien kutsagarritasuna dela kausa.
- Oihalezko, zumezko edo, besterik ezean, beste batzuetan jada erabilitako plastikozko poltsak erabiltzea erosketetarako.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera.

2. JARDUERA:

PRODUKTU NATURALEI, BAI!

Kutsadura kimikoak planetan eta gure osasunean du eragina. Gas ikusezin erazko kutsadura hau margo sintetikoen lurrunen, tabako kearen, lantegiei darien sustantzia kimikoen, autoen, kamioien, ikatzezko berogailuen eta abarren bidez arnasten dugu. Eta irentsi ere egiten ditugu metalekin eta pestizidekin zerikusia duten substantzia toxikoak; substantzia horiek uretan eta elikagaietan egoten dira eta organismoarentzat kaltegarriak dira oso.

Horiek guztiak kalte eragiten diete gure gorputzari eta gure osasunari eta horren adierazpen izaten dira askotan, alergiak eta beste zenbait eritasun. Esandakoa kontuan hartuta, ezinbestekoa dirudi bai jateko eta bai janzteko, baita etxerako ere, produktu naturalak erabiltzeko kontzientziatze lanetan aurrera egiteak.

Jarduera honen bidez, ahal duten neurrian, janzkeran produktu naturalak erabiltzeko interesa piztu nahi da ikasleengan.

■ HELBURU OROKORRAK

- Produktu naturalei buruz dituzten ezagutzak eta esperientziak balioestea.
- Ekosistemaren bizi-oreka giza jardueraren mende dagoela ulertzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Beraien logelan ikertzea.
- Hurrengo erosketetarako ondorioak eta irizpideak ateratzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan eta beraien logeletan.

BALIABIDEAK: orriak eta boligrafoak.

JARDUERAREN IRAUPENA: ordubeteko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak jarduera azalduko die ikasleei: *"Oraingoan zeuen logelan ikertuko duzue. Erabiltzen dituzuen arropen osagaiei erreparatzea nahi dut. Horretarako, etiketa aurkitu behar duzue eta bertan azaltzen diren ehunen izenak idatzi (kotoia, lihoa, biskosa, artilea, poliesterra, rayona, lycra, nylona, elastanoa...)".*

Ikasle bakoitzak berak darabiltzan arropen osaera zein den idatzi beharko du etxean, orri batean: barruko arropak, prakak, gonak, alkandorak, jertseak, berokiak, gabardinak, bainu-txabusinak...

Zerrenda eginda daukatenean, ikasgelan, irakasleak arbelean idatziko du jantzien osaketan erabili diren ehunen zerrenda, eta bereizi egingo du zeintzuk diren naturalak eta zeintzuk ez. Ikasleek elementu naturalak

eta sintetikoak behar bezala bereizten ez dituztela ohartuz gero, kontzeptu horiek azaltzeko eta argi uzteko une egokia litzateke.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera.

3. JARDUERA:
NEU ERE OLERKARIEN ENTZULE

Testu-ekoizpenak irakurrita, besteekiko, munduarekiko eta norberaren buruarekiko harremanetarako gaitasuna sustatzen da. Horrekin batera, irudimenarekin, hizkuntzaren erabilpenarekin, kultur eta gizarte ezagutzak kanporatzearekin eta abarrekin loturiko trebetasunak lantzen dira, denak ere pertsonaren garapen osoari lotutako gaitasunak.

Jarduera honen bidez, saiatuko gara, entzumena, ulermena, interpretazioa eta sentimenduen eta jarreren adierazmena garatzen lagunduko dieten testuak irakurtzeko egoera egokiak sortzen. Beste alde batetik, berriz, ingurumenari zor diogun begirunearen garrantziari buruzko gogoeta-bidea irekitzeko ahalegina egingo dugu.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Planetaren eskubideen defentsan sentsibilizatzea eta erantzukizuna hartzea.
- Ikasleen komunikazio-gaitasuna garatzea.
- Ahoz eta idatziz adierazteko aukerak miatzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Indiarren buruzagiaren eskutitza adi entzutea.
- Aukeratzen den testua irakurtzea eta interpretatzea.
- Aukeratzen den testuari irudiak jartzea.
- Aukeratzen den irakurgaiarekin gozatzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: testua: *"Indiarren buruzagiaren eskutitza"* (*Cómo educar en valores* izeneko liburutik hartua. Narcea argitaletxea, 1997), orriak, koloretako lapitzak eta boligrafoak.

JARDUERAREN IRAUPENA: 45 minutuko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Lehenengo eta behin, irakasleak jarduera azalduko die ikasleei: "*Ozenki irakurriko dut Indiarren Buruzagiaren eskutitza, testuaren zentzua zein den argi gera dadin eta berarekin atsegin har dezazuen. Irakurri ondoren, zuetariko bakoitzak zer iradoki dion adieraziko du eta irudi baten bidez islatuko".*

Irakasleak Indiarren Buruzagiaren eskutitza irakurriko du. Bien bitartean, ikasleek adi entzun beharko dute, gutun horren zentzua atzemateko eta aurkitzeko, beraren mezuak gizakien arteko eta ingurumenarekiko

berdintasunarekin eta begirunearekin baitauka zerikusia. Irakurtzean, eta sentimenduen adierazpenari egokitzeko, intonazioa, ahotsaren erritmoa eta bolumena zaindu beharko dira. (Irakasleak irakurriko du, arestian aipatutako alderdi horiei erreparatzearren, eta zenbait ikasle, irakurketa isila eginez gero, testuaren benetako zentzutik aldentzen direlako).

Interesgarria da, testuari buruzko hausnarketa egiten denean, ikasleek entzun duten testuaren gaineko sentimenduak isla ditzaten eta egoeraren aurrean inplika daitezen, ahoz eta irudien bidez adieraziz. Jarduera honen fruitu diren materialak ikasgelatik hur dauden korridoreetako hormetan jarriko dira ikusgai.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURAK

Gaztelania eta Euskara / Arte Hezkuntza (Plastika eta Ikus Adierazpena).

ETXEKOENTZAKO FITXA

Guraso agurgarriok:

Zeuenean erabiltzen dituzuen etxeko produktuez gogoeta egitea beharrezkoa dela uste dugu, euretariko askok ingurumenean duten eragina dela eta. Lixiba, distira-emaileak edota komuna garbitzeko substantziak bezain arruntak diren produktuek edateko erabiltzen dugun ura kutsatzen dute.

Horregatik, garrantzitsua da kaltegarri gerta daitezkeen zenbait produkturen osaerari erreparatzea eta horien ordez, hain kaltegarri ez diren beste batzuk erabil daitezkeela konturatzea.

Semearekin edo alabarekin horretaz mintzatzea ere garrantzi handikoa da, hurrengoan erosketak egitera zoaztenean ingurunea babesteko irizpideak erabil ditzazuen, azken batean "denon etxea" baita. Pearsonek (1991) ondoren datozen iradokizunak eman zizkigun:

- *Garbigarri-hautsak*. Uren gehiegizko ongarritzea sorrarazten dutelarik, algak ugaldu egiten dira eta arrainentzako eta landareentzako oxigenoa murriztu. Fosfatorik gabeko produktu biodegradagarriak erabiltzea gomendatzen da.
- *Lixiba*. Aldeko bakterioak suntsitzen ditu ura kutsatzean. Beraren ordez, ozpina edo garbigarri biodegradagarriak erabil daitezke.
- *Aerosol erako distira-emaileak*. Disolbatzaile kimikoen sustantziak aireratzen dituzte. Horien ordez, erleen argizari hutsez eginiko distira-emaileak erabil daitezke.
- *Aire-freskagarriak*. Giroa freskatu ordez, aurkakoa egiten dute, kutsatu hain zuzen. Izpilikua edo arrosa bezalako usaindun lore ihartuak erabiltzea litzateke beste aukera bat.
- *Intsektuak uxatzeko produktuak*. Harrapari mesedegarri direnak ere akabatzen dituzte besteekin batera. Horren ordez, eragingarri ditugu albahaka, erromeroa edo ezkaia.

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

UNITATEAREN BALORAZIOA

Hiru hilabetean behin, jarreraren balorazioa egingo dugu produktuen berrerabilpenari eta birziklapenari dagokienez, bai ikasgelan eta bai etxean ere. Horretarako, kontuan hartuko dugu ondorengo jokaerak geure ditugun ala ez:

Beira:

- Ontziak berriro erabiltzen ditugun, kalitatean ez baita inolako narriadurarik gertatzen.
- Itzultzekoak diren botilak erosten ditugun.
- Horretarako dauden edukiontziak erabiliz, ontziak birziklatzen ditugun.

Papera:

- Idazteko, komunerako eta abarrerako paper birziklatua erosten dugun.
- Erabiltzen ditugun paper guztiak birziklatzen ditugun (egunkariak, aldizkariak, posta bidezko propaganda, kartoiak...), hartarako dauden edukiontzietan utzita.

Plastikoa:

- Oso enbalatuta ez dauden edo ontzi birziklagarrietan datozen produktuak aukeratzen ditugun.
- Ontziak dagozkien edukiontzietan uzten ditugun.

Oihalak eta arropak:

- Karitate-zentroetan, jantzi erabilien dendetan eta abarretan uzten ditugun.

Materialak eta altzariak:

- Etxeko altzariak biltzeko zentroetan, *Garbigune*etan eta abarretan uzten ditugun.

HERRI EZBERDINEK OSATZEN DUTE MUNDUA

(Kultura, etnia eta sineste ugaritasuna)

■ IDEIA NAGUSIA

Mundua etnien, hizkuntzen, sinesmenen eta abarren arragoa da. Ikasleei herrien aniztasunaz ohartaraztean datza gakoa, urrutiagoko kulturen aurrean begiak irekiaraziz eta ezberdintasunak aberastasun iturri direla erakutsiz. Hala ere, garrantzitsua da uler dezaten ezberdinak izanik, berdinak izan behar dugula, eskubide berberak, aukera berberak izan behar ditugula alegia, eta hori, ordea, ez da horrela izaten; ezberdintasuna, sarri askotan, diskriminazio eta gatazka iturri bihurtu ohi da.

■ HELBURUAK

- Herri ezberdinen ezaugarriak eta bizimodua ezagutzea.
- Pertsonen eta herrien arteko ezberdintasunak aberasgarri izan daitezkeela ulertzea.
- Herrien arteko aniztasunaren ondorioa, maiz, desberdintasuna eta justiziarik eza izaten direla ohartzea.
- Beste etnia, kultura... batzuetakoak diren pertsonen aurrean dugun jarrera berraztertzea.

■ UNITATEAREN GARAPENA

Gaur egun, beste inoiz baino sartuago dugu geure errealitatean mundua osatzen duten herrien aniztasuna. Alde batetik, komunikabideek beste herri batzuetako errealitatearekin jartzen gaituzte kontaktuan, planetaren beste aldean eta, gurearekin alderatuta, kultura, ohiturak, hizkuntza, erlijioa eta -sarri askotan- bizi-maila dela-eta, txit ezberdinak diren bizimoduak bizi dituzten pertsonak ikusi eta entzun ditzakegu. Beste alde batetik, txirotasunetik, gerratik edo hondamen-egoeretatik ihes egin nahian guregana heldutako etorkinen inmigrazioaren eraginez, gero eta neurri handiagoan ditugu bizikide, eskoletan eta auzoetan, marokoarrak, txinatarrak, ertamerikarrak, hegoamerikarrak, errumaniarrak, bulgariarrak, afrikarrak eta abar. Hortaz, kulturen arteko ikuspegi batetiko erantzuna eskatzen digun mundu plural batean bizi gara.

Hala ere, sarri kultur aniztasunaz edo kulturen artekotasunaz dihardugu, anekdota hutsean geratzeko arriskuaz. Positiboak izan nahiak eraginda, ezberdintasunak baloratzeko ideia azpimarratzen dugu beharbada, eta kultur aniztasun horren ezagutza soilean geratzen gara. Baina kulturen arteko ikuspegi batean lan egin nahi badugu zinez, ezin ahantz dezakegu ezberdintasun hori hierarkia baten barruan dagoela ezarrita eta, gure gizartearen baitan, sexuen edo gizarte mailen arteko ezberdintasunagatik gertatzen den gauza bera jazotzen dela herri ezberdinen artean ere. Kontua ez da etnia edo kultura bat atseginago edo ez hain atsegin izatea gurea ez bezalakoa delako, baizik eta beraietako batek, menderatzaileak, gainontzekoak hierarkizatzen dituela (kasu batzuetan gutxiengoan daudelako eta beste batzuetan ekonomiaren aldetik

ahulago direlako, eta ez beste ezergatik) eta gizarte, ekonomi eta kultur desberdintasuna eta justizia eza nagusi diren egoera sorrarazten du beraientzat. Gauzak hain dira horrela, ezen desberdintasun horren poderioz, mundua mailatan banatuta baitago; izan ere, muga gaindiezina trazatu da Iparraldearen eta Hegoaldearen artean.

Baina, dena dela ere, zer gertatzen da herri horiekin bizi behar izaten dugunean?

Hitzetik hortzera darabilgu arrazistak ez garelako esaldia, beltzek Estatu Batuetan edo juduek Alemanian zituzten arazoak edota Afrikako apartheid-a pentsaezinak zirela hemen. Esan daiteke gure gizartean, duela gutxira arte, arazo mota hau ijitoekin baino ez zela bizi, hura baitzen bizikide geneukan etnia eta kultura ezberdineko herri bakarra, baina beste etnia eta herri batzuetako pertsonak heldu diren heinean, neurri handiagoan azaldu izan dira diskriminazio eta arrazismo gertaerak gure ikastetxeetan, auzoetan eta hirietan.

Ezezagunaren, bestearen aurrean betidanik eduki izan den mesfidantzaren eraginez, arbuio ia inkontzientea sentitzen dugu ezberdina denarenganako eta, zenbaitetan, aldameneko herriari edo mugakide dugun erkidegoari ezinikusia badiogu, zer gerta ote daiteke bizimodu erabat ezberdinak aurkitzen baditugu, hasi hizkuntzatik eta erlijioraino, famili antolaketa, elikadura, ekanduak....

Haien kontra ezer ez daukagula esaten dugu: "niri ez dit ardura beltza edo ijitoa bada... baina molda dadila". Jarrera etnozentriko honek eraginda, gure prismatik baizik ez ditugu ikusten gauzak: kasurik onenean jasan egiten ditugu, baina molda daitezela eskatzen diegu pertsona horiei, izan ere, pentsatzekoa baita gure bizimodua dela onena. Kasurik txarrenean, berriz, egokitze hori ere ukatu egiten diegu gure herrian egingo duten egonaldiari mugak eta oztopoak jartzen dizkioten legeen bidez (Atzerritartasun Legea) edo baldintza penagarrietan bizi daitezen uzten dugu; horrela, arinago edo geroago, gizarte-gatazka bihurtuko den egitura-biolentzia sortzen da.

Premiazkoa da, beraz, gai horiek direla-eta guk geuk ditugun jarrerak berraztertzea (etnozentrismoa, estereotipoak, aurreiritzia...) eta neska-mutilenez eztabaidatzea, baldin eta gure ikasleak, benetako kulturen artekotasunean, aniztasunarekiko konpromisoan, solidaritatean eta begirunean hezi nahi baditugu. Gainontzeko gizakiek ere izan dezatela ikasleek duten herri bateko kide izateko, bertan era duinean bizi izateko eta harro sentitzeko eskubidea, beraien "arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa... kontuan izan gabe" (2. artikulua). Neurri batean, gure esku dago lorpen hori.

■ ZER LANDU GAI HONEN INGURUAN?

Irakasleek

- Curriculumaren arloetan erabili ohi ditugun bitarteko didaktikoak berraztertu eta hautatu (testuliburuak, irakurketa liburuak, filmak...) zehar-lerro gisa Kultur Aniztasunaren Hezkuntza hartuta ikuspuntutzat.
- Gai hau dela eta, irakasleen beren jarrerak berraztertu IHPra bilduz ikasleengan garatu nahi ditugun baloreak (ezberdintasunari, solidaritateari, enpatiari eta abarri buruz) eta errealitatearen gaineko ikuspuntu ezberdinei toki emango dien ikuspegi erlatibista sartu.
- Ikasgelan gerta daitezkeen egoerei edo komunikabideen bidez ezagun zaizkigunei etekina atera (herri edo etnia ezberdinetako neska-mutilen elkarbizitza), kulturen arteko harremanetatik sortzen den esku-hartze hezigarria gauzatzeko.
- GKEetatik, gai hauek direla-eta proposatzen diren jardueretan parte hartu.
- Taldeak egitean, heterogeneotasuna erabili irizpidetzat.

Familiak

- Beste herri batzuen aurrean dituzten jarrerak berraztertu.
- Beraien semeek/alabek beste etnia, kultura edo herri batzuetako umeekin kontaktua izan dezaten lagundu.
- Komunikabideen bidez heltzen zaizkigun diskriminazio eta arrazismo egoerei buruz eztabaidatu etxean, gai horren gainean ikuspen kritikoa emateko.
- Gai horiek kulturen arteko ikuspegi batetik lantzen dituzten liburuak edo bideoak oparitu.

1. JARDUERA:

FAMILIAK MUNDUAN ZEHAR

Ikasleekin lan egiten dugunean izaten ditugun helburuetako bat, hurbil daukagunetik, ingurunetik abiatzea izaten da, ikaskuntza esanguratsuak lortzeko. Hori alde batera uzteke, garrantzitsua gertatzen da zenbaitetan, eta unitate honetan halaxe jazotzen da, gure ikuspegia urruti dugunera ere zabaltzea: beste herri batzuetara, beste etnia batzuetara..., ikasleen interesekiko lotura galdu gabe hala ere. Ezberdina denaren aurrean sentitu ohi den arbuioaren arrazoietariko bat ez ezagutzea izaten da. Defentsarako mekanismo moduko baten bidez, ihes egiten diogu ezezagunari, gure segurtasuna mehatxatzen duen zerbait bailitzan sumatzen baitugu. Funtsezkoa da, hortaz, gure ikasleek beren errealitatetik urrun dituzten herriak, etniak eta kulturak (gaur egun gero eta hurbilago, zonaldearen arabera) ezagutzea eta beraien ikuspegi positiboa izatea, beste pertsona batzuei buruzko estereotipoak eta aurreiritziak ekiditen baitira horrela.

Jarduerari ekiteko aitzakia familien edo katetoen jokoa izango da. Hortik abiatuta, herri ezberdinetako bizimoduaren ezaguera landuko da. Irakasleak jarduera azalduko die ikasleei: *"Jokatzeko erabili ditugun kartetan zazpi herri eta kultura ezberdinetakoak diren zazpi familia azaldu zaizkigu (Tiroldarrak, indiarrak, eskimalak, arabiarrak, txinatarrak, bantuak eta mexikarrak). Badakigu ezer herri horien bizimoduaz? Zer jakin nahi dugu? Bada, ekin diezaiogun lanari!".*

■ HELBURU NAGUSIAK

- Gure errealitatetik urrun dauden herrien bizimodua ezagutzeko interesa piztea.
- Herri ezberdinen ezaugarriak, bizimodua eta pentsaera ezagutzea.
- Herrien arteko ezberdintasunak norberaren aberastasunerako iturritzat hartzea.
- Beste herri batzuetan dauden sineskera eta ohiturak errespetatzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Lankidetzaren bidezko elkarreragina sustatzea.
- Informazioa bilatzeko prozedurak garatzea.
- Ikasgelan ahozko adierazpen bat landu eta garatzea.
- Gainontzekoen esku-hartzeekiko begirunea lantzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: Inguruaren ezagutzari buruzko testuliburuak eta osagarriak (entziklopediak, GKEen materialak...). Mundu zabaleko musika duten CDak.

JARDUERAREN IRAUPENA: Ordubeteko hiru saio edo hiru ordu jarraian iraungo duen saio bakarra.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak, saioari hasiera emateko, lauko taldeetan banatuko ditu ikasleak eta "Familien" karta-jokoan aritzera gonbidatuko. Behin partida amaituta, familia ezberdinak banatuko ditu taldeetan, bana emanez (zazpi familia direnez, baliteke beharrezkoa gertatzea hasierako taldeen birmoldaketa). Talde bakoitzak ozenki esango du zein familia suertatu zaion, eta arbelean idatziko dira, zazpi zutabe dituen koadroa osatuz. Partaidetza eta lankidetza sustatuko dituen metodologia aplikatuz, aipaturiko herriei buruz zer dakiten galdetuko zaie ikasleei, beren aldez aurretiko ezagutzen berri izateko. Arbelean idatziko dira botatzen dituzten ideiak. Ondoren, herri horiei dagokienez zer jakin nahi luketen itaunduko zaie eta arbelaren albo batean idatziko. Komenigarria da interesgarrien irizten dieten bospasei gaira mugatzea, jarduera luzeegi gerta ez dadin.

HERRI EZBERDINAK MUNDUAREN OSAGAI							
HERRIAK	Tiroldarrak	Indiarrak	Eskimalak	Arabiarrak	Txinatarrak	Bantuak	Mexikarrak
ZER DAKIGU?							
ZER JAKIN NAHI GENUKE?							

Jardueraren bigarren zatia (bigarren saioa) informazioa bilatzeari eskainiko zaio, dela ikasleen aldez aurretiko ideiak berresteko, dela azaldu diren galdera interesgarriei erantzuna emateko (ez dugu ahaztu behar kartetan ageri diren familiak homogeneoegi gertatzen direla). Horretarako, irakasleak, behar dituzten datuak kausitzeko edo baita irudi argigarriak eskuratzeko ere, beharrezko gerta dakizkiekeen liburuak, entziklopediak eta aldizkariak emango dizkie taldeei. Bildutako informazio guztiaz, ikaskideei aurkeztuko dieten adierazpen xume bat prestatuko dute. Ahal izanez gero, aztergai izan duten tokiko musika ere jar dezakete; gaur egun, nahikoa erraza da munduko musika duten CDak eskuratzea.

Jardueraren hirugarren zatia (hirugarren saioa) ikaskideei egin beharreko ahozko azalpena izango da. Hemen, informazioa emateaz gain, zaindu egin beharko dute ahozko hizkera eta besteei aditzean erakutsi beharreko errespetua ere.

Ondorengo hausnarketan, irakaslea saiatu egingo da etnien, kulturen, sineskeren eta abarren arloan dauden ezberdintasunak positibo eta aberasgarri gisa azpimarratzen. Ikasleek jabetu egin behar dute pertsona edo

herri bakoitzak pentsaera eta sinesmen askatasunerako eskubidea daukala, baina betiere kontuan harturik sinesmen horiek ez dutela beste eskubide garrantzitsuagorik urratuko (besteak beste, herri arabiar askotan beloarekin edo emakumeen egoerarekin gertatzen den bezala). Indiar herriari dagokionez, Estatu Batuetan indiar herrixkekin burutu zuten genozidioari buruz hitz egiteko aukeraz balia daiteke, herri gutxituek merezi duten begiruneak duen garrantziari sakonago ekinez.

Ikasgelan edo eskolan beste etnia batzuetako ikaslerik izanez gero, aukera erabil daiteke beraiek izan daitezen euren herriei buruzko informazioa emango dutenak (lantzen diren herrietakoak izan zein izan ez); argi dagoenez, pertsona horien esperientzien komunikazioa askozaz esanguratsuagoa eta aberasgarriagoa gertatuko zaie ikasleei.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURA

Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera / Gaztelania eta Euskara / Arte Hezkuntza (Musika).

2. JARDUERA:

PASTELA ZATITZEN DUENAK...

"Unitatearen Garapena"ri buruzko atalean esan bezala, herrien arteko aniztasuna desberdintasun bihurtzen da. Kultura menderatzaileak ezartzen duen hierarkiaren eraginez, gainontzeko herriak eta kulturak, gutxiengoak zein gehiengoak osatuak izan, beheko mailakotzat ageri dira, balioa galduz.

Alde batetik, pertzepzio arazoa da; gure ikuspuntu etnozentrikoa geure kulturaren balore-eskalatik eta haren erreferentzietatik abiatzen da beti eta, horrela, gure antza duena, geureganatzen dena, ona da, baina gure bizimodura moldatzen ez dena, ostera, txarragoa da ezinbestean.

Beste alde batetik, baina, hierarkia horrek, botere politiko eta ekonomikoaren arrandian oinarrituta, errealitate diskriminatzailea sortzen du; gainontzeko herriak planeta honetako hirugarren mailako hiritar bilakarazten ditu, eta aberastasunaren banaketa erabat bidegabea sorrarazten. Horrela, lehenengo munduaren (industrializatua, garatua) eta hirugarren munduaren (azpigaratua) arteko banaketa ezarrita dago. Ekonomiaren araberako banaketa-lerro hori bat dator, gutxi gorabehera, geografiako Iparraldearekin (Australia, Zeelanda Berria eta Japonia salbu) eta Hegoaldearekin, eta lerro horren arabera, herri gutxi batzuetara –eta oso handia ez den biztanleriaren artean– biltzen da aberastasunik gehiena; hegoaldeko eremu zabalak, berriz, non biztanle ugari bizi baita, txirotasunean eta azpigarapenean murgilduta geratzen dira. Gure ikasleek arazo hauetaz jabetu beharra dute.

Irakasleak jarduera azalduko die ikasleei: *"Hona hemen munduko mapa. Badakigu non dagoen kontinente bakoitza? Ikus dezakezuenez, euretariko batzuk besteak baino askoz handiagoak dira, eta seguru asko biztanle gehiago ere izango dituzte; beraz, pentsatzekoa da biztanleria mantentzeko diru gehiago eduki behar dutela. Errealitatean hala dela uste duzue? Ikus dezagun. Mapan datu batzuk kokatuz eta tokiak koloreztatuz joango gara, eta horrela ikusi ahal izango dugu nola banatzen den aberastasuna mundua osatzen duten herrietan eta kontinenteetan".*

■ HELBURU NAGUSIAK

- Gure planetan bizi diren herrien arteko desberdintasun handien berri izatea: Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko banaketa.
- Munduko alderdi pribilegiatuan bizi garela jabetzea.
- Egoera latzagoan bizi diren herrien aldeko jarrera solidarioak piztea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Portzentajeak egitea.
- Munduko mapetan begiratu eta aurkitzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: Ikasgelan.

BALIABIDEAK: Peters-en mapa mutua, handia ahal izanez gero edo, bestela, DIN A3 neurriko fotokopiak taldeetan banatzeko. Koloretako rotuladoreak edo margoak. Beharrezko datuak jasotzen dituzten fotokopiak.

JARDUERAREN IRAUPENA: ordubeteko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Mapa aurkeztuko zaie (ahal badugu mapa handia erabiliko dugu hasierako aurkezpenerako eta bateratze-saiorako) eta ezer baino lehen, talde handian komentatuko dira zeintzuk diren osatzen duten kontinenteak eta non kokatuko genukeen kontinente bakoitza, goian adierazitako hausnarketak ere honako honetan eginez.

Ikasgela lau pertsonak osatutako taldeekin antolatuko da eta maparen fotokopia bana emango zaie, DIN A3 neurrikoa, eta hurrengo datuak batuko dituen fotokopia bana ere bai (Iturria: "Mundu maitea". UNICEF/ Save the Children):

Biztanle kopurua kontinenteko*:	**Aberastasunen banaketa*:**
• Europa: 700 milioi	• Herri industrializatuak (Iparramerika, Mendebaldeko Europa, Australia, Zeelanda Berria eta Japonia): %78'8
• Iparramerika: 292 milioi	• Ekialdeko Europa eta EIE (Estatu Independenteen Elkartea, SESB ohia): %3,9
• Erdi eta Hegoamerika: 478 milioi	• Latinoamerika, Afrika, Asiaren gainontzekoa eta Ozeaniaren gainontzekoa: %17'3
• Afrika: 750 milioi	
• Asia: 3.500 milioi	
• Ozeania: 30 milioi	

(*1999ko datuak)

Orduan, azaldu egingo zaie kontinente bakoitzean biztanleen datua kokatu behar dutela eta herriak edo kontinenteak ekoizten duten aberastasunaren arabera margotu beharko dituztela hiru bloke ezberdinetan, horrela, irudi bidez, ekonomi banaketa bidegabea dela egiazta dezaten.

Behin hori eginda, biztanleen eta aberastasunaren portzentajeen arteko erlazioa aurkitu beharko lukete, are nabarmenago uzteko dagoen desberdintasuna. Bestelako kalkuluak ere egin litezke, herri bakoitzari edo herri multzo bakoitzari biztanle kopuruaren arabera legokiokeen aberastasunaren zenbatekoa, adibidez, eta horren arabera, zenbat edukiko genukeen soberan lehenengo munduko mendebaleko herriotan.

Aldez aurretiko lan honekin guztiarekin lortu nahi duguna hauxe da: talde handian gogoeta egitea munduko aberastasunen banaketaren logika eta justizia ezaz, iparraldearen eta hegoaldearen arteko kontrastean sakontzea eta herriak, kulturei, hizkuntzei, sineskerei, etniei eta abarri dagokienez ez ezik -eta hori positiboa da-, bizitza-mailan ere ezberdinak garela egiaztatzea, eta, hori dela bide, munduko biztanleen artean gehiengo ugari bat dagoela duintasunez bizi izateko duen eskubidea ezin erabili duena. Gutxi batzuk gehiengoaren bizkarretik bizi garelako ideiari behin eta berriro ekin behar zaio, kontuan hartuta, gainera, lehengaien zati handi bat eta eskulan merkea herri horietatik datozela.

Halaber, interesgarria litzateke gure ikasleak bizitzea suertatu zaien munduaren alderdian jarri eta, hortik abiatuta, egoera horri buruz ditugun jarrerei eta erantzukizunei buruzko eztabaidari ekitea.

Gaian sakondu nahi izanez gero, arestian aipaturiko UNICEFen materialetan askozaz datu eta mapa, taula eta bestelako tresna gehiago eskura daiteke herri eta kontinenteetako osasuna, hezkuntza, kontsumoa eta abar erkatzeko.

CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURA

Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera / Matematika.


MAPA DE PETERS

3. JARDUERA:

ATSEGIN DUT ZU EZAGUTZEA

Historian zehar bizikide izan ditugun herrietako bat ijitoena da. Mundu osoan zehar sakabanatua, herri horrek berarekin batera bizi izan diren hamaikatxo herriren arbuioa eta *diskriminazioa* jasan izan ditu. Iberiar Penintsulan, zehazki, XV. mendean heldu zirenetik, nolabaiteko onarpen faseak ezagutu ditu, baina baita ukatuak eta, areago, jazarriak eta bertatik jaurtiak izan direnekoak ere.

Ijitoetako batzuk oraindik egoera latzean bizi diren arren (txabolak, analfabetismoa...), azken urteotan ijitoek aldaketa garrantzitsuak bizi izan dituzte: gero eta gehiago dira era sedentarioan bizi direnak, eskolaratze tasak gora egin du, eta gizartearen aldetik ere gero eta onarpen handiagoa dago. Baina, zoritxarrez, ijitoekin bizi izatea istiluen iturri izaten da oraindik ere neurri handi batean. Haren entitatea, kultura eta sineskerak, eta oso tradizio sustraituak dituen herri bat dela ahaztuta, geure bizimodura egokitzeko edo *moldatzeko* baldintza jartzen diegu onartuak izateko. Gogora ditzagun herrien arteko *lau elkarbizitza motak:*

		Kultur nortasuna eta ohiturak gordetzen dira	
		BAI	EZ
Harreman positiboak bilatzen eta baloratzen dira	BAI	*Integrazioa*	*Asimilazioa*
	EZ	Bereizketa	*Marjinazioa*

Iturria: Berry (Cuadernos de Pedagogía, 264. alea, 65. or.)

Gaur egun, haur ijito anitz dago eskolaraturik gure ikastetxeetan. Ikasle mota hori nagusi izan den zentroetan, ezagutzatik eta herri horren kulturarekiko errespetutik abiatu eta benetako *integrazioa*ren ildotik lan egin dute. Curriculuma moldatu beharra gertatzen da; ijitoen eta gure eskoletan dauden beste herri batzuen alderdi historiko eta kultural bildu behar dira ikaskuntza edukietara, ikasle guztiek parteka ditzaten.

Egiatan jazotako gertaera batean (edo gaurkotuagoa suerta daitekeen besteren batean) oinarriturik, irakasleak jarduera azalduko die ikasleei: *"Eman dezagun ume ijito batzuen eskola itxi egin dela eta gure eskolan onartuak izateko eskabidea egin dutela ikasturte erdian. Gurasoetako batzuek uko egiten diote eskari horri, ikasle horiek istilu ugari sortuko dutelako ustea dutelako. Zein izango litzateke gure erreakzioa? Borondatez aurkeztuko diren bost pertsonaren artean simulazio jolasean arituko gara: eskolan gai horri buruzko eztabaidarako batzarra egingo da. Bertan, ijitoetako bat, sartzearen aldeko ikasle bat eta kontrako beste bat, kontrako guraso bat eta aldeko irakasle bat izango dira".*

■ HELBURU NAGUSIAK

- Ijitoen historia eta kultura ezagutzea eta baloratzea.
- Pertsona batzuek, beste kultura batekoak direlako, pairatzen duten diskriminazioaz jabetzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Bestearen tokian jartzea, ikuspuntu ezberdinak ulertzeko ahaleginak eginez.

- Adierazpen dramatikoa garatzea *rol playing* baten bidez.
- Ahozko argudioak gauzatzeko gaitasuna lantzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

GIZA BALIABIDEAK: gure erkidegoan dauden ijitoen taldeetako ("Kalé dor Kayikó", "Ijitoen Ekimena"...) zenbaitekiko harremanetan jarri bigarren saioan parte har dezaten.

JARDUERAREN IRAUPENA: ordubeteko edo hiru ordu laurdeneko 2 saio.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Lehendabiziko bost minutuetan, jarduera zertan datzan azalduko da. Gaurkotasuna duen egiazko gertaera batetik abiatuz gero, prentsan agerturiko albistea irakur daiteke eta aldez aurretiko komentarioak egin. Goian iradokitako kasua erabiltzekotan, berriz, benetako gertaera batekiko lotura duela argi daiteke, ikasleak gehiago inplika daitezen. Behin hori eginda, simulazio jolasean parte hartuko duten pertsonak aukeratuko dira. Ikasle horiek, irakasleak emango dizkien zenbait argibideren laguntzaz, hamar bat minutu izango dute beren papera eta argudioak gertatzeko.

Dramatizazioa burutzeko, beste hamar edo hamabost minutu erabiliko dira. Gainontzeko ikasleek kanpoko begiralearena egingo dute, deigarrien gertatu zaizkien jarrerak edo esku-hartzeak idatziz jasoaz.

Beste ordu laurden batean egingo da antzezpenaren iruzkina: parte hartu duten pertsonek beren paperean nola sentitu diren adieraziko dute eta begira aritu direnek, beren oharrak mahai gaineratuko dituzte.

Azken hamabost minutuetan, zenbait galdera egingo zaizkie ikasleei ijitoekiko elkarbizitzari buruz: Zergatik daukate pertsona batzuek ijitoei buruzko hain iritzi txarra? Ezagutzen al ditugu benetan ijitoak hurbiletik? Nolako elkarbizitza nahi genuke beraiekin? Badakigu zeintzuk diren beraien bizimodua, ohiturak...? Zer dakigu beraietaz? Zer jakin nahi genuke? Ikasleekin batera, interesgarri gertatzen zaizkien puntuak planteatuko ditugu eta, euren aldetik halakorik azaldu ezean, irakasleok besteren batzuk gehituko ditugu hizkuntza dela-eta, familiaren kontzeptuaz, beraien legeei edo ezkontzeko adinari buruzkoak, emakumeen egoeraz, eta abarrez.

Hemendik aurrera, pertsona horien historiari eta kulturari buruz zertxobait jakin beharra aipatuko da eta nola, horretarako, beraien kultura onartua izatearen aldeko borrokan diharduen ijitoen elkarte baten ordezkari bat ekar dezakegun hurrengo saiorako.

Bigarren saioan, gonbidatzen dugun pertsonak, helarazi dizkiogun puntuak abiapuntu hartuta, ordu erdiko hitzalditxoa egingo du, eta beste ordu erdia iruzkinetarako edo taldearen itaunetarako utziko da.

Ijitoen elkartearen ordezkariak ekar diezagukeen informazioaz gain, ADARRAk "Centros de interés específicos con niños y niñas gitanas" izenaz argitaraturiko materiala erabil dezakegu.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURA

Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera.

ETXEKOENTZAKO

FITXA

Guraso agurgarriok:

Beste herri eta kultura batzuekiko elkarbizitza ari gara lantzen eskolan. Alde batetik, aniztasunaren aberastasuna helarazi nahi diegu ikasleei eta, bestetik, ohartarazi nahi diegu aniztasun hori, sarri askotan, desberdintasun bihurtzen dela eta horrela justizia eza eta marjinazioa nagusi diren egoerak sortzen. Klaseko jarduerez gain, etxean, gai honi buruzko ipuin bat irakurtzeko eskatu diegu. Izenburu batzuk eman dizkiegu aukeratzeko eta, gero, pertsona bakoitzak ikasgelan kontatuko du zer irakurri duen, denon artean konpartitzeko.

Jarduera honetan zuen semearen/alabaren lankide izan zintezten nahi genuke, eta horretarako liburua erosi, berarekin irakurri eta ikasgelan liburuaz jarduteko balio izango duen fitxatxoa betetzen lagundu besterik ez duzue egin behar.

Zenbait izenburu gomendatu nahi dizuegu, baina ezaguna zaizuen besteren bat erosi nahi baduzue, gehi dezakezue.

IRAKURKETA FITXA
Izenburua:
Idazlea:
Zein da gaia?
Zer gertatzen da istorioan?
Ba al da istilurik? Nolakoa?
Nola konpondu dute?
Nortzuk dira protagonistak?
Norekin identifikatzen zara gehien?
Non gertatzen da istorioa?
Zein garaitan?
Atsegin izan duzu?
Zergatik?

GOMENDATUTAKO LIBURUAK:

Gorila zuri bihurtu zen mutiko beltza, Inongo Vi Makome.1995. Desclee de Brouwer, Arg.
Hakamen ametsa, Julia Otxoa. 2000. Desclee de Brouwer, Arg.
Pottoka Gainean Trebeak, Jo Pestum. 1998. Desclee de Brouwer, Arg.
Bingo Brown, ijito maitalea, Betsy Byars. 1995. Desclee de Brouwer, Arg.
El gato de Tigali, Didier Daeninckx, Pequeños Ciudadanos Bild.,Intermón-Bruño Arg.
El topo Timoteo y Mgambo Molido, Maite Carranza, La pipa de la paz Bild., SM Arg.
Cuentos de colores, ADARRA.
Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

UNITATEAREN BALORAZIOA

Kulturen artekotasunaren aberastasuna, pertsona eta herri ezberdinen arteko elkarbizitza, oso era argian eta egokian islatzen duen Esteve Alcolearen olerki batekin hasiko gara (Boletín extraordinario Campaña XXXVII. Manos Unidas); Ikasleek jardueretan zer bereganatu duten egiaztatu ahal izateko, beren hitzak erabilita edukia azaltzeko eta marrazki bat eginda ideia bera islatzeko eskatuko diegu.

OLERKIA

Ez dio axola neska ala mutila zaren,
beltza ala zuria zaren,
nire hizkuntza ondo ulertzen duzun
eta nik zurea.

Ez dio axola nondik zatozen,
edo non jaioa zaren.

Ez dio axola zure gurasoak
lehendik hemen bizi izan ziren.

Ez dio axola guk biok
sinesmen ezberdinak ditugun.

Hortik ez dio ezerk axola.

Ez baititugu ezberdintasunak
diskriminazio bilakaraziko.

Ezberdintasunak
aberasgarri zaizkigulako.

Gure patua
elkarrekin bizitzea delako.

Eta elkar ulertuko dugu.

Ekarri bosteko hori.

Elkar ulertuko dugu.

(Esteve Alcolea)

MARRAZKIA

- Azaldu, zeure hitzak erabiliz, zer dioen olerkiak:

GATAZKAK MUNDUAN ZEHAR

■ IDEIA NAGUSIA

Umeek bakean bizitzeko duten eskubidea beste eskubide guztiak betetzeak baldintzatzen du, pertsona guztien eskubideei begirune izanda baino ez baikara bakeaz gozatuko. Bakea justiziaren parekoa da, eta Bakerako Hezkuntza, Giza Eskubideetarako Hezkuntza da azken batean. Hortaz, gure umeek ere, eskolatik hasita, errespetua, tolerantzia, berdintasuna edo bakea bezalako baloreetan heziak izateko eskubidea daukate, horiek bideratuko baikaituzte mundu justuago batera.

■ HELBURUAK

- Munduan dauden gatazken eta haien ondorioen berri izatea.
- Banakako mailan egiten den gatazkei buruzko lana mundu mailako gatazkekin lotzea.
- Gatazka eta indarkeriaren artean bereiztea.
- Bakea hitzaren kontzeptua, giza eskubideekiko justizia eta errespetu egoeren emaitza gisa ulertzea.
- Bakea lortzeko denok lan egin dezakegula ohartzea.

■ UNITATEAREN GARAPENA

Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmenak azpimarratu egiten du umeek bakean bizi izateko eta edozein gatazka armatutik babestuak izateko duten eskubidea. Baina errealitatean herriek, gutxien garatuta daudenek batik bat, bortizkeria handiagoko edo txikiagoko gatazkak bizi izaten dituzte etengabe, edota gerrak, non gure haurrak babestea erabat zail gertatzen baita; izan ere, halakoetan umeak biktima ez ezik, sarritan partaide aktibo ere izaten dira. Azken datuen arabera, mundu osoan zehar 300.000 ume inguru bahitu eta trebatzen dituzte armak erabiltzen diren istiluetan fusilari euts diezaioten; Sierra Leonan bakarrik, 10.000 bat ume soldadu bide daude.

Baina, zergatik gertatzen da hori? Zein da munduan milioika pertsonak biolentzia etengabean bizi behar izatearen arrazoia? Zer da bakea guretzat? Nolako bakea nahi dugu? Gatazka eta biolentzia gauza bera al dira?

Aurreko unitateetan ikusi dugunez, gatazka, zerbait negatiboa izan beharrean, giza garapenari itsatsita dagoen zer edo zer dugu. Ondo ebatzitako gatazka baten eraginez, bai pertsonak eta bai gizarteak ere, hazi eta heldu egiten dira; giza aldakuntzarako tresna da. Gatazkak era baketsu batean konpontzeko gauza ez garenean (bitartekaritza, arbitrajea, elkarrizketa...), orduan sortzen da biolentzia. Tuvillaren arabera (1993, 17. or.) "Gatazka eta indarkeria ez dira nahastu behar. (...) Bateraezinak diren helburuak eta interesak dituzten bi alderdiren elkarreragina da gatazkaren ezaugarri nagusia; biolentzia, berriz, gatazka konpontzeko alderdietako batek (edo biek) indarra erabiltzean datza".

Galtung-entzat, (Tuvilla, 1993, 16-17. orr.) biolentziak zerikusia dauka gizakien beharrizanak ez betetzearekin eta, horri lotuta, lau eratako biolentzia ageri da: indarkeria klasikoa (gorputzaren aurkako biolentzia zuzena), txirotasuna, errepresioa eta alienazioa. Halaber, Peruko Hezkuntza Ministerioak argitaratutako *Cultura de paz* izeneko lanean (Tuvilla, 1993, 17-18. orr.) honako biolentzia mota hauen arteko bereizketa egin zen: egiturazkoa, sorra edo estalia, erreaktiboa, mendekuzkoa, konpentsatzailea eta errepresiozkoa.

Horrela bada, biolentzia gizartearen justizia ezarekin lotuta dagoela egiazta dezakegu; beraz, bakea ez da biolentziarik (fisikoa edo itxurazkoa) eza, pertsona guztien eskubideak errespetatzen direneko justizi egoera bat izatea baizik. Beraz, hasieran esan bezala, bakea eta giza eskubideak txanpon beraren bi alderdiak dira:



(Johan Galtung, Tuvilla, 1993, 18. or.)

Munduan zehar jazotzen diren gatazka bortitzei erreparatzen badiegu, konturatuko gara denen zergatien artean aurkituko ditugula justizia eza, ezberdintasuna eta diskriminazioa: ahulenek pairatzen dituzten abusua eta esplotazioa, muturreko txirotasun egoerak, etniarekin loturiko gatazkak (arrazakeria, xenofobia), gutxiengo menderatuak, askatasunik eza, lurraldeei buruzko aldarrikapenak, eta abar. Kasu batzuetan, gatazkaren ondorioz gerrak gertatzen dira; beste batzuetan, berriz, puntualtasun ezberdineko biolentzi ekintzak sorrarazten ditu (terrorismoa, arrazarekin lotutako gatazkak...) eta zenbaitetan, sor irauten du, egoera horiek lehertzeko zorian dagoen bolborategi bilakarazten dituen ezinegon sakona sortuz.

Horien guztien adibideak aurki genitzake bost kontinenteetan. Europan, 2. Mundu Gerra amaitu ondoren eta "gerra hotza" izenekoa bizi izan eta gero, mota horretako liskar batetik salbu geundela uste genuen, baina Jugoslavia ohiko gerra jazo berriak gezurtatu egiten du baieztapen hori; herri "zibilizatuok", herri azpigaratuetan gerrak eragin ez ezik (armen salmenta, ekonomi interesak eta abar), gatazka armatu baten protagonistak izan ere izan gaitezke.

Gaur egun 50 gerra edo tentsio ezin handiagoko gune daude mundu zabalean, eta biolentzia edozein unetan azal daiteke toki horietan. Zer egin dezakegu guk horren aurrean?

Eskolan eman beharreko lehenengo urratsa, ikasleengan gizarte justuagoa lortzera bideratuko dituzten baloreak garatzea da eta, mundu hobea erdiesteko, gure eguneroko bizitzan, gauza txikia izanik ere, zerbait egin ahal dugulako ideia irakastea.

■ ZER LANDU GAI HONI BURUZ?

Irakasleek

- Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan (IHPn) eta Ikastetxearen Ikasketa Proiektuan (IIPn) Bakerako Hezkuntzaren zeharkakoa sartu (edukien, materialen eta abarren berrazterketa eta hautaketa).
- Lankidetzan oinarrituriko metodologia erabili bai ikasgelaren barruan eta bai handik ate.
- Ikasgelan eta ikastetxean gatazken biolentziarik gabeko konponbideak landu.

- Bultzatu nahi ditugun baloreetan (errespetua, tolerantzia, ardura, solidaritatea) oinarritutako eta hezkuntza-komunitateko estamentu guztiek adostutako elkarbizitza-arauak ikastetxe osoan ezartzeko, AJA berraztertu.

Familiak

- Elkarrizketa eta elkarbizitza positiborako baloreak sustatu familiaren baitan.
- Konponbide sortzaileak eta biolentziarik gabeak bilatuz, euren gatazkei (pertsonalak edo pertsonen artekoak) aurre egiten lagundu.
- Belikoak ez diren jolasak eta jostailuak proposatu, eta biolentzia modu normalizatu batean erabiltzen duten marrazki bizidunez edo bestelako saioez mintzatu beraiekin.

1. JARDUERA:
MUNDUKO GATAZKAK

Gure ikasleek, zoritxarrez, badute biolentzia egoeren berri. Kasu batzuetan, familian zuzenean (tratu txarrak, abusuak) edo ikastetxean (berdinen arteko biolentzia, tratu txar psikologikoak) eta beste kasu batzuetan, auzunean, herrian edo Erkidegoan jazotzen diren gatazka bortitzetan zeharka parte hartuz. Halaber, komunikabideen bidez, munduan gertatzen diren gerren eta gatazken albisteak ezagut ditzakete. Hurbilen dugunetik hasita eta material honen lehen zatian (10. eta 11. unitateetan) landutakoarekin lotuz, gatazka eta bortizkeriaren artean bereizten saiatuko gara, mundu zabalean gaur egun diren gatazka nagusiei begiratuko diegu eta soluziobideak zeintzuk izan daitezkeen aztertuko dugu.

Irakasleak jarduera azalduko die ikasleei: *"Ezagunak zaizkizuen gatazkez osaturiko zerrenda idatziko dugu arbelean. Zuei gertatzen zaizkizuen gauzak izan daitezke, herrian diren liskarrak edo, bestela, komunikabideen bitartez ezagutzen dituzuenak".*

■ HELBURU NAGUSIAK

- Gatazkaren eta biolentziaren arteko ezberdintasunez gogoeta egitea.
- Gaur egun jazotzen ari diren gatazka armatuetako batzuk ezagutzea.
- Gatazkei biolentziarik gabeko irtenbideak bilatzeko ekimena sustatzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Gatazka eta biolentzi egoerak aztertzea.
- Talde lanaren bidez, elkarreragina sustatzea.
- Informazioa bilatzeko prozedura lantzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: Peters-en munduko mapa, egunkariak, artaziak, errotuladoreak.

JARDUERAREN IRAUPENA: ordubete eta erdiko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Jarduera azaldutakoan, ikasleek aipatzen dituzten gatazkak arbelean idaztea eta idatzitako gatazka guztiak izaera berekoak diren eta biolentzia zeintzuetan erabiltzen den hausnartzea izango da lehenengo pausoa (lehendabiziko ordu erdian). Batzuk eta besteak tratatzeko moduak aldera daitezke eta denon artean gatazka eta biolentzia hitzen definizioak ateratzen saiatu.

Baliteke gure ikasleentzat ezagun diren gatazka armatuak edo gizarte istiluak agertzea, baina izango dira, ikasleek haien berri ez duten beste hainbat ere. Beraz, bigarren pausoan (hurrengo ordu erdia) egunkariak

edo aldizkariak (GKEek argitaratzen dituztenak erabil daitezke) eta Peters-en mapa banatuko zaizkie ikasleei, lauko taldeetan jarrita, une honetan munduan gertatzen ari diren gatazka bortitzak, dagozkien herrietan koka ditzaten.

Azkenik (azken ordu erdia), taldeka egindako lana denen aurrean aurkeztuko dute eta gatazketako batzuk komentatuko dira: zergatiak, ondorioak, eman ahal zaizkien irtenbideak. Interesgarria litzateke gatazka horien sustraian beti pertsonen eskubideen urratzea –hasi bizitzarako eskubidetik eta beste guztietara– egoten delako ideian pixka bat sakontzea. 28. unitatearekin ("Herri ezberdinak...") lot dezakegu, bertan eskubide horietako batzuen urratzea aipatzen baita (ezberdintasunak, diskriminazioa eta abar gertatzen diren egoerak). Gure ikasleek irtenbide baketsuak bilatzeko ahaleginak egin ditzaten saiatuko gara. Horrela, amaitzeko, gatazka horietarako balizko irtenbideen ideia jasa egin dezakegu, taldeari bidea emanez sortzailea eta, areago, utopikoa ere izan dadin.

Peters-en mapa handia bageneuka, horman esekitzeko modukoa, jarduera osatu ahal izango genuke: gertatzen ari diren gatazka armatuei buruz, egunkarietatik eta aldizkarietatik ebakitako argazkiak eta titularrak dagozkien herrietan ipiniz. Hilabetean edo luzaroago utz dezakegu mapa esekita eta lantzean behin berriro hartu gatazken eboluzioa zein izan den edo jazo litekeen konponketaren nondik norakoa ikusteko.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURA

Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera.

2. JARDUERA:

JAR ZAITEZ HAREN TOKIAN

Adingabekoak, gerretan eta gatazka armatuetan babestu egin behar direla dio Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmenak. Hala ere, benetan zera gertatzen da: umeak direla liskar horietako biktima nagusietakoak, bereziki zaurigarriak direlako,.

Zenbatezinak dira, eta den-denak txarrak, egoeron ondorioak: milaka pertsonaren heriotzak, bortxaketak, ekonomiaren suntsipena, gosea, gaixotasunen hedapena eta milaka errefuxiatuk beste herri batzuetara egin beharreko diaspora.

Gerratik eratorritako arazoetariko bat, geure gizartean hurbilen bizi duguna, errefuxiatuena da. Litekeena da gure ikasle batzuek ume horietakoren bat ezagutu izana edo aldi baterako etxean hartu izana, halaxe gertatu baita batzuetan Bosniako, Saharako eta abarreko umeekin. Baliteke, baita ere, ikastetxean horrelako umeak izatea bizikide, eta hala izatera, sentsibilizazio handiagoa izango dute arazo honen aurrean.

Irakasleak jarduera azalduko du: *"Badakizue ume askok sorterritik ihes egin behar izaten dutela, han bizitza normala eragozten dien gerra edo gatazka egoera (gosea, eritasunak...) dagoelako. Beste herri batera heldu eta heriotza saihestu ahal izan dutelarik, zoritxarrean zorte hobea izan dutenek beste arazo batzuei egin behar izaten diete aurre, hala ere. Batetik, oso triste egoten dira familiarengandik banandu behar izan dutelako eta, hori gutxi balitz, arrotza zaien eta usadio ezberdinak dituen herri batean bizitzen ohitu behar dute. Geure gizartean ume horiek ondo hartzen ditugula uste duzue? Izaten dute baldintza duinetan bizitzerik? Pentsa ezazue zeuen herria dela gerra pairatzen duena eta beste herri batean errefuxiatzera joan behar duzuela familiarekin. Han beste sendi batek hartu zaituzte. Nola sentituko zinatekete? Nola moldatuko zinatekete ikastetxean, hizkuntza ezezaguna zaizuela kontuan hartuta? Eta auzoan? Edukiko zenukete lagunik? Zuen herriaren, senideen falta sumatuko zenukete? Idatzi eskutitz bat zuen familiakoei beste herri horretan nolako bizimodua duzuen eta nola sentitzen zareten kontatuz".*

■ HELBURU NAGUSIAK

- Beste pertsona batzuen tokian jartzen ikastea.
- Gatazka armatuen ondorioez jabetzea.
- Gerrako errefuxiatuek pairatzen dituzten arazoak ulertzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Idatzizko adierazpena lantzea eskutitz bat eginez.
- Sentimenduak adierazteko gaitasuna garatzea

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: papera eta idazteko tresnak.

JARDUERAREN IRAUPENA: ordubeteko saio bat.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Jarduera azalduta, eta ume horien egoerari eta aurkitzen dituzten arazoei buruzko iruzkin zenbait egin ondoren, eskutitza lantzeari ekingo zaio. Ikasle bakoitzak bere senideei idatziko die eskutitza eta beste ikaskide batek egingo du senidearena. Horrela, gutun bakoitzak igorlea eta hartzailea izango ditu klasean bertan eta ikasle bakoitza igorle eta hartzaile izango da aldi berean, bi alderdien tokian jartzea suertatuko zaiolarik.

Azkeneko hamabost minutuetan, eginiko eskutitzetako batzuk irakurriko dira eta esperientzia horretan, bai errefuxiatuarena eta bai senidearena eginez, nola sentitu diren esango dute ikasleek.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURA

Gaztelania / Euskara / Atzerriko Hizkuntzak.

3. JARDUERA:
BAKEAREKIN BAT EGINIK

Jarduera honen bidez, ikasleei pentsaera positiboa izaten irakatsi nahi diegu. Garrantzitsua da biolentzian negatiboa den guztia ezagut dezaten eta neurri bateko bizipena gauza dezaten, baina era berean da garrantzitsu utopiarako nolabaiteko joera ere izan dadin beraiengan. Bai ikastetxean, bai familian edota eremu zabalagoetan ere, balore eta jarrera jakin batzuk (tolerantzia, solidaritatea, justizia, errespetua...) garatuz elkarbizitza hobe daitekeela jabetu behar dute. Une batez, amets egitera bultzatuko ditugu:

"Denok amets berbera bageneuka,
egiazko bihur liteke.
ERRESUMA BAKETSUA"
(Steven Kellogg, 1991, 3-5. orr.)

Irakasleak jarduera azalduko du: *"Gure inguruan eta munduan zehar jazotzen diren gatazka bortitz ugariak ikusteko aukera izan dugu. Horrek dakartzan ondorio kaltegarrien berri ere izan dugu. Baina, ba al dago ezer egiterik hori guztia hobetzeko? Nola lortuko litzateke, zuen ustez, bakea munduan? Zer-nolako aldaketa garrantzitsuak egin beharko lirateke munduan? Eta, gure aldetik, zer alda genezake gainontzekoekiko geure jokaeretan elkarbizitza hobea izateko? Pentsa ezazue nolakoa izango litzatekeen mundu justua eta baketsua. Ederra, ezta? John Lennon-ek Imagine abestiarekin, musikaren bidez islatu zuen horrelako mundua. Zuek, berriz, saia zaitezte ametsetan ageri zaizuen mundu hori horma irudi baten bidez islatzen".*

■ HELBURU NAGUSIAK

- Bakeaz dituzten ideiak eta sentimenduak adieraztea.
- Hausnarketa egitea mundu baketsu baterako giltzarriei buruz.
- Sormena garatzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Horma irudia egitea.
- Adierazpen plastikoa garatzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: kasetea, *Imagine* izeneko abestia duen zinta, abestiaren partitura ahal izanez gero, kartulinak, koloretako margoak, errotuladoreak, egunkarietan eta aldizkarietan ebakitako irudiak eta argazkiak.

JARDUERAREN IRAUPENA: Ordubeteko saio bat. Ingelesean eta Musikan ere landuz gero, denbora gehiago eskaini beharko zaio.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Girotzeko jarduera gisa, aldez aurretik John Lennonen *Imagine* abestia entzun daiteke Ingeles klasean, abestiaren hitzak itzuliz eta aztertuz (partitura erabili ahal izanez gero, musika klasean ere berorrekin lan egin daiteke).

Abestiaren ideiari lotuta, hamabost edo hogei minutu erabiliko dira ikasleek egiten zaizkien galderei erantzuteko eta gai horiei buruz hausnar dezaten. Ideia jasaren teknika ere erabil daiteke: ikasleei "bakea" ideiarekin zerikusia duten hitzak esateko eskatu arbelean idazteko.

Hitz, ideia edo sentimendu horiek oinarritzat hartuta, lauko taldeetan bakeari buruz duten ideia edo mundu baketsu baten irudi izan litekeen horma irudia egin beharko dute. Jatorrizko marrazkia ere egin dezakete edota collage teknika erabili. Horretarako, kartulinak, errotuladoreak, koloretako margoak eta argazkiak, marrazkiak edota errotuluak eta titularrak ebakitzeko zenbait aldizkari banatuko zaizkie.

"Bakearen Munduko Eguna" dela aprobetxatuz, urtarrilaren 30ean gauza daiteke jarduera hau eta, egiten diren kartelak, gela eta korridoreak girotzeko eta ikaskideak, egun honen garrantziaz jabetzeko erabili.

IMAGINE

Imagine there's no heaven
It's easy if you try
No hell below us
Above us only sky
Imagine all the people
Living for today…
Imagine there's no countries
It isn't hard to do
Nothing to kill or die for
And no religion too
Imagine all the people
Living life in peace…

Imagine no possessions
I wonder if you can
No need for greed or hunger
A brotherhood of man
Imagine all the people
Sharing all the world…
You may say I'm a dreamer
But I'm not the only one
I hope someday you'll join us
And the world will be as one

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURA

Atzerriko Hizkuntzak / Arte Hezkuntza (Plastika eta Ikus Adierazpena) / Tutoretza.

ETXEKOENTZAKO

FITXA

Guraso agurgarriok:

Munduko gatazken gaia ari gara lantzen zuen seme-alabekin; biolentziaren erabilpena pertsonen eta herrien arteko harremanetarako.

Gatazka armatu hauen zergatiez eta ondorioez kontura daitezen saiatu gara eta mundu zoriontsuagoa lortzeko har daitezkeen beste bide batzuk ere ireki dizkiegu.

Ahalegin honetan zuen laguntza edukitzea gustatuko litzaiguke, eta honako jarduerarako, zeuen lankidetza eskatzen dizuegu:

Gaur egun, gerrak telebistaren bidez ikusten ditugun arren, eta gehienetan urrun gertatzen badira ere, denbora asko ez duela, hemen ere sufritu genuen gudu bat eta, haren ondorioz, neska-mutil askok beren etxea utzi behar izan zuten eta beste herri batzuetara bidaiatu. Etxeko edadekoei (aitona, amona) edo auzotarrei (horretarako behar besteko konfiantza izanez gero), ea gerra hori edo beste gatazka armaturen bat bizi izan zuten galdetzeko eta, erantzuna baiezkoa izanez gero, inkesta labur bat egiteko eskatu diegu:

- Zenbat urte zeneuzkan gerra hasi zenean?
- Zeintzuk dira sasoi hartaz dituzun oroitzapen nagusiak?
- Bazegoen eskolara joaterik?
- Gosea pasatu zenuten?
- Seniderik hil zitzaizun gerran?
- Beste herri batera joan behar izan zenuen? Nora? Zenbat denboraz?
- Nola sentitu zinen? Ondo hartu zintuzten?
- Zer egin beharko litzateke horrelakorik ez gertatzeko?

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

UNITATEAREN BALORAZIOA

Ebaluatzeko jarduera honetan, ikasi dugun guztia erabil dezaten nahi genuke: nola konpon daitezkeen gatazkak biolentziarik gabe, biolentziaren eta giza eskubideak urratzearen arteko erlazioa, gerren ondorio ikaragarriak, pertsonen arteko elkarbizitza hobea lortzeko garatu behar ditugun baloreak, etab.

Horretarako, testua eta irudiak izango dituen ipuin xume bat egitea proposatuko diegu (bi orri erditik tolestuta, izenburua eramango duen azala eta kontrazala barne). Beraiek aukeratuko dute gaia, baina gatazka bortitz baten isla izan beharko du (gerra batean koka daiteke, banden edo herrien arteko istiluan, marjinazio egoera batean...) eta umeak lanean arituko dira irtenbide baketsua bilatu nahian; horretarako, besteak beste, solidaritatea, gainontzekoen eskubideak errespetatzea, elkarrizketa eta tolerantzia bezalako baloreak erabiliko dituzte.

"BAKEAREN liburu handia"ren erara edo antzeko zerbait eginez, ipuin guztiak liburu bat osatuz batzea da asmoa, gero beste gela batzuetan eta, hala nahi izanez gero, familiei ere aurkezteko.

Ikasleek, unitate honen edukiei eta helburuei buruz zer bereganatu duten egiaztatu ahal izango dugu lan honen bidez.

EZ DAGO ESKUBIDERIK!

■ IDEIA NAGUSIA

Material honen hasieran, umeek ere eskubideak dauzkatelako ideia aldarrikatu genuen. Hala dio, eta bermatzen saiatzen da, Nazio Batuen Erakundearen (UNOren) Batzar Nagusiak onartutako Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmenak. Hala ere, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko ezberdintasunaren eraginez, ume guztiek ezin dituzte eskubide horiek erabili. Horretan ere ezberdinak gara.

■ HELBURUAK

- Beste herri batzuetako bizitza eta arazoak ezagutzea.
- Haien bizimoduaren eta gurearen arteko ezberdintasunez jabetzea.
- Ezberdintasun horiek bidezkoak ez direla ohartzea.
- Solidaritate eta lankidetza jarrerak garatzea.
- Haiek erabil ditzaketen eskubideei balioa ematea.

■ UNITATEAREN GARAPENA

"UNOren Batzar Nagusian eraginkorren diren herriek (hau da, garatuek) inposatuta, Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmenak herri garatuotan lortzeko modukoak diren helburuak erdietsi nahi ditu, baina Hirugarren Munduko herri gehienentzat lortzen ezinezkoak direnak" (Jatun Sunqu 12. alea, 16. or.). Izan ere, batzuen eta besteen abiapuntuak hain ezberdinak direnez, teoria praktika bihurtzean gertatzen den emaitza ere erabat diferentea da.

Herri garatuetan, neurri handi batean behintzat, artikulu horiek betez joan dira, aldeko ekonomi eta politika egoera batetik abiatzen zirelako. Horrela, nahiz eta mendebaldeko herrietan gaur egun oraindik txirotasun poltsa garrantzitsuak eta haurren esplotazio kasu zenbait izan, adin horietako biztanle gehienak behar bezala elikatuta eta zainduta daude, familia eta etxebizitza duina dituzte, eskolara doaz eta atsedenerako, aisialdirako eta abarrerako denbora tarteak dauzkate.

Oso errealitate ezberdina da Hirugarren Munduan bizi dutena. Urtero, 40 milioi ume inguru inskribatu gabe geratzen dira jaiotakoan, jaiotzen herena hain zuzen. Bereziki mingarri gertatzen da "kalekumeen", edo Brasilen *"meninos da rua"* deritzenen kasua, 7 milioitik gora ume etxerik, familiarik gabe; hotzikara sentitzeko modukoa. Ceará estatuko (Brasil) *Meninos e meninas de Rua*ren Estatuko Mugimenduko kide batek, Tess Alvesek, honela deskribatu zituen: "Gehienak kalean jaio eta bertan bizi dira, inolako familia-loturarik gabe. Gure Mugimendura iristen direnean, batek ere ez dauka nortasun agiririk, askok ez dakite zenbat urte dituzten, eta batzuek, ezta zein den beren benetako izena ere" (Jatun Sunqu 4. alea, 22. or.).

Bost urtetik beherako 12 bat milioi ume hiltzen dira urtero erraz ekidin litezkeen karien eraginez (pneumonia, elgorria, beheranzkoa, tuberkulosia, tetanoa, eta abar.). Heriotza horien erdiak baino gehiago nutrizio

urriak edo goseak eragiten ditu zuzenean edo zeharka, eta Hirugarren Munduko umeen erdiek baino gehiagok anemia pairatzen dutela kalkulatu da eta, horren ondorioz, haien ikasteko gaitasuna eta gaixotasunen arteko babesak murriztuta geratzen dira.

Hirugarren munduko 6 urtetik 11ra bitarteko 145 haur inguru ez doaz eskolara eta haurren %75ek baino ez dituzte burutzen eskolaratzearen lehendabiziko lau urteak. Bigarren Hezkuntzari dagokionez, 284 milioira iristen da kopurua.

Horrekin oso estu lotuta dago umeen lana. Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANEren) arabera, 5etik 14 urtera bitarteko ia 250 milioi haur ari dira lanean (%95 Hirugarren Munduan), gehienetan esplotazio baldintzetan aritzen dira (soldata baxuagoak, gehiegizko ordutegiak, osasunik gabeko baldintzak...) eta, hain zuzen ere, haien arriskugarritasuna edo gogortasun fisikoa dela-eta, bereziki eragotzi beharko litzaizkiekeen beharretan (meatzaritza, nekazaritzako lanak, industria kimikoak, urpeko arrantza...). Argi dago ume horiek ez dutela eskolara joaterik, ez aisialdiaz gozatzerik, ezta garapen fisiko osasungarria izaterik ere. Hala ere, kasu batzuetan umeon lana zorrotz debekatuz gero, arriskuan ezarriko lirateke beraien eta familien beharrizanik oinarrizkoenak (elikadura, jantziak, etxebizitza), biziraupenerako gutxieneko baliabiderik ez dutelako eta hezkuntza eta osasun zerbitzu oinarrizkoenik gabeko herri txirotuetan bizi direlako.

Egoera hau ikusita, LANEk berak onartzen du arazoa hain handia izatean, ezinezko gertatzen dela umeen lana errotik desagerraraztea, baina lehentasunezkoa deritzo egoerarik latzenak eta neurriz kanpokoenak, behinik behin, ezabatzeari: esklabotasuna, prostituzioa, pornografia eta drogen trafikoa, osasunerako bereziki arriskutsu diren lanak eta gatazka armatuetan parte hartzeko derrigor erreklutatzea.

Aparteko kapitulua eskatuko luke neskatoen egoerak. Ez dugu ezer berririk esango sexuaren ziozko diskriminazioa aipatzen badugu, geure kulturan ere errealitate baitugu oraindik. Baina garatu gabe dauden herri askotan askozaz larriagoa da egoera; izan ere, sexuarengatiko aurreiritziei, gizonarekiko esanekotasun handiagoan –batzuetan esklabotasun egoeran– jartzen duten erlijio sinesmenak edo herri horietan oso sustraituta dauden ohiturak gehitu behar baitzaizkie.

Emakumearen zeregina etxeko lanak eta familiarekin zerikusia dutenak direla pentsatzen dute oraindik. Mutikoek baino hezkuntza gutxiago eta elikadura eta osasun arreta eskasagoa hartzen dute neskatoek; neska izateagatik, beraien biziraupena ere arriskuan jartzen da (hautatze-abortuak). Gainera, 30 herri ingurutan, urtero bi milioi eta erdi neskatoren sexu organoak mozten dira, eta beraiek dira, oraindik ere, prostituzioaren eta legez kanpoko beste sexu-jarduera batzuen biktima nagusiak.

Ikuspegi penagarri hau gorabehera, esan beharra dago azken 40 urteotan nabarmen hobetu dela egoera eta hobetuz doala Hitzarmenaren bultzadari eta nazioarteko erakundeen eta GKEen esfortzuari esker. Hala ere, bestelako neurriak ere izango lirateke beharrezkoak, hala nola, kanpoko zorraren barkamena edo lankidetza fondoen kopurua gehitzea, herri horien egoera benetan aldatzen hasiko badira.

■ ZER LANDU GAI HONEN INGURUAN?

Irakasleek

- Arloetako Ikastetxearen Ikasketa Proiektuan ikasgelako materialak (unitate didaktikoak, irakurketa liburuak, bideoak, jolasak, eta abar) berraztertu eta hautatu, Garapenerako Hezkuntza, Kontsumorako Hezkuntza eta Hezkidetza zehar-lerroak ere kontuan hartuta.
- Taldekako lanaren bidez, solidaritatea edo lankidetza bezalako baloreak sustatu.
- Gune gisa, kontsumo arduratu eta solidario batekin bat datozen jokaerak hartzea eta sentsibilizaziorako eta lankidetzarako GKEek antolatzen dituzten kanpainetan parte hartu.

Familiak

- Dituzten ondasunei eta eskubideei balioa ematen irakatsi seme-alabei.
- Ardurazko kontsumorako jarrerak sustatu: zenbat diru ematen dieten, zertan gastatzen duten...
- Seme-alabekin batera GKEek Hirugarren Munduaren alde antolatzen dituzten kanpainetan edo proiektuetan parte hartu.
- Famili giroan, eguneroko egoerei dagokienez, ardurakidetzan eta solidaritatean hezi.

1. JARDUERA:

SOLIDARITATE(RIK GABEKO) ASKARIA

Gosea eta elikadura eskasa dira Hirugarren Munduan arazorik handienetakoak. Umeen artean kontuan hartzeko moduko heriotza kopurua eragiteaz gain, ondorio erabakigarriak dauzka haien heziketan eta garapen fisikoan eta psikologikoan. Arazoa, ordea, ez da munduan biztanle guztientzako elikagairik ez egotea, behar bezala banatuta ez daudela baizik. Horrela, ondorengo paradoxa gertatzen da: hemen hartzen ditugun elikagaiak egiteko lehengaiak ekoizten dituzten herri gehienetan, ez da behar bezalako elikadurarik ematen.

Munduko biztanleen %30 aberatsenek elikagaien ekoizpen osoaren %75 dauka beretzat.

Ikasleek munduan zeharreko elikagai-banaketa bidegabearen bizipena izan dezaten ahaleginduko gara, hasiera batean "solidaritaterik gabeko askaria" izango den eta ondoren "solidaritate askari" bihurtuko den askari baten bidez.

Irakasleak jarduera azalduko die ikasleei: *"Bihar arratsaldean askaria antolatuko dugu. Horretarako, jatekoak eta edatekoak ekarri beharko dituzue etxetik. Hiru produktu ezberdin ekarriko ditu bakoitzak eta goizean emango dizkidazue nik antolatu ahal izateko."*

(Litxarreriez gain beste gauza batzuk ere ekar ditzaten, zenbait produktu iradoki dakizkieke).

■ HELBURU NAGUSIAK

- Elikaduraren garrantziaz eta elikagaien munduan zeharreko banaketa ezberdinaz jabetzea.
- Solidaritate eta lankidetza jarrerak garatzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Banaketa bidegabearen bizipena izatea esperientzia baten bidez.
- Gaizki edo behar ez bezala elikatuta dauden umeen egoeraz gogoeta egitea.
- Herri garatu batean jaio izanagatik pribilegiatuak garela ohartzea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: ikasleek ekarritako jakiak, talde bakoitzari eman beharreko kartulinak, arbela, munduko elikadurari buruzko datuak (ahal den neurrian eguneratuak).

JARDUERAREN IRAUPENA: arratsalde bateko bi saioak.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Irakasleak, ikasleek ekarri dituzten produktuak batutakoan, elikagaien gutxi gora beherako banaketa egingo du bost taldetan (produktuen kantitatea eta kalitatea kontuan hartuta), oinarri gisa ondorengo datuak erabiliz:

*"**Behar besteko elikadura**ren kontzeptua **2.700/2.800 kaloriatan** eta **40 gramo animali proteinatan** kalkulatzen bada, elikaduraren banaketak munduko biztanleen artean, honako portzentaje hauen araberakoa beharko luke izan gutxi gorabehera:*

• *Behar bezain elikatuak edo gehiegizko elikaduraz (Europa, Iparramerika, SESB, Japonia, Australia eta Hirugarren Munduko gutxiengo pribilegiatuak)*	• **%25**
• *Kantitatez behar besteko elikadura (2.500/2800 kal.), baina urria animali proteinatan (20/30 gr./eguneko)*	• **%15***
• *Kuantitatiboki mugan dagoen elikadura (2500 kal/eguneko) baina urria animali proteinatan (10/20 gr./eguneko)*	• **%20***
• *Azpi-elikadura garbia (2000/2500 kal./eguneko eta 5/10 gr. /eguneko animali proteinatan)*	• **%30***
• *Gose kronikoa (egunean 2000 kal. baino gutxiago eta oso animali proteina gutxi)*	• **%10***

*Azken lau mailak Hirugarren Munduan kokatzen dira gehien bat.

(Iturria: CCFD-Info., José Joaquín Gómez Palacios, 1992, 68. or.)

Gero klasean, bost taldetan banatuko ditugu ikasleak (goian ezarritako populazio portzentajeen arabera gutxi gorabehera) eta sailkatuta dauden produktuen sortak banatuko zaizkie "solidaritaterik gabeko" izena emango zaion askaria egiteko. Ondoren, galdetuko zaie ea ondo deritzoten egindako banaketari eta nola sentitzen den talde bakoitza tokatu zaionarekin. Seguru aski, protestaka hasiko dira ikasleak eta galdetuko dute ea, hiruna produktu ekarrita, nolatan tokatzen zaien batzuei hainbeste eta besteei hain gutxi. Egoera horretaz baliatuko gara munduan gertatzen denarekiko alderaketa egiteko. Ordurako arbelean idatzita eduki ditzakegu zenbakiak –munduko elikagaien banaketari buruzkoak–. Datuok komentatu ondoren, aipatutako bost mailetatik zein dagokion definitzen duen kartela emango zaio talde bakoitzari (zenbaki oso bilakaraziz, portzentajeak lantzeko ere erabil daiteke aukera hori). Ea egoera hori bidezkoa iruditzen zaien galdetuko diegu, ezberdintasunei buruzko eztabaidari ekitearren. Herri batean edo beste batean jaio izanak ume askoren elikadura –eta ondorioz haien giza garapena– behin betiko baldintzatzen duela ikusaraziko diegu, eta behar bezala elikatuta egoteak bizitza osasuntsua garatzeko, ikasi ahal izateko eta beste hainbat gauza egin ahal izateko duen garrantzia azpimarratuko dugu.

Jardueraren bigarren zatiaren muina bost taldeen artean produktuak era orekatuago batean banatzean datza, eta taldeak ere berrantolatu egingo dira, guztietan taldekide kopuru berbera jarriz. Une horretatik aurrera, bidezko banaketa egin ondoren, taldeak desegin eta "solidaritate askaria"ri emango diogu hasiera, dena denon artean banatuz.

Jarduera burutzeko eskolako jantokiaren orduez baliatzea izan liteke beste aukera bat.

Jarduera hau elikaduraren gaia landu ondoren garatzea gomendatzen dugu: zenbat jaten duten egunero, zenbat kaloria eta animali proteina hartzen duten, zer elikadura har daitekeen orekatutzat eta behar bestekotzat, eta abar.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURA

Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera / Matematika / Tutoretza.

2. JARDUERA:
IKASTEN ALA LANEAN?

Unitatearen Garapenari buruzko atalean ikusi dugunez, hain garatuta ez dauden herrietako ume asko lanean ari dira, eta kasurik gehienetan esplotazio eta, askotan, esklabotasun egoeretan. Horren ondorio zuzena dira eskolara ez joatea eta osasun arazoak. Herri horietako umeen bizimodua eta gure ikasleena ezin ezberdinagoak dira (salbuespenezko kasuetan izan ezik), nahiz eta neskatoen kasuan, etxeko lanei dagokienez, aldeak laburtu egiten diren.

Irakasleak jarduera azalduko die ikasleei, eta hasiera emateko bizitza pertsonalari buruzko hausnarketa egingo dute: *"Asteko edozein egunetan egin ohi duzuenari buruz pentsatuko dugu: zenbat denbora ematen duzuen eskolan eta ikasten, zenbat jolasten eta zenbat etxeko lanak egiten, eta horretarako datuak biltzeko taula erabiliko dugu"*.

■ HELBURU NAGUSIAK

- Umeen lana izan badela jakitea.
- Hegoaldeko herrietako umeen bizimoduari buruzko datuak ezagutzea.
- Ikasleen bizimoduaren eta ume haienaren arteko ezberdintasunez gogoeta egitea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Zereginak egiteko, denbora banatzeko duten erari buruz hausnartzea.
- Matematika eragiketak egitea (portzentajeak atera eta portzentajeak zenbaki oso bilakarazi).
- Etxeko lanak direla eta, portzentajeak alderatu.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan.

BALIABIDEAK: idazteko tresnak, datuak biltzeko taula, arbela eta, beharrezkoa izatera, bideoa eta ordenagailua.

JARDUERAREN IRAUPENA: ordubeteko bi saio.

■ JARDUERA NOLA BURUTU

Hasierako jarduera ikasleei azaldutakoan, honako taula hau beteko dute banaka:

EDOZEIN EGUNETAN, HONAKO ORDU KOPURU HAU EMATEN DUT...			
	...eskolan eta ikasten	...jolasten eta ondo pasatzen	...etxeko lanetan
ORDUAK			

Bildutako datuak talde handian komentatuko dira, eta egunean zehar denbora banatzeko erari buruzko portzentajeak aterako. Bereziki azpimarratuko da etxeko lanen atala, alde argia ageriko baita hor nesken eta mutilen artean.

Ondoren, eta adibide gisa, Pakistango umeen bizimoduari buruzko testu hau irakurriko da ozenki:

> *"Pakistango umeek futbol baloiak egiten dituzte mundu osoko estadio guztietarako. Hirurogeita hamabost pezeta jasotzen dute baloi bakoitzeko, kirol marka nagusiek hamar mila pezeta eskatzera hel daitezkeen bitartean. Pakistanen egiten diren hogeita hamabost milioi baloien laurdenak, orduan sei pezeta kobratzen duten umeek josita daude, zortzi eta hamar ordu bitarteko lanaldietan ari diren umeek josita... Baloi horiek dira hainbeste diru jasotzen duten futbol-izarrek, Baggiok edo Ronaldok edo beste hainbatek, ostikoz jotzen dituztenak.*
>
> *Hogei mila baloi hilabetero. Ume horiek ere morrontza zorraren eta eskrupulurik gabeko lukurarien biktimak dira. Mussadar-ek hamaika urte dauzka, eta zortzi urte zituenetik josten ditu baloiak: "Eskolara joan nahi nuke, baina lan egin behar dut" zioen. Soldata horiek oso baxuak dira gizonezkoentzat. Horregatik erabiltzen dituzte haurrak eta emakumeak."*
> (Manuel Legineche, 1996, 23. or.)

Talde handian egingo dute gogoeta: Zer iruditu zaizue irakurri berri dugun testua? Bazenekiten zuen adineko neska-mutil batzuek, bizirik iraun ahal izateko, lan egin behar dutela? Ume horiek dibertitzeko astirik dutela uste duzue? Eta eskolara joateko? Beraien bizimodua zuenaren antzekoa da? Zer deritzozue egoera horri?

Lana osatzeko, datu batzuk eta talde txikietan (4 pertsona) erantzuna aurkitu beharko dieten zenbait kontu ere emango zaizkie. Ikasleek, ordenagailua erabiltzen trebeak badira, grafikoen bidez isla ditzakete zenbakiak:

- 6tik 11 urtera bitarteko 145 bat milioi umek ez dute Lehen Mailako Hezkuntzan sarbiderik. Euretatik ia 85 milioi neskak dira. Aurki ezazu eskolara ez doazen nesken eta mutilen portzentajea. Zein da handiagoa? Zergatik ote da?
- Munduan 5etik 14 urtera bitarteko 250 miloi ume inguruk lan egiten dutela kalkulatu da. %60 Asian bizi dira, %32 Afrikan eta %7 Latinoamerikan. Bilakaraz itzazu zenbaki oso portzentaje horiek. Konturatu zara %1 falta dela? Non uste duzu biziko direla beste neskato eta mutiko horiek? Gure herrian lanean dabilen umerik dagoela uste duzu? Ezagutzen duzu baten bat?
- Aurki ezazu zenbat pezeta dagoen Pakistango umeek jasotzen dituzten hirurogeita hamabost pezeten eta kirol marka nagusiek eskatzen dituzten hamar mila pezeten artean. Zer gertatzen da diru horrekin? Non geratzen ote da?

Ariketak bukatu ondoren, denon artera aurkeztuko dira erantzunak eta hausnarketa egingo da berriz ere talde handian, herri horietako umeen egoerari buruz eta neskatoek pairatzen duten diskriminazioaz.

Jarduera honen osagarri gisa, Hirugarren Munduko umeen esperientziak biltzen dituen bideoren bat ikus daiteke "Ocho de cada diez" (hiru bideo) Zabalketa Elkartearena edo "También quieren ser niñas y niños"

Intermón-ena. Beste herri batzuetako neskato eta mutikoekin elkarri eskutitzak idazten ere has litezke, nola bizi diren jakin ahal izateko; zenbait GKEren bidez ere izenak eta helbideak lor genitzake.

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURA

Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera / Matematika.

3. JARDUERA:
ARDURAZ KONTSUMITU

Bizi garen gizartean ondasunak eskuratzea oinarrizko beharrizanak asetzea baino harago doa eta ospetsu izateko edo gabezia jakin batzuk era faltsuan betetzeko bide bihurtu da. Publizitateak saltzeko ahaleginak egiten dituenean, ez da alferrik ari sexua, adiskidetasuna, gizartearen onespena, boterea edo gisa horretako beste baliabide batzuk deigarri gisa erabilita. Marken munduan gaude murgilduta eta umeek ere, "deitura" eta guzti eskatzen dituzte jostailuak eta jantziak. Baina, beste gauza batzuekin gertatzen den bezala, herri industrializatuetan bizi dugun "kontsumoaren sukarra" da hori; izan ere, hain garatuta ez dauden herrietako biztanle askok ez baitauzkate ezta oinarrizkoen diren ondasunak ere (elikagaiak, jantziak, etxebizitza, osasuna edo hezkuntza).

Iparraldeko gehiegizko kontsumoak zerikusi handia dauka munduko biztanle askok bizi duten pobreziarekin, umeen eta helduen lan-baldintza esplotatzaileekin eta ingurumenaren narriadurarekin (planeta berotzea, edateko ura urritzea, basoak soiltzea, eta abar). Gure kontsumoak ondorioak dauzka.

Horrela bada, gure esku dago denon oinarrizko beharrizanak eta eskubideak bermatzeko arduraz kontsumitzea gure planetaren etorkizuna kolokan jarri gabe.

Sarrera gisako galdera batzuk erabiliz, irakasleak jarduera azalduko die ikasleei: *"Zenbat diru ematen dizuete astero etxean? Dena gastatzen duzue? Zertan? Gauza horietatik zeintzuk iruditzen zaizkizue oinarrizko eta zeintzuk utz ditzakezue albo batera? Kontsumitzen dugun guztiak beste pertsona batzuei eragin egiten diela badakizue? Badakizue zer diren 'Bidezko Merkataritza' izeneko dendak?*

■ HELBURU NAGUSIAK

- Jarrera kritikoa garatzea gehiegizko kontsumoa dela-eta.
- Bidezko Merkataritza izeneko ekimena ezagutzea.
- Solidaritatea garatzeko eta arduraz kontsumitzeko jarrera hartzea.

■ HELBURU ZEHATZAK

- Hausnarketa egitea: Zenbat diru gastatzen dute? Zertan?
- Bidezko Merkataritzarako denda batera bisita egitea.
- Elkarrizketa bat prestatzea eta dendako arduradunari egitea.

■ AURRETIKO PRESTAKETA

NON: ikasgelan eta Bidezko Merkataritzarako dendan.

BALIABIDEAK: idazteko tresnak, "Bidezko Merkataritza"ko zenbait produktu.

JARDUERAREN IRAUPENA: ordubeteko bi saio.

JARDUERA

NOLA BURUTU

Irakasleak, hasteko, galdera batzuk jaulkiko dizkie ikasleei, kontsumitzen dutenari buruz hausnar dezaten. Behin gaia girotuta, "Bidezko Merkataritza"ren ekimena aurkeztuko zaie, eta ezaugarri nagusietako batzuk azaldu. Datu batzuk ekarri ditugu hona baina gaiari buruzko informazio gehiago aurki dezakezue Intermón edo Manos Unidas izeneko elkarteen materialetan (ikus Bibliografia).

"Bidezko Merkataritza"ren mugimendua Holandan sortu zen hirurogeiko hamarkadan. Hegoaldeko ekoizleei, egiten duten lanarengatik bidezko ordaina bermatzea da funtsezko printzipioa, eta horretarako zuzenean erosten zaizkie produktuak hegoaldeko nekazariei edo artisauei, horrela bitartekariak desagerraraziz.

Enpresak direnean, LANEk ezarritako arauak betetzen dituztenentz aztertzen da: langileen elkartzeko askatasuna, antolatzeko eta taldeko negoziaketarako eskubidea, lanean hasteko gutxieneko adina, lanean, arraza, sexua, erlijioa, iritzi politikoa eta abar direla kausa, diskriminaziorik ez izatea eta derrigorrezko lanik ere ez izatea. Horrela izan ezean, ez da negoziatzen enpresekin eta, gainera, zehapenak jartzen zaizkie.

Bidezko Merkataritzarako lehendabiziko denda Holandan inauguratu zen 1969an. Gaur egun mota horretako 3.000 dendatik gora daude Europan, eta 45.000 bat saltoki.

Gaiaren sarrera egin ondoren, herrian edo, hurbileko beste herriren batean dagoen Bidezko Merkataritzarako dendaren baten aipamena egingo zaie; han saltzen dituzten produkturen batzuk erakutsi eta hara bisita egitea proposatuko zaie.

Bisitak emaitza hobea izan dezan, bi gauza iradokiko zaizkie:

- Gaiari buruzko informazioa lortzeko xedeaz, dendako arduradunari egingo dioten elkarrizketa prestatzea. Talde txikietan (3 edo 4 pertsona) pentsatu beharko dute zer jakin nahi luketen mugimendu horren gainean, eta gero galderak idatziko dituzte. Denon aurrean aurkeztu ondoren, behin betiko elkarrizketa gertatuko da.
- Etxean diru apur bat eskatzea Denda Solidarioan zerbait erosi eta, horrela, ekimen horri laguntzeko.

Ikasgelara itzuli ondoren, ikusi edo erosi ditugun produktuak zein herrialdetan egiten diren zehaztu eta mapa batean aurkitzen saia gintezke. Herri horietan bere duten artisautza-mota aztertzea ere proposa liteke Plastika saiorako (materialak, teknikak, koloreak eta abar), eta gauzatzen erraza den teknikaren bat erabiliz, antzeko produktuak egin litezke.

Jarduera honen osagarri gisa, Gabon garaian edo jairen batekin batera, eskolan, mota horretako denda antolatzea proposa diezaiekegu ikasleei. Horretarako horrelako Merkataritza sustatzen duten GKEekiko harremanei heltzea besterik ez da behar (Intermón, Mercadeco, Ecodenda, Manos Unidas, eta abar).

■ CURRICULUMAREN ARLOEKIKO LOTURA

Gaztelania eta Euskara / Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera / Arte Hezkuntza (Plastika eta Ikus Adierazpena) / Tutoretza.

ETXEKOENTZAKO FITXA

Guraso agurgarriok:

Gure herria bezain garatuak ez diren herrietako umeak nola bizi diren ari gara lantzen eskolan zeuen semealabekin. Horretarako laguntza eskatuko dizuegu behin baino gehiagotan.

Lehenengo, klasean, elikagaien banaketarako munduan gertatzen diren ezberdintasunen bizipena izan dezaten, askari bat antolatuko dugu; horren ostean, etxean, zer moduz ibili diren galdetzea eta esperientzia komentatzea gustatuko litzaiguke.

Bigarren kasuan, berriz, bisitatuko dugun denda batean Bidezko Merkataritzako produktu bat erosteko diru apur bat ematea da kontua.

Bigarren kasu horri dagokionez, baliteke zeuek ere ez ezagutzea ekimen hori; horrela izan edo izan ez, semeari/alabari Denda Solidariora egin duten bisita kontatzeko eta Bidezko Merkataritza zertan datzan azaltzeko eska diezaiokezue, bertan saltzen diren produktu-moten berri emateko. Azkenik, joan zaitezte egunen batean berarekin denda ezagutzera, semeak/alabak bai baitaki non dagoen, arduradunari elkarrizketa bat ere egin dio-eta. Utziozue semeari/alabari gidariarena egiten, garrantzitsu sentituko baita horrela, eta bizi esperientzia hori berarekin batera; horrela balio handiagoa emango dio-eta.

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

UNITATEAREN BALORAZIOA

Unitate honetan, bai ezagutzei eta bai jarrerei dagokienez, bereganatu dutena baloratzeko, kanpaina gisa, publizitate kartel bat egiteko esango diegu ikasleei. Kartel horretan, landu izan ditugun alderdiei ekinez (gosea, eskolaratze eza, umeen lana, osasun arretarik eza eta abar), Hirugarren Munduko umeen egoera salatuko da eta jendearen lankidetza eskatuko.

ERANSKINAK

Neska-Mutilen Eskubideei Buruzko Hitzarmena

1.- 18 urte

18 urte bete arteko gizaki guztiak dira haur, legearen arabera adin nagusitasuna lehenago lortu duena izan ezik.

2.- Bereizkeriarik ez

Hitzarmen honetan aipatutako eskubideak haur guztiei aplikatu behar zaizkie inolako bereizketarik egin gabe eta haurren edo gurasoen arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, etnia- edo gizarte-jatorria, iritzia, maila ekonomikoa, ezintasun fisikoak, edo bestelako edozein ezaugarri kontuan izan gabe. Estatuak edozein bereizkeriaren aurrean haurra defendatzeko neurriak hartuko ditu.

3.- Haurraren interes gorena

Gizarte-ongizateko erakunde pribatu nahiz publikoek haurrei buruz hartzen dituzten neurri guztietan haurren interesak lehentasun osoa izango du.

Estatu kideek, berriz, hitz ematen dute umearen ongizaterako beharrezkoak diren babesa eta arreta bermatuko dituztela. Halaber, ziurtatu egingo dute haurrak babestu eta zaintzen dituzten erakunde eta zerbitzuek ezarritako arauak betetzen dituztela, batez ere segurtasun, osasun, langileen kopuru eta gaitasunaren aldetik, eta gainbegiraketari dagokionez.

4.- Estatuaren erantzukizuna

Estatuaren betebeharra izango da Hitzarmen honetan jasotako eskubideak betearazteko behar diren neurriak hartzea.

5.- Gurasoen erantzukizuna

Haurrak beren gaitasunen eta garapenaren araberako heziketa eta orientabidea jasoko ditu Hitzarmen honetan jasotzen diren eskubideak erabili ahal izan ditzan. Lan hori gurasoek, senide, tutore edota legezko ordezkariek egingo dute. Estatuak arduradun horien erantzukizun, eskubide eta betebeharrak errespetatuko ditu.

6.- Bizitzeko eskubidea

Haurrek berez dute bizitzeko eskubidea. Estatuak ahalik eta ondoen bermatu behar ditu haurraren biziraupena eta garapena.

7.- Izena eta herritartasuna

Haur orok du, jaiotzen denetik, izena eta herritartasuna izateko eskubidea eta, ahal dela, bere gurasoak ezagutzeko eta gurasoek zaindua izatekoa.

8.- Identitatearen babesa

Estatuaren betebeharra da haurraren identitatea babestea, eta beharrezkoa bada, haurrari identitatea edo horren elementuren bat (izena, herritartasuna, familia-loturak) kendu bazaio, estatuak ahalik eta arinen itzularaziko dio.

9.- Familia elkartuta

Haurra ez da gogoz kontra gurasoengandik bananduko haurraren interes gorenerako beharrezkoa ez bada.

10.- Familiaren bateratzea

Haurrek eta gurasoek edozein herrialdetatik irten eta sartzeko eskubidea dute, familia batzeko edo guraso eta seme-alaben arteko harremanak mantentzeko bada.

11.- Legez kanpoko atxikitze eta lekualdatzeak

Estatu kideek neurriak hartuko dituzte haurrak legez kanpoko prozeduren bidez estatutik atera ez ditzaten

eta atzerrian legez kanpo atxiki ez ditzaten. Horretarako, estatu kideek alde biko edo alde anitzeko hitzarmenak bultzatuko dituzte.

12.- Haurraren iritzia

Haurrak bere iritzia adierazteko eskubidea du berari dagozkion gai guztietan, baita iritzi hori aintzat hartua izan dadin ere.

13.- Adierazpen askatasuna

Haur guztiek dute edozein motatako ideia eta informazioak bilatzeko, jasotzeko eta zabaltzeko eskubidea, betiere besteen eskubideen aurkakoak ez badira.

14.- Pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasuna

Haurrak pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasuna izateko eskubidea du. Gurasoen eskubide eta betebeharra da haurra bideratzea bere eskubideak erabil ditzan. Estatu kideek, hortaz, errespetatu beharko dituzte gurasoen eskubide-betebeharrok.

15.- Elkartzeko eskubidea

Haurrak elkartzeko eta batzarrak egiteko eskubidea du.

16.- Bizitza pribatuaren babesa

Haurrak eskubidea du legez kontra edota nahierara bere bizitza pribatuan, bere familian, bere bizilekuan eta bere korrespondentzian beste inork muturrik sar ez dezan, baita bere ohoreari eta izen onari eraso ez diezaieten ere. Halako erasoen aurrean legeen babesa izango du.

17.- Informazio egokia lortzea

Estatu kideek berebiziko garrantzia aitortzen diete hedabideei, eta bermatu egingo dute haurrak iturri desberdinetako informazioa jaso ahal izatea. Estatuak bultzatu egingo du herrien arteko ezagutza, elkar aditzea eta haurraren ongizate morala eta jatorrizko kulturaren errespetua –baita giza talde txikietako beharrizan linguistikoak ere– babesten dituen informazioak zabaltzea. Halaber, haurraren ongizatearen aurka doazen informazio eta material guztietatik babesteko eta horien aurka neurriak hartzeko betebeharra estatuarena da.

18.- Gurasoen erantzukizuna

Estatu kideek aitortu egiten dute umearen hazkuntza eta garapena guraso bien erantzukizuna dela eta beren ardura nagusia haurraren interesa izango da. Estatuak beharrezko laguntzak eskaini behar dizkie guraso edo legezko ordezkariei eginkizun hori bete dezaten. Haurrak zaintzeko erakunde, instalazio eta zerbitzuak bultzatuko ditu, lanean ari diren gurasoak ere aintzat harturik.

19.- Tratu txarren aurkako babesa

Estatuak neurri guztiak hartuko ditu gurasoek edo zaintzeko erantzukizuna duten beste edozein pertsonak haurrari inolako kalte fisiko nahiz mental, arduragabekeria, tratu txar edo gehiegikeriarik egin ez diezaioten.

20.- Familia giroan bizi ez diren haurren babesa

Estatuaren betebeharra da beren familiatik kanpo dauden haurrei babes eta zainketa berezia ematea; adopzioan eman edo egokia den zentro batera eramango ditu, adibidez, betiere haurren jatorri kulturala kontuan izanik.

21.- Adopzioa

Adopzioa onartu eta baimentzen duten estatuetan, haurraren interes gorenak izango du lehentasuna. Adopzioak legeen araberakoa izan behar du eta eskumena duten agintarien baimenak izango ditu. Nazioarteko adopzioa onargarria izango da bere herrialdean ezin bada era egokian zaindu, baina horrek ez dio inori diru onurarik ekarriko. Hori guztia estatuak bermatuko du.

22.- Haur errefuxiatuak

Errefuxiatutzat hartutako haurrei edo errefuxiatu estatutua eskatzen dutenei behar duten laguntza eta babesa eskainiko zaizkie. Estatuak, nazioarteko erakundeekin elkarlanean, haurrei babes eta laguntza hori bermatuko die eta haurra eta gurasoak elkartzeko ahaleginak egin behar ditu.

23.- Haur ezinduak

Haur ezinduak bere duintasuna bermatuko duen bizimodu egoki eta betea edukitzeko eskubidea du, betiere berez baliatzeko gai izaten eta gizartean parte hartzen lagunduko dioten baldintzetan. Haur elbarri edo adimen-ezintasunen bat duenari zainketa, hezkuntza eta trebakuntza bereziak eskainiko dizkiote gizarte-zerbitzuek. Estatuak beste herrialde batzuek arlo honetan dituzten beharrizanak izango ditu kontuan.

24.- Osasuna

Umeak ahalik eta osasun-mailarik onena izateko eta medikuntza- eta errehabilitazio-zerbitzuak izateko eskubidea du. Estatuak, berriz, haurren hilkortasuntasa jaisteko neurriak hartuko ditu, oinarrizko laguntza medikoa eta aldez aurretiko zainketak eskainiko ditu eta haurra jaio ondoren osasun-arreta amei ziurtatuko. Halaber, gurasoek, haurrek eta gizarte osoak orobat honako guztiak badakizkitela ziurtatu behar du: haurren elikaduraren eta osasunaren oinarrizko printzipioak, amaren esnea hartzearen abantailak, garbitasunaren garrantzia... Estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte haurraren osasunaren aurkako jarduera tradizionalak desagerrarazteko, nazioarteko lana bultzatuko dute eta gogoan hartuko ditu bereziki garapen bidean dauden herrialdeen beharrak.

25.- Barnetegiaren aldizkako ebaluazioa

Baldin eta agintariek haur bat berariazko establezimenduren batean sartu badute haren osasun fisiko edo mentala zaintzeko edo tratatzeko, haurraren eskubidea da aldian-aldian bere egoera eta internamenduko gainerako zirkunstantziak berrikustea.

26.- Gizarte-segurantza

Estatu kideek jagon egingo dute haur guztiek duten gizarte-segurantzaren onura eta dagokien laguntza ekonomikoa jasotzeko eskubidea.

27.- Bizi-maila

Haur guztiek dute beren garapenerako bizi-maila egokia izateko eskubidea eta gurasoen betebehar nagusia da eskubide hori bete dadin bizi-baldintzak bermatzea. Estatuak eskubide hori betetzeko neurriak hartu behar ditu eta, behar denean, umeen arduradunei laguntza ekonomikoa emango die.

28.- Hezkuntza

Ume orok du hezkuntzarako eskubidea. Estatuak gutxienez derrigorrezko lehen irakaskuntza doakoa izatea bermatu behar du. Bigarren hezkuntza orokorra eta lanbidezkoa garatuko ditu eta haur guztiek horretarako aukera izatea bultzatuko du. Estatua saiatu egingo da ikasleen hutsegite-kopurua gutxitzen eta eskolako diziplina haurraren duintasuna errespetatuz aplikatuko da. Halaber, estatu kideek nazioarteko kooperazioa bultzatuko dute hezkuntza gaietan, garapen-bidean dauden herrialdeak bereziki gogoan hartuz.

29.- Hezkuntzaren helburuak

Estatu kideek onartzen dute hezkuntzak haurraren nortasuna eta gaitasun teoriko eta praktikoak garatzeko izan behar duela. Horretarako haurrari giza eskubideenganako errespetua irakatsi eta herrien arteko bakea, tolerantzia eta adiskidetasuna bultzatuko dira. Hezkuntzak naturarenganako errespetua irakatsiko die haurrei, baita norberaren zein besteen kulturarenganakoa ere.

30.- Gutxiengoak eta herri indigenak

Gutxiengo etniko, erlijioso edo linguistiko bateko haurrak, edota jatorrizko herrikoak, eskubidea izango du giza talde bereko beste batzuekin batera bere bizitza kulturala izateko, bere erlijioa praktikatzeko eta bere hizkuntza erabiltzeko.

31.- Aisialdia, jolasak eta kultur jarduerak

Haurrak aisialdi, jolas eta ekintza kultural eta artistikoetan parte hartzeko eskubidea du.

32.- Adingabekoen lana

Estatuaren betebeharra da haurrak beren osasun, hezkuntza edo garapenerako kaltegarria izan daitekeen lanetik babestea, baita enplegurako gutxieneko adina ezartzea eta lanaren baldintzak arautzea.

33.- Estupefazienteen erabilera eta trafikoa

Estatuak beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko ditu, legezkoak, administratiboak, sozialak eta hezkuntzazkoak, estupefaziente eta substantzia psikotropikoen erabileratik haurrak babesteko eta substantzia horien ekoizpen eta trafikoan haurrak erabil daitezen galarazteko.

34.- Sexu-esplotazioa

Estatu kideek haurrak babestuko dituzte edozein motatako sexu-esplotazio eta gehiegikeriatik, baita prostituzio eta jarduera pornografikoetatik ere.

35.- Haurren bahiketa, salmenta, eta tratua

Estatuak behar diren neurri guztiak hartuko ditu edozein helbururekin eta edozein modutara egiten den haurren bahiketa, salmenta, eta tratua eragozteko.

36.- Bestelako esplotazio motak

Estatu kideek haurra babestu egingo dute bere ongizaterako kaltegarriak diren beste esplotazio-mota guztietatik.

37.- Tortura, heriotza-zigorra eta askatasun eza

Ezein haurrek ez du jasango tortura, pena, tratu krudel, anker edo degradatzailerik. Ez da heriotza zigorrik ez betiko kartzelarik ezarriko 18 urtetik beherako haurrek egindako delituengatik. Espetxeratzea azken errekurtsoa izango da eta ahalik eta denbora gutxien iraungo du. Askatasuna kendu zaion haurra gizalegez eta duintasunez tratatuko da. Halaber, bere familiarekin harremanak izateko eta laguntza juridiko edo bestelako laguntza egokia izateko eskubidea du.

38.- Gatazka armatuak

Estatu kideek bere esku dauden neurri guztiak hartuko dituzte 15 urte baino gutxiago dituztenek liskarretan zuzenean parte har ez dezaten. Gatazka armatuetan kaltetutako haurrek babes eta zainketa bereziak jasotzeko eskubidea dute.

39.- Birgizarteratzea

Estatu kideek neurri egoki guztiak hartuko dituzte tortura, gatazka armatuak, utzikeria, tratu txarrak, esplotazioa edo bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo degradatzaileak jasan dituzten haurrak birgizarteratzeko Suspertze eta birgizarteratzea, haurraren osasun, begirune eta duintasunaren aldeko giroan egingo dira.

40.- Adingabekoen justizia-administrazioa

Legeak haustea leporatzen zaion haurra edo delitu baten errudun deklaratu dena duintasunez tratatua izango da, betiere giza eskubideenganako eta besteen oinarrizko askatasunenganako errespetua sendotzeko eran. Delitua egin duen haurrak eskubidea du bere oinarrizko eskubideak errespetatuak izan daitezen, batik bat bidezko prozedura baten berme guztiak betez: defentsa eta laguntza juridikoa izateko eta, hizkuntza ez badaki, interpretari bat izateko eskubidea du.

41.- Indarrean dauden arauen errespetua

Estatuko lege batek edo estatu horretan indarrean dagoen nazioarteko legedia Hitzarmen honetan ageri dena baino onuragarriagoa baldin bada umearentzat, lege horiek aplikatuko dira eta ez Hitzarmena.

42. Hitzarmenaren zabalkundea

Estatu kideek hitz ematen dute Hitzarmenaren printzipio eta arauak jakinaraziko dizkietela modu eraginkor eta egokietan bai haurrei bai eta helduei ere.

Nazio Batuetako Batzar Orokorrak 1989ko azaroaren 20an onartu eta sinatua.